



2021  
66

# EUSKERA

2021  
66

## IKERKETA ZENBAKIA

### IKERKETA ARTIKULUAK

- Anabitarte, Naroa: Elebitasunaren abantaila kognitiboen eztabaida: hainbat go-goeta psikologia kritikoaren ikuspegitik
- Beloki López, Ane: Miren Agur Meaberen poesia: ezaugarriak eta gaiak
- Bereziartua Etxeberria, Garbiñe eta Muguruza Aseginolaza, Beñat: Hitano-erabilitzaile profil berriak sare sozialetan eta tartekako tratamendu-aldaketa adierazkorrak. Kasu baten azterketa
- Larrañaga Arrieta, Josu: *Juan Sebastian Elkano* izen-deiturei buruzko irizpena
- Mentxakatorre Odriozola, Jon: Euskaraz arduratzen direnen hizkuntzaren inguruko usteak
- Odriozola Pereira, Juan Carlos: Izena/aditza kolokazioak euskaraz
- Urteaga, Eguzki: Irakaskuntza elebiduna Ipar Euskal Herrian: ahulguneak eta indarguneak

### OHARRAK

- Zugazaga Martikorena, Lontzo: Erromako meza liburuaren ereduazko hirugarren argitalpenaren euskerazko itzulpena (eta bizkaierazkoa)



EUSKERA



Euskera 2021, 66  
1-300



2021  
66

# EUSKERA

2021  
66

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak  
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca  
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque  
Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language

IKERKETA ZENBAKIA

EUSKERA



# E U S K E R A

IKERKETA ZENBAKIA



2021  
66  
BILBO  
ISSN 0210-1564



# EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo  
Telefonoa: 94 415 81 55 • Faxa: 94 415 81 44  
posta elektronik.: [info@euskaltzaindia.eus](mailto:info@euskaltzaindia.eus) • [webgunea: www.euskaltzaindia.eus](http://webgunea:www.euskaltzaindia.eus)

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da  
Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones  
Cette revue s'échange avec d'autres publications  
This journal can be exchanged for others by agreement

Testuen hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoeekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege Gordailua: BI-1244-58

*Diseinua:* [www.ikeder.es](http://www.ikeder.es)

*Aurreinprimaketa:* Composiciones Rali, S.A.  
Costa, 12-14, 7. ezk. – 48010 Bilbo

*Inprimategia:* G.Z. Printek, S.A.L.

2022ko uztailean inprimatua

## EUSKERA AGERKARIA

*Euskera* Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da eta 1920. urtetik argitaratzen da. Buletinak Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen ditu, eta Ikerketa zenbakiak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu. Ikerketa artikuluak argitaratzeko, Idazketa kontseiluak, anonimotasuna bermatuz, kanpo ebaluatzaileen iritzia jasoko du.

***Euskera* agerkaria honako aurkibide, zerrenda eta datu-baseetan dago:**

- Azkue Bibliotekaren katalogoan
- Euskaltzaindiko webgunean
- Latindex Katalogoan
- Inguma datu-basean
- ISOC datu-basean
- Linguistic Bibliography datu-basean
- Dialnet datu-basean
- Emerging Sources Citation Index-en (ESCI)

**Kalitate adierazleak:**

CIRC (2021): C maila  
MIAR (2020): 8.0 (ICDS)

La revista *Euskera* es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. El boletín recoge los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia mientras que el número de investigación se dedica a publicar artículos de investigación originales, reseñas de libros y similares. Para publicar artículos de investigación, el Consejo de redacción, garantizando el anonimato, recurre a expertos externos.

**La revista *Euskera* está disponible en los siguientes catálogos y bases de datos:**

- Catálogo de la Biblioteca Azkue
- Página web de Euskaltzaindia
- Catálogo Latindex
- Base de datos Inguma
- Base de datos ISOC
- Base de datos Linguistic Bibliography
- Base de datos Dialnet
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

**Indicadores de calidad:**

CIRC (2021): Categoría C  
MIAR (2020): 8.0 (ICDS)

La revue *Euskera* est l'organe officiel de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia ; sa publication a démarré en 1920. Le bulletin présente les travaux et la vie de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia ; le numéro de recherche quant à lui publie des articles concernant des travaux de recherche, des comptes rendus de livres, ou autres sujets similaires. En ce qui concerne la publication d'articles de recherche, le Comité de rédaction s'entoure d'experts extérieurs à qui il garantit l'anonymat.

**La revue *Euskera* est présente sur les catalogues et bases de données suivants :**

- Catalogue de la Bibliothèque Azkue
- Page web d'Euskaltzaindia
- Catalogue Latindex
- Base de données Inguma
- Base de données ISOC
- Base de données Linguistic Bibliography
- Base de données Dialnet
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

**Indicateurs de qualité :**

CIRC (2021) : Catégorie C

MIAR (2020) : 8.0 (ICDS)

*Euskera* is the official journal of The Royal Academy of the Basque Language / Euskaltzaindia and has been published since 1920. The bulletin published each year reflects the Academy's work and academic activities, while the investigation number contains original research articles, book reviews and the like. For the publication of research articles the editorial board seeks the opinions of external evaluators, while preserving their anonymity.

**The *Euskera* journal appears in the following indexes, lists and databases:**

- Catalogue of the Azkue Library
- Website of Euskaltzaindia
- Latindex catalogue
- Inguma database
- ISOC database
- Linguistic Bibliography database
- Dialnet database
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

**Quality indicators:**

CIRC (2021): group C

MIAR (2020): 8.0 (ICDS)

# EUSKALTZAINDIA

## EUSKERA AGERKARIA



### IDAZKETA KONTSEILUA

*Zuzendaria:* ANDRES URRUTIA. Euskaltzaindia. Bilbo

*Teknikariak:* JON ARTZA. Euskaltzaindia. Bilbo

IBON USARRALDE. Euskaltzaindia. Donostia

ADOLFO AREJITA  
*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

JEAN-BAPTISTE COYOS  
*Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona*

JOSEBA ANDONI LAKARRA  
*Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz*

ANDONI SAGARNA  
*Euskaltzaindia. Donostia*

PATXI SALABERRI  
*Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea*

ANA TOLEDO  
*Euskaltzaindia. Donostia*

MIKEL ZALBIDE  
*Euskaltzaindia. Donostia*

### AHOLKU BATZORDEA

MIXEL AURNAGUE  
*CNRS, ENS eta Sorbonne Nouvelle Unibertsitatea.  
Paris*

MIREN AZKARATE  
*Euskaltzaindia. Donostia*

JOXE AZURMENDI  
*Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia*

MARTINE BERTHELOT  
*Perpignango Unibertsitatea. Perpignan*

XARLES BIDEgain  
*Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea.  
Baiona*

JOSU K. BIJUESCA  
*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

GIDOR BILBAO  
*Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz*

IÑAKI CAMINO  
*Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz*

ANA ETXAIDE  
*Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea*

JOSE RAMON ETXEBARRIA  
*Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo*

MAITE ETXENIKE  
*Universitat de València. Valentzia*

PATXI GOENAGA  
*Euskaltzaindia. Gasteiz*

RICARDO GOMEZ  
*Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz*

MANUEL GONZALEZ  
*Real Academia Galega. Coruña*

MARTIN HAASE  
*Bambergo Unibertsitatea. Bamberg*

JOSE IGNAZIO HUALDE  
*Illinoiseko Unibertsitatea. Illinois*

ITZIAR IDIAZABAL  
*Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz*

XABIER ITZAINA  
*CNRS, Centre Emile Durkheim,  
Sciences por Bordeaux. Bordele*

JOSEBA INTXAUSTI  
*Euskaltzaindia. Donostia*

IÑAKI IRAZABALBEITIA  
*Elhuyar Fundazioa. Usturbil*

JACINTO ITURBE  
*Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa*

JABIER KALTZAKORTA  
*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

JON LANDABURU  
*CNRS, Paris. Kolonbiako Kultura Ministerioa*

ALBERTO LOIZATE  
*Basurtuko Ospitalea. Bilbo*

JUAN MADARIAGA  
*Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea*

JOAN MARTÍ  
*Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica.  
Bartzelona*

ENEKO OREGI  
*Eusko Jaurilaritza. Gasteiz*

JON ORTIZ DE URBINA  
*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

ROSA MIREN PAGOLA  
*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

JOSE ANTONIO PASCUAL  
*Real Academia Española. Madril*

TXOMIN PEILLEN  
*Euskaltzaindia. Baiona*

IBON SARASOLA  
*Euskaltzaindia. Donostia*

MIRIAM URKIA  
*UZEI. Donostia*

JUAN JOSE ZUBIRI  
*Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea*

*Aholkulariak:* JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA (*Euskaltzaindia. Bilbo*).





# E U S K E R A

## AURKIBIDEA

### IKERKETA ARTIKULUAK

- [11-40] Elebitasunaren abantaila kognitiboen eztabaida: hainbat go-goeta psikologia kritikoaren ikuspegitik  
ANABITARTE, Naroa
- [41-72] Miren Agur Meaberen poesia: ezaugarriak eta gaiak  
BELOKI LÓPEZ, Ane
- [73-111] Hitano-erabiltzaile profil berriak sare sozialetan eta tartekako tratamendu-aldaketa adierazkorra. Kasu baten azterketa  
BEREZIARTUA ETXEBERRIA, Garbiñe eta MUGURUZA ASEGINOLAZA, Beñat
- [113-140] *Juan Sebastian Elkano* izen-deiturei buruzko irizpena  
LARRAÑAGA ARRIETA, Josu
- [141-163] Euskaraz arduratzen direnen hizkuntzaren inguruko usteak  
MENTXAKATORRE ODRIUZOLA, Jon
- [165-209] Izena/aditza kolokazioak euskaraz  
ODRIUZOLA PEREIRA, Juan Carlos
- [211-246] Irakaskuntza elebiduna Ipar Euskal Herrian: ahulguneak eta indarguneak  
URTEAGA, Eguzki

**OHARRAK**

- [249-269] Erromako meza liburuaren erreduzko hirugarren argitalpenaren euskerazko itzulpena (eta bizkaierazkoa)  
ZUGAZAGA MARTIKORENA, Lontzo

# Ikerketa artikulua



# Elebitasunaren abantaila kognitiboen eztabaida: hainbat gogoeta psikologia kritikoaren ikuspegitik

Debate sobre la ventaja cognitiva del bilingüismo:  
algunas reflexiones desde la perspectiva de la psicología  
crítica

Débat sur l'avantage cognitif du bilinguisme : quelques  
réflexions d'un point de vue de la psychologie critique

Discussion of the cognitive advantages of bilingualism:  
various reflections from the point of view of critical  
psychology

ANABITARTE, Naroa  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
Erizaintza II Saila. Medikuntza eta Erizaintza fakultatea  
University of the Basque Country (UPV / EHU)  
Department of Nursing II. Faculty of Medicine and Nursing  
naroa.anabitarTE@ehu.eus

Noiz jaso: 2021-12-07

Noiz onartua: 2022-04-18

Psikologiaren esparruan mendeetan atzera garamatzen kontrobertsia da psikologia natur zientziatzen edo zientzia historikotzen hartu behar den. Psikologiaren eta hizkuntzaren arteko lotura dela eta, kontrobertsia hori hedatu egiten da hizkuntzak ikergai dituzten jakintza eremuetara. Zientzia kognitiboetan, eztabaida garrantzitsu bat izan da azken urteotan elebitasunari buruz, eta, eztabaida horri jarraituz, artikulu honetan argudiatzen dugu psikologia kritiko edo historikoaren begiradak ate berriak ireki diezazkiokeela euskal soziolinguistikari.

**Gako-hitzak:** Elebitasuna, zientzia kognitiboak, psikologia kritikoa, euskara.

La controversia que se remonta a varios siglos en el campo de la psicología, es si la psicología debe ser considerada una ciencia natural o una ciencia histórica. Debido al vínculo entre la psicología y el lenguaje, esta controversia se extiende a las áreas del conocimiento en las que se pueden estudiar las lenguas. En las ciencias cognitivas ha habido un importante debate en los últimos años sobre el bilingüismo, y siguiendo este debate, argumentamos en este artículo que la mirada de la psicología crítica o histórica puede abrir nuevas puertas a la sociolingüística vasca.

**Palabras clave:** Bilingüismo, ciencias cognitivas, psicología crítica, euskera.

La controverse qui a vu le jour il y a plusieurs siècles en matière de psychologie consiste dans le fait de savoir si la psychologie doit être considérée comme une science naturelle ou comme une science historique. Etant donné le lien existant entre la psychologie et le langage, cette controverse s'étant aux domaines de la connaissance qui permet l'apprentissage des langues. Dans le domaine des sciences cognitives, un important débat a été engagé ces dernières années sur le bilinguisme et, suite à ce débat, nous affirmons que le regard de la psychologie critique ou historique peut ouvrir de nouvelles portes à la sociolinguistique basque.

**Mots-clés :** Bilinguisme, sciences cognitives, psychologie critique, langue basque.

Within the field of psychology there is a secular controversy about whether psychology is a natural or historical science. As psychology and language are commonly interrelated, this controversy has also made its way into research on languages. Based on a recent debate on bilingualism in the area of cognitive sciences, we argue that a critical/historical psychology approach shed new light on basque sociolinguistics.

**Keywords:** Bilingualism, cognitive sciences, critical psychology, Basque.

ANABITARTE, Naroa (2021). "Discussion of the cognitive advantages of bilingualism: various reflections from the point of view of critical psychology", *Euskera*, 2021, 66: 11-40.

## 1. Sarrera

Elebitasuna jakintza-eremu anitzetan jorratu izan da. Denboran atzera eginaz, ohartzen gara gaia aspaldidanik ikertu izan dela eta maiz elebitasunaren eta giza adimenaren arteko lotura izan dutela hainbat ikertzailek ahotan (Arsenian 1937; Darcy 1953). Elebitasunari buruzko ideiak aldakorak izan dira denboran zehar. Ikerketa goiztiarretan, giza adimenaren garapenarentzat oztopo bat izango balitz bezala hartu izan da eleaniztuna izatea (adib. Goodenough 1926; Smith 1923; Yoshioka 1929); iragan mendearen erdialdetik aurrera, berriz, kontrakoa argudiatu izan dute nagusitu izan diren elebitasunaren ideiek (Darcy 1953).

Gaur egun, baloratu egiten da hizkuntza bat baino gehiago ezagutzeko eta erabiltzeko gaitasuna, eta horren adierazle dira haurrek txikitatik hainbat hizkuntzarekin harremana izan dezaten hezkuntza arautuan egiten diren ahaleginak. Euskal Herrian euskarak izan duen bilakaerak badu zerikusia eleaniztasunaren ideiak lortu duen balio positibo horrekin. Esate baterako, pentsa dezakegu duela hamarkada batzuk euskarak hainbat ikas-tetxetan zeukan presentzia eta gaurko egunean daukana lotuak daudela, besteak beste, eleaniztasunaren ideia erabiltzeko.

Idea batzuk nagusitzea, ordea, ez da eztabaida bukatu izanaren seinale, eta horren erakusle da jakintza-eremu bat baino gehiagoko ikerketetan elebitasunaren fenomenoak hartzen duen lekua. Elebitasunaren inguruan egiten diren ikerketak oso ugariak dira; izan ere, galdera asko eta erantzun gutxi ditugu oraindik ere gaiaren inguruan. Zientzia kognitiboen eremuan azken urteotan izandako eztabaida bati jarraituko diogu artikuluaren hurrengo atalean: elebitasunaren abantaila kognitiboen eztabaidari, hain zuzen ere. Psikologia kognitiboaren eta kritikoaren artean gizakiaren gaitasun kognitiboak aztertzeke dauden oinarriko ezberdintasunak hirugarren atalean landu ondoren, psikologiaren ikuspegi historikoaren begiradatik hainbat galdera gehituko dizkiogu elebitasunaren abantaila kognitiboen eztabaidari. Bosgarren atalean euskararen ikerketa soziolinguistikoetan abiapuntuan erabiltzen den giza psikologiaren ideia erreparatzeak duen garrantzia azpimarratzen dugu, eta azkenik, ikerlarien erretorikaren analisia ikerlariari berari ekartzen dion autokritikarekin bukatuko dugu gogoeta lan hau.

## 2. Elebitasunaren abantaila kognitiboen eztabaida

Iragan mendearen erdialdera arte gutxi gorabehera nagusiki pentsatzen zen elebidun izatea oztopoa zela pertsonon garapen kognitiboan. Haurren garapen intelektualerako kaltegarritzat jotzen zen bi hizkuntza jasotzea, eta XX. mende hasierako ikertzaileen esperimenduek ondorio horietara bideratzen zuten (Graham 1926; Jones & Stewart 1951; Manuel 1935). Peal eta Lambertek (1962) gauzatutako ikerketa-lan bat mugarri izan zen ideia horiek atzekoz aurrera jartzeko: elebitasunaren eta inteligentziaren arteko lotura aztertu zuten haurrekin egindako lan batean, eta haiek ateratako ondorioak ordura arte nagusi zen ideien korrontearen kontrakoak ziren; hau da, haur elebidunek abantaila kognitiboak zituztela argudiatu zuten. Horrela, aurreko mendearen bigarren erditik aurrera, elebitasunari buruzko ikuspegi hori aldatu zen, eta elebidun izatea ikuspegi kognitibotik abantailatzat hartzen hasi ziren. Ikerketa askotan ikusi izan dute elebidunen abantaila kognitiboa (Antoniou *et al.* 2015; Bialystok *et al.* 2004; Bosch & Sebastián-Gallés 2001; Byers-Heinlein & Lew-Williams 2013; Cummins 1978), eta horixe da, hain zuzen ere, zientziatik haratago ere gaur egun arte nagusitu den ideia.

Hala ere, elebidun izateak zehazki zer abantaila kognitibo ekartzen dituen aztertzen saiatu direnean, kontrobertsia zabaldu da zientzialarien artean.

Elebitasunaren abantailaren hipotesiaren arabera, pertsona elebidunak bi hizkuntzak “aktibo” ditu garunean beti. Beraz, testuinguruaren arabera hizkuntza batetik bestera aldaketak egitean, hizkuntzetako bat “inhibitu” behar horrek hobekuntza bat ekarriko dio pertsona elebidunari garunaren funtzio exekutiboen gaitasunean; elebakarrak, berriz, ez du egin behar halako ariketarik eta ez omen du ariketa horren onurarik. Hipotesi horren aldekoek, gainera, argudiatzen dute hizkuntzen erabilerarekin loturarik ez duten beste hainbat ariketatan ere ondorio positiboak izango dituztela hizkuntzen erabilerarekin lortutako gaitasun horren hobekuntzak. Esaten dute garunean bi hizkuntzen “kudeaketak” ekartzen dituen egiturazko aldaketek, hizkuntzen erabileratik haratago, modu orokorrean hainbat gaitasun kognitibotan ekartzen dituztela onurak (Bialystok *et al.* 2007; Hilchey & Klein 2011). Ikertzaile horien arabera, mota askotako gaitasun kognitiboetan



ekartzen dituzte hobekuntzak garunean hizkuntza bat baino gehiago erabil-tzeak, hala nola kontrol kognitiboan, beharrezkoa ez den informazioaren inhibizioan eta hainbat memoria motatan.

Funtzio exekutiboetan pertsona elebidunek abantailak dituztela dioten ikerketen ildo beretik, hainbat ikerlarik argudiatu dute beste hainbat prozesutan ere —esate baterako, demenzia edo narriadura kognitibo arinean (*Mild Cognitive Impairment* (MCI) ingelesez)— abantailak ekar ditzakeela elebitasunak (Alladi *et al.* 2013; Bialystok *et al.* 2007; Woumans *et al.* 2015). Ikerlari horien arabera, elebitasunak erreserba kognitiboa elikatzen du, eta, modu horretan, alzheimerren eta halako gaixotasunen garapenetik babes-teko faktore gisan eragiten du (Bialystok 2021; Jafari *et al.* 2021; Kim *et al.* 2019; Liu & Wu 2021). Elebitasunak funtzio neurobabesle horretan eragiten ote duen aztertzeko, elebidun eta elebakarren arteko alderaketak egin izan dira, demenziaren sintomen agerpenean elebidunek atzerapenik erakusten duten aztertuz (Craik *et al.* 2010; Osher *et al.* 2013) eta garuna aztertzeko irudi bidezko teknikak erabiliz (Jafari *et al.* 2021), besteak beste.

Elebitasunak garunaren funtzio exekutiboetan eragiten duen edo ez aztertzeko, hainbat gaitasunetan elebakar eta elebidunen arteko desberdintasunak neurtzen dira. Funtzio exekutiboak gauzatzeko gaitasuna neurtzeko, laborategiko proba mota ugari diseinatu izan da (Diamond 2013), eta hainbat autorek, proba horiek erabiliz pertsona elebidun eta elebakarren arteko aldea aztertu izan dutenean, elebitasunaren abantailaren hipotesia babestu izan dute (Bialystok & Martin 2004; Bialystok *et al.* 2004; Costa *et al.* 2009).

Barac eta bere lankideek (2014), esate baterako, haurrengan elebitasunak duen efektu kognitiboarekin lotutako ehun ikerketa-lan baino gehiago berrikusi dituzte, eta elebitasunaren abantailaren hipotesia berretsi dute (Barac *et al.* 2014).

Azken hamarkadan, ordea, hainbat ikertzaile hipotesi hori egiaztatzen hasi direnean, emaitza kontraesankorrak lortu dira, eta eztabaida piztu da komunitate zientifikoan (Antonioni 2019; Sanchez-Azanza *et al.* 2017).

Elebidunen abantaila kognitiboak zalantzan jarri dituzte autore horiek. Horrela, elebitasunak erreserba kognitiboa sustatzen ote duen aztertu duten

hainbat autoreren ikerlanek ez dute baieztatu hipotesi hori (Calvo *et al.* 2016; Sanders *et al.* 2012; Zahodne *et al.* 2014). Bestalde, Paap eta Greenbergekek (2013), esate baterako, argudiatu dute ez dagoela ebidentziarik baieztatzeko elebitasunaren ondorioz abantailak lortzen direla garunaren funtzio exekutiboak gauzatzeko. Horretarako, funtzio exekutiboen “aktibitzea” beharrezko duten hainbat laborategiko ariketa eginarazi zizkieten beren ikerketan parte hartu zuten pertsona elebidun eta elebkarrei. Lortutako emaitzen inguruko hausnarketa egitean, haien ondorioa izan zen ebidentziarik ez dagoela elebidunen abantailaren hipotesia aldezteko. Berriki egindako hainbat metaanalisisan ere, ez da baieztatu kontrol exekutiboa eskatzen duten ariketetan elebitasunak eraginik duenik (Donnelly *et al.* 2019; Lehtonen *et al.* 2018). Esperimentuetan erreplikaziorik ez lortzeaz gain, elebitasunaren abantailaren eztabaidan ikuspegi kritikoa hartu dutenek hainbat puntu jarri izan dituzte zalantzan: datu estatistikoaren analisien egokitasuna (Paap *et al.* 2014) eta argitalpen akademikoek estatistikoki esanguratsuak diren emaitzak argitaratzeko izaten duten joera (De Bruin & Della Sala 2019), besteak beste.

## 2.1. Kritika kontzeptualak eta baliozkotasun ekologikoa

Kritika horien artean, badira gure ikuspegitik garrantzi berezia hartzen duten batzuk. Kritika kontzeptualak aipatuko ditugu alde batetik, eta baliozkotasun ekologikoaren inguruan hausnartzen dutenak bestetik.

Elebitasunaren abantailaren hipotesia zalantzan jarriz egin diren kritika kontzeptualek auzitan jarri dituzte abantaila horiek erakutsi dituzten ikerketen oinarrian erabiltzen diren eta onartutzat ematen diren ideia batzuk. *Funtzio exekutibo* eta *elebitasun* kontzeptuak izan dira kritika kontzeptual horietako batzuen jomuga (Valian 2015).

Garunaren *funtzio exekutibo* kontzeptua oso kontzeptu zabala dela argudiatu izan dute batzuek. “Aterki” zabal horren barruan zenbait funtzio ezberdinez hitz egiten aritu gaitezkeenez, hainbat ikerketatan erabilitako metodologiaren arteko bateraezintasuna geratzen zaigu agerian. Diamondek *Executive functions* izeneko lanean (2013) adierazten duen moduan, funtzio

exekutiboen kontzeptuaren barruan topatzen dugun aniztasunak galdera ugari ekartzen dizkigu gogora. Esate baterako, giza jokabide pluralaren kontrol inhibitzaileak bata bestetik disoziatu daitezkeen mekanismoak diren edo osotasun bat osatzen ote duten; barne- eta kanpo-“distrakzioak” saihesteko sistema neural berberak parte hartzen duen edo ez; gizakiaren garapenean kontrol inhibitzailearen mekanismo horiek modu bateratuan garatzen diren edo modu bereizian... (Diamond 2013). Galdera horiek guztiek zailtasun jartzen dute hainbat ikerketaren emaitzak alderatzea egokia ote den. Izan ere, laborategiko probetan parte-hartzaileak egin behar dituen ekintzak gauzatzeko (botoi bat edo bestea aukeratu seinale bati erantzunaz, adibidez) beharrezkoak diren garunaren aktibitate inhibitzailea eta kontrol exekutiboa xehetasunez ezagutzen ez direnez, ez dago argi, kritika horien arabera, probak zaku berean sartu daitezkeen edo ez.

Ildo beretik, Paap eta Greenbergek diote (2013) funtzio exekutibo deritzon kontzeptu zabal hori orokorrean cortex prefrontalak parte hartzen duen eta elkarrekin erlazionatutako hainbat osagaien prozesuek osatzen duten multzo bat balitz bezala hartzen dela. Osagai horiek nolabaiteko independentzia funtzional eta anatomikoa ere izan dezaketela onartzen da ikerketa ugarriz. Kontzeptuak nagusiki ikerketetan hartzen duen nolabaiteko esanahi bateratu hori aipatu arren, esanguratsua da Paap eta Greenbergek prozesamendu exekutiboen kontzeptua konstruktua baten moduan definitzen dutela, eta, gainera, konstruktua horren esanahi aldakorrari erreferentzia egiten diote, oraindik ere eboluzionatzen ari den konstruktua bat dela esanda (Paap & Greenberg 2013).

Paap eta Greenbergek funtzio exekutiboen kontzeptuaz aipatzen duten eboluzioaren ideiak agerian uzten digu hitzen eta kontzeptuen esanahien malgutasun eta arbitrariotasuna. Malgutasun horren ondorioz, hainbat ikerketatan kontzeptu bera erabili arren fenomeno ezberdinez aritu daitezkeela azalarazten dute kritika kontzeptualek.

Idea bera agertzen zaigu, elebitasunaren abantailaren eztabaidaren barruan, *elebidun* kontzeptuaz hausnartzen duten lanetan (Kaushanskaya & Prior 2015). Elebitasunaren abantaila kognitiboak aztertzeke parte-hartzaileak sailkatzeko orduan erabili izan diren galdetegiak eta haiek hobetzeko

sortzen diren galdetegi berriak *elebidun* kontzeptuaren komplexutasunaren erakusle dira (De Bruin 2019; De Bruin *et al.* 2017). Funtzio exekutiboen kontzeptuarekin gertatzen denaren antzera, *elebitasun* kontzeptuaren aterkipean esperientzia mota ugari sartzen direla esan izan da, eta, askotan *elebakar* eta *elebidun* kategoriak bi multzo definitutzat hartu izan badira ere, pertsona elebidun bakoitza (eta elebakar bakoitza) desberdina dela argudiatu izan da (De Bruin 2019; Luk & Bialystok 2013). Alde horretatik, pertsona bakoitzak hizkuntzekin duen esperientzia partikularra denez (zer adinetan hasi den hizkuntza horiek erabiltzen; zer momentutan eta zer maiztasunekin erabiltzen duen hizkuntza bakoitza...), pertsona bakoitzaren idiosinkrasia erlazonaturik egon daiteke kontrol exekutiboaren gaitasuna neurtzeko ariketak egiten dituztenean lortutako emaitzekin. Horrela, hainbat ikerketaren arabera, pertsona elebidunek bi hizkuntzak maiz erabiltzen dituztenean bakarrik lortzen dute elebakarrek baino emaitza hobea kontrol exekutiboko ariketetan (Prior & Gollan 2011). Hori dela eta, zenbait iker-tzailek garrantzia eman diote elebitasunaren abantailaren ikerketetan elebidunen ezaugarri partikularrei erreparatzeari (Kaushanskaya & Prior 2015; Tabori *et al.* 2018).

Funtzio exekutiboen kontzeptuaren esanahiaren zehaztugabetasunak eta *elebidun* kontzeptuaren harira argitaratu diren lan horiek guztiek zalantzan jartzen dute ea elebitasunaren abantailak ikertzeko orduan parte hartzen duten pertsona elebidunak kategoria berean sailkatu daitezkeen edo ez eta ea garuneko funtzio berak neurtzen ari garen edo ez. Alde horretatik, kritika hauek garrantzi handia hartzen duten kritikak dira, ikerketa horietan oinarritukoak diren galderak egiten dituztelako.

Bestalde, gai honetan laborategian lortutako emaitzak gure bizitza “naturalera” zabaldu ote daitezkeen ere aztertu izan da, hau da, ikerketa horien baliozkotasun ekologikoari buruzko hausnarketa egin izan da (Blanco-Elorrieta & Pylkkänen 2017). Esate baterako, ikusi izan da elebidunek laborategian hizkuntza batetik bestera aldaketak egitean garuneko hainbat guneren aktibazioa eragiten dutela; baina, esperimentuen diseinuan elebidunen bizitza “naturalean” gertatzen diren egoeretara gehiago gerturatu izan direnean, garunean ikusi den erantzuna ez da berdina izan (Blanco-Elorrieta & Pylkkänen 2017; De Bruin *et al.* 2018). Laborategian lortutako hainbat

emaitza hizkuntzen erabilera naturalean gertatzen diren garuneko prozesuekin alderatu daitezkeen zalantzan jarri dute ikerketa horiek (Blanco-Elo-rrieta & Pylkkänen 2018).

Elebitasunaren eta kognizioaren eztabaida zientifiko honetan, kritika kontzeptualek eta ikerketen baliozkotasun ekologikoa zalantzan jarri duten lanek bestelako hainbat kritikak baino ur sakonagoetara bideratu dute gaia. Hala ere, ondorengo ataletan aztertuko dugun moduan, orain arte aipatu-tako lan horiek guztiek badute oinarrian giza psikologia ulertzeko modu zehatz bat. Psikologia kognitiboaren ikuspegi nagusia dena, hain zuzen ere. Psikologia indibidualista deritzona. Horregatik, kritika horien muinean, metodo zientifikoa erabiliz eta laborategiko esperimenduetan aldagaien manipulazioa hobetuz emaitzak hobetzearen ideia inplizitua topatzen dugu. Ondorengo atalean aztertuko dugun giza psikologiaren naturaren inguruko eztabaidak, ordea, elebitasunaren gaiaren konplexutasunaren dimentsio handiagoetara eramango gaitu.

### 3. Psikologia kognitiboa eta historikoa (kritikoa)

Kritika horiek guztiek elebitasunaren abantaila ikertzeko oinarrian erabili diren hainbat ideia zalantzan jartzen dituzten arren, orain arte aipatzen ari garen ikerketek elebitasunaren fenomeno eta giza psikologia aztertzeko begirada zehatz bat dute oinarrian. Hizkuntz(ar)en gaia ikertzean abiapuntutzat hartzen den giza psikologiaren ideiak erabat baldintzatzen du gaiaren trataera, eta, horregatik, interesgarria da psikologiaren eremuan aspaldidantik datorren kontrobertsiaren (psikologia natur zientziatzat edo zientzia historikotzat hartu behar den) zertzelada batzuk hemen aipatzea.

Kenneth Gergenek, *psikologia kritikoa* deritzon eremuan ekarpen garrantzitsua egin duen autore entzutetsuak, 1973an artikulua idatzi zuen “Social psychology as history (Gizarte-psikologia historia gisa)” izenburupean, eta artikulua oihartzun handia izan zuen psikologiaren munduan (Gergen 1973). Horretan, izenburuak dioen moduan, psikologia zientzia historikoa bat dela argudiatu zuen. Artikulu haren arabera, psikologia ez da historiari at azertu daitezkeen zientzia bat; aitzitik, nagusiki historikoa den ikerketa

arlo baten moduan aurkezten zuen. Artikulu hark hautsak harrotu zituen psikologo sozialen artean; izan ere, psikologia zientzia natural bat zela ukatzea onartezina zen hainbatentzat (Godow 1976; Gottlieb 1977; Schlenker 1974). Gergenek artikulu hori idatzi zuenean, psikologia sozialaren eremuan garrantzia zuten teoriak teoria unibertsalak ziren. Teoria horien arabera, giza naturaren oinarrian ezaugarri unibertsalak daude eta ezaugarri horiek dira garai bakoitzean eta testuinguru bakoitzean giza jokabideak bultzatuko dituztenak. Psikologo esperimentalek laborategiko lanaren bidez giza psikologiaren prozesu unibertsal horiek ezagutzera iristeko konfiantza zuten, eta laborategian kontrolpeko baldintzetan aztertutakoa gizaki guztien prozesu psikologikoak azaltzeko orokortu daitekeen zerbaiten moduan hartzen zuten. Esperimentalistek beren esperimentuetako subjektuak historiarik gabeko figura unibertsalen ordezkari jotzen zituzten. Ikuspegi horren kritika zen Gergenek aurkeztutakoa. Gergenen arabera, giza psikologiaren unibertsaltasunaren argudio hori okerra zen, giza jokabidea sozialki eta historikoki baldintzatutako jokabide moduan hartzen zuelako. Ekintza sozialak historian kokatuta badaude, Gergenen arabera, psikologia sozialak nagusiki historia sozialaren ikerketa sistematikoa izan behar du (Gergen 1973).

Garai bertsuan, Tajfel psikologo ezagunak argudiatu zuen, artikulu batean horrek ere (Tajfel 1981), subjektu esperimentalek beren arauak, sinesmenak, balioak eta, azken batean, beren izate historikoa laborategian ere berekin zituztela; alegia, esperimentu batean parte hartzen duen pertsona ez dela historiarik gabeko pertsona zioen.

Psikologia kritikoa deritzon eremuan aritu diren autoreek gizakia ulertzeko ikuspegi hori hartu dute, eta izendapen anitz hartu dituzten adar askotan erabili da, hala nola *konstruktibismo soziala* delakoan, psikologia *postmodernoa*, psikologia *kritikoa* eta psikologia *diskurtsiboa* delakoan. Giza psikologia, ikuspegi horretatik, beraren eta testuinguruaren arteko elkarrekintzan garatzen da. Elkarrekintza hori bi noranzkotan ulertzen da: norbanakoaren psikologiaren garapenak jatorri soziala du, eta, aldi berean, pertsonak beren testuingurua eraikitzen dute. Hizkuntzak eta, oro har, fenomeno semiotikoek zentralitate handia hartzen dute prozesu honetan. Giza psikologiari begiratzeko modu hori ez da gauza berria. Mendeetan iraun duen kontrobertsia baten segida besterik ez da gaur egun psikologia

kognitiboaren ikuspegi nagusiaren eta kritikoaren artekoa (Billig 2008). Psikologia kognitiboaren ikuspegi dominanteak ez du hartzen pertsonen prozesu psikologikoei begiratzeko ikuspegi hori. Psikologia kognitiboaren eta zientzia kognitiboen ikuspegi nagusiaren arabera, prozesu psikologikoak ulertzeko, giza garun indibidualei erreparatu behar zaie; izan ere, gizakiak bere zentzumenen bidez informazioa jaso eta prozesatu egiten du, eta munduaren errepresentazio bat gelditzen da egituratuta haren garunean. Zientzia kognitiboan ohikoa da gure garunaren funtzionamendua ordenagailuen funtzionamenduaren metaforaren bidez azaltzea. Gure garunak ordenagailuek egiten duten moduan informazioa jaso, sinboloak manipulatu, informazioa biltegitatu, sailkatu eta abar egiten dituela esaten da zientzia kognitiboaren ikuspegi nagusitik, eta ohikoa da metafora hori eta garuneko prozesuak azaltzeko “hizkuntza informatikoa” erabiltzea. Hori dela eta, giza psikologia ulertzeko, norbanakoarengan jarri behar da fokua, eta ikerketa tekniken bidez norbanakoen erantzunak jaso eta interpretatu behar dira. Fenomeno soziologikoak hortik at geratzen dira, beste jakintza-eremu batean landu beharreko zerbait balira bezala hartzen dira, eta, testuinguru sozialak giza psikologian eragina izan dezakeela onartu arren, bereizi daitezkeen bi arlo balira bezala aztertzen dira. Ikuspegi kritikoaren posiziotik, giza gogoaren analisia (edo ingelesezko *mind* delakoaren analisia) ezin da bereizi prozesu sozialen azterketatik. Izan ere, norbanakoaren gogo (ingelesezko *individual mind* deiturikoa) beti mundu sozialaren barruan ulertu beharreko zerbait da. Norbanakoaren garun/gogoak ez ditu *asmatzen* haren hizkuntza, erritual sozialak edo egitura sozialak. Prozesu sozialen baitan kokatzen da, eta haiek baldintzatzen dute. Patroi sozialek gainera, historia bat izaten dute. Hori dela eta, psikologia kritikoaren ikuspegitik, kontzientzia historikoa izatea aldarrikatzen da.

Prozesu psikologikoak aztertzeko, beraz, ez dago ikuspegi bakar bat. Sigmund Kochek (1985), Vygotskyk ere aurretik egin zuen moduan, zalantzan jarri zuen psikologia zientzia bateratu bat zelako “mitoa”, XIX. mendean gailendua. Kochen arabera, denborak erakutsia zuen, ehun urte horietan egindako lanaren bidez, *psikologia* izenburupean egiten ziren ikerketa ugari elkarrekin inolako zerikusirik ez zuten oinarri teoriko eta metodologikoak erabiltzen zituzten lanak zirela (Koch 1985; Vygotsky & Kozulin 1986).

Edozein prozesu psikologiko —elebitasuna eta oro har hizkuntzaren fenomeno, adibidez— oinarri teoriko eta metodologiko ezberdinak hartuz aztertu daitezkeenez, ondorengo atalean beste betaurreko batzuekin begiratu-tuko diogu artikuluan zehar dakargun eztabaidari, elebitasunaren abantailaren inguruko eztabaidari.

#### **4. Elebitasunari buruzko hainbat galdera psikologia kritikoaren ikuspegitik**

Esana dugu, aurreko ataletan, badirela elebitasunak abantaila kognitiboak ekartzen dituela ondorioztatzen duten ikerketak eta baita horiekiko zalantzak eta kritikak aurkezten dituzten lanak ere, horien artean batzuk kontzeptualak direnak eta beste batzuk baliozkotasun ekologikoa zalantzan jartzen dutenak. Lan horien oinarrian, aurretik ere esan dugun moduan, psikologia kognitiboan nagusi den ikuspegi indibidualistaren ideia topatzen dugu. Horrek ez du esan nahi testuingurua kontuan hartzen ez dutenik.

Ikerlan horietako batzuetan, elebitasunaren eta gaitasun kognitiboen arteko lotura aztertzean, elebitasuna gauzatzen den testuinguru soziala aipatzen da. Esate baterako, aurretik esan dugun moduan, elebitasunari buruzko ikerketen historian, elebitasuna gaitasun kognitiboak garatzeko oztopo moduan ikusi izan da aurreko mendearen erdialdera arte gutxi gorabehera, eta, horiei erantzuteko egin ziren kritiken artean, ikerketa horietan parte hartzen zuten haurren estatus sozioekonomikoa kontuan hartzearen garrantzia azpimarratzen zen. Argudiatzen zuten adimena neurtzeko probetan haur elebidun horiek lortutako emaitzak lotuta egon zitezkeela bi hizkuntza hitz egitearekin zerikusirik ez zuten beste faktore sozial batzuekin (Phelps & Filippi 2020).

Beste hainbat ikerketatan ere —laborategiko emaitzen baliozkotasun ekologikoa aztertu izan denean, adibidez—, lehenago ere aipatu dugun moduan, garrantzia eman zaio elebitasuna gauzatzen den testuinguru naturalari, eta laborategian ateratako emaitzen berrinterpretazioa ekarri dute ikerketa horiek (Beatty-Martínez *et al.* 2020; Blanco-Elorrieta & Pylkkänen 2018; Blanco-Elorrieta & Pylkkänen 2017; De Bruin *et al.* 2018).



Alde horretatik, elebitasuna eta kognizioa aztertzeko orduan testuinguruak garrantzia duela modu zabalean onartua dago ikerketa horietan. Giza psikologia eta testuinguruak lotura dutela esatea, hala ere, oso ideia zabalak da, eta ideia horren barruan harreman hori ulertzeko modu asko daude. Giza psikologia ulertzeko bi ikuspegiak, aurreko atalean aipatu direnek, ikertzeko abiapuntu oso ezberdinak eta ikerketa gauzatzeko galdera ezberdinak ekarriko dizkigute. Psikologia kritikoaren ikuspegitik, ikertzen duen subjektua testuinguru soziohistorikoan kokatzeaz gain, ikertzailea bera ere testuinguruan txertatuta ikusten da. Haren galderak, metodoak eta interpretazioak testuinguru zehatz batean egiten direla ulertzen da, eta, ikertzailea errealitate objektibo baten neurketa egiten ari den eta testuingururik ez duen pertsona bat balitz bezala hartu ordez, errealitate zehatz bat eraikitzen ari den pertsona bat balitz bezala aztertuta eta fokua ikertzailearen begiradaren jarrita, galdera berriak zabaltzen zaizkigu ikergaiaren inguruan.

Artikuluaren zehar azertu dugun eztabaidan, elebitasunaren abantailaren eztabaidan, alegia, giza psikologiaren irudi konputazionala jasotzen dugu, non pertsonak (elebidunak) garunean bi hizkuntza dauzkan *almazenatuta*. Batetik bestera aldatzeko, bata edo bestea *inhibitu* behar du. Bi “kode” izango ditu garunean “gordeta”, eta, estimulu batzuen edo besteen arabera (laborategikoak edo naturalak), “kode” batetik bestera aldatuko da.

Burura etortzen zaigun lehen galdera da modu horretan irudikatzen dugun pertsona elebiduna gure garai soziohistorikoaren produktu bat ez ote den. Pertsonok hizkuntzak “kode” gisan “gordeta” dauzkagu garunean edo ideia hori sozialki eraikitako eta onartutako ideia bat da? Giza adimen indibiduala garai soziohistorikoaren partikularitatearen produktutzat badaukagu, pentsa dezakegu ikertzailearen galderetan eta hark onartutzat jotako ideietan garai hori islatzen duten ideiak egongo direla.

Gizakiaren garunean hizkuntzak (bat, bi, edo gehiago) “pakete” edo “kode” baten moduan irudikatzea, zeinak inhibitu egin daitezkeen bat edo bestea erabili behar denean, hizkuntzaz hitz egiteko modu bat da; ikuspegi bat islatzen du, giza garunari eta hizkuntzari buruzko ikuspegi bat. Hizkuntzak horrela irudikatzen baditugu, zentzuzkoa da garunaren kontrol- eta inhibizio-mekanismoekiko loturak aztertzea. Hizkuntzak “kodeak” direla

esatea, ordea, metafora bat da. Eta hizkuntzak gure garunean gordetzen diren “kodetzat” hartuz gauzatzen diren ikerlanak metafora zehatz horrek gidatutako galderen erantzunak bilatzen saiatzen dira (Jansen *et al.* 2021). Baina bada hizkuntzak aztertzeko beste modurik ere. Hizkuntzak prozesu sozialak gauzatzeko baliabide semiotiko jarraitutzat hartuko bagenu, ez dugu zertan pentsatu hizkuntza bat erabiltzeko beste “kodea” inhibititu behar denik. Psikologia diskurtsiboaren eremuan azpimarratzen denez, oinarrizkoa da ikertzaileen praktika diskurtsiboei erreparatzea. Izan ere, ikuspegi horretatik, ikertzaileak ez du alde aurretik “hor” zegoen ikergai objektibo bat deskribatzen; alderantziz, ikertzailearen diskurtsoak eraikitzen du deskribatzen duen ikergaia. Ikertzailearen diskurtsoa, alde horretatik, aurretik dago; deskribatzen duen munduaren osagai bat da (Edwards 1997). Ondorioz, hizkuntzei buruz ditugun ideiek gure galderak baldintzatuko dituzte.

Gizakiok hizkuntzei buruz pentsatu, hitz egin eta eztabaidatzen dugu, eta, hala, konstruktuko ideologikoak dira.

Haurrek, hazten doazen heinean, hizkuntza(k) (hitzak, gramatika...) jasotzeaz gain, hizkuntza horrekiko kontzientzia edo oharmena ere garatzen dute (ingelesez *language awareness* kontzeptua erabiltzen da oharmen horri buruzko ikerketetan). Baina hizkuntza horrekiko edo horiekiko oharmena ez da haurrak bere garapenean modu natural eta neutroan egiten duen prozesu psikologiko unibertsal bat. Alderantziz, hizkuntza bat hitz egiten ari dela jabetzen da testuinguru zehatz batean.

Prozesu hori, beraz, garai bakoitzean eta leku bakoitzean modu batean edo bestean gauzatuko da. Billigek, adibidez, nazionalismoaren etorreratik aurrera nagusitu diren hizkuntz(ar)ekiko ideien eta nazionalismoaren aurretik egon zitezkeen ideien arteko ezberdintasunaz hitz egiten du:

*Humans might have spoken from the dawn of history, with mutually unintelligible ways of talking being developed in different places, but this does not mean that people have thought of themselves as speaking ‘a language’. The concept of ‘a language’ –at least in the sense which appears so banally obvious to ‘us’ –may itself be an invented permanence, developed during the age of the nation-state. (Billig 1995: 30)*

(Gizakiek historiaren hastapenetatik hitz egin zezaketen, lekuan lekukoak eta beste toki batzuetan ulergaitzak ziren hizkerak garatu zituzten. Horrek ez du esan nahi, ordea, jendeak hizkuntza bateko hitzun moduan pentsatu duenik. *Hizkuntza* kontzeptua –guretzat hain arrunt eta agerikoa iruditzen zaigun zentzuan, behintzat– estatu-nazioen garaian garatutako asmakizuna izan daiteke). (Billig 1995: 30). [Egileak itzulia]

Nazio-estatuen garaiak hizkuntzen arteko sailkapen zehatz bat nagusitzea ekarri du; hain justu, zeintzuk sartu daitezkeen “hizkuntza” kategorian eta zeintzuk ez (dialektoak, adibidez). Haugenek, esate baterako (1966), hizkuntzen sailkapenak egiteko orduan irizpide “linguistikoekin” zerikusirik ez zuten irizpideak aipatu zituen (Haugen 1966). Hizkuntzen ideologiaren ikerlarien lanetan, maiz aztertu izan da hizkuntzaren eta nazioaren arteko lotura ideologikoa. Hizkuntzaz gaur egun dugun kontzeptua historiako garai zehatz batekin erlazionaturik dagoela argudiatu izan da (Woolard 1998).

Aurretik esan dugun moduan, haurrek beren testuinguruan hizkuntzen oharmena garatzen doazenean, oharmen hori ez da *kode* zehatzaren fonologiara edo gramatikara soilik mugatzen; hizkuntza horiei buruzko ideiak jasotzen dituzte: zein den hizkuntza bat eta zein ez; non eta noiz hitz egin behar den hizkuntza bat eta noiz ez den hitz egin behar. Hizkuntzen arteko hierarkien ideiak ere jasotzen dituzte. Hizkuntzei buruzko diskurtsoak jasotzen dituzte.

Hori dela eta, hizkuntzei buruz ari bagara, ideologiei buruz ari gara (Schieffelin *et al.* 1998). Hizkuntzei buruzko ideologiak daude, eta, gizakiok ideologia horien itsasoan murgilduta hazten garenez, gure testuinguru soziohistorikoko ideia partikularrek baldintzatzen dute gure psikologia. Giza pentsamenduaren eta kognizioaren jatorria testuinguru sozialean kokatzen da ikuspegi horretatik (Moscovici 1984), eta, beraz, giza psikologia aztertzeke orduan testuinguru ideologikoaren analisisa oinarritzko bihurtzen da.

Elebitasunaren prozesu psikologikoa aztertu nahi duen ikertzaileak psikologiaren ikuspegi historiko hori hartzea gizakiaren egoera mentala eta mundu-ikuskerara zirkunstantzia historiko batzuek baldintzatutakoak direla

onartzea baino haratago doan zerbait da. Esaten ari garen moduan, psikologiaren izaera historikoaren oharrena psikologiari, diziplinari berari aplikatu beharreko zerbait da (Gergen 1997). Ikertzailea bera bere buruarekiko erreflexibo izatea eta bere begirada zehatzaz gogoeta egitea oinarrizko bihurtzen da ikuspegi horretatik (Gergen & Graumann 1996).

Psikologiaren ikuspegi historikoaren begirada bereganatzean, elebitasunaren abantailen eztabaidarako galdera berriak egingo ditu ikertzaileak. Hona begirada horretatik egindako bi galdera potolo: ba ote du zentzurik elebitasuna muga zehatzak dituzten bi kode linguistiko moduan aztertzeak (Heller 2007)?, eta, erantzun unibertsalak topatu al ditzakegu elebitasuna eta gizakiaren bestelako gaitasun soziokognitiboak aztertzean oro har?

Giza psikologiaren jatorri sozialaren ikuspegia erabiltzen duten autoreen artean, Vygotskyren lanek oihartzun handia izan dute azken urteotan. Gizakiaren maila altuko gaitasun kognitiboen garapenean hizkuntza bezalako “tresna” edo “baliabide” kulturalen garrantzia azpimarratu dute haren jarraitzaileek. Gizakiaren maila altuko gaitasun kognitiboen jatorri sozialak eta funtzio kognitibo horien garapenean erabiltzen diren tresna semiotikoek zentralitatea hartzen dute autore horien lanetan (Wertsch 1985). Vygotskyk zioen pertsonen psikologiaren garapenean aldaketa kualitatiboak gertatzen direla jatorri soziala duten tresna edo baliabide kognitiboak bereganatzean (Vygotsky 1978). Ikuspegi horretatik, beraz, elebitasunak abantaila kognitiboak ekar ditzakeelako ideia ere ildo horretan ulertu daiteke. Baliabide semiotiko horiek “blokeka” (hizkuntzak sistema mugatu moduan ulertuta) edo modu jarraituan ulertu behar ote diren da gakoa. Vygotskyren psikologia sozio-historikoaren eta psikologia kognitiboaren arteko ikuspegiak bateraezinak diren edo zubiak eraiki daitezkeen ere galdera garrantzitsua da (Frawley 2013).

Psikologia kognitiboaren eta historikoaren arteko zubiak eraikitzen saiatzen bagara, pentsa dezakegu kritika kontzeptualetan *elebitasun* kontzeptuaren inguruan agertu diren galdera batzuek lotura izan dezaketela aipatzen ari garen honekin guztiarekin. Esate baterako, aipatu izan da bi hizkuntzaren ezagutza- eta erabilera-mailak zerikusia izan dezakeela pertsonak elebidun-kategoria berean sailkatzeko, eta ikerketa batzuetan defendatu da hiz-

kuntzak ondo jakiteak abantaila kognitiboak ekar ditzakeela baina hola-hola jakiteak ez duela ekartzen elebarrerekiko abantailarik (Singh & Mishra 2012). Hizkuntzak, bereizirik ikusi beharrean, pertsonak baliabide semiotikoak oro har bereganatzeak ekar ditzakeen abantaila kognitiboak balira bezala har daitezke emaitza horiek.

Esaten ari garen guztia euskararekin lotutako hainbat adibide zehatzekin argitzeko, galdera bat izango litzateke, adibidez, euskalkiak ere “kodetzat” jo behar diren edo ez. Euskalkiak ezin badira “kodetzat” jo, zentzurik ote du zenbait hizkuntzaren arteko elebitasunak kontsideratzeak? Adibidez, elebitasunaren abantaila kognitiboak aztertzeke parte-hartzaileen artean sartu ote daitezkeen norvegiera eta suediera hitz egiten dituzten pertsona elebidunak edota katalana eta espainiera hitz egiten dituztenak. Hizkuntzen sailkapena aurretik aipatu dugun moduan ez bada irizpide linguistiko soil-etara mugatzen, zeren arabera jarri ote daiteke abantaila kognitiboak sortzen ote diren jakiteko muga hiztun elebidunak aukeratzean? Gure garunak “blokeka” ulertzen ote ditu Vygotskyk aipatzen dituen jauzi kualitatiboak egiteko bereganatzen dituen baliabide semiotikoak? Hizkuntzak diren edo ez garaiko ideologiaren arabera erabakitzen bada ere, gure garunean, gaur egun ditugun ideia horiek eragina izango ote dute batean “kode” moduan prozesatzeko? Nola azaldu euskararen testuinguruan maiz gertatzen diren hainbat fenomeno? Esate baterako, euskarazko hitzak erabiliz erdal egitura gramatikalen erabilpena egiten denean zein “kode” ote da une horretan garuna erabiltzen ari dena?

Laborategiko esperimntuen emaitzak testuinguru elebidun naturaletara zabaltzean ikertzaileek topatzen dituzten mugak ere (Blanco-Elorrieta & Pylkkänen 2018) psikologiaren ikuspegi historikoaren begiradatik aztertzean ate berriak irekitzen dira. Alderagarriak ote dira laborategian erabiltzen diren hainbat proba egiteko garunean gertatzen diren “inhibitze” fenomenoak eta baliabide semiotikoen erabilera sozialean garunean gertatuko diren fenomenoak? Laborategian ikertzaileek jarritako arau batzuen arabera eta pantaila baten ezker aldean edo eskuinaldean agertzen den kolorearen arabera pertsona batek ezker edo eskuinean dituen botoiak zapaltzean, garunean gertatuko diren prozesuak konpara ote daitezke intrintsekoki prozesu sozialak diren hizkuntz fenomenoekin?

Testuinguru naturalean hizkuntz aldaketak (“kode” moduan ulertuta) botoi ezberdinak zapaltzeak behar dituen funtzio exekutibo berak izan ditzakeela pentsatzeak mugak izan ditzake. Horrekin ez dugu esan nahi bi aktibitateetan hainbat mekanismo neuronal antzekoak izan daitezkeenik, baina, hizkuntzak beren testuinguru ideologikoan kokatutako prozesu eta aktibitate sozialtzat jotzen baditugu, ohartzen gara pertsona batek baliabide semiotiko zehatz batzuk erabiltzea edo ez erabiltzea aukeratzean hainbat faktore sozial eragiten ari direla, laborategian botoi koloredun bat aukeratzean gertatzen ez direnak, eta faktore horiek pertsonaren garapen kognitiboan eragina izan dezaketen faktoreak direla. Adibidez, euskaldun bat denda batera sartzean ohartzen bada dendariak euskaraz ez dakiela eta elkar ulertzeko modua hizkuntzaz aldatzea dela, hainbat aukera izango ditu pertsona euskaldun horrek. Aukera horien artean, erdar(et)ara pasako lirartekeen bi pertsonaren garunean gertatu dena ere ezingo genuke sartu zaku berean. Hizkuntzaren erabilera edo baliabide semiotikoen erabilera, izan ere, testuinguru zehatz batean pertsonak hartzen duten posizio erretoriko bat da. Pertsona bakoitzak, bere testuinguru ideologikoan gertatu dituen hizkuntzekiko ideien arabera, pentsamendu oso ezberdinak izango ditu. Kanpo-begiradatik erantzuna berbera izan arren (erdara erabiltzea), zaila da pentsatzea pertsona bakoitzak bere barnean izan dituen pentsamenduak, argudio eta kontra-argudioetan oinarritutakoak (Billig 1987), prozesu psikologiko berberak eta gaitasun kognitibo berberak elika ditzakeela.

Hori dela eta, galdera da ea elebitasunaren fenomenoaz aztertzean erabiltzen diren oinarritzko ideiak egokiak ote diren edo ez, ea beste begirada batek fenomenoaz ulertzen lagun diezagukeen edo ez. Azken batean, oinarri-oinarrian dagoen galdera da ea benetan egokia ote den edo ez garunean elebitasunaren fenomenoaz aztertzea prozesu psikologiko unibertsalen bila. Maila altuko gaitasun kognitiboen garapena ulertzeko faktore bakarraren ikerketaren mugek eta haren azalpenen bilaketen mugek “argazki osoa” ulertzeko zekarten ezintasuna aipatu zuen Vygotskyk. Giza psikologiaren garapena ulertzeko, hark zioenez, ezinbestekoa zen dimentsio ugari kontuan hartzea, eta oinarritzko gaitasun kognitiboen eta maila altuko gaitasun kognitiboen bereizketa azpimarratu zuen (Vygotsky 1978). Jatorri soziala duten

maila altuko gaitasun kognitiboen eta oinarrizkoak diren bestelako gaitasun kognitiboen ikerketak gauzatzeko, baliagarriak zaizkigu gaurko garaian era bateko eta besteko diziplinek bideratzen dituzten ikerketak. Haien arteko zubiak lantzea, elebitasunaren eta halako fenomenoen ikerketan, lagungarri izan daiteke galdera eta erantzun berriak izateko.

## 5. Giza psikologia eta euskal soziolinguistika

Artikuluaren zehar aztertzen ari garen eztabaida (elebitasunaren abantailaren gainekoa) eta harekin lotuta aipatu dugun kontrobertsia (giza psikologiaren ikuspegi ezberdinen artekoa) ez dira zientzia kognitiboen eta psikologiaren arloetan interesa duten gaiak bakarrik: eztabaida horien azterketak gure bizitzaren esparru askotan hartzen du garrantzia. Askotan oharkabean bada ere, hainbat gaierik hartzen ditugun posizioek eta erabakiek, implizituki, giza psikologia ulertzeko begirada bat edo beste izaten dute abiapuntuan, eta artikuluaren zehar azpimarratu nahi dugun moduan, hizkuntzekin erlazonatutako ikerketen muinean giza psikologia ulertzeko begirada zehatz batekin egiten dugu topo.

Renoko Unibertsitateko irakasle eta ikerlari Larraitz Ariznabarretak argudiatzen du, *Notes on Basque Culture* (2019) liburuan, euskal soziolinguistikaren modeloa hainbat printzipioen gainean egituratzen dela. Printzipio horien artean, hizkuntzarekiko jarrera positiboaren gaia aipatzen du:

*In lieu of full linguistic proficiency, the mere positive attitude towards the language, and the functional use of some basic, modest structures is deemed enough by most. Significantly, the regional administration's campaign to encourage the use of Basque among non-speakers in 2008 literally stated: "A little bit means a lot". (Ariznabarreta 2019: 95)*

(Gaitasun linguistiko osoaren ordez, hizkuntzarekiko jarrera positibo hutsa eta oinarrizko egitura xume batzuen erabilera funtzionala nahikotzat jotzen dituzte gehienek. Esanguratsua da Administrazioak euskararen erabilera bultzatzeko 2008an egindako kanpainaren leloa "Pixka bat es mucho" izatea). (Ariznabarreta 2019: 95). [Egileak itzulua]

Ariznabarretak argudiatzen du jarreretan oinarritutako ikuspegi horretan norbanakoaren motibazioak zentralitatea hartzen duela, eta esaten du norbanakoaren jarreraren oinarrian dauden motibazioak barne-indar psikologikoen moduan hartzen direla. Alde horretatik, norbanakoa testuinguru soziohistorikotik eta, beraz, ideologikotik bereizia ikusten da. Giza psikologiaren ikuspegi indibidualistaren begirada izango litzateke hori. Gaia modu horretan aztertzeak hainbat galdera jartzen ditu mahai gainean, euskal soziolinguistikian maiz agertzen direnak. Funtsean errepikatzen den galdera da ea zein izango ote den pertsonak euskara ikasi edo erabiltzera eramango dituen indar akuilagarria.

Fenomeno linguistikoa aztertzeko begirada horretan, planteamendutik at gelditzen dira hizkuntz ideologiak eta harekin lotutako giza psikologiaren jatorri soziala. Psikologia kritikoaren eremuan egin diren ekarpenak interesgarriak izan daitezke gure eguneroko bizitzan euskararekin lotutako kezken inguruan hausnarketa egiteko. Hizkuntza ondare moduan kontzeptualizatzen da askotan. Hizkuntza testuinguru soziohistorikotik bereizita ikusten badugu eta ideia horri helduz pertsonen psikologiaren ikuspegi indibidualista hartzen badugu, hizkuntza edo baliabide semiotikoak erauzi egiten ditugu beren errealitate partikularretik. Abstrakzio bihurtzen ditugu. Ba al da testuinguru sozialik gabeko hizkuntzarik? Hizkuntza-ideologietan kokatu gabeko hizkuntzarik?

Elebitasunaren gaiak hezkuntza arautuaren esparruan ematen du zeresan handia. Aurreko ataletan aipatu dugun hizkuntz oharmenaren kontzeptua askotan agertzen da hezkuntzarekin lotutako ikerketetan. Hezkuntza-eredu eleaniztunarekin lotutako hainbat lanetan, haur elebidun edo eleaniztunetan hizkuntz oharmenaren prozesua nola garatzen den aztertzen da (Arnberg & Arnberg 1992). Gaurko munduan, nazio-estatuak hezkuntzan hizkuntza-aniztasuna nola jorratzen duten ere ikergai garrantzitsua da (Liddicoat & Taylor-Leach 2015). Ikerketa horiek guztiak gaurkotasun handiko gaiak dira euskararen testuinguruan. Euskarak hezkuntza arautuan duen ibilbidean etengabeko kezka izan da eta da zer modutan jorratu behar den hizkuntza-aniztasuna. Testuinguru linguistiko ezberdinetatik datozen haurrak euskara zer modutan barneratuko duten (murgiltze-ereduan edo modu bereizian), zer adinetan den egokiena beste hizkuntza batzuekin ha-



rremanetan hastea, nola lortu hizkuntza jakin baten erabilera testuinguru jakin batzuetan... horiek denak eztabaidagaiak dira gaur egun.

Galdera horiei guztiei erantzuteko, jakintza-eremu batetik baino gehiagotatik jasotzen ari garen informazioa baliagarria izan daiteke. Elebitasunaren abantaila kognitiboaren eztabaidak bete-betean ukitzen du, hain justu, hezkuntzaren gaia. Askotan jakintzat ematen diren hainbat “egia” zalantzan jartzen baitira ikerketa horien ur sakonetan murgiltzen garenean. “Zertarako/zergatik nahi ditugu haur/pertsona elebidunak (edo eleaniztunak)?”: oinarriko galdera honen modukoak azaleratzen dira berehala, eta, erantzunak errazak zirelakoan, galdera sorta batek jarraitzen dio lehen galdera horri.

## 6. Azken hitzak

Elebitasuna eta baita eleaniztasuna ere sarritan erabiltzen diren kontzeptuak dira, eta, asko zabaltzen diren kontzeptuekin maiz gertatu ohi den moduan, joera izaten dugu pentsatzeko erabiltzean azalpenik behar ez duten kontzeptuak direla. Artikulu honetan, ordea, elebitasunaren gaiaren konplexutasuna pixka bat ikusarazten saiatu gara, jakintza-arloetan gaiari buruz egin diren hainbat hausnarketa bateratuz.

Zientzia kognitiboetan azken urteotan izan den eztabaida garrantzitsu bati jarraitu diogu: elebitasunaren abantailaren eztabaidari, hain zuzen ere. Aipatu dugun moduan, elebidun izateak pertsonari abantaila kognitiboak ekartzen ote dizkion da kontrobertsia zientifiko horren muinean dagoen galdera. Eztabaida horretan, hainbat ikerlarik elebitasunaren abantailaren hipotesiari babesa ematen diote, eta beste batzuek zalantzan jarri edo ukatu egiten dute elebitasunaren abantaila hori. Metodo zientifiko “egia objektiboak” bilatzeko erabili beharreko metodotzat hartuko bagenu, eztabaida horretan laborategiko teknikak finduz eta zehaztuz elebitasunaren inguruko erantzunetara iristen saiatuko ginateke. Baina, horren ordez, nahiago izan dugu zientziaren erretorikara gerturatu, eta giza psikologiaren ikerketen oinarrian dagoen kontrobertsia historikoa hizkuntzaren eta elebitasunaren azterketara ekarri dugu.

Iragan mendearen erdialdetik aurrera, “berpiztea” izan du erretorikak, greziar klasikoaren garaietan garrantzi handia izandako diziplinak. *Rhetorical Turn* izeneko liburuaren hitzaurrean aipatzen den moduan, “ezin dugu erretorikatik ihes egin” (Simons 1990). Ikerketa mota guztietan topatzen dugu erretorika. Erretorikaren berpizte horrek agerian utzi du zientzia mota guztiak testuinguru sozioideologiko jakin batean garatu direla eta garatzen direla gaur ere eta horrek zientziaren objektibotasunaren ideiatik urrundu gaitu (Simons 1990).

Bide horrek eraman gaitu psikologia kognitiboan nagusi den giza psikologiaren ideia aztertzea eta baita psikologia kritikoa deritzon ikuspegitik erabiltzen den giza psikologiaren ideiak aztertzea ere. Gizakiaren prozesu psikologikoak eta gaitasun kognitiboak maila indibidualeko fenomenotzat hartu behar diren edo testuinguru soziohistorikoaren produktutzat hartu behar diren da bi ikuspegi arteko ezberdintasun nagusia. Hartzen den abiapuntuak ikerketaren bidea baldintzatuko du: erabiliko diren metodoak, aterako diren emaitzak eta emaitzen interpretazioa. Abiapuntu bakoitza posizio erretoriko bat da, ikerzaileak testuinguru ideologiko sozial zehatz honetan hartzen duen posizioa.

Psikologia kritikoa ikuspegi hartzean, errealitate objektiboak eta egia objektiboak ukatzen diren pentsamendu postmoderno horren ikuspuntutik, deslegitimatatu egiten dira metanarratibak eta pentsamendu-sistema globalak. Ez dago oinarrikerik errealitate objektibo eta unibertsal bat defendatzeko. Ez dago interpretaziorik gabeko daturik, eta, beraz, ezagutza mota guztiak testuinguru soziohistoriko zehatz batean osatutako interpretazioak dira.

Ikuspegi postmoderno, erretoriko edo konstrukzionista horrek gure hitzak hausnartzera eramaten gaitu. Eta, elebitasunaren abantailak (edo abantailarik ezak) aztertzeko psikologia kognitiboaren oinarrikerikoa ideia onartuak kritikatzeko, ez gara “egia objektibo” batera iritsi. Testuinguruan kokatutako pertsonen prozesu psikologikoak ingurune sozialaren produktutzat jotzea, eta psikologia Gergenek proposatu zuen moduan historiatic bereizezina den jakintza-eremu bat balitz bezala hartzea, gure garaietan arrotza ez den posizio erretoriko bat da. Ikuspegi hori definitzeko *postmoderno* hitza erabili arren, ez dugu ezer berririk esaten, eta *modernitatean* eta baita lehenagotik ere, mendeetan zehar luzatzen ari den kontrobertsia ideologiko ba-

tean posizioa hartu dugu, besterik gabe. Ideiek beren bidea egiten dute, zabaldu, indartu eta ahultzen dira, eta gaur egun (zientzia sozialetan nagusiki) indar hartzen ari den ikuspegi *postmoderno* honek indar pixka bat hartu izanaren erakusle da gure posizioa gai honetan. Ideiek edo ideologiek indar hartzea gauza bat da, baina “egia” izatea, beste bat.

Horregatik, elebitasuna aztertzeko posizio erretorikoaren jakitun izateak eta gogoeta egiteak etenik ez duen eztabaida batean sartzen gaitu. Ikuspegi hori hartu duten autoreek azaleratu dute berorren arazoa: nola salatu injustizia sozialak, alde bateko eta besteko argudioak erretorikoki eman badaitezke eta bat ez bada bestea baino “egiagoa”?; nola, *injustizia* kontzeptua bera kontzeptu erretoriko bat baldin bada? Gai honen inguruko hausnarketek hainbat autoreren argudioetara eta pentsamenduetara garamatzate, eta emaitza bakar batera iristeko zailtasunak gehitzen zaizkigu (Billig & Simons 1994).

Elebitasunaren inguruko hausnarketa honetatik, gu ere ez gara, noski, emaitza bakar batera iritsi. Ez dugu egiarik aurkitu. Baina egia ez aurkitzea ez da oztopo gaiaren inguruko eztabaidaren hariari eutsi eta ekarpena egiten saiatzeko. Elebitasunak abantaila kognitiborik ekartzen duen edo ez? Ezin diogu erantzun bakar bat eman galdera honi. Baina erantzun baino galdera gehiago ekarri dizkigun ariketa honek puntu asko erakutsi dizkigu elebitasunaren inguruko eztabaidan txertatzeko. Puntu horietatik tiraka galdera gehiago aterako dira. Eta, etengabeko prozesu horretan, galderaz galdera egingo dugu bidea, elebitasunaren eztabaidan sakonduz, hau da, euskaldunon eguneroko bizitzan hainbeste eragin duen eztabaidan sakonduz. Jakintza-arloen arteko elkarlana inoiz baino gehiago aipatzen den garai hauetan eta paradoxikoki haien arteko mugak inoiz baino zorrotzago markatuak ikusten ditugun garai hauetan, uste dugu diziplinen arteko paretak haustek bidegurutze berriak ekarriko dizkigula. Bidegurutze bakoitzean hartzen dugun noranzkoak eraikiko du gure errealitate linguistikoa.

## Bibliografia

ALLADI, Suvarna, BAK, Thomas H., DUGGIRALA, Vasanta, SURAMPUDI, Bapiraju, SHAILAJA, Mekala, SHUKIA, Anuj K., CHAUDURI, Jaydip R., KAUL, Subhash (2013).

«Bilingualism delays age at onset of dementia, independent of education and immigration status», *Neurology* 81 (22) (2013): 1938-1944.

ANTONIOU, Mark (2019). «The advantages of bilingualism debate», *Annual Review of Linguistics* 5 (2019): 1.1-1.21.

———, LIANG, Eric, ETTLINGER, Mark, WONG, Patrick C. M. (2015). «The bilingual advantage in phonetic learning», *Bilingualism: Language and Cognition* 18 (2015): 683-695.

ARIZNABARRETA, Larraitz (2019). *Notes on basque culture: The Aftermath of Epics*. Uruguay: Biblioteca Euskal Erria. Universidad CLAEH.

ARNBERG, Lenore N., ARNBERG, Peter W. (1992). «Language awareness and language separation», *Cognitive Processing in Bilinguals* 83 (1992): 475-500.

ARSENIAN, Seth (1937). *Bilingualism and mental development*. NY, USA: AMS Press.

BARAC, Raluca, BIALYSTOK, Ellen, CASTRO, Dina C., SÁNCHEZ, Marta (2014). «The cognitive development of young dual language learners: A critical review», *Early Child Research Quarterly* 29 (2014): 699-714.

BEATTY-MARTÍNEZ, Anne L., NAVARRO-TORRES, Christian A., DUSSIAS, Paola E., BAJO, María T., GUZZARDO, Rosa E., KROLL, Judith F. (2020). «Interactional context mediates the consequences of bilingualism for language and cognition», *Journal of Experimental Psychology: Learning, Memory and Cognition* 46 (6) (2020): 1022-1047.

BIALYSTOK, Ellen (2021). «Bilingualism: Pathway to cognitive reserve», *Trends in cognitive sciences* 25 (5) (2021): 355-364.

———, CRAIK, Fergus I. M., FREEDMAN, Morris (2007). «Bilingualism as a protection against the onset of symptoms of dementia», *Neuropsychologia* 45 (2) (2007): 459-464.

———, CRAIK, Fergus I. M., KLEIN, Raymond, VISWANATHAN, Mythili (2004). «Bilingualism, aging, and cognitive control: Evidence from the Simon task», *Psychology and Aging* 19 (2004): 290-303.

———, MARTIN, Michelle M. (2004). «Attention and inhibition in bilingual children: Evidence from the dimensional change card sort task», *Developmental Science* 7 (2004): 325-339.

BILLIG, Michael (1987). *Arguing and thinking. A rhetorical approach to social psychology*. Great Britain: Maison des Sciences de l'Homme and Cambridge University Press.

———, (1995). *Banal nationalism*. London: SAGE Publications.

———, (2008). *The hidden roots of critical psychology*. London: SAGE Publications.

———, SIMONS, Herbert W. (1994). «Introduction», in *After postmodernism*. London: SAGE Publications: 1-11.

BLANCO-ELORRIETA, Esti, PYLKKÄNEN, Liina (2017). «Bilingual language switching in the lab vs in the wild: The spatio-temporal dynamics of adaptive language control», *Journal of Neuroscience* 37 (2017): 9.022-9.036.

———, (2018). «Ecological validity in bilingualism research and the bilingual advantage», *Trends in Cognitive Sciences* 22 (12) (2018): 1.117-1.126.

BOSCH, Laura, SEBASTIÁN-GALLÉS, Núria (2001). «Evidence of early language discrimination abilities in infants from bilingual environments», *Infancy* 2(1) (2001): 29-49.

BYERS-HEINLEIN, Krista, & LEW-WILLIAMS, Casey (2013). «Bilingualism in the early years: What the science says», *Learning Landscapes* 7 (1) (2013): 95-112.

CALVO, Noelia, GARCÍA, Adolfo M., MANOILOFF, Laura, IBÁÑEZ, Agustín (2016). «Bilingualism and cognitive reserve: a critical overview and a plea for methodological innovations», *Frontiers in aging neuroscience* 7 (249) (2016): 1-17.

COSTA, Albert, HERNÁNDEZ, Mireia, COSTA-FAIDELLA, Jordi, SEBASTIÁN-GALLÉS, Núria (2009). «On the bilingual advantage in conflict processing: Now you see it, now you don't», *Cognition* 113 (2009): 135-149.

CRAIK, Fergus I.M., BIALYSTOK, Ellen, FREEDMAN, Morris (2010). «Delaying the onset of Alzheimer disease», *Neurology* 75 (19) (2010): 1.726-1.729.

CUMMINS, James (1978). «Bilingualism and the development of metalinguistic awareness», *Journal of Cross-Cultural Psychology* 9 (1978): 131-149.

DARCY, Natalie T. (1953). «A review of the literature on the effects of bilingualism upon the measurement of intelligence», *The Journal of Genetic Psychology* 82 (1953): 21-57.

DE BRUIN, Angela (2019). «Not all bilinguals are the same: A call for more detailed assessments and descriptions of bilingual experiences», *Behavioral Sciences* 9 (3) (2019): 33.

———, CARREIRAS, Manuel, DUÑABEITIA, Jon A. (2017). «The BEST dataset of language proficiency», *Frontiers in Psychology* 8 (2017): 522.

———, DELLA SALA, Sergio (2019). «Publication biases and the decline effect», in *The handbook of the neuroscience of multilingualism*. USA: John Wiley & Sons Ltd: 736-753.

———, SAMUEL, Arthur G., DUÑABEITIA, Jon A. (2018). «Voluntary language switching: When and why do bilinguals switch between their languages?», *Journal of Memory and Language* 103 (2018): 28-43.

DIAMOND, Adele (2013). «Executive functions», *Annual Review of Psychology* 64 (2013): 135-168.

DONNELLY, Seamus, BROOKS, Patricia J., HOMER, Bruce D. (2019). «Is there a bilingual advantage on interference-control tasks? A multiverse meta-analysis of global reaction time and interference cost», *Psychonomic Bulletin & Review* 26 (2019): 1.122-1.147.

EDWARDS, Derek (1997). *Discourse and cognition*. London: SAGE Publications.

FRAWLEY, William (2013). *Vygotsky and cognitive science. Language and the unification of the social and computational mind*. London: Harvard University Press.

GERGEN, Kenneth J. (1973). «Social psychology as history», *Journal of Personality and Social Psychology* 26 (2) (1973): 309-320.

———, (1997). «Social psychology as social construction: The emerging vision», in *The message of social psychology*. Oxford: Blackwell: 113-128.

———, GRAUMANN, Carl F. (1996). «Psychological discourse in historical context: An introduction», in *Historical dimensions of psychological discourse*. Cambridge: Cambridge university press: 1-13.

GODOW, Rew A. (1976). «Social psychology as both science and history», *Personality and Social Psychology Bulletin* 2 (1976): 421-427.

GOODENOUGH, Florence L. (1926). «Racial differences in the intelligence of school children», *Journal of Experimental Psychology* 9 (1926): 388-397.

GOTTLIEB, Avi (1977). «Social psychology as history or science: An addendum», *Personality and Social Psychology Bulletin* 3 (1977): 207-210.

GRAHAM, Virginia T. (1926). «The intelligence of jewish and italian children in the habit clinics of the massachusetts division of mental hygiene», *The Journal of Abnormal and Social Psychology* 20 (4) (1926): 371-376.

HAUGEN, Einar (1966). «Dialect, language, nation», *American Anthropologist* 68 (4) (1966): 922-935.

HELLER, Monica (2007). «Bilingualism as ideology and practice», in *Bilingualism: A social approach*. London: Palgrave, Macmillan: 1-22.

HILCHEY, Matthew D., KLEIN, Raymond M. (2011). «Are there bilingual advantages on nonlinguistic interference tasks? Implications for the plasticity of executive control processes», *Psychonomic Bulletin & Review* 18 (2011): 625-658.

JAFARI, Zahra, PERANI, Daniela, KOLB, Bryan E., MOHAJERANI, Majid H. (2021). «Bilingual experience and intrinsic functional connectivity in adults, aging, and Alzheimer's disease», *Annals of the New York Academy of Sciences* 1505 (2021): 8-22.

JANSEN, Silke, HIGUERA DEL MORAL, Sonja, BARZEN, Jessica S., REIMANN, Pia, OPOLKA, Markus (2021). *Demystifying Bilingualism. How metaphor guides research towards mythification*. Cham, Switzerland: Palgrave, Macmillan.

JONES, William R., STEWART, William A. C. (1951). «Bilingualism and verbal intelligence», *British Journal of Mathematical and Statistical Psychology* 4 (1) (1951): 3-8.

KAUSHANSKAYA, Margarita, PRIOR, Anat (2015). «Variability in the effects of bilingualism on cognition: It is not just about cognition, it is also about bilingualism», *Bilingualism: Language and Cognition* 18 (1) (2015): 27-28.

KIM, Sujin, JEON, Seong G., NAM, Yunkwon, KIM, Hyeon, S., YOO, Doo H., MOON, Minho (2019). «Bilingualism for dementia: neurological mechanisms associated with functional and structural changes in the brain», *Frontiers in Neuroscience* 13 (1224) (2019): 1-15.

KOCH, Sigmund (1985). «The nature and limits of psychological knowledge: Lessons of a century qua "science"», in *A century of psychology as science*. USA: American Psychological Association: 75-97.

LEHTONEN, Minna, SOVERI, Anna, LAINE, Aini, JÄRVENPÄÄ, Janica, DE BRUIN, Angela, ANTIFOLK, Jan (2018). «Is bilingualism associated with enhanced executive

functioning in adults? A meta-analytic review», *Psychological Bulletin* 144 (2018): 394-425.

LIDDICOAT, Anthony J., TAYLOR-LEECH, Kerry (2015). «Multilingual education: The role of language ideologies and attitudes», *Current Issues in Language Planning* 16 (1-2) (2015): 1-7.

LIU, Haiqing, WU, Longhuo (2021). «Lifelong bilingualism functions as an alternative intervention for cognitive reserve against Alzheimer's disease», *Frontiers in psychiatry* 12 (696015) (2021): 1-10.

LUK, Gigi, BIALYSTOK, Ellen (2013). «Bilingualism is not a categorical variable: Interaction between language proficiency and usage», *Journal of Cognitive Psychology* 25 (5) (2013): 605-621.

MANUEL, Herschel T. (1935). «A comparison of spanish-speaking and english-speaking children in reading and arithmetic», *Journal of Applied Psychology* 19 (2) (1935): 189-202.

MOSCOVICI, Serge. (1984). «The phenomenon of social representations», in *Social representations*. Cambridge, UK: Cambridge University Press: 3-69.

OSSHEN, Lynn, BIALYSTOK, Ellen, CRAIK, Fergus I.M., MURPHY, Kelly J., TROYER, Angela K. (2013). «The effect of bilingualism on amnesic mild cognitive impairment», *The Journals of Gerontology, Series B: Psychological Sciences and Social Sciences* 68 (1) (2013): 8-12.

PAAP, Kenneth R., GREENBERG, Zachary I. (2013). «There is no coherent evidence for a bilingual advantage in executive processing», *Cognitive Psychology* 66 (2013): 232-258.

———, SAWI, Oliver M., DALIBAR, Chirag, DARROW, Jack, JOHNSON, Hunter A. (2014). «The brain mechanisms underlying the cognitive benefits of bilingualism may be extraordinarily difficult to discover», *AIMS Neuroscience* 1 (3) (2014): 245-256.

PEAL, Elizabeth, LAMBERT, Wallace E. (1962). «The relation of bilingualism to intelligence», *Psychological Monographs: General and Applied* 76 (27) (1962): 1-23.

PHELPS, Jaqueline, FILIPPI, Roberto (2020). «The cognitive benefits and disadvantages of bilingualism across the lifespan and implications for education», in *Educational neuroscience*. UK: Routledge: 389-414.



PRIOR, Anat, GOLLAN, Tamar H. (2011). «Good language-switchers are good task-switchers: Evidence from spanish-english and mandarin-english bilinguals», *Journal of the International Neuropsychological Society* 17(4) (2011): 682-691.

SANCHEZ-AZANZA, Victor A., LÓPEZ-PENADÉS, Raúl, BUIL-LEGAZ, Lucía, AGUILAR-MEDIAVILLA, Eva, ADROVER-ROIG, Daniel (2017). «Is bilingualism losing its advantage? A bibliometric approach», *Plos One* 12(4) (2017). <<https://doi.org/10.1371/journal.pone.0176151>>

SANDERS, Amy E., HALL, Charles B., KATZ, Mindy J., LIPTON, Richard B. (2012). «Non-native language use and risk of incident dementia in the elderly», *Journal of Alzheimer's disease* 30 (2012): 1-10.

SCHIEFFELIN, Bambi B., WOOLARD, Kathryn A., KROSKRITY, Paul V. (1998). *Language ideologies. Practice and theory*. Oxford: Oxford University Press.

SCHLENKER, Barry R. (1974). «Social psychology and science», *Journal of Personality and Social Psychology* 29 (1) (1974): 1-15.

SIMONS, Herbert W. (1990). *The rhetorical turn*. Chicago: The University of Chicago Press.

SINGH, Niharika, MISHRA, Ramesh K. (2012). «Does language proficiency modulate oculomotor control? Evidence from hindi-english bilinguals», *Bilingualism, Language and Cognition* 15 (4) (2012): 771-781.

SMITH, Frank (1923). «Bilingualism and mental development», *British Journal of Psychology* 13 (1923): 271-282.

TABORI, Andrea A. T., MECH, Emily N., ATAGI, Natsuki (2018). «Exploiting language variation to better understand the cognitive consequences of bilingualism», *Frontiers in Psychology* 9. 10.3389/fpsyg.2018.01686

TAJFEL, Henri. (1981). «Experiments in a vacuum», in *The context of social psychology. A critical assessment*. New York, USA: Academic Press: 69-119.

VALIAN, Virginia (2015). «Bilingualism and cognition: A focus on mechanisms», *Bilingualism: Language and Cognition* 18 (1) (2015): 47-50.

VYGOTSKY, Lev S. (1978). *Mind in society. the development of higher psychological processes*. USA: Harvard University Press.

———, KOZULIN Alex (1986). *Thought and language*. Cambridge: The MIT Press.

WERTSCH, James V. (1985). *Vygotsky and the social formation of mind*. London: Harvard University Press.

WOOLARD, Kathryn A. (1998). «Introduction. Language ideology as a field of inquiry», in *Language ideologies. practice and theory*. Oxford: Oxford University Press: 3-47.

WOUMANS, Evy, SANTENS, Patrick, SIEBEN, Anne, VERSIJPT, Jan, STEVENS, Michaël, DUYCK, Wouter (2015). «Bilingualism delays clinical manifestation of Alzheimer's disease», *Bilingualism: language and cognition* 18 (3) (2015): 568-574.

YOSHIOKA, Joseph G. (1929). «A study of bilingualism», *Journal of Genetic Psychology* 36 (1929): 473-479.

ZAHODNE, Laura B., SCHOFIELD, Peter W., FARRELI, Meagan T., STERN, Yaakov, MANLY, Jennifer J. (2014). «Bilingualism does not alter cognitive decline or dementia risk among spanish-speaking immigrants», *Neuropsychology* 28 (2) (2014): 238-246.

# Miren Agur Meaberen poesia: ezaugarriak eta gaiak

La poesía de Miren Agur Meabe: características y temas

La poésie de Miren Agur Meabe : caractéristiques et thèmes

Miren Agur Meabe's poetry: characteristics and themes

BELOKI LÓPEZ, Ane  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
Letren Fakultatea  
University of the Basque Country (UPV / EHU)  
Letters Faculty  
anebelokilopez@gmail.com

Noiz jaso: 2021-12-01  
Noiz onartua: 2022-04-04

Euskal literatura garaikidean Miren Agur Meaberen ekarpen lirikoaz dihardu artikulu honek. Izan ere, ez du merezi bezalako arretarik jaso, bere adin eta mailako gizonezko idazleekin alderaturik. Lan honetan, emakume poeten historiaz eta ekarpenaz informazioa bildu ondoren, euskal emakume poetez arituko gara, eta haien artean Miren Agur Meabek duen lekuaz. Ondoren, Meaberen lau poesia liburuak hautatu eta ezaugarri lirikoak nabarmenduko ditugu, gune garrantzitsuenak landuz. Bestalde, kidekoak diren poeten lanei buruzko ikerketak baliatuko ditugu, euskal esparru kritikoan dagoen hutsunearen osagarri. Azkenik, emaitza nagusiak sintetizatuko ditugu, egileari buruzko ezagutzan eta aitopenean ekarpena egin nahiz.

**Gako-hitzak:** Miren Agur Meabe, emakumeen poesia, autoafirmazioa, gorputza, genealogiak.

Este artículo trata de la aportación lírica de Miren Agur Meabe a la literatura vasca contemporánea. Aportación que en nuestra opinión no ha recibido la atención que merece,

en comparación con los escritores masculinos de su edad y nivel. En este trabajo, tras recopilar información sobre la historia y aportación de las mujeres poetas, hablaremos de las poetas vascas y del lugar que Miren Agur Meabe ocupa entre ellas. A continuación, seleccionaremos los cuatro libros de poesía de Meabe y estudiaremos sus rasgos líricos, trabajando las áreas más importantes. Por otro lado, nos basaremos en investigaciones realizadas sobre poetas del un ámbito cercano a Miren Agur Meabe, para de ese modo, complementar el vacío existente en el campo crítico vasco. Finalmente, sintetizaremos los principales resultados, con el objetivo de realizar una aportación en el conocimiento y reconocimiento de la autora.

**Palabras clave:** Miren Agur Meabe, poesía femenina, autoafirmación, cuerpo, genealogía.

Cet article traite de la contribution lyrique de Miren Agur Meabe à la littérature basque contemporaine. Contribution qui, selon nous, n'a pas reçu l'attention qu'elle mérite, en comparaison avec les écrivains hommes de son âge et de son niveau. Ce travail, qui rassemble des informations sur l'histoire et la contribution des femmes poètes, parlera des poétesses basques et de la place qu'occupe parmi elles Miren Agur Meabe. Puis nous choisirons les quatre recueils de poésie de Miren Agur Meabe et nous relèverons ses aspects lyriques et étudierons les domaines les plus importants. Par ailleurs, nous prendrons comme base de travail les recherches réalisées sur des poètes proches de Miren Agur Meabe, afin de combler le vide existant dans le domaine critique basque. Enfin, nous synthétiserons les principaux résultats, afin de contribuer à la connaissance et à la reconnaissance de l'auteure.

**Mots-clés :** Miren Agur Meabe, poésie féminine, auto-affirmation, corps, généalogie.

The aim of this paper is to discuss the work of Miren Agur Meabe and the place it deserves among contemporary Basque literature. Meabe's work has never really enjoyed the recognition from academic research on contemporary writers which it deserves. Through the study of the history and context of female poets, we will focus on female Basque poets and Miren Agur Meabe's place among them. This work will focus on the analysis of her 4 volumes of poetry. We will evaluate the reviews she has received, highlighting the literary characteristics and study in depth certain subjects addressed. Furthermore, some research papers on the poetry of Spanish women will be used to supplement the lack of critical reviews which exist in this field.

**Keywords:** Miren Agur Meabe, woman, poetry, self-affirmation, body, genealogies.

BELOKI LÓPEZ, Ane (2021). "Miren Agur Meabe's poetry: characteristics and themes", *Euskera*, 2021, 66: 41-72.

## 1. Emakumeen poesia

### 1.1. Emakume poetak historian zehar

Mendebaldeko emakume poetetatik hasi eta emakume poeta garaikideetara ino ibilbidea jorratzen du Cinta Montagutek *Tomar la palabra* (2015) lanean. Aipagarrienen artean koka daitezke, besteak beste, Safo (K.a. V) greziar poeta ospatua, Erdi Arokoak (Maria de Ventadorn), emakume poeta humanistak (Gaspara Stampa), Ilustrazio garaikoak (Gertrudis Hore) edota mugimendu erromantikoko emakumezko poetak (Elisabeth Barret Browning).

Poesia garaikidean, euskal emakume poetengan eragin gehien eduki dutenak nazioarteko emakumezko poetak dira, besteak beste, Anna Akhmatova (1889-1966) da aipagarri, Sobietar Batasuneko XX. mendeko poeta nagusienetako bat. Erreferente nagusi da, era berean, Sylvia Plath (1932-1963) poeta estatubatuarra, poesia konfesionalaren aitzindari izan zena. Horiekin batera, Adrienne Rich (1929-2012), Audre Lorde (1934-1992), Alfonsina Storni (1892-1938), Alejandra Pizarnik (1936-1972), Sophia de Mello (1919-2004) edo Hélène Cixous (1937) bezalako beste nazioarteko poeta garrantzitsuak izendatzen dira, eta haien lanetan emakume poesiaren erregistro estilo eta gaiak perfilatuz joan zirela aitortzen da. Besteak beste, Cixous poeta frantsesak emakumearen idazketari eta gorputzaren hizkeraren arteko harremanari garrantzia eman zion, hori delakoan emakumeari ebatsi zaion gorputzaren jabe egiteko bide bakarra: “Escribiéndose la mujer volverá a su cuerpo que le ha sido confiscado, que ha sido transformado en extraño, en enfermo. Censurando el cuerpo se censura también la respiración y la palabra” (*La rire de la meduse* 2010).

Adrienne Rich edo Hélène Cixous, poetak izanik ere, teorialari feminista gisa ezagunagoak dira, eta antzekoa da Patti Smith iparramerikarraren kasua ere, abeslari izateagatik ezagunagoa den arren, poesia lan ugari egin baitu gaztetatik. Eredu feminista izan da bere ibilbideagatik eta hori zenbait euskal poetarengan islatu da, besteak beste, Meaberengan, zeinak aztergai izango dugun “Patty Smith Rimbaudekin ametsetan” poema eskaini zion (*Bitsa eskuetan*, 24-25).

## 1.2. Emakume Poeten Topaguneak

70eko hamarkadatik hasi eta gaur egun arte, emakumeek idatziriko poesiak gorantz egin du etengabe. Adituen iritziz, honen erantzule nagusiak Emakume Poeten Topaguneak izan dira. Topagune hauen ondoren gertatu zen emakumeen presentzia kritiko eta instituzionalak gora egin zuen (Rosal 2011: 160). Emakume Poeten Topaguneak 1996tik 2002ra bitartean ospatu ziren urtero Espainiako zenbait hiritan, eta hiru urteko baraualdiaren ostean, 2005. urtean beste elkarretaratze bat egin zuten. Zortzi izan ziren orotara, eta Espainia osoan zehar lekualdatzen ibili ziren: Vigo (1996), Kordoba (1997), Lanzarote (1998), Malaga (1999), Bartzelona (2000), Donostia (2001), Granada (2002) eta Gasteiz (2005). Emakume poeta euskaldunek ere parte hartu zuten egonaldi horietan, besteak beste Tere Irastortzak, Aurelia Arkotxak, Miren Agur Meabek, bai eta gaztelaniaz idazten duten Luisa Etxenikek, Eli Tolaretxipik eta Julia Otxoak.

## 1.3. Euskal emakume poetak

Euskal emakume poetak gutxi dira, eta ez dira behar bezain ezagunak eta aztertuak. Lehen bezala orain. Iraganean gutxi baziren ere, izan baziren euskal emakume poetak, baina ez zitzairen lekurik egiten historietan edota isilaraziak izaten ziren. Bazterketa horren arrazoiak argitzeko, Alvarez Uriak eginiko emakume idazleei buruzko artikuluan Nina Bayme iparramerikarren iritzia dakar bere lerroetara. Haren iritziz, emakumeak hiru arrazoigatik izan dira isilaraziak: aurreiritziengatik, irizpide artistikoengatik eta literatur bikaintasuna maskulinoa delako (Alvarez Uria 2005: 37). Alvarezek Mari Jose Olaziregiren hitz batzuk ere badakartza bere lanera (2005: 38), eta Olaziregik dio emakumeak ez direla existitu euskal literaturaren historian, beti egon izan direla periferian. Horrez gain, haien lanen inguruko ikerketa lan asko egiteke daude, ez baita inor arduratu hortaz, eta gainera, historia-gileek ez diote behar bezalako ekarpena egin euskal literaturari, emakumeak ez baitira kontuan hartu. Euskal literatura, hortaz, gizonezko idazleei begira eraiki da (Alvarez Uria 2005: 38). Zorionez, azken bi hamarkadetan joera hori aldatzen ari da.

Euskal emakumezko poetak beranduago sortu baziren ere, XV. mende-koak dira emakume poeten lehen agerpenak, eresi-egileenak, hain zuzen ere: Milia Lasturkoaren ahizpa, Alosko Usoa, Ozaetako Santxa, Oroko Peru Gartziaren ahizpa... Ahozkotasunaren esparruan sortzen zuten literatura, eta hiletetan eresiak kantatzea zen euren zeregina, baita plaza eta merkatuetan *profazadore* aritzea ere. Halere, Bizkaiko foruak jasoa duenez, debekatu egin zitzairen, gatazka sortzaile zirela argudiatuz (Etxebarria & Kaltzakorta 2009: 46).

Bigarren mugari gisa, Xabier Altzibarrek (2008) azterturiko Bizenta Mogelek idatzirikoa *Gabon-kantak* eta bertsoak dira aipagarri XIX. mendearen hasieran. Altzibarrek frogatzen duenez, Bizentaren *Gabon-kantak* euskal literaturako obra garrantzitsua da, behar bezala ezagutzen ez dena. Bizenta (1782-1854) euskal literaturako lehen emakume bertso idatziaren egilea da, haiek aztertu eta argitaratu zituen Altzibarren iritziz. *Gabon-kantak* dira Bizentaren lan pertsonal eta originalena, eta bertsoen edukia (gaiak, asmoa, tonua), eta haietan dagoen bilakaera eta forma (hizkuntza, metrika) aztertu ditu xeheki.

Euskal emakume poeten ekarpen ugariagoen berri izateko, XX. mendera arte itxaron behar dugu. Badakigu gerra hasi aurretik zenbait emakume poeta izan zirela olerkarien mugimenduaren garaikide. Hauetako batzuk, hala nola Sorne Unzueta “Utarsus”, Emakume Abertzaleen Batzako kide ziren, eta EAJren ideologia zabaltzea zuten helburu (Alvarez Uribe 2005: 51), baina beste askok tematika libreagoa erabili zuten, eta euren kezkei buruz idatzi zuten: Errose Bustintza, Balendiñe Albiu, Rosario Artola eta Maria Etxabek, besteak beste. Haien lanaren ezaugarrien inguruko lehen hausnarketak kritiko bateratua Jon Kortazarrek eskaini zuen, 1995eko laneko atal honetan: “Modernitatearen agerpena. Emakume olerkariak: Onintze, Utarsus”. Bertan, esate baterako, Frantziska Astibia “Onintze” poetaren estilo modernista eta bizitzaren existentziari buruzko galdeketa gaia eman zituen ezagutzera. Geroztik, ordea, Elixabete Perez Gazteluk (2017) egilearen bizitzaz, militantzia politikoaz eta lan literarioaz askoz berri zehatzagoa bildu du, eta besteak beste, bere azterlanean jasotzen du, Errose Bustintza “Mañariko” idazleaz Xabier Kaltzakortak baieztatu zuen bezalaxe (1999: 11-12), Onintze ere “Lauaxetak berak jarraiki ildotik hurranen hurran abia-

razten zuen” poeta izan zela (Bidador 1996). EABn idazle multzo interesgarria bildu bazen ere, tamalez, ez zuten poesia libururik argitaratu sasoi hartan, eta aipagarri ditugun belaunaldi hartako emakume idazleen lanak bizi osoko lanen fruitu dira, hala nola Sorne Unzuetarena (*Idazlan guztiak* 1997) edo Baliendine Albizurena (*Olerkiak* 1984).

XX. mende amaieran, Euskal Herrira ere emakume poesiaren gorakada etorri zen. Ezagunena Amaia Lasa dugu, 1971n *Poema bilduma* liburua bere anaia Mikelekin batera plazaratua. Emakumearen ahots garaikide apurtzaillea ekarri zuen euskal literaturara, eta ez da kasualitatea “a e i o u berri bat” sortu nahi izatea, bere poema batean dioen gisan. Izan ere, tradiziodun emakume poeten faltan, lehen ahotsa izango da Lasa. Poema horretan, hizkuntza berri baten beharra aldarrikatzen du. Gisa berean da aipagarri Arantxa Urretabizkaiaren poesia ere, eta biak izango dira nolabait aztergai dugun Miren Agur Meaberen aitzindariak.

XX. mende amaierako poeten artean Meaberen belaunaldikotzat jo genitzake Aurelia Arkotxa (1953), Itxaro Borda (1959) edota Tere Irastortza (1961) idazleen ekarpen poetikoak; halere, Meabek haiekin partekatzen dituen alderdiak eta ezberdintasunak aztergaitzat hartuko dituen lan kritikoa garatzeke dago, tamalez. Gure lan honen asmoa ildo horretan urrats bat eman eta Meaberen lan poetikora hurbiltze kritiko monografikoa egitea da, geroagoko ikerketa konparatuei oinarria eskaintzeko helburuz. Gisa berean, nabarmena da emakume idazle eta bereziki poeten kopuruaren igoerak estilo eta molde askotariko idazleak ekarri dituela: Pili Kaltzada (1970), Goizalde Landabaso (1970), Karmele Jaio (1970), Ixiar Rozas (1972), Aitziber Etxeberria (1973), Castillo Suarez (1976), Sonia Gonzalez (1977), Leire Bilbao (1978)...

Bestalde, emakume idazleen inguruko hausnarketaren esparruan bereziki adierazgarriak izan dira zenbait proiektu: lehenengoa denboran, *Jakin* aldizkariak antolaturiko “Emakumea eta Literatura” hitzaldi sorta izan zen, aldizkari haren 45. zenbaki monografikoan mamitu zena. 27 urte berandua go, 2014an *Hegats* aldizkariak lehen saio hartan parte hartutako idazleei hausnarketa berria egiteko deia egin zien, eta Laura Mintegiz gainera, Nerea Azurmendi, Gema Lasarte, Amaia Alvarez, Onintza Irureta eta Josune



Muñozek gain, Mariasun Landak eta Maite Esnal Gonzalezek hartu zuten parte. Saio berri horren emaitza izan zen *Hegats* aldizkariaren 52. alea, “Genero ñabardurak lerro artean” izeneko monografikoa. Horiez gain, aipagarri dira, batetik, Ana Urkizaren *Zortzi unibertso. Zortzi idazle* (2006), Mariasun Landa Etxebeste, Aurélie Arcocha Scarcia, Yolanda Arrieta, Miren Lourdes Oñederra, Itxaro Borda, Miren Agur Meabe, Arantxa Urretabizkaia, eta Laura Mintegiren partaidetzaz; eta, bestetik, Eider Rodriguezen *Idazleen gorputzak* (2017) lana Arantxa Urretabizkaia, Laura Mintegi Lakarra, Miren Agur Meabe, Karmele Jaio eta Uxue Alberdiren partaidetzaz. Emakume idazleen lanez eta egoerari buruzko hausnarketa kritikoa bildu duten ikerlanak dira, egileen testigantzak jasoz, azken hamarkadetan euskal emakume idazleen garapenari buruzko hausnarketa eginez. Azken urratsen artean, euskaraz sortutako lehen liburu bilduma feministaren altzoan garaturiko *Lisipe* proiektuaren aurkezpenean Jule Goikoetxeak (2016) aipatu zuenez, “beharra zegoen eta masa kritikoa ere badago orain horrelako proiektu bati hasiera emateko”. Erronkei dagokienez, “erronka politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalak asetzeko pentsamendu liburua da”. Proiektu kolektibo bat da eta “patriarkalak ez diren tresna analitikoak sortzea” dute xede. Azkenik, ezin aipatu gabe utzi azken urteotan sortu eta indarra hartzen joan diren emakumezko poetak, besteak beste, Itziar Ugarte (*Gu gabe ere* 2021), Oihana Arana (*Lazunak azkazaletan*, 2021), Leire Vargas (*Dena ametsa den irudipena*, 2021)... Gazteak indartsu datoz eta horren erakusle da, adibidez, *Liberoamerika*, euskal idazle gazteen bilduma, non jada bi liburu argitaratu diren euskal idazle gazteen testuekin.

Horiez gain, bibliografia kritikoa murrizta da, eta euskal emakume poetei buruzko erreferentzia kritikoak topatzea zaila izan da, besteak beste, ez direlako modu kritikoan sakon aztertuak izan. Hori dela eta, Espainiako emakume poetekin alderatzeko bidea hartu dugu, alegia, Meaberen adinkide diren emakume poeten inguruko hausnarketa kritikoan oinarriturik. Aipaturiko ikerlan horietan, emakume idazleen ezaugarriak orokorrean sintetizatu direnean, zenbait alderdi azpimarratu izan da. Horien artean, lehena, emakume ahots propioa edota erregistro propioa garatzeko ahalegina, ukatua zaion *egiletasuna* aldarrikatzearekin batean. Bigarrenik, gorputzaren kontzientziarekin batera, estereotipo finkatuen zama eta sexualitate feme-

ninoaren aldarrikapena nabarmendu da, desira objektu izatetik desira subjektu izatera egindako urratsa. Azkenik, hirugarren multzo batean daude emakume genealogia sozial, familiar edota poetikoa eraikitzen bideratuko hausnarketak.

Arlo kritikoan nabarmendutako hiru interesgune horiei lotuko gatazkie azterlan honetan zehar, eta Miren Agur Meaberen poesia hobeki ezagutzeko bere liburuetan hautaturiko zenbait poema adibidetzat hartuko ditugu. Horretarako, lehenik, bere idazle nortasuna eta idazlanak aztertuko dira, haiek duten harrera kritikoaren berri emanez, geure azterlanaren abiapuntu gisa.

## 2. Miren Agur Meabe

Miren Agur Meabe (Lekeitio, 1962) poetak Irakasle eta Euskal Filologia ikasketak egin zituen, eta irakaskuntzan nahiz testuliburugintzan aritu da, bai eta Giltza–Edebé argitaletzeko zuzendaritzan 1992tik aurrera, nahiz eta badiren urteak lan hori utzi zuela. Euskaltzain osoa da 2022az geroztik eta tarteka itzulpenak ere egiten ditu. Heldu, gazte zein haur literatura idatzi badu ere, haur eta gazte literaturan eta bereziki poesian nabarmendu da. Bere lehen lana ipuingintzan egin zuen, *Uneka... Gaba* (Bilbao Bizkaia Kutxa) ipuin-liburuarekin 1986. urtean. Ondoren, poesiarako jauzia eman zuen eta horretarako lagungarri izan zitzaion Lasarte-Oriako Udalaren saria irabazi izana 1991. urtean, *Oi, hondarrezko emakaitz! Garraitzetako itsas urak aitortutako poemak* liburuarekin (Bilbao Bizkaia Kutxa). Haur eta gazte literaturari dagokionez, zenbait lan egin ditu, besteak beste, *Bisita* (Baigorri, 2001), *Itsaslabarreko etxea* (S.M. Aizkorri, 2001) *Etxe bitan bizi naiz eta zer?* (Elkar, 2003), *Urtebete itsasargian* (Elkar, 2006), *Zer da ba, maitasuna?* (Elkar, 2008), *Errepidea* (Erein, 2011)... Narrazioei dagokienez, *Kristalezko begi bat* (Susa, 2013) eta *Hezurren erretura* (Susa, 2019) argitaratu ditu, eta aztergai dugun generoan *Azalaren kodea* (Susa, 2000), *Bitsa eskuetan* (Susa, 2010) eta *Nola gorde errautsa kolkoan* (Susa, 2020) liburuak argitaratu ditu, helduei zuzendurik. Miren Agur Meabek sari ugari jaso ditu urte hauetan zehar. Garrantzitsuenak aipatzearren, hiru aldiz eman diote Euskadi saria: 2001. urtean, *Itsaslabarreko etxea* lanarekin, 2003an, *Urtebete itsasargian*

idazkiarekin eta azkena, 2011n *Errepidea* lanarekin. Horrez gain, birritan irabazi du Espainiako Kritika saria, kasu honetan poema liburuekin: *Azalaren kodea* (2001) eta *Bitsa eskuetan* (2011). Bestalde, ohorezko sariak ere jaso ditu Miren Agur Meabek, esaterako, Lauaxeta saria 2007. urtean eta Rosalia de Castro saria, 2012an. 2020an haur literaturako Mikel Zarate saria jaso zuen *Itsasoaren atea* (Elkar) lanarekin, eta, azkenik, eta ziurrenik garrantzitsuen, 2021ean jaso berri du Espainiako Poesia saria *Nola gorde errautsa kolkoan* lanarekin. Lehendabiziko aldia da euskaraz idatzitako liburu batek sari hau jasotzen duena.

### 3. Miren Agur Meaberen poesia: ezaugarriak eta gaiak

Miren Agur Meaberen poesiagintzaren ardatz formalak definitzea ez da erraza. Aniztasun formal handia erakutsi du bere liburuetan zehar, oharrak bezain laburrak dira poema batzuk, hausnarketa solteak; beste poema batzuk postalak dira, oroigarri moduan igorritako hausnarketa arinak. Prosan idatziak daude batzuk, eta beste batzuek koplak edota haikuak bezalako espresio laburra eskaintzen dute, apenas oharmen estetiko baten islapena... Izan ere, Miren Agur Meabek etengabeko hausnarketa eskaini digu poesia egiteari buruz, lehen liburuko “Arkitektura” izenekotik hasita (*Oi, hondarrezko emakaitz!*, 1991: 31) azken liburuko poesiari buruzko poemetaraino. Edonola ere, ez du agian 2010eko *Bitsa eskuetan* liburuko “Geranioaren minipoetika” (41) izenekoan bezain modu zuzenean adierazi bere indargune diren ezaugarrien multzoaren berri:

Mezuei gantza kentzen dihardut labanaz,  
Alfer-kinkallatik libratu nahiz ahotsa.  
Badut erritmoaren sena, xehetasunetik joera,  
Irudietarako gustua, emozioaz gogoetatzeko xedea. (2010: 41)

Aho batez aitortzen zaio Meaberi elaborazio poetiko handiz moldaturiko liburuen egile dela, multzo egituratu eta landuz osatua gehienetan. Bestalde, poesiaren esparruan baliabide estilistiko aipagarritzat jotzen den “erritmoaren sena” aitortzen dio bere buruari, teorialari askorentzat poesiaren beraren muina dena. Meaberen testuen ezaugarri nabaria da, testuaren egi-

turaketa morfosintaktiko landuaren fruitu den kadentzia izanik bere obsesioetako bat. Adibidez, “Salmoa” izenekoan, paratestu nagusiak iradokitzen duen genero biblikoaren oihartzunaz baliatzen da maitasun estasi batez amaitzeko:

Aintza eta bakea lurrean

kale-kantoia jiratu eta batera

txori bat pausatu baitzait sorbaldan gloria zure musu bat sorbalda  
biluzia egunsentian hain handi eta eder eta on baitzaitut ardagaia  
eta su-lama

gloria zu/ bedeinkatua zu/ eskerrak zuri/ ahuspez agur/

oi neure erraldoi/ oi neure masai/ oi neure irlako moai (2010: 39-40)

Poema honetan nabarmena den erritmoarekin, eta irudien fintasunarekin batean, ezin ahantzi genezake, bestalde, aipamen kulturalen erabilera trebea, kasu honetan eliz kantuetako aintza edo gloriaren estiloaz salmoari keinu eginez. Ildo berean aipagarri da *Bitsa eskuetan* liburuko “Mamuaeren eskea” (2010: 76) izeneko poema, non “Hau maitasun hau” esapideaz hasi eta amaitzen diren hiru pasarte oso moldatu dituen, letania baten gisan luzatuz: “al-fombra lako maitasuna, itsulapikoa eta isuna, maitasun beldurgarria, maitasun gozagarria, etorri datorren maitasun, joan badoan maitasun hau”.

Aipatu beharrekoa gisa berean, “Hobia” izeneko poeman, amaren bizitza eta heriotza lehen pertsonan kontaturiko poeman suma dezakegun intertestualitatea Milia Lasturkoaren eresiarekin:

Garbi izan nituen nire zutarriak:

etxeokak jagotea, aurreko eta osteko;

legeak betetzea, zeruko nahiz lurreko;

obligazioa jartzea debozioa orduko.

Belar-egoskiek laguntzen zidaten loak hartzen; geroago pilulak  
behar izan nituen.

Zein ote da andre jasekoaren saria? Esku zabaletan urre gorria:

bitsa eskuetan eta bits horren zauriak.

Orain ilunpean nago. Eskeleto bat naiz,... (2010: 56)

Miren Agur Meaberen erregistro lirikoaren ezaugarri formalak, sinbolikoak eta intertestualak sakon aztertzeak badu interesik, dudarik gabe, horrek



Hizkuntzaren ezintasun bat erakusten du poema honetan. Esan gisan, poema intimista da, propioa eta pertsonala, bere poesia pertsonalaz baitihardu. Ikus daiteke idazteak bere burua aurkitzen edo eraikitzen laguntzen diola, hitzak “barren-barreneko ozeanorik hertsienara joan eta etortzeko salbokonduktorik legezkoenak” direla dioenean. Gisa berean, nabaria da oso poema pertsonala dela eta asko ematen diola idazteak. 2018an Miren Agur Meaberi eta Itxaro Bordari egin zitzaizen elkarriketa batean, Meabek esaten zuen berarentzat “idaztea dela munduan egoteko modu bat eta nire bizitza intentsitate handiagorekin bizitzeko baliabide bat. Idazteak laguntzen dit ni izaten eta ni aldatzen”. Jarraian, esaldi eder batekin borobiltzen du idazketak berarentzat duen pisua “nire izatearen parte da idaztea, eta ni neu naiz idaztearen parte”.

“Arkitektura” izeneko olerki batean ere, bere poesia definitzen du arkitekturarekin alderatuz, zehazki klaustro batekin. Bere sorkuntza eraikuntza lana dela erakusten du, arkitekturari eta idazketari etengabeko erreferentziak eginez:

Nire olerkia da nik neuk eraikitako klaustroa.  
Aurrenik, liluraren zizelari eta ekinaren mailuari  
herdoila garbitu.  
[...]  
nire olerkia da nire barrendegia,  
non harro iraun lezakeen nire berbazko hesiak. (1999: 31)

Metaliteratura baliatuz, bere sorkuntza-lana nolakoa den deskribatzen du hain berea duen irudi hizkeraren bidez. Itxaro Bordak *Intimitatea, zartagailu* lanean aipatzen zuen bezala, intimismoa emakumearen gotorleku bilakatu da: Meaberen “klaustroa” eta “barrendegia”, Bordak “babesleku eta okupatzeko gunetzat” duena (2004: 43).

Izenburutik hasita, *Oi, hondarrezko emakaitz!* izenburu ponpoxoa dela esango luke gaur egungo Meabek. *Emakaitz* hitzari dagokionez, *Orotariko Euskal Hiztegia*n ageri den hitza da, baina “sendaezin” adieraz. Aldiz, Meabek “moldakaitz” eta “izukaitz” izenondoan esanahiz darabil: “-gaitz” atzizkiak “ezin dena” adierazi nahi du, konplexutasun kutsu bat emanez “eme” erro semantikoari. Beraz, *emakaitz* deitzen dio bere buruari: emakume

bihurtu ezin dena, neurri batean Amaia Lasak “Ezin izanik” poeman adierazten zuen “jaseko emakume” izateko zailtasuna duena, amari “Hobia” poeman esleitutako gaitasunik ez duela iradokiz. Hala ere, Meabek *emakaitz* hori *hondarrezkoa* dela eransten du, hau da, ahula, hauskorra eta sendotasunik gabea. Ondorioz, bere nortasuna paradoxikoa da, eta idazteko gaitasuna zalantzan jartzen du, paradoxikoa bihurtzen du. Ezin hobeto ikusten da hori bere poema honen amaieran islatuta:

Eta nahi nuke, baina ezin, mamiok edertasunezko ore egin, eta zapaldu,  
nire oinaren aztarna utzi  
ahazturaren jauregi aurreko espaloian han non poesia pozezko sari zuri bihurtzen den.  
Amen. (1999: 29)

Emakumezkoek idazteko estilo propio bat eraikitzea dute xede, ez sinadura femenino bat “frogatzea”. Subjektu femeninoak eratzen dituzte kolektiboki, hizkera berriei, ikuspegi berriei eta elkarrizketa interesgarriei bide eginez. Hala ere, emakumeak ahots propio baten bila aritzeak ez du esan nahi ahots bakar baten bila dabiltzanik (Hermosilla 2011: 75). Testu mota oso ezberdinetan ager daiteke ahots propio hori, testu bakoitzaren motaren arabera ezaugarrituz eta moldatuz, funtsean, horretan datza aniztasuna (Hermosilla, 2011: 76). Meabek lehen liburuan ahots berri femenino baten behar hori erakusten du, eta esan daiteke gaur egun literaturan duen tokia definitzeko lan garrantzitsua izan dela *Oi, hondarrezko emakaitz!*. Halere, hurrengo formulazioetan, lehen liburuko erregistro liriko emotiboari eta transzendenteari beste enuntziatio modu batzuk gehitu zaizkio, eta Meabe jostaria eta ironiko-kritikoa azaleratu dira, Rosalek (2013: 366) dioen moduan, erregistro ironikoa eta parodikoa baitira emakume poesia garaikidean gehien erabiltzen diren enuntziatioak haien ikuspuntu kritikoa iradokitzeko.

2022. urtean *Nola atondu (dudan nire) gela bat norberarena* lana argitaratu du Miren Agur Meabek HEA kultur elkartekoek sortutako Zaldiarri bildumako 11. atalean, Virginia Woolfi zuzeneko erreferentzia eginez. Ezaguna denez, Virginia Woolfek *Gela bat norberarena* (1929) lana argitaratu zuen, emakumezko idazleek nobela onak idazteko zer behar zuten galdetu ziotenean. Esan daiteke obra garrantzitsua izan dela emakume idazleei dagokien

nez, eta bere fruituak ere eman dituela. Hori oinarri hartuta, Meabek *Nola atondu (dudan nire) gela bat norberarena* (2022) lanean, bere gela nolakoa den azaltzen digu. Bertan, lan honetan aztertuko ditugun zenbait alderdi jorratzen eta laburbiltzen dira.

Hasteko, “nitasunak” poetarentzat duen garrantzia garbi azaltzen du “Gela bilatzeaz” izendaturiko lehen atalean:

Ez da erraza aipatzea bakoitzaren poetikan eragina izan duten gertaera, bizipen, irakurketa eta abar guztiak. Denak dira airera jaurtitako bengalen gisakoak, toki zuzenera iristeko gidari, beti ere toki zuzena *norberaren tokia* dela ulertuta. Eta zein toki da hori, nire kasuan?

Oinarrian, niaren tokia. Niretzat ezinezkoa da “ni” esan barik berba egitea. Batzuetan, izenordain unitarioa da, trinkoa; beste batzuetan, plurala, beste norbanako batzuen partaidetzak ere osatua. Ni hegemoniko bat da, bere balizko proiektioei arreta egiten diena baina inoren proiektioen eleduna ere badena. (2022: 11)

6. atalean bere artxibategia erakusten du poeta lekeitiarrak eta hasieratik argi uzten du zein den bere etiketa nagusia: “Nire artxibategiko karpeta nagusiak etiketa hau luzitzen du: *Identitate poetiko bat norabide*” (Meabe 2022: 19). Bestalde, aipatzen du “*Identitate poetiko bat norabide* esatea edo *Neure gelarantz* esatea gauza bera da, gela ditxosozkoak dimentsio espaziala gainditzeko baitu beste hau ere izeneztatzeko: *ahots bat norberarena*” (Meabe 2022: 19). Azkenik, argi uzten du zertan oinarritzen den bere idazketa prozesuan:

Nire idazkera osoan dago presente neure burua definitu, onartu eta gobernatzeko ariketa. Uste dut nitasunaren autoafirmazioa norbera denaren, norberak izan nahi duenaren eta norberarengandik izatea itxaroten denaren arteko tentsioei emandako erantzuna izan dela. (2022: 19)

### 3.2. Gorputzaren hizkeraren transgresioa

Antzinateko kristau pentsamendu filosofiko-erlijiosotik hasita, emakumearen gorputzak konnotazio negatiboa izan du; horregatik, bere buruaren ukazioa eta bere desiraren ukapena emakumearen ardatz bilakatu dira. Iku-



si besterik ez dago literatur tradizioan nola egiten zaion erreferentzia emakumeari: etxeko aingeru, gerlarien babesleku, pasiboa, sentibera, arraia, diskretua, eta halakoa ez denean, *femme fatale* gisa irudikatua. Hori dela eta, Herмосillak dio emakumeek borroka luze bat egin behar izan dutela este-reotipo negatibo hauei guztiei aurre egin eta gizonak definitutako horretatik ihes egiteko (2011: 78). Horregatik, emakumearen gorputza inguratu duten tabuez liberatzeko hizkera esplizitua, emakume errealean gorputzen aldarrikapena eta desira propioaren aldarrikapena partekatzen duten ardatz tematiko gisa. Hona hemen zenbait zehaztapen.

### 3.2.1. Azalaren kodea: gorputzaren kodea

Aurrez aipatu bezala, emakumezko poetek ahots eta hizkera berriak sortu eta plazaratu behar izan dituzte. Zenbait modu ezberdin daude horretarako, baina Meaberi dagokionez, gorputza da ahotsari bide egiteko darabilen bitarteko nagusia. *Azalaren Kodea* izeneko bere bigarren poesia liburua da horren erakusle, eta hurrengo liburuetan bermatu egin du ildo hori. Izenburutik bertatik, zuzenean gorputzeko hizkerari egiten dio erreferentzia, eta poema liburu osoan horri buruz idatziko du. Gorputza izango da lehen liburuan sortzen duen ahots femenino hori ardaztuko duena, eta modu honetan, *Oi, hondarrezko emakaitz!* lanean hasitako autoafirmazioarekin jarraituko du, hizkera berri bat azalaren kodean zifratuz. Izan ere, Meabe eta Borda (2018) bat datoz gorputzak poesian oso gutxi sartu direla esatean, eta euren belaunaldiak horri bide eman diola azaltzean. Meabek dioenez, “gorputzetik eta gorputzei buruz hitz egiteak jarraitzen du oraindik ere izaten transgresio modu bat” (2018). Bestalde, *Idazleen gorputzak* (2019) elkarrizketan euren gorputzen eraginez dihardute emakume idazleak, deserosotasunetik, baikortasunetik zein itxaropenetik. Bada, hau dio Meabek berriro ere gorputzaren hizketak dakarren transgresioari buruz:

Identitatearen bilaketari lotuta, desira esplizitatzeko, heriotzari buruz hausnartzeko, eta kode alternatibo bat aldarrikatzeke erremin-ta modura. Emakumeak bere gorputzari buruz idaztea atal espezifikoak aipatuz —klitoria, bagina, titiak...— transgresioa egitea da. (Rodríguez 2019: 58)

Bestalde, honako hau ere azaltzen du:

... liburuan zehar, adieraztea nahitaezkoa dela azpimarratzen da etengabe, baina... komunikazio absolutua ez da posible. Berbek, gehienetan, ez digute laguntzen libreago izaten —akaso bai, hala gara sentitzen—, eta hondatu egiten dute konpondu baino gehiago. (...) Zer geratzen zaigu bestearekin bat egiteko, berbak ezgauza direnean, urri edo lar direnean, distiratsuegi edo zarpailduegi daudenean? Geu, huts-hutsik: azal hutsa, tresna mugatua. Eta azala esatea gorputza esatea da, eta gorputza esatea izatea esatea da. (*Poetikak & Poemak*, 2005)

*Azalaren kodean* (2000) etengabeak dira, hortaz, gorputzaren aipamenak eta batez ere emakumearen gorputz atal sexualenak. “Memoria ez galtzeko oharrak-3” poeman “Bularrak lehertu guran nituen. Euria ari zuen nire klori gainean.” (2000: 14) gisako esaldiak aurki daitezke. “Diagnostikoa” (2000: 51) olerkian ere gorputzaren presentzia nabarmena da: “gorputzeko ehun”, “azala”, “ikus-fokua”, “pseudopodo”, “belarri”... Izan ere, “Kodea” poema metapoetikoan dioen moduan, “Bestelako kodea aldarrikatu nahi dut: hitzarena ez bezalako kodea, gorputzaren, azalaren kodea”. Horregatik, modu esplizituan, nabarmenean eta disruptiboan agertzen da gorputza Meaberen poesian, lexiko oparoaren bidez: haragi, atomo, zelula, fetu, gernu, birus, burmuin, hezur, mami, azal... Estalia, ezkutatua zegoena lehen plano-ra ekartzeko transgresioa burutuz, erronka baten moduan.

### 3.2.2. *Bestelako gorputzek ere hitz egin dezakete*

Gure kulturen beti identifikatu izan da emakumearen gorputza objektu behagarri edo desiragarritzat. Emakumearen gorputza oso sexualizatua izan da oro har, eta bertan giltzapetua ikusi da (Montagut 2015). Hala ere, emakumeek eraikuntza kultural hori eraitsi eta gorputzen aniztasuna aldarrikatu dute poesian, eta horren adibide garbia da *Azalaren Kodea*. Horregatik, Bordak Meaberekin egindako elkarrizketan (2018) azpimarratzen du hiztegi positibo bat sortu dela gorputzen inguruan hitz egiteko, zeinak isuri, zauri eta inperfekzioez ahobizarririk gabe jarduteko parada eskaintzen duen. Horren erakusle garbia da Meaberen bigarren liburu honetako “Antsien

oharrak-2” poema. Izan ere, emakumearen gorputz ez-kanoniko bati ematen dio ahotsa, eta gaztetasuna atzean utzi duen gorputza deskribatzen du:

Haragi horrek onetsi egiten ditu bere pitzadurak, fetuen bolumentak utzitako labirintoak, genuaren erantzun anonimoak, koipe-soberakinak. (2000: 18)

Gizarteak inposatutako eredu ideal edo fetitxetik ihes egiten duen gorputzaz ari zaigu Meabe. “Ni poetikoak” jendarteak ezarritako estereotipoe-tatik askatu nahi du, eta bere gorputza den bezalakoa onartzea du helburu, besteen begiradapetik aldenduz. Emakume helduaren gorputzean ohikoak diren ezaugarriak aipatzen ditu: pitzadurak (zimurrak), haurdunaldiaren osteko estriak, “genuaren erantzun anonimoak”... Poema honen harira, “Emakumearen gorputz erreala deskribatzea kontsumo-gizarteak sustatutako prototipo estetikoaren kritika egiteko modua izan dut” azaltzen du Meabek *Nola atondu (dudan nire) gela bat norberarena lanean* (2022: 20). Bestalde, ezaguna da Meaberen gorputz pertzepzioa kristalezko begi bat duela aitortzetik abiatzen dela, eta hori ere gorputzaren parte sentitzen du, bere izatearen zati adierazgarri. Gai horri erreparatu zion bekoz beko *Kristalezko begi bat* (2013) eleberrian.

Emakume errealen gorputzak inperfektuak dira eta emakume helduenak are inperfektuago. Horregatik dira hain hertsagarri emakumezkooi ezartzen zaizkigun estereotipo eta kanonak, behagarri ala ez behagarritzat kalifikatzen den emakume irudiaren aroan gaudelarik. Gizonezkoen poesian kanon horien barnean kokatzen diren gorputzak izan dira mintzagai. Honen haritik, Virginia Truebak (2009), Teresa de Jesusen hitz hauek ekarri zituen bere lanera: “Zentzugabekeria bat da gu aingeru bihurtu nahi izatea lurta-rrak izanda”. Horrekin gorputzen errealitatearen aldarrikapena egin nahi du Teresak, bere gorputzetik hitz eginez. Emakumeek literaturan betidanik idatzi eta hitz egin izan dute euren gorputzetatik, boterearen menpe egon den espazio horretatik, alegia (Trueba 2009: 235).

Meabek ere gorputzen errealitatea islatu nahi izan du *Azalaren Kodea* eta *Bitsa eskuetan* lanetan. Horren adibide da “Besteak” poema (2010: 30). Bere buruaren aurkikuntzan dabil “ni poetikoa”. Jakina da jendarteak beste emakume batzuekin alderatzera bideratu gaituela emakumeak, gorputz, ideia

eta izaeren aldetik. Bada, honen harira, ukazio konstante bat izango da Meaberen jarrera:

Ez dut izan nahi Teresa Calcuttako, maitatuz gurutze bat non iltzatu esku betihuts hauek bankuko kartillekin batera. Ez dut nahi Kareninaren antzik, trenbidean herioari turrit egin ezinik larrutan babesturik. Ez dut nahi bihurtu bi izpiritu korapilatu, otalurretan galapan, Catherine eta Heathcliff, eta patuari lotu. Ez dut nahi Saforen kutsurik, peploen azpian muztioa miazten edo labar beltzetan heriotza limurtzen. (2010: 30)

Deseraikitako emakumeen irudi estereotipatuei, irudi berri errealak jarzea ezinbestekoa da poesian. Hala, emakumeen irudiei heltzeko, ironia eta parodiak paper garrantzitsuak beteko dituzte (Rosal 2010: 102). Juan Bonillak hezur-haragizko emakume bat irudikatu zuen bere “Oferta de empleo” izeneko poeman. Lan eskaintza baterako proposamena egiten du bertako baldintza denak betetzea ezinbestekotzat hartzen duen neurrian. Bertako baldintzek, ordea, emakume konkretu bakar baten profila irudikatzen dute, mugikorreko zenbakia eta helbidea ere baldintza gisa jarriz. Ironiak eta parodiak pisu handia dute poema horretan. Arestian aipatu dugun Meaberen “Antsien oharrak-2” (*Azalaren kodea*) poeman, ordea, gorputz erreal bat irudikatzen du Meabek, baina “nik haragi berri batekin egiten dut amets” aitortuz amaitu du; hortaz, esan daiteke disoziazioa iradokitzen duela bere haragiak edo gorputzak onartzen duenaren eta bere “ni” intimoaren artean, azken horrek bestelakoa, ideala, perfektuarekin egiten baitu amets.

### 3.2.3. Emakume desira eta erotismo femeninoa

Esan bezala, emakumezkoak beti izan dira literaturan desira-objektu pasibo gizonetzkoen begiradapean. Ordea, poesian emakume ahots berriak sartu diren unetik, objektu desiratu izatetik, subjektu desiratzaila izatera igaro dira, eta ezin argiago islatzen du hori Meabek “Memoria ez galtzeko oharrak-4” poeman. Ikusten da “ni poetiko” femeninoa desiratzen duen subjektu dela eta gainerako maitale guztiak objektu paperean daudela. Maitaleak dira bere atzetik dabiltzanak eta horren aurrean, axolagabe eta libre jokatzeko duela subjektuak.

Dakigunez, emakumea objektu sexualizatu gisa agertu izan da gizonezkoen poesian oro har, eta gutxi hitz egin izan da haien sexualitateaz eta erotismoaz. Emakumeen ahots berriak plazaratzearekin batera, ezkutuan zeuden gaiak azaleratu dituzte, eta bide batez, euren bidelagun bihurtu: betidanik ukatu zaion gorputzaren kontrolarekin batean, emakumeen sexualitatea eta erotismoa azaleratu dira. Miren Agur Meaberen poesian erotismoak izugarritzko indarra du. *Nola atondu (dudan nire) gela bat norberarena* (2022) lanean dio “Desioaz idaztea tabuei uko egiteko modu bat izan da, isiltasun ezarriak hausteko transgresioa” (2022: 23). Meaberen poesian erotismoak eta desirak ibilbide bat jorratu dutela esan daiteke. Poetak aipatzen du hasierako lanetan alegorizazioa zela nagusi eta ondoren errealismoak bete zuela haren lekua. Sentsualitateak eta hedonismoak ere pisu handia izan dute lekeitiarraren poemetan eta onirismoak eragin nabarmena izan du (2022: 23). Ikusi besterik ez dago *Azalaren kodea* liburuko zenbait poematan dauden desiraren eta erotismoaren inguruko aipamenak:

Euria ari du nire klitori gainean. (“Memoria ez galtzeko oharak-3”, *Azalaren kodea*, 2000: 14)

Armiarma-sarean zehar ostadarra ikusten nuen zuk bultza eta bultza ezerezaren kontra egiten zenidan bitartean. (“Basalarrosek mihazkatu dute”, *Azalaren kodea*, 2000: 59)

*Bitsa eskuetan* liburuan ere ez dira gai erotiko eta sexualak falta. Lehenik eta behin, liburu horren azalari erreparatuz gero nahiko irudi sentsual batekin egingo dugu topo, emakume biluzi baten gorputzarekin, zeina bainu bat hartzera doan. Liburuan zehar erotismoari loturiko zenbait poema daude, horien artean, bere erritmo erotiko estasiatuagatik nabarmendu dugun “Salmoa”. Gaiari dagokionez, maitasuna eta erotika dira aipagarrienak. Gizonezko bati zuzentzen zaio “ni poetikoa”, eta “handi” irudikatzen du gizon hori: “zure esku handiei begira”. Gorputzari oharturiko azalpenak etengabeak dira, eta zenbait gorputz atal ere erakusten dizkigu: gorputza, bihotza, ezpainak, eskuak, ahoa, orezta, ahotsa, azala, hankak, adurra, hatsa, besoa, altzoa... Desira gorputzetik eta gorputzez hitz egiteko behar nabarmena adierazten du. Gizonezkoarenganako erotika da nagusi, eta erakarmena ere gorputz-isuriaren aipamenez markatua da: “zure bitsak, zure gatzak, zure esneak”, “lasterka nazazu lauhazka/ lasterkatu lau hankatan /adurra adurra-

ren truke/ eta adurrean talko-hautsa”, “zure musu bat sorbalda biluzian egunsentian hain handi eta eder eta on baitzaitut”.

Ondorioz, esan genezake erotismoak indar handia duela emakume garai-kideen poesian, eta baliteke bere indar transgresoreagatik eta sortzen duen asalduragatik izatea hain omnipresentea. Miren Agur Meabek diskrezioren hesiaren deseraikuntzan, maitasunaren eta erotismoaren adierazpen molde ezberdinak landu ditu: intimoa eta lirikoa, nahiz gordina edo jostaria, eta ez dira falta sarkastikoa edo nostalgikoa ere. Ana Rossettiren “Chico Wrangler” poeman, esaterako, emakumearen begirada erotikoa goitik behera zeharkatzen du objektu rola jokatzen duen gizona, eta rol aldaketa bat irudikatzen du (*apud* Ugalde 2018: 151). Adu horrek ahots berritzaileenetakotzat hartzen du Rossetti, bere poesia erotikoa azpimarratzeaz gain. Gauza bertsua antzeman dugu Miren Agur Meaberen poeman.

Erotismoak eta erotizismoaren berrikuspenak paper garrantzitsua jokatu-ko dute emakumeen poesian. Autoerotismoak ere plazarako jauzia egingo du emakumeen eskutik, eta ahobizarririk gabe hitz egingo da emakumeen zein gizonezkoen masturbazioaz. Aurreko ideiar lotuta, Maria Rosal Nadalesek (2010: 107) dio emakumearen sexualitateari indarra ematen zaiola, eta gai tabu izatetik gai publiko izatera igarotzen dela, neurri txikian bada ere. Francisco Castañoren poema bat horrela amaitzen da: “*Tú necesitas la mano entera, / yo con el dedo me hago feliz*” (“Le chatiment d’un faune”, *apud* Rosal 2010: 107).

Erotismoarekin batera, poesian oso ohikoa izan da maitasunaren inguruan jardutea; are gehiago, esan liteke gai nagusia berau izan dela eta emakumeen poesiaren gai tradizionala dela. Hala ere, gizonezkoenean erreala-goia da emakumezkoen poesian islatzen den maitasuna, “en la lírica de mujeres la experiencia amorosa se manifiesta más real, basada en una vivencia compartida” (Hermosilla, 2011: 79).

Emakumezkoek gizonezkoekin alderatuz, begirada eta ikuspegi ezberdin batetik idazten diote maitasunari. Honen inguruan, Rosalek (2013) honakoa dio:

*El ideal del amor eterno y el concepto popular de media naranja son puestos en entredicho, muy en particular desde presupuesto feministas. Por ello, no es de extrañar que sea entre las poetas más especialmente combativas donde encontremos el diseño de nuevos sujetos líricos que responden a estas cuestiones. En este sentido se rechaza el concepto del amor romántico, en tanto que legitima las relaciones de poder e incluso las actitudes violentas –sean de índole física o emocional– contra las mujeres, a la vez que supone un obstáculo para la propia identidad femenina. (Rosal 2013: 345)*

Miren Agur Meaberen kasuan, erotismoak atsegina eta plazera iradokitzen baditu ere, maitasuna ardatz duten poesiek arrakalak, hutsuneak eta nostalgia iradokitzen dute gehienetan, maitasun ez-perfektuak eta dezepzionanteak. *Nola atondu (dudan nire) gela bat norberarena (2022)* lanean honako hau dio maitasunaren inguruan:

Maitasunari hainbat ikusmiratatik begiratu diot: hausturaren bel-durrez, adorazioz, galdutako amodioarekiko nostalgiaz, norbanakoaren defentsari kontrajartzen zaion batasun-irrikaz... Ikuspegiak aldatu arren, bestearekin elkarriketan aritzeko egarria, errealitate bat partekatzeko gogo, konstante bat izan da. (2022: 24)

Horren lekuko dira, esaterako, *Bitsa eskuetango* lehen poemak, esate baterako, “Definizioa” delakoaren amaieran dioelarik “Amodio koldarretatik ihesi nabil/ lapurtutako moto batean./ Bateria jotzen dut ilunpean” (11) , edota “Bigarren bizitza” izenekoan lur jo duen maitasuna historiaren amaieran dioelarik, irudi aski adierazgarritz:

Atera naiz isilean etxetik, lokatzetan utzirik oinatzak, Giltzari odola dariola. Banoa, ea zertan den beste airea. Bigarren azala, bigarren kodea. (2010: 34)

Eta maitasun historia hori atzean uzten ikastea da hurrengo poeman “Hutsaren begian” mintzagai duena:

Ohitzen ari naiz esaten

Ez nauzula maite, ez zaitudala maite.

*Moi je ne suis plus ton amour, toi tu n'est plus mon amour.* Horixe ikusten, horixe onartzen, benetan ulertzen. (2010: 36)

### 3.3. Genealogiak

Emakume poeten lanetan indar handia hartu du genealogia feministei atxikitzeak. Eredu femeninoak izatea lagungarri da hutsetik sortu behar izan duten emakumeen kasuan. Miren Agur Meabe ere bere poesia liburu berrienetan genealogia mota ezberdinez mintzatu zaigu: genealogia familiarraz eta poetikoaz, bereziki. *Nola atondu (dudan nire) gela bat norberarena (2022)* laneko 7. atala “Gela-lagunei” eskaintzen die eta alaba bakarra den arren, hainbat ahizpa dituela aipatzen du Meabek, lau kategoriatan bereziak:

–Ahizpa adiskideak. Neure memoria osatu, eta neure izaera eta oraina interpretatzen eta eramaten laguntzen didatenak.

–Ahizpa lankideak. Langintza honetan konplize ditudan emakume idazle, editore, kritikari, ikerlari, artista, irakasle, pentsalari edo ta kazetariak.

–Ahizpa sororak. Feminismoaren sinesbideetan aurkitutako emakumeak, historian zehar patriarkatuaren interesek gure artean zabalduak lubakia lautzeko prest daudenak eta emakumeon adierazpideak fribolizatu edo gutxiesteko asmatu izan diren metodo sofistikuak bereizten dakitenak

–Ahizpa pospoloak. Beroa eman ezezik, atzamar-puntak erretzen dizkidatenak. (2022: 29-30)

Ikusten da, beraz, garrantzi handia izan dutela zenbait emakumek bere bizitzan. Sakondu dezagun berorietan.

#### 3.3.1. Genealogia familiarra

Genealogia familiarri dagokionez, *Bitsa Eskuetan* bere hirugarren poema liburu da aipagarriena. Izan ere, hiru atalez osaturiko liburu horretan, bigarrena amari eta haren heriotzari eskaintzen dio oso-osorik. Horrez gain, aurreko bi liburuetan bezala, bere buruaren idazle eta pertsona definizioak azpimarratzen eta gorputzaren kontzientzia transgresoretik idazten jarraitu du jendaki oren kezkez. Arestian aipatu gisan, ordea, genealogia familiarren gaia jorratzen du liburu horretan, atal oso bat eskainiz bere amarekiko harre-



manari eta haren galerak ekarritako sufrimenduari. Atal horretako poemetan aipagarriena “Hobia” litzateke. Poema horretako hiztuna eta “ni poetikoa” Miren Agur Meabe beraren ama da, zeina hil ostean bere bizitzari buruz ari den hitz egiten. Meabek amak berarentzat izan duen garrantzia azpimarratzen du poema horretan, zehar bidez. Haren heriotzaren dolua hizkera eta erregistro liriko ezin finagoez tratatua ikus genezake eta *Bitsa eskuetan* liburuko atal garrantzitsua bete bazuen, 2020koan ere berriro hartuko du garrantzia. Izan ere, Meaberen genealogia pertsonalean emakumeek osaturiko unibertsoaren esperientzia gailentzen da, *Kristalezko begi bat* liburuan zabalki garatu zuen moduan, itsasoan hilabetetan egoten zen aitaren absentsia luzeez inguratua.

Meabek aldarrikatu izan du emakume batek ez duela zertan ama izan, eta bere poemetan gutxitan irakurri ahal izango dugu bere amatasunari buruzko erreferentzia zuzenik, baina biri buruz mintza gaitzek. Batetik, emakume haurdunaren pentsamendua adierazten duena:

Ni, barrurantz begira eta barrurantz berbetan.

Zu, nire sabelean,

belarria ipinita eta lo aldi berean, nire izena ikasten. (2000: 62)

Edota senarrarengandik banatzean, Joanes semeari eskainiriko “Jardin Botanique” poeman harekiko ama-ardura aitortzen du, haurraren gurasoen arteko maitasuna agortua dela aitortzean:

Ez dakit zer jardin uzten dizudan, semea. Berde kamuts nahi luke zure udaberrian.

Kristalezko negutegi honen maketa hautsiak. (2010: 38)

Amaren figura oso garrantzitsua izaten da oro har, sorleku eta babesleku izaten baita, eta maiz omenaldi eta eskaintza bereziak egiten dizkiete poetek euren amei. Esan liteke, halere, nahikoa gai konplikatu dela zenbait emakumerentzat eta horren adibide da Meabe. Amatasun eredu guztiz “emana” eta entregatuaren aurka azaltzen da modu argian *Kristalezko begi bat* liburuan, non luzaz garatzen duen ama eredu ezin maitekorragoarekiko zorraren gaia, eta, aldi berean, horrek berak amaren “bizitza bizi gabea”ren tragedia onartua, diskrezioz eramana. Berea, ordea, ez da horrelako amatasuna izango, emakume izateari uko egiten ez dion amatasuna baizik.

Bestela esanik, Milia Lasturkoaren “azpian lur hotza eta gainean harria”-ren testuartekotasunaz mintzatzean aipatu den “Hobia” poeman ageri da bere amarena bezalako amatasunaren emaitza:

Zein ote da andre jasekoaren saria? Esku zabaletan urre gorria:  
bitsa eskuetan eta bits horren zauriak. (2010: 56)

### 3.3.2. *Genealogia poetikoa*

Genealogia familiarraz gain, genealogia poetikoak ere indar handia du Meaberen poesian, eta batez ere *Bitsa eskuetan* liburuan. Liburua ireki bezain pronto Anna Akhmatova errusiar poetari “La vie en rose” izeneko poema-atala eskaintzen dio. Horrez gain, Julia Barella, Esther Jimenez, Marina Aoiz, Ana Gorria eta Viola Fisherováren aipuak sartzen ditu liburuan zehar, guztiak emakumezko poetak. Gainera, Forugh Farrokhzad euskaratu zuen Meabek 2020an. Hori ere funtsean miresten duen emakume poeta bat da, eta bere lana euskaratzeak asko esaten du Meaberen aukera poetikoez. Horrez gain, aurrez aipaturiko nazioarteko ereduetan oinarritu da maiz Meabe, besteak beste, Adrienne Rich, Audre Lorde, Alfonsina Storni, Alejandra Pizarnik, Sophia de Mello, Hélène Cixous edo Patti Smith. Azken horri dagokionez, bere poema baten iruzkinean azaltzen duenez (Erlea...), Smithek miretsi egiten omen zuen Rimbaud eta honekin izandako amets erotiko bat kontaktzen du poeman. Meabek esaterako, “Patty Smith Rimbaudekin ametsetan” poema eskaini zion (*Bitsa eskuetan* 2010: 24-25) eta hark Arthur Rimbaud poetarekin izandako amets erotikoaren “sekuela” edo jarraipena idatzi zuen, hark erabilitako poesia erlijio-soen estasia parodiatuz: “Patti ohean etzanda, iletik helduz Arthurri. Sugarra dira ilea eta biloa, o Jesus! Orratzak atzamarrak, o Jesus! Zurea naiz osorik”. Meabek bere amets propioaz hitz egiten du poeman, baina Smithen liburuko estiloan kontatuko digu bere estasi erotikoa ere. Nabarmenak dira esaldi eta irudi erotikoak poema honetan, batez ere, bi paragrafo hauetan:

Hotzikara eragin dit koilaratxoak bular artean. Kikara beroan sartu ditu berak atzamarrak, intziri bat ito du. Ezpainetan ditut orain

haren hatz luzeak. Zantar hori. Txupatu egiten dizkit belaunak bere  
lixazko mihiarekin.

[...]

Marraxoaren bazka ipurmamiak. Egin dzast, dzast, dzast, eder hori,  
hortxe, eman, segi holantxe, plas, plas, plas. Martiri bat bezala ireki  
naiz erditik. Tarratada eta bitsa. Izerdiaren perladuria. Zeurea naiz  
osorik, aleluia. Neurea zara osorik, aleluia, o Jesus! (2010: 24-25)

Poema horretan poetaren idazle autoafirmazioa, gorputzaren eta plazer  
erotikoaren aldarria nahiz genealogia literarioa bateraturik islatzen dira.

Genealogiak egiterakoan, hainbat baliabideren jabe egiten dira emaku-  
meak, besteak beste, mitoen berrikuspenaren jabe (Rosal 2010: 105). Balia-  
bide honen helburua, literaturan edo historian zehar pertsonaia bati ezarri  
zaion “signifikazioa” irauli, eta pertsonaiarekin berarekin beste istorio bat  
sortzea izaten da.

Emakumeek idatzitako poesian, maiz aurki daitezke mitifikatutako pertso-  
naien edota historian zehar ezagunak izan direnen berrikuspenak, gehien-  
tsuenetan emakumeenak. Gehien erabili dena Ulisesen istorioko Penelope  
da, zeina bere senarraren esperoan egon omen zen 20 urtez, beste ezkongaiak  
engainatu eta ezetza emanez. Silvia Ugidosek, Peneloperen figura desberdin  
bat marrazten du: maiteminduta egon ordez, maitasunez mozorrotutako  
emakume beldurtutzat irudikatzen du, eta “gera zaitetz Ulises, izan zaitetz zerri  
bat” esaten dio Circeri (“Circe esgrime un argumento” en *Las pruebas del  
delito*, 1997) (Rosal 2010: 105). Maria Victoria Atenciak, bere aldetik, Lady  
Godivaren inguruan poema bat sortu zuen, mitoa eraldatuz. “Godiva en Blue  
Jean” izena eman zion, eta *El mundo de M.V* liburuan (1978) argitaratu zuen.  
Godiva ezagun egina zen bere gaintetik zegoen senarrari aurre egiteagatik eta  
bere gorputz biluzia erakusteagatik. Atenciak, ordea, XX. mendeko emaku-  
me moderno baten itxura ematen dio, modako arropa daramana. Itxuran  
bakarrik ez, izaeran ere aldaketa bat nabari zaio Godiva berriari eta inoreki-  
ko mendekotasunari uko egingo dio. (Thompson 2002).

Ikono kulturalen berrikuspen garaikide hauen helburua, emakumezkoen  
inguruan egin diren irudikapen gaiztoei ikuspegi berri bat eskaintzea da.

Kontua ez da emakume hauen historia aldatzea, baizik eta historia bera gogoraraztea eta ikusgarritasuna ematea, modu originalean eta garaikidean. Adibide polita da Meaberen aitzindari izandako Amaia Lasaren *Fantasia bat* (1997) poema. Bertan euskal literaturako “Anbotoko Damia” eta greziar literaturako Safo emakumeak elkartzten ditu. Safo emakume homosexuala zela aipatzen da, eta Lasak poema horretan “Anbotoko Damia” rekin elkar-tzen du, itsasondoko harkaitz batean. Greziar mitoak dio, Safok ezinezko maitasun baten ondorioz, itsasondoko harkaitz batetik boteaz egin zuela bere buruaz beste. Miren Agur Meabek ere Saforen mito edo genealogiaren aipamena badakar “Besteak” izeneko poeman, baina ukatu egiten du haie-kiko ahaidetasunik: “Ez dut nahi Saforen kutsurik, peploen azpian muztioa miazten edo labar beltzetan heriotza limurtzen” (2010: 30).

Izan ere, *Bitsa eskuetan* liburuan, genealogia literario edo sinbolikoek leku garrantzitsua hartzen dute eta *Nola gorde errautsa kolkoan* (2020) liburuan ere bai. Lehenengoaren sarreran topatzen dugun “Definizioa” (11) poeman bertan, bere burua aurkezterakoan “Emakume kaieraduna naiz” esanez abiatzen da, eta berehala diosku “Ez naiz Wendy,/ Batzuetan hegan egin arren/ eta peterpanekin jolastea atsegin”, gisa berean “Chagallen pinturretan bizi” nahi duena dela, “edo bestela, Silvioren abestietan hil”; edota aurrera-go, “Besteak” poeman dioen moduan, bere burua beste emakume zenbaiten aurkako ispiluan ikusten du: Aurore Dupin, Mesalina, Teresa Kalkutakoa, Safo, Anbotoko Mari, Nazaretoko Maria, Magdalako Maria, Enma Bovary eta beste hainbat “beste”. Poemaren hasieratik, horiek bezalakoa izan ezina azpimarratzen du. Denek izan dute trabaren bat bizitzan emakume izate hutsagatik, eta horietako batzuek gaizki amaitu dute. “Ni poetikoak” ez du bere burua emakume hauekin alderatu nahi, hein batean, maila altuago batean kokatzen ditu euren historiagatik, eta bera oso xume sentitzen da hauen alboan. Emakume horiek guztiak ispilutzat hartzen ditu eta une oro bere burua kokatzen eta definitzen dabilela aitortzen du, baina mitifikazioe-tatik ihesi, bere natura hibridoa eta kontraesanez betea aldarrikatuz: “ni neu” kontraesankor hori autoafirmatzen du.

*Nola gorde errautsa kolkoan* (2020) liburuko lerro artean ere topatuko ditugu hainbat emakume izen: Lucy Westerna, Drakularen amorantea, Wendy Peter Panen laguna, izenik ez duen Yemengo neskatila bat, Ama

Birjina, Scheherezade, Bronte ahizpak... Horietako batzuk Meaberen *alter egoak* dira, besteak bere solaskideak edo mezu jasotzaile soilak. Oihana Larretxeak dioen moduan: “Denak txirikordatuz mintzatuko zaigu ahizpata-sunaz, parasitismo sentimentalaren arbuioaz, eta independentzia emozionalaz” (2020).

Amaitzeko, interesgarri da bere buruaren definizio irudien artean “uharte isila” (31) erabili izana. Izan ere, Meabek aipatzen dituen mitoen artean, Eolia irlaren legendaren berrikuspenaren bidez mintzo da maitasunaren desiraz *Bitsa eskuetan* (2010: 78) liburuko “Eolia” poeman. *Odiseako* irla mitiko bat da, izatez, Eolia. Uhartea aldakorra da, flotantea da, kokaleku finkorik gabea. Meabek olerki honetan, bere burua berdintzen du Eoliarekin, emakume kutsu sentsual bat emanez:

Mitoak dio Eolia lorez beterik zegoela.

Hostotsu irudikatzen dut uharte hori, nire pubisa lez, baina alua mehetu zait jada, bular-muturrak zurbildu. Eolia jitoan omen zebilen hara eta hona, sekula inor bertara ez itzultzeko eran.

Ni ere banaiz Eolia bat; irrikaz, ordea, aurki nazazun, betazalak argiz apaindurik, ahoa zeure gustuko esaldiz...

Poemaren amaieran, ordea, ukatu egiten du Eoliarekin duen antzekotasuna, izan ere, desamodioaren zantzuak nabari dira nonahi. Eolia ez bezala, bera ez dabil iheska:

Oker dihardut, baina, oker dihardut. Ez naiz Eolia eta ez nabil nora ezean. Zu ez zara nire fruituz elikatzen.

Zuk ibilitako urak ez dira itsaso eskerga hauek. (2010: 78)

Miren Agur Meaberen poesiagintzan gunen tematiko horiek garrantzi handia badute ere, ez dago ahanzterik bestelako gai ildo aski finkoak nabari ditzakegula bere poesian, gure lan honetan behar bezala azaldu ez ditugun arren. Horien artean bizpahiru nabarmenduko genituzke nagusitza: lehenik, auzi soziala, etorkinen, langabeen, edota herrialde azpigaratuetakoa indarkeriaren biktimen inguruko kontzientzia bizia. Bigarrenik, herri kultura eta bakegintza, sormenaz bizitzaren justifikazio gisa, erlijioaz biktimario bezala, emakumeen gizarte betebeharren kontzientziaz, amodio erromanti-

koaren kritikaz, ama-alaben arteko zaintzaz... Hirugarrenik, berriz, bizitzari, heriotzari, denborari eta bakardadeari buruzko hausnarketa ezin utzizkoa zaio Meaberi bere sorkuntza literario osoan zehar, poeta orori bezala. Orduan irekitzen da Meaberen erreferentzien mundua Anna Athmatova, Arthur Rimbaud eta Vladimir Holanen aipamenetara. Aipagarri da euskaldunen artean, Jose Luis Otamendi, Iñigo Aranbarri edo Xabier Lete agertzen direla. Azken horren poesia gai bati erantzunez osatzen du, esaterako, *Bitsa eskuetan* liburuko pasarteetako bat “Gaza grisa”, “Locus amoenus”, “Ituna”, “Piztuera” eta “Uraren estrata” (15-23) poemek osatua, Leteren hitzei erantzunez. Hark esana da “Lanbroaren beste aldean idatzirik dagoen halabehar itsua baizik ez da bizitza” (15) eta Meabek ere Leteren hizkera tonu liriko solemne bera hartzen du, bizitzaren esperientziaren ondorioa hustasuna dela aitortzeko oiartzuarrari, hark ohi zuen bezala, egunari eginiko aipamen ondo ekarriaz:

Hustasun hau ez da besterik bakoa, ez da kasuala. Ai lagunok!  
 Ardo-kopa altxatzen dut  
 Baratzeko hornei begira  
 Eta kardu belarra bezain arina naiz sentitzen. Erreturak errautsak  
utzi ditu lurrean, Haizeak bekokira dakardidan polen arrea.  
 Bitsa, ez dut besterik eskuetan. (2010: 17)

#### 4. Ondorioak

Emakumeak (poetak zein poetak izan ez) itxialdian egon dira urte luzez. Horrek idazketa intimoagoak egitera bultzatu ditu, eta gutunak, memoriak eta egunerokoak izan dira nagusi euren lanen artean. Ana Casasek (2017: 41) dio, garaiak ezberdinak izan arren, poesia garaikidean ere bizirik dirauen ezaugarri bat dela hau eta lehenengo pertsonan idazteko hautua egin izan dela. Emakumeek eroso dihardute autofikzio bidez, eta hizkera askea darabilte euren barneak husteko. Modu honetan, autorea protagonista izango da, zeina bere datu errealetan oinarrituta eraikiko duen istorioa, nahiz eta fikzio puntu bat izan. Ahalik eta subjektiboena izaten saiatuko da. (Casas 2017: 42). Itxaro Bordak ere emakume poetek beren barrendegitik idaztea berriazko erabakia izan dela iradokitzen du (2014): “Intimitatearen erabilpena,

euskaraz idazten duten emakumeentzat, bazterketaren ezpondatik beraien boza oraindik ere entzunarazteko eta aberriaren ereduaren deseraikitze baliabidea dela ematen du”. Are gehiago, “Intimitatea da hondarrean okupatzeko geratzen zaigun leku huts bakarra” (*Intimitatea, zartagailu*, 2014: 43).

Miren Agur Meaberen poesiaren azterketaren bidez, idazkera intimista duela eta intimismo hori bere testuetan bortitza, dramatikoa eta irudimentsua dela esan dezakegu. Gaiei dagokienez, bere poetika propioaz maiz idazten du, eta baita idazteak bere nortasuna eraikitze duen garrantziaz ere. Bere burua eta identitatea eraikitze baliabidetzat du idaztea, non ahots femenino intimo batek lagunduko dion horretan. Gisa honetara, aurrez plazaratu gabeko zenbait gai, ahots eta molde berri azaleratuko ditu. Emakumezkoek sortutako ahots femenino intimo horrek intimoa den gorputza izango du babesleku, eta bide batez, plazarako bidea egiteko bidelagun. Esan liteke, ez dagoela Meaberen poesia ulertzerik gorputzik ezean, hau da, berak darabilen abiapuntu nagusia gorputza izango da. Gorputzaren tratamendu moduari dagokionez, berriz, emakumearen sexualitate, erotismo eta desirek adierazpen modu aberatsa dute poeta lekeitiarraren obretan, sentsuala eta irudimentsua, eta bera izango da seguruenik euskal poesian gai hauei bide eman dien lehen poeta.

Genealogia feministaren arloan, amaren heriotzaren inguruko poematik bakarrik aztertu badugu ere, egileak amaren kastaren errebindikazio nabaria egiten duela ikus genezake: haren ama eredu (bere buruaren ukapena egiten duena) eta entrega guztizkoa arbuiatzen badu ere, bere amarekiko esker sakona eta egiatzkoa aitortzen du. Genealogia poetikoari dagokionez, berriz, Anna Akhmatovatik hasi eta Patty Smitherrainoko ibilbidean edota euskaratu zuen idazle persiarraren erotismo askearen desinhibizioan aukera zabala aurkitzen dugu. Meabek nazioarteko zenbait eredu izan ditu bere ibilbidean lagun, eta eragin zuzena izan du horrek bere idazketan, baina bere nortasunaren konplexutasunaren baieztapena eginez, mitoekiko genealogian kokatzeari uko egiten dio.

Laburbilduz, emakumezko poetek berrikuntza ugari ekarri dituzte poesiarren mundura; are gehiago, ikuspegi berri bat sortu dutela esan dezakegu. Ikus daiteke emakumeen poesia indartzen ari dela urteen joanarekin, eta

etorkizun oparoa izango duela pentsa genezake. Horren adibide da Oihana Arana (2001), idazle eta bertsolari eskoriatzarra, zeina *Lazunak Azkazaletan* (2021) lehen poesia liburua argitaratu duen eta XXI. mendeko lehen euskal poeta bilakatu den. Idazle berri hauei bidea irekitzen, ordea, lan honetan aipaturiko zenbait emakume egon dira eta euskal literaturaren kasuan, Miren Agur Meabe litzateke horren ordezkari nagusia.

## Bibliografia

ALTZIBAR, X. (2008). «Bizenta Mogelen gabon kantak eta 1828ko bertsoak», *Bidebarrieta*, 19: 26-66.

ALVAREZ URIA, A. (2005). «Euskal emakume idazleen lekua literaturaren historian: Dorrearen arrakalak agerian uzten», *Jakin*, 148: 37-75. <[https://www.jakin.eus/aldizkaria/artikuluak/euskal-emakume-idazleen-lekua-lite\\_raturaren-historian-dorrearen-arrakalak-agerian-uzten/3157](https://www.jakin.eus/aldizkaria/artikuluak/euskal-emakume-idazleen-lekua-lite_raturaren-historian-dorrearen-arrakalak-agerian-uzten/3157)> [2021/04/19]

BORDA, I. (2013). «Intimitatea, zartagailu», 452<sup>o</sup>F (*Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*), 9: 42-55. <[https://www.452f.com/pdf/numero09/09\\_452f-mono-itxaro-borda-orgnl.pdf](https://www.452f.com/pdf/numero09/09_452f-mono-itxaro-borda-orgnl.pdf)> [2021/05/06]

———, MEABE, M. A. (2018). Elkarrizketa. Hiru Damatxo eta Islandia ekoiztetxeek sortutako #TokizKanpo izenekov saioan. <<https://www.youtube.com/watch?v=rflv8uc0GEk>> [2021/05/21]

BIDADOR, J. M. (1996). «Euzkerea aldizkariaren andrazko poeta bi: Sorne Unzueta “Utarsus” eta Pantzeska Astibia “Onintze”». *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-10-11 eta 1996-10-18.

CASAS, A. (2017). «Punto ciego del yo: autoficción y padecimiento en Meruane, Nettel y Meabe», *Yo-grafías: autoficción en la literatura y en el cine hispánicos*, 2017, Madril, 41-54.

ETXEBARRIA, I. & KALTZAKORTA, J. (2009). *Herri Literatura*. Eusko Jaurlaritza.

GOIKOETXEA, J. (2016). Prentsaurrekoa. Lisipe bildumaren aurkezpena. <<https://www.youtube.com/watch?v=VLP5qenTqvg>> [2021/05/17]

EZKERRA, E. (2009). <http://www.basqueliterature.com/Katalogoak/egileak/meabe> [2021/10/25]



HERMOSILLA, M. A. (2011). «La poesía de mujeres en España: la búsqueda de una identidad», *Alfinge*, 23: 65-88. <<https://helvia.uco.es/xmlui/handle/10396/14010>> [2021/04/19]

KALTZAKORTA, X. (1999). «Errose Bustintza (1899-1953)», *Bidegileak* bilduma. Eusko Jaurlaritza.

KORTAZAR, J. (1995). «Euzkerea» eta «Yakintza» aldizkarietako olerkigintza. Labayru-Zornotzako Udala.

LARRETXE, O. (2020). «Nola gorde errautsa kolkoan poesia liburuarekin itxi du triptikoa Miren Agur Meabek», *Naiz*, 2020-11-20. Sarean <<https://www.naiz.eus/es/info/noticia/20201130/nola-gorde-errautsa-kolkoan-poesia-liburuarekin-itxi-du-triptikoa-miren-agur-meabek>> [2021/06/02]

MEABE, M. A. (2022). «Nola atondu (dudan nire) gela bat norberarena», *Zaldia-ri*, 11. Sarean <[https://hea.eus/hea/ZALDIARRI\\_11.pdf](https://hea.eus/hea/ZALDIARRI_11.pdf)> [2022/04/19]

MONTAGUT, C. (2015). *Tomar la palabra: Aproximación a la poesía escrita por mujeres*. Barcelona: UOC.

PEREZ GAZTELU, E. (2017). «Frantziska Astibia Etxegoien, Onintze, Astitxe (Gerraurreko) emakume fededun militantea», *Oarso aldizkaria*, 25, Erretereria 22-28. Sarean <[https://egela.ehu.es/pluginfile.php/4096941/mod\\_resource/content/1/astibia.pdf](https://egela.ehu.es/pluginfile.php/4096941/mod_resource/content/1/astibia.pdf)> [2021/06/02]

RODRIGUEZ, E. (2019). *Idazleen gorputzak*. Lisipe, VI. lib.

ROSAL, M. (2010). «Mujer real frente a mujer soñada. Nuevas imágenes de mujeres en la poesía contemporánea», *Ámbitos*, 24: 99-108. <<https://helvia.uco.es/xmlui/handle/10396/6622>> [2021/04/19]

——— (2011). «Poesía Española escrita por mujeres a finales del siglo XX», *Itinerarios*, 13: 157-167. <<http://itinerarios.uw.edu.pl/poesia-espanola-escrita-por-mujeres-a-finales-del-siglo-xx/>> [2021/04/19]

——— (2013). «La fractura del amor romántico en la poesía escrita por mujeres», *Sociocriticism*, 28: 343-370. <<http://revues.univ-tlse2.fr/sociocriticism/index.php?id=919>> [2021/04/19]

THOMPSON, D. (2002). «Cambiar de vestuario a Lady Godiva: la revisión de mitos en la poesía española contemporánea escrita por mujeres», *Espéculo*, 22. <<https://webs.ucm.es/info/especulo/numero22/godiva.html>> [2021/04/19].

TRUEBA, V. (2009). «*El poder del cuerpo. Antología de poesía femenina contemporánea*», *Lectora*, 16: 235-237. <<https://revistes.ub.edu/index.php/lectora/article/view/7238>> [2021/04/19]

UGALDE, S. (2018). «La poesía de autoría femenina de la Transición vista a través de Los Encuentros de Mujeres Poetas (1996-2005)», *Diablotexto Digital*, 4: 149-165. <<https://ojs.uv.es/index.php/diablotexto/article/view/15338/14211>> [2021/04/19].

ZABALA, J.L. (2016). *Sautrela* (2016-05-28). Sarean <<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/sautrela/bideoak/osoa/4112026/bideoa-miren-agur-meaberen-azalaren-kodea-azertu-dugu/>> [2020/05/16].

ZALDUA, I. (2005). *Poetikak & poemak* (Joseba Sarrionandia, Miren Agur Meabe, Castillo Suarez, Kirmen Uribe, Ricardo Arregi). Donostia: Erein.

# **Hitano-erabiltzaile profil berriak sare sozialetan eta tartekako tratamendu-aldaketa adierazkorra. Kasu baten azterketa**

**Nuevos perfiles de usuarios del “hika” en redes sociales y cambio significativo en el tratamiento intermitente. Un caso de estudio.**

**Nouveaux profils d'utilisateurs de “hika” dans les réseaux sociaux et changement significatif dans le traitement intermittent. Un cas d'étude**

**New profiles of “hika” users in social networks and significant change in intermittent treatment. A case study**

BEREZIARTUA ETXEBERRIA, Garbiñe  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika  
University of the Basque Country (UPV/EHU)  
Department of Didactics of Language and Literature  
garbine.bereziartua@ehu.eus

MUGURUZA ASEGINOLAZA, Beñat  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa  
University of the Basque Country (UPV/EHU)  
Department of Basque language and communication  
benat.muguruza@ehu.eus

Noiz jaso: 2021-12-15  
Noiz onartua: 2022-04-20

Zukako elkarrizketa batean, aldizka hitanora jauzi egitearen atzean zer dagoen aztertu nahi du lan honek. Baina oso testuinguru espezifiko aukeratu da azterlana gauzatzeko: ohiko hitano-erabiltzaile ez den gazte bat, sare sozialetan. Parte-hartzaile horrek sei urtean zehar Instagram plataforman izandako 1.870 txat-elkarrizketa arakatu ditugu, bereziki hika egindako adierazpenetan begia jarriz. Hor jasotakoei ikerketa-tradizio sendoa daukaten bi eremutako ekarpenak aplikatu dizkiegu: Jakobsonen hizkuntza-funtzioak eta kode-aldaketen tipologiak sailkatzeko proposamenak. Ikusi dugu hitanoaren erabilera adierazkorraren tipologiak sailkatzeko helduleku emankorrek izan daitezkeela bi eremuok. Ikusitakoan ondorio gisa, hitanoa biziberritzeko balizko egitasmoak martxan jartzeko pistaren bat ateratu dugu, baina kasu honetan formaren azterketa egitera mugatu gara eta beharrezkoa litzateke funtzioarekikoak ezagutzeko azterketa kualitatiboak egitea.

**Gako-hitzak:** Hitanoa, Instagram, sare sozialak, kasu-azterketa, kode-aldaketa, hizkuntza-funtzioak.

Este trabajo pretende indagar en por qué cuando en una conversación que se desarrolla dentro de un tratamiento de tú, se hacen saltos hacía un tratamiento allocutivo. Y para ello se ha elegido un contexto muy concreto: el estudio del comportamiento de un joven en las redes sociales, a sabiendas de que no utiliza habitualmente el allocutivo en sus relaciones sociales. Encuestamos 1.870 conversaciones de chat con el participante en la plataforma de Instagram durante los últimos seis años, con un enfoque particular en las declaraciones hechas con el tratamiento allocutivo. Hemos incluido contribuciones de dos áreas con una fuerte tradición de investigación: las funciones del lenguaje de Jakobson y las propuestas para clasificar tipologías de cambios de código. Hemos visto que ambos ámbitos pueden ser fructíferos asideros para clasificar las tipologías de uso expresivo del allocutivo. A raíz de lo visto, damos alguna pista de cómo poner en marcha posibles planes de revitalización del allocutivo, si bien en este artículo nos hemos limitado a un estudio de forma y, por lo tanto, habría que hacer estudios cualitativos para indagar en la función.

**Palabras clave:** Allocutivo, Instagram, redes sociales, caso de estudio, cambio de código, funciones del lenguaje.

Ce travail cherche à trouver pourquoi, lorsqu'une conversation utilise le vouvoiement, on constate parfois des sauts vers l'allocutif. On a pour cela choisi un contexte bien précis : l'étude du comportement d'un jeune n'utilisant pas l'allocutif dans les réseaux sociaux. Nous avons étudié 1870 chats de cet utilisateur sur la plateforme Instagram au cours des six dernières années, avec une attention spéciale aux conversations utilisant l'allocutif. Nous avons introduit les apports de deux domaines ayant une forte tradition de recherche : les fonctions du langage de Jakobson et les propositions visant à classifier les typologies de changements de code. Nous avons constaté que ces deux domaines peuvent être de précieux alliés pour

classifier les typologies d'usage de l'allocutif. Grâce à cela, nous proposons une piste permettant de revitaliser l'allocutif. Nous nous sommes limités dans cet article à une étude de forme et donc il faudrait faire des études qualitatives sur la fonction.

**Mots-clés :** Allocutif, Instagram, réseaux sociaux, cas d'étude, changement de code, fonctions du langage.

This study seeks to examine the reasons behind the occasional switches to the Basque informal address form *hika* when the speaker is mainly using the formal *zuka*. We chose a very specific context for that: texts written in social networks by a young woman who is not a regular *hika* user. We analysed 1,870 Instagram chat conversations written over six years, and we focused on the use of *hika*. We applied to our findings two contributions with a long research tradition: Jakobson's language functions and different proposals to classify code-switching typologies. We observed that these two areas may be a productive foundation to classify the typologies of the expressive use of *hika*. As a conclusion, we suggest some ideas that could be considered when implementing activities to revitalise the use of *hika*, but it is also true that this study is restricted to the analysis of form, while more qualitative analyses may be needed in order to delve deeper into issues related to the function of this *hika* use.

**Keywords:** *Hika*, Instagram, social networks, case study, code-switching, language functions.

BEREZIARTUA ETXEBARRIA, Garbiñe, MUGURUZA ASEGINOLAZA, Beñat (2021). "New profiles of 'hika' users in social networks and significant change in intermittent treatment. A case study", *Euskera*, 2021, 66: 73-111.

## 1. Sarrera

Hizkuntzak betetzen dituen funtzioak zein diren zehazteko eta hizkuntzaren bidez egiten dugun adierazpenetako bakoitzak zein funtzio betetzen duen identifikatzeko ahaleginak aspaldikoak dira. Horrez gain, beren erreperatorioan hizkuntza bat baino gehiago dauzkaten hiztunek egiten dituzten kode-aldaketak gaitzat hartuta ere ikerketa asko egin izan dira. Eta, azken urteetan, hizkuntza edo kodeen arteko aldaketak ez ezik, hizkuntza baten baitako aldaeren arteko aldaketak ere aztertu izan dira (estandarra eta dialektoa). Gure kasuan, ez hizkuntza eta ez hizkuntzaren aldaera, baizik eta hizkuntza-tratamenduen arteko aldaketetan jarriko dugu begirada (formala edo *zuka* eta informala edo *hika*).

Erreperatorioan hizkuntza-tratamendu bat baino gehiago izatekotan, hainbat aldagairen arabera erabakitzen du euskal hiztunak solaskidearekin bata ala bestea erabili. Alberdik (1996) zerrendatu zituen irizpide horiek 90eko hamarraldiaren hastapenetan jasotako datuetan oinarrituta, Euskal Herriko hamaika lekutako hitano-hiztunak elkarrizketatu ondoren. Haren ikerketa mardulean, senideekin nahiz familiaz kanpoko solaskideekin tratamendua finkatzeko garaian eragin ohi duten aldagaiak zehaztu zituen, baina pertsona batekin normalean tratamendu bat erabili eta tarteka beste batera jauzi egitea, eta horren atzean dagokeena, hau da, hitanoaren erabilera adierazkorra delakoa, ez zituen gainetik baino garatu. Hor jarri nahi du, hain zuzen, arretagune nagusia lan honek, eta seguruenik gero eta ohikoagoa den profila aztertzen da: dela ohitura faltagatik, dela ezagutza faltagatik, hitanoa oso tarteka eta batez ere modu adierazkorrean erabiltzen duen hiztunarena.

Hitanoaz baliatzeko modu jakin horretan sakontzeko, aski landu eta eztabaidatu den marko batean oinarritu gara; batetik, hizkuntzak bete ditzakeen funtzioak zehazteko eta, bestetik, kode-aldaketa deritzon fenomeno hobeto ulertzeko proposatu izan diren zenbait sailkapen erakutsiko ditugu hemen. Orain arteko sailkapenak aintzat hartuta, bi modutan aztertuko dugu lan honetako corpusa: batetik, Jakobsonen (1960) proposatutako hizkuntza-funtzioak gure testuinguruan aplikatzeko baliagarriak diren ikusiko dugu; bestetik, sailkapen berri bat mahaigaineratuko dugu,

kode-aldaketan eremuan proposatutakoetatik abiatuta, baina hizkuntzen arteko aldatetari beharrean, tratamenduen arteko aldatetari begiratuko diona, eta, bereziki, tratamendu neutrotik («zuka ez-alokutiboa») hika modu adierazkorrean (tarteka baino ez) egiteko jauziari. Proposatutako sailkapen berri hori aplikatuko diogu gure corpusari eta emaitzetan aurkeztuko ditugu hor ikusitakoak. Behin horiek eginda, ateratako ondorioen berri emango dugu, aurrera begira egin litezkeen ikerketetarako balioko dutelakoan.

## 2. Atal teorikoa

Atal teoriko hau bi azpiataletan banatuta dago: lehenik, hitanoari dagozkion hainbat ideia azalduko ditugu, nagusiki tratamendu-aldaketaren fenomenoen arreta jarritz. Bigarren azpiatalean, Jakobsonek (1960) definitutako hizkuntza-funtzioak jarriko ditugu mahai gainean, batetik; eta, bestetik, kode-aldaketaren atzeko arrazoi posibleen sailkapenak aletuko ditugu, zenbait autorek proposatutakoak aintzat hartuta.

### 2.1. Hitanoa

Euskaraz oraindik beste tratamendu batzuk ere han-hemen erabiltzen diren arren (xuka, zuka alokutiboa eta berorika), lan honetan zukako<sup>1</sup> eta hikako tratamenduei soilik erreparatuko diegu. Aspaldi honetan zuka aritzen dira normalean euskaldun gehienak, eta egoera gehienetarako baliagarria den hizkera neutrotzat har dezakegu. Hitanoari lagunarteko edo konfiantzazko tratamendua deitu ohi zaio, nahiz izendapen horiek errealtatea ez oso zehatz islatu. Edonola ere, hitz egiteko modu markatua da hitanoa, gaur egun, Euskal Herriko eremu geografiko eta testuinguru gehienetan.

---

<sup>1</sup> Lan hau irakurtzea samurragoa izan dadin, eta zuka alokutiboaz ez dugunez hitz egiten, zuzenean «zuka» deituko diogu «eztabadaka» aritzeari edo «tratamendu neutroari».

### 2.1.1. *Hitanoaren erabileran eragiten duten aldagaiak*

Atal honetan sakonduko diren edukien sarrera bat eginez, solaskideen ezaugarrien, haien arteko harremanaren eta testuinguruaren arabera aukeratu da zein tratamendu erabili. Adina kontuan hartuta, tradizioz adinkideen artean egiten da hika, eta zaharragoak gazteagori egiten dio, baina alderantziz normalean ez. Etxeko edo familiako erabilerari dagokionez, ahaidetasun maila eta generoa dira gehien eragiten duten aldagaiak.

Senide hurbilak eta genero<sup>2</sup> bereko solaskideak izatea hitanoaren bultzatzaile direla ondorioztatu zuen Alberdik (1994) Euskal Herri osoko datuekin. Badirudi belaunaldi batetik besterako erkaketan generoak gero eta garrantzi handiagoa hartzen duela eta itzal egiten diela gainerako aldagaiei, Gipuzkoako bi herritan zentratutako lan berriagoetan ikusitakoen arabera; izan ere, gizonezkoen arteko tratuan eusten dio hitanoak, eta gainerako harreman guztietan nabarmen jaisten da (Azkue 2000; Muguruza & Bereziartua 2020).

Etxetik kanpo hika egin ala ez erabakitzeko aldagaiak ez dira hain desberdinak. Adina, generoa eta harremanaren maiztasuna lirateke erabakigarrienak (Alberdi 1994). Horiei kideetasuna gehitu behar zaie, modu zabalean ulertuta: «lankideetasuna, auzokideetasuna, herrikideetasuna eta jolaskideetasuna, besteak beste,  $T-T^3$ -ren bultzagarri izaten dira sarritan eta are sarriago, aspaldidanikako edo betidanikakoak baldin badira» (Alberdi 1994: 987). Nerabe azpeitiarren hika egiteko joera aztertuta, ordea, beste behin generoa da ardatz nagusia, eta etxetik kanpo ere gizonezkoen arteko harremanetara mugatzen da gero eta gehiago hitanoa. Muturreko konparazio bat jartze aldera, 12-18 urteko mutilen % 85,8k egiten diote elkarri hika, eta nesken artean, berriz, % 2,8k (Bereziartua & Muguruza 2021).

---

<sup>2</sup> Xabier Alberdik «sexu» terminoa badarabil ere, «genero» hobetsi dugu hemen.

<sup>3</sup> Bi pertsona elkarri tratamendu informalean zuzentzea; hizkuntza-tratamendu informalaren erabilera simetrikoa.



### 2.1.2. *Solaskidearekiko tratamendu-aldaketa: zaila, baina ez ezinezkoa*

Alberdiren arabera, behin tratamendua finkatuta zaila da aldatzea, eta oro har «nola hasi hala segi» printzipioaren arabera jokatzekoa dute hika-hiztunek (Alberdi 1994: 983). Tratamendu-aldaketari dagokionez, salbuespenak lirateke bi kasu, literaturan maiz aipatzen direnak: umeak eta ezkonberriak. Umeei dagokienez, jakina da gurasoek seme-alabei hika egitea ohikoa izan dela tradizioaren arabera, ñabardurak ñabardura (Alberdi 1993). Dena den, umeari jaioberritan zuka egiten diote normalean, eta koskortzen deanean pasatzen dira seme-alabei hika egitera. Trantsizio-adin hori zein den ez dago zehazterik, baina 6 eta 15 urte artean kokatu izan da (ikus Alberdi 1993; Azkue 2000; de Rijk 1991). Bigarren salbuespena kontrako noranzkoan gertatzen da. Hori normalean bikote-harremanetan ikusi izan da: ezkongabetan elkarri hika hitz egin arren, ezkondu eta gero zuka egitea. Eginahalak eginda gauzatzen omen dute maiz aldaketa hori, bereziki ezkonberrien adiskidetasuna aspalditik badator, eta oso gaztetatik elkarri hika egin badiote (Alberdi 1996).

Horiez gain, eta gure ikerketara begira bereziki esanguratsua baita, hitanoaren erabilera adierazkorra (tartekako erabilera) legoke. Alberdik (1996) dioenez, oso gutxitan gertatzen da bi solaskidek elkarrekin bi tratamenduak neurri berean erabiltzea. Izatekotan, arrunta den fenomeno bat gertatzen da: nagusiki tratamendu bat erabiltzen duten bi lagunek aldizka bestera jauzi egitea. Aldaketa horiek ñabarduraren bat adierazten dute komunikazioan, eta pertsonen aldarreak edo testuinguruak eragin ohi du. Alberdiren (1994: 985) adibideek argi azaltzen dute jarrera hori:

Senar-emazte batzuek, adibidez, normalean eztabadaka aritu arren, jai-giroan edo txantxetan hitanora jo dezakete solasari umorezko ikutua ematearren. Orobat, semearekin hika aritzen den amak V-ra jo lezake haserrealdi batean urruntasun psikologikoa adierazteko eta, alderantziz, eztabadaka aritzen dena une jakin batean hiketaz balia liteke lagunarteko kидetasuna edo hurbiltasun psikologikoa adierazteko.

Alberdik berak (1994, 1996) aitortzen duenez, adierazkortasuna bilatzen duten erabilera markatu horiei zeharka baino ez zien erreparatu. Hala ere,

aipatzen du elkarrizketa-gaia ez dela tratamendu-aldaketaren giltzarrietako bat, baina bultza dezakeela batetik bestera pasatzea. Esaterako, batzuek hitanoa brometarako erabili ohi dute, baina «gai serio eta astunak erabiltzerakoan zuka erregistrora jotzen dute». Gai serioen artean, besteak beste, baserritarren arteko tratatuak, negozioak eta bankuko kontuak jaso zituen Alberdik (1993: 434).

Gaian bainoago, eta askotan horri lotuta egon arren, badirudi hartu-emanaren testuinguruan bilatu behar izaten ditugula gertaera hori hobeto ulertzeko arrazoiak. Festa-girorako bereziki aproposa dirudi hitanoak; izan ere, lagunarteko tratamendua noizean behin baino erabiltzen ez dutenek adarra jotzeko edo txantxak egiteko bakarrik erabili ohi dute. Testuinguru goibel batean —norbaiti doluminak ematerakoan, adibidez— zuka egitea nahiago du askok, nahiz elkari hika egiten ohituta egon. Taberna eta mendi giroa lirateke, berriz, kontrako joera errazten duten testuinguruak, hau da, normalean zuka eginda ere, jendea hika egitera bultzatzen dutenak (Alberdi 1993).

Lau hankako animaliekin ere gertatzen da halakorik. Alberdik (1996) parte-hartzaile batzuegandik jasotakoaren arabera, animaliei hika egiteko ohitura oso zabalduta dago hika-hiztunen artean, baina zuka egiteko aukera ez da baztertzen. Beste behin, adierazkortasunaren arabera izaten da maiz hautua, hiztunaren aldarrearen arabera: hiztuna ez dagoenean umoreko, hika egin diezaioke abereari, eta zuka «maitekiro edo animalia-gandik zerbait ona eskuratzekotan» (Alberdi 1996: 281).

Tratamendu-aldaketa dela-eta merezi du Alberdiren (1996) ikerketak utzitako beste datu bitxi bat aintzat hartzea. Izan ere, hika egiteko egoerarik naturalena geure buruari zuzentzen gatzaizkionekoa den hipotesia baieztatu zuen, galdekatutako 210 parte-hartzaileetan oinarrituta. Hala izanik ere, emakumezkoen % 13,7k eta gizonezkoen % 11,1ek erantzun zuten bietara jarduten zutela, zuka nahiz hika. Mintzagai dugun alderdiari begira, biziki interesgarria litzateke aztertzea noiz jotzen duten batera eta noiz bestera, baina kontzientzia metalinguistiko handia eskatuko luke horrek, eta Alberdik (1996) berak ohartarazten du lantegi zaila dela buru barruan darabilgun tratamendua zein den zehatz jakitea, eta, beraz, lortutako emaitzak badaezpadakotzat hartu behar direla.

Nolanahi ere, maiztasun handiagoarekin gertatzen da gehienetan zuka egitetik aldizka hika egitera pasatzea, alderantziz baino. Ez alferrik, Alberdik (1996: 157) diseinatu eta ikerketan erabilitako galde-sortan «noizean behin» izeneko aukera eskaini zien parte-hartzaileei ingurukoekin erabiltzen zuten tratamendua zein zen zehazteko garaian, «noizean behingo edo ohiz kanpoko usuario markatu adierazkorrari» zegokiona. Ildo beretik, Azkuek (2000) Zumaian egindako ikerketan, eskolako gurasoei familia barruko kideekin nola egiten zuten galdetuta, eta «zuka», «hika» eta «bietara» aukerak emanda, kopuru altu samarrak erdietsi zituen azken horrek, % 10en bueltakoak. Litekeena da batzuekin, etxeko gazteenekin, tratamendua oraindik erabat finkatuta ez egotea eta biak txandakatzea, baina sarritan pertsona berarekin hikako eta zukako formak txandakatzen direla emango luke aditzera.

Tartekako tratamendu-aldaketa adierazkorraren barruan, lan honetarako bereziki interesatzen zaigu lan honetarako erabilera horren azpikategoriatzat har genezakeen beste fenomeno bat, azken urteotan batez ere gazteen artean identifikatu izan dena, eta, segur aski, neurri handi batean, hikako formak ez menderatzearen ondorioz gertatzen dena. Kasu horietan guztietan, diskurtsoa erabat zuka josi ohi du hizlariak, baina noizean behin hitanora jotzen du, eta tratamendu horri dagokion aditzen bat erabiltzen. Esaterako, Azkuek (2000: 28) 18-30 urteko zumaiarren artean ikusi zuen hori, ez baitzuten hitanoa ia erabiltzen; izatekotan, «esaldi tipikoetara mugatzen» ziren, direla «zuzenean egindako galderak», direla «jakineko esamoldeak».

Beitiak (2017: 140) adierazi zuen, «hitanoranzko hurbilpena» egiten ari diren Eskoriatzako gazte batzuei entzunda, hitanoa txertatu zutela apurka haien errepertorioan «formula sinple eta esaldi tipikoak» erabiliz. Egileak aitortu bezala, elkarriketa horiek ez dira hika gertatzen; izatekotan, «oso noizean behin hitano esaldi solteak entzun» daitezke. Ildo beretik, Etxabek eta Garmendiak (2003: 138) ikusi zuten 35-50 urteko emakumeek tarteka baino ez zitelako hika egiten haien emakumezko ilobei: «espresioak die batipat». Azkenik, Etxanizek (2001) bere bizipen eta lekukotzatik begiratu, ez dio etorkizun oparorik ikusten hitanoari. Haren ustez, zabal-tzea ez lortu arren, espero izatekoa da zenbait esamolde «fossil» moduan

mantentzea gurean. Izan ere, gaur egun testuinguru informaletan entzuten dira «izorra hadi» edota «hartzak», besteak beste, gainerako aditzak zuka erabili arren.

Orain arte esandakoak nolabait laburbilduz, ikusi dugu tratamendu bat ala bestea erabiltzeko garaian gehien eragiten duten aldagaiak adina, generoa, familiakideen arteko ahaidetasun maila edota lagunarteko harremanaren maiztasuna izan litezkeela; eta behin pertsona batekin hitz egiteko tratamendua finkatuta, zaila dela hori aldatzea. Hala ere, badira tradizionalki modu sistematikoan tratamendu-aldaketa egin izan den kasuak: umeei hitz egitean eta ezkonberrien artean.

Horrez gain, hitanoaren erabilera adierazkorra ere egin izan dela ikusi dugu, batik bat gehienetan zuka egiten dutenek tarteka hika eginda. Aurreko paragrafoetan deskribatu eta *tartekako tratamendu-aldaketa adierazkorra* izendatu dugun fenomeno ahokoa da zenbait euskal hiztunengan. Profil hori da, hain zuzen ere, lan honetan aztertuko duguna.

Behin testuinguru honetan kokatuta, tratamendu-aldaketa hori zein modutara egiten den ikusi nahi dugu. Horretarako, hizkuntza-funtzioen alorrean nahiz kode-aldaketen eremuan egin diren ikerketei begiratuko diegu ondorengo lerroetan.

## 2.2. Hizkuntzaren erabilera: funtzioak

Hitanoaren erabilera adierazkorra zein kasutan gertatzen den ezagutzeko ikerketen faltan, onarpen zabala daukaten bi ikuspuntu oinarritzat hartu eta, logika deduktiboari jarraituz, bi ikuspuntu horietako ekarpenek esku artean dugun auzia argitzen lagun dezaketela uste izan dugu.

### 2.2.1. *Hizkuntza-funtzioak*

Hizkuntzak erabiltzen direnean, egindako adierazpen bakoitzak helburu jakin bati erantzuten diola esan liteke. Hori sakonen aztertu duten eremuak Hizkuntzalaritza eta Komunikazioa dira. Teorialari batek baino gehiagok

proposatu dituzte sailkapenak eta zerrendak, baina horien artean onarpen zabalena lortu dutenetako bat Jakobsonena (1960) izan da.

Jakobsonek (1960) ikuspuntu pragmatikotik egin zuen bere proposamena. Horretarako, komunikazioaren oinarritzko sei elementu hartu zituen ardatz: igorlea, hartzailea, kanala, mezua, kodea eta testuingurua. Proposatutako hizkuntza-funtzio bakoitzak elementu horietako bati erreparatzen dio: funtzio emotiboak igorleari, deitze funtzioak hartzaileari, funtzio fatikoak kanalari, funtzio poetikoak mezuari, funtzio metalinguistikoak kodeari eta erreferentzia funtzioak testuinguruari.

Jakobsonen (1960) proposamena hainbat ikerlanetan aplikatu izan da eta Euskal Herrian ere bada hori egin duenik. Ordenagailu bidezko komunikazioaren eremuan, Perezek eta Zulaikak (2016: 107) euskal gazteek idatzitako txatak aztertu zituzten eta honako hau zioten beren lanean:

Modu klasikoan esanda (Bühler, Jakobson), txatgileek jolas-solasan darabilten hizkuntza batik bat funtzio adierazkorra, espresiboa (igorle den Nlaren, agerbide berariazkoa), funtzio konatibo edo deitze funtzioa (hartzaile den solaslagunari dei egitekoa, hurko horrengan eragin nahi izatekoa) eta fatikoa (bitartekoa, ukibidea zabalik dagoe-la adieraztekoa) betetzen dituela darabilte. Funtzio poetikoarekin ere lot daitezke txat-sortzaileen ekoizpen batzuk, mezua bera arretagunea da eta. Hitz-jolasak asmo sortzailearen islatzat har daitezke.

Atal teorikoaren lehenengo zatian ikusi dugunez, esku artean dugun azterlanak hitanoaren erabilerari begiratu nahi dio. Horri begiratzeko aukeratu dugun lehenengo prisma Jakobsonek egindako hizkuntza-funtzioen sailkapena izan da. Jarraian, beste ikuspegi bati helduko diogu: kode batetik bestera salto egite horri dagokiona, hain zuzen ere.

### 2.2.2. *Kode-aldaketak eta funtzioak*

Elkarrizketa berean kode bat baino gehiago erabiltzeko fenomenoak ikergai mamitsua izan da XX. mendearen erditik hona. Gardner-Chlorosen (1991a) arabera, kodetzat hartu izan dira bai hizkuntzak eta bai hizkuntza baten baitako dialektoak. Ildo horretatik, Gumperzek (1982: 59) ere hona-

ko hau zioen: «Code alternation among bilinguals shows some similarity to alternation among dialect variables in the urban speech community studied in recent sociolinguistic surveys» (69. or).

Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen direnean, eta bereziki kode-aldaketan kasuan, zalantza egon izan da aldaketa horiek ausazkoak diren edo arauraren bat jarraitzen ote duten. Laboven (1971: 457) hitzetan: «no one has been able to show that such rapid alternation is governed by any systematic rules or constraints and we must therefore describe it as the *irregular mixture* [italics added] of two distinct systems». Baina Boztepek (2003) dioenez, baieztapen hori egin zenetik hona, ikerketa asko egin izan da gai hauen inguruan eta gaur egun gauza jakina da kode-aldaketa ez dela iritzira egiten, baizik eta puntu jakinetan gertatzen dela kode batetik besterako jauzia.

Zentzu horretan ikusten dugu gai honek lotura izan dezakeela esku artean daukagun ikergaiarekin. Tratamendu batetik besterako jauziaren atzean zer egon liteke? Kode-aldaketen eremuan ikusitakoak aplikagarriak izan ote daitezke hitanoaren tartekako erabilera adierazkorra nolabait azaltzen laguntzeko?

Androutopoulosen (2013) esanetan, kode-aldaketaren edo *code-switching*-aren (aurrerantzean, CS) diskurtso-funtzioei dagokienez, bereziki Gumperzen (1982) eta Auerren (1995) lanak hartu izan dira erreferentziatzat.

Lehenik eta behin, Blomek eta Gumperzek (1972) *situational switching* eta *metaphorical switching* bereizi zituzten. Bereizketa horren oinarrian diglosia-testuinguru bat dago, Blomen eta Gumperzen (1972: 126) hitzetan: «switching assumes a direct relationship between language and the social situation». *Situational switching* horretan, diglosia-egoerak markatzen dituen egoera formal eta ez-formaletan jasotzat jotzen den hizkuntza eta informaltzat jotzen dena erabiliko dira, horretan oinarritzen da kodeen alternantzia. *Metaphorical switching* delakoan, aldagai gehiagok parte hartzen dute. Horrik abiatuta, Gumperzek (1982) *metaphorical* edo *conversational code switching* horren baitan kode-aldaketak betetzen zituen elkarrizketa funtzioak zehaztu zituen, diskurtsoaren analisia oinarri hartuta:

1. *Quotations*: beste norbaitek esandakoak birformulatzeko.
2. *Addressee specification*: entzule jakin bati zuzentzeko.

3. *Interjections (and sentece fillers)*: bat-bateko emozioak adierazteko.
4. *Reiteration*: argitzeko, indartzeko edo enfatizatzeke.
5. *Message qualification*: esan nahi dena osatzeko (adibidez: ekintzak eta iritziak bereiziz).
6. *Personalization versus objectivization*: ikuspuntu pertsonalak eta objektiboak bereizteko.

Auerrek (1984) ikuspuntu hori kritikatu egin zuen, esanez kode-aldaketaren atzean dauden arrazoiak ezagutzeko modurik egokiena ez zela Gumperzek (1982) proposatzen zuen ikuspuntu semantikoa. Auerrek (1984) bi multzo bereizten ditu: batetik, solaskidearen arabera egiten den CSa (*preference-related* edo *participant-related*); eta, bestetik, diskurtsoaren arabera egiten den CSa (*discourse-related*). Eta bi multzo horietako bakoitzean hainbat egoera zehazten ditu (Auer 1988): lehenengoaren baitan, solaskidearen gaitasuna edo gaitasunik eza edota solaskideak hizkuntza bat erabiltzea nahiago izatea bestea erabiltzea baino; bigarrenengoaren baitan, gaia aldatzea edota ematen den informazioaren arabera (esaterako, ezaguna edo berria) kodea aldatzea, besteak beste.

Androustopoulosen (2013: 3) arabera, Auerrek (1984, 1988) proposatutako azpikategoria horiek neurri batean gainjarri egiten dira Gumperzek (1982) proposatutakoekin; eta haren interpretazioaren arabera, bai Gumperzek eta bai Auerrek *contextualization cue* gisa ulertzen dute kode-aldaketa, esate baterako, hiztunak bere interpretazioa edo esaten duena hobeto kokatzeko (*to frame*) egiten du kode-aldaketa.

Hamarraldi berean beste sailkapen bat proposatu zuten Appelek eta Muyskenek (1987), Jakobsonen (1960) hizkuntza-funtzioak oinarri hartuta. Berez testuinguru jakin baterako sortutako sailkapena, beste eremu batean aplikatu zuten; hori da, hain zuzen ere, esku artean daukagun lanean ere egin asmo duguna. Hona hemen Appelek eta Muyskenek (1987) kode-aldaketaren fenomenoak aztertzeke, egokitutako sailkapena:

1. *Referential function*: kasu honetan hiztunak hizkuntzaz aldatzen du, ari den hizkuntza horretan hitz egokia aurkitzen ez duelako edo hizkuntza horretan hitz hori ez dagoelako.

2. *Directive and integrative function*: solaskidearen parte-hartzea lortzeko adierazpideak izango lirateke (estandarrak diren agurrak, ohikoak diren tratamenduak, agintera edo galderak).
3. *Expressive function*: norbere sentimenduak aditzera ematean datza; horrela, norbanakotasuna azpimarratuz.
4. *Phatic function*: komunikatzeko bideak irekita mantentzea du xede (ohiko bihurtutako elkarrizketahasierak nahiz -amaierak, solaskideari hitza ematea...).
5. *Metalinguistic function*: darabilten hizkuntzari buruzko erreferentzia esplizituak egiten ditu solaskideak (hizkuntzaren erabilerarekiko edo arauerekiko jarrerak edo kontzientzia adieraziz).
6. *Poetic function*: hitz-jokoak eta txistek egiteko erabiltzen denean; hizkuntza bera da helburu eta jolas-iturri.

Yankovak eta Vassilevak (2013) dioten moduan, gisa horretako sailkapenak egiteko ahalegin gehiago ere egon dira (McClure eta McClure 1988; Romaine 1989; Nishimura 1997; Zentella 1997; Gardner-Chloros 1991b), baina kritikak jaso izan dituzte behar besteko argitasunik ezagatik edota forma eta funtzioa nahasteagatik.

Gurera etorrita, alegia, Euskal Herriko testuinguruan kokatuta, kodeen arteko aldaketa aztertu duenetako bat Muñoa (2002) izan da. Hark dioenez, berek egindako azterketaren arabera, ohikoa da kodea aldatzea euskara-gaztelania elebidunengan. Eta erabileraren horren zergatia hiztunen euskarazko gaitasun urria baino sakonagoa izango litzateke. Muñoaren esanetan, euskara-gaztelania elebidunen kasuan, euskaratik gaztelaniara kodea aldatzeak hainbat funtzio dauzka oinarrian, esaterako: hutsune linguistikoak betetzea, esapide jakin batzuek adierazkortasun handiagoa daukatela hizkuntza batean bestean baino, konnotazio negatiboak leuntzea, umorea edo ironia adieraztea, egoera kontestualizatuak adieraztea, aipamen zuzenak egitea, esandakoa indartzea edo arbuiatzea, elkarrizketaren norabidea zuzentzea edo negoziatzea, gai batetik bestera mugitzea edo hizketagai berriak eranstea eta txanda mantentzea edo elkarrizketa amaitzea.

Orain arte aurkeztutako sailkapenak ahozko komunikazioan oinarrituta egindakoak dira. Montes-Alcalá (2007) idatziz erabilitako hizkuntzari



erreparatu zion, blog elebidun bateko solasaldiak aztertuz. Eta ordenagailu bidezko komunikazioaren eremuan jarraituz (*computer mediated communication*, CMC hemendik aurrera), Caparasek eta Gustilok (2017) Facebook-eko elkarrizketetan ikusitako kode-aldaketan funtzioak kategorizatzeke beste proposamen bat egin zuten, Hoffmannen (1991) eta Saville-Troikerren (1986) marko analitikoan oinarrituta:

1. Gai jakin bati buruz hitz egitean
2. Besteek esandakoak aipatzean
3. Zerbait enfatizatzean
4. Interjekzioa (esaldietako betegarriak edo konektoreak txertatzean)
5. Zerbait argitzeko errepikatzean
6. Esandakoaren edukia argitzean
7. Talde-identitatea adieraztean
8. Eskaera edo agindu bat arindu edo gogortzean
9. Benetako behar lexikoa dagoenean
10. Xede-taldea mugatzean

Euskal Herrian ere egin dira CMCetako kode-aldaketak aztertzeko ikerketak, arreta bereziki forman jarrita. Esaterako, Zulaikak (2019) ingurune sintaktikoaren araberako tipologia egin zuen, eta hiru kode-aldaketa mota bereizi zituen: perpaus barnekoa, perpausen artekoa eta enblematikoa. Maizen erabilitakoak azken horiek izan zirela ikusi zuen, esaterako: interjekzioak, testu-antolatzaileak, hitz gordinak nahiz irainak eta eginkizun konatiboa duten elementuak.

Sailkapen proposamenekin amaitzeko, Androutsopoulosena (2013) eka-rriko dugu hona, nolabait orain arte aurkeztutakoak biltzen dituelakoan. Hark dioenez, elkarrizketetan egiten diren kode-aldaketak sailkatzeko egin diren eta komunitate zientifikoak onespina eman dien proposamen horiek oinarri hartuta, kode-aldaketak CMCetan betetzen dituen diskurtso-funtzio zenbait honako hauek dira:

1. Ohiko diskurtso-helburuetarako; dela agurtzeko, dela zoriontzeko.
2. Kultura bateko genero jakinak performatzeko; poesia edo txiste-kontaketa, besteak beste.

3. Zeharkako esaldia dela aditzera emateko (eta ez idazlearen beraren hitzak).
4. Esakune baten errepikapena, enfatizatzeko asmoz.
5. Hartzaile jakin bati zuzentzeko, aurrez egindako hizkuntza-hautuei segida emateko, edo besteren hizkuntza-hautuak zalantzan jartzeko.
6. Ikuspegi edo gai baten aldaketa testuinguratzeko, gertaeraren eta iriztiaren artean bereizteko, edo informazioaren eta estimuaren artean eta abar.
7. Esandakoa seriotzat edo irrigarritzat jotzeko, balizko gaizki-ulertuak arintzeko, gustukoa ez den erantzun edo eskaera baten aurrean kode-aldaketa umoretsua erabilia, esaterako.
8. Hartzailearen koderia aldatzea (des)adostasuna adierazteko, onarpena edo gatazka adierazteko eta abar.

Elkarrizketa berean kode bat baino gehiago erabiltzeko fenomenoak izan dugu mintzagai aurreko lerroetan. Kode-aldaketen atzean dauden moduak zehazteko, hainbat sailkapenen berri izan dugu eta baita sailkapen horiei leporatu zaizkien zenbait mugaren berri ere. Horiek guztiak eta hizkuntza-funtzioei buruz esandakoak aintzat hartuta, ez hizkuntza eta ez hizkuntza-aldaera, baizik eta tratamenduen arteko aldaketen atzean dauden moduak aztertuko ditugu.

### 3. Metodologia

#### 3.1. Testuingurua: Gaztesare egitasmoa

Esku artean dugun ikerketa Gaztesare proiektuaren baitan gauzatu da. Gaztesare proiektuak gazte euskaldunek sare sozialetan dauzkaten praktika eleaniztunak aztertzea, eta gazte horiek hizkuntzen eta dialektoen inguruan dituzten irizpideak, ematen dizkieten balioak eta ideologia linguistikoak ezagutzea du helburu. Gazte horien hizkuntza-aukerak eta hibridazio-fenomenoak aztertzen dira, bai euskalkien arteko kode-aldaketak eta bai gaztelania/frantsesa/ingelesa eta euskararen artekoak. Aurrerago azalduko dugunez, corpus bat osatu da gazte horiek sare sozialetan dauzkaten praktikekin, erabilera horiek hainbat diziplinatatik aztertzeko asmoz.

### 3.2. Helburua eta ikerketa-galderak

Esku artean dugun lanaren helburua da hizkuntza-funtzioak zehazteko nahiz kode-aldaketan nolakotasuna eta funtzioak aztertzeke proposatu izan diren sailkapenetatik abiatu, eta marko hori hitanoarekin lotutako testuinguru zehatz batean aplikatzea: tartekako hitano erabiltzaileak sare soziale-tako bere elkarriketa pribatuetan egiten duen (tartekako) tratamendu-aldaketa adierazkorra.

Helburua izango litzateke hitanoak betetzen duen funtzioa ezagutzea, baina horretarako behatutakoaren interpretazioa egin behar da, eta horrek analisi sakonago bat eskatuko luke (parte-hartzailearena edo informatzaile batena). Hala ere, helburu horretara iristeko, lehenengo urratsa hitanoa zein kasutan edo nola erabiltzen den ikustea da, eta hori da, hain zuzen ere, ikerketa honen xedea.

Horretarako, honako ikerketa-galdera orokor hau planteatzen dugu: zer modutan erabiltzen du hitanoa ohiko hitano-erabiltzaile ez den pertsona batek sare soziale-tako bere diskurtso pribatuan? Eta galdera hori beste bi azpigaldera hauen bidez erantzuten ahaleginduko gara:

1. Jakobsonek (1960) proposatutako hizkuntza-funtzioen sailkapena aplikagarria al da tartekako hitano-hiztunak hitanoa modu adierazkorrean erabiltzen duen kasuetan?
2. Kode-aldaketan nolakotasuna eta arrazoiak zehazteke egin izan diren sailkapen-proposamenak aplikagarriak al dira tartekako hitano-hiztunak hitanoa modu adierazkorrean erabiltzen duen kasuetan?

### 3.3. Azterketarako corpusa osatzeko ikerketa-tresnak

Gaztesare proiektuko corpusa osatzeko, lau ikerketa-tresna erabili ditugu orotara: galde-sorta, biografia teknolinguistikoa, talde-etzabaidak eta sare soziale-tako ekoizpenak. Galde-sortetan datu orokorrak eskatu dizkiegu, bai-ta *background* soziolinguistikoa ere: ama-hizkuntza, etxeko hizkuntza nagusia, bizitzako esparru desberdinetan erabiltzen duten hizkuntza, edo beren sare soziale-tako kontuetan nahiz elkarriketetan zein hizkuntza den nagusi,

besteak beste. Biografia teknolinguistikoa delakoan, bidez banan-banan grabatu dugu teknologien zein erabilera egiten duten galdetutakoan, parte-hartzaileek erantzundakoa, hizkuntzei arreta berezia jarrita. Talde-etzabaidetan fakultate bereko ikasleak elkartu ditugu, eta horiek hizkuntzei buruz duten diskurtsoaz eta ideologiaz aritu dira. Azkenik, parte-hartzaileek Facebooken eta Instagramen 2009tik 2019ra idatzitakoak bildu ditugu, bai argitalpen publikoak, bai txat pribatuak. Orriotan aurkezten dugun lanak bereziki azken horiei begiratzen die, hots, sare sozialei; gainerako informazioa modu osagarrian erabili dugu, edo hemen aurkezten ditugun datuak testuinguruan jartzeko.

### 3.4. Parte-hartzaileak

Gaztesare proiektuan orotara 30 gaztek hartu dute parte, Euskal Herri osoko hiru unibertsitatetako bost fakultatetakoak: Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (Donostia), Letren Fakultatea (Gasteiz) eta Komunikazio Zientzien Fakultatea (Leioa); Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakasle Eskola (Iruñea); eta Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatea (Baiona). Bereziki euskararen erabilera eta euskararekiko jarrerak aztertu nahi direnez gero, euskaldunak dira parte-hartzaile guzti-guztiak, sare sozialetan egiten duten euskararen erabilera gora-behera. Artikulu honetako ikergaia hitanoa da, baina Perezek eta Zulaikak (2016: 110) antzerako testuinguruan ikusitakoari buruz honako hau zioten: «Hemen aztertuko ez dugun arren, uste dugu aipatzekoa dela lagin honetako hiztunok —ez neskek ez mutilek— ez dutela hitanoa erabiltzen beren arteko komunikazio lagunartekoan, nahiz eta askok euskara etxean ikasi duten, familia euskaldunetan eta giro euskaldunetan hazi eta hezi diren», eta gure kasuan ere muga horrekin aurkitu gara. Gaztesare proiektuko corpusa aztertu ondoren, ikusi dugu parte-hartzaile bakarra dela hitanoa modu esanguratsuan erabiltzen duena, eta hori da lan honetan aztertu duguna, hau da, orriotan aurkezten dugun lana kasu zehatz baten azterketa da, alegia.

Azterketa honetako subjektua 20 urteko emakumezkoa da. Bere lehen hizkuntza euskara da, testuinguru soziolinguistikoko euskaldunekoa da eta

Euskal Ikasketak burutzen ari da. Elkarrizketetan parte hartu duten gainerrako solaskideei dagokienez, ez daukagu haiei buruzko informaziorik, datuak anonimizatu egin baitira.

### 3.5. Datuen analisisa

Parte-hartzailearen Instagrameko txat pribatuak arakatu ditugu: zehazki, 1.870 elkarrizketa, 2014 eta 2019 bitartean sortutakoak. Ez dira aurrez aurreko elkarrizketak izan, CMC testuinguruan sortutako elkarrizketa idatziak baizik. Bi ikertzaileok goitik behera irakurri ditugu testuok eta hikako ekoizpenak hautatu, izan pertsona-izenordain, izan aditz-forma. Orotara, elkarrizketen arteko 80tan aurkitu dugu hitanoa modu batera ala bestera, eta zehazki 48 elkarrizketatan erabili du hitanoa gure parte-hartzaileak; gainerrakoetan solaskideak izan dira hitanoa erabili dutenak. Elkarrizketa horiek bereizi egin ditugu, xehe-xehe aztertzeke asmoz.

Sare sozialetako elkarrizketa pribatu horietan hitanoa nola erabiltzen den eta zein funtzio bete dezakeen ikusteko, atal teorikoan aurkeztutako sailkapenak hartu ditugu oinarritzat. Lehenengo ikerketa-galderari erantzuteko, Jakobsonen (1960) sailkapena erabili dugu eta gure corpusean aurkitu ditugun hitano-adierazpenak sailkatzeko, honela interpretatu dugu proposamen hori:

1. Erreferentzia funtzioa (*Referential*). Zerbaiti buruzko informazioa ematen da, modu objektiboan. Adibidez:  
– *Eguraldi ederra egiten din gaur.*
2. Funtzio emotiboa (*Emotive*). Igorleak bere emozioak edo sentipenak adierazten ditu modu subjektiboan. Adibidez:  
– *Jendea erotuta zagon!*
3. Deitze funtzioa (*Conative*). Igorleak, esaten duenarekin, hartzailearengandik erreakzio bat edo erantzun bat jaso nahi du. Hartzailearen parte-hartzea bilatzen da, aginterazko formen bidez, mesede bat eskatuz edo hartzailea interpelatuz (bokatiboa). Adibidez:  
– *Egon hadi lasai, hi!*

4. Funtzio fatikoa (*Phatic*). Komunikazio kanala irekita mantentzea du xede. Hor kokatu ditugu hasierako nahiz amaierako agurrak. Adibidez:
  - (Elkarrizketaren amaieran) *Hitz egingo dinagu*.
5. Funtzio metalinguistikoa (*Metalinguistic*). Hitanoa bera mintzagai den kasuak izango lirateke. Adibidez:
  - «*Hator*» *h-z idazten da*.
6. Funtzio estetiko/poetiko (*Poetic*). Mezua adierazteko moduari erreparatzen dio. Funtzio honen baitan kokatu ditugu, bereziki, abesti ezagunetako hitzak erabili diren kasuak. Adibidez:
  - ♪ *Hau duk zorioneko ezkondu beharra*<sup>4</sup> ♪

Bigarren ikerketa-galderari erantzuteko, kode-aldaketen azterketetan proposatu izan diren eta atal teorikoan deskribatu ditugun sailkapenak oinarri hartuta, hitanoarentzat balio dezakeen sailkapen bat osatu dugu, eta hori hartu dugu gure corpusa aztertzeo abiapuntutzat.

Proposatutako sailkapena bi ataletan banatu dugu: «forma» eta «funtzioa», osagarriak izan daitezkeelakoan. «Forma» izeneko atalean zerrendatutakoekin, egiten denaren deskribapena bildu nahi da, alegia, zer egiten den (aurrez esandakoa indartu, finkatutako esapideak erabili...). «Funtzioa» atalean, egiten den hori zertarako egiten den azaldu nahi dute bertan zerrendatutakoekin (esan nahi dena modalizatu, talde jakin bateko kide dela adierazi...). Orain arte egindako zenbait sailkapenek kritikak jaso izan dituzte, besteak beste, forma eta funtzioa ez bereizteagatik (Yankova eta Vasileva 2013). Guk ere bat egiten dugu kritika horrekin, baina jabetzen gara bereizketa hori egitea ez dela lan erraza.

Ideala izango litzateke hitanoa erabiltzen den kasu bakoitzean, gure sailkapeneko atal bakoitzetik (formatik eta funtziotik) gutxienez ezaugarri bat esleitzea: batetik, *zer* egiten den ikustea; eta, bestetik, *zergatik* edo *zertarako* egiten den jakitea, alegia. Zulaikak ere bere ikerlanean (2019: 353-354) muga hori bera ikusi zuen: «tipologiarekin batera, nahitaezkoa da funtzio

---

<sup>4</sup> «Gure koadrilan»: <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/dokumentu-fondoa/euskal-kantutegia/ab-4984/>

pragmatikoak eta gazteak kodeak aldatzeko dituzten arrazoiak aztertzea KA-ren ikuspegia osatzeko». Baina eginkizun horrek beste gisa bateko ikerketa egitea eskatzen du ezinbestean eta, kasu honetan, azterketa deskribatzaile bat egitera mugatu gara, arreta forman jarriz. Aurkezten dugun sailkapenean agertzen den funtzioari buruzko edukia ez dugu baliatuko lan honetan, baina sailkapena bere osotasunean argitaratzea erabaki dugu, beste norbaitentzat baliagarri izan daitekeelakoan.

Hona hemen erabilitako sailkapena<sup>5</sup>:

---

<sup>5</sup> Sailkapen honekin osatutako bertsioa 1. eranskinean aurkituko du irakurleak, eta bertan agertzen dira taula osatzeko erabilitako iturriak.

<b>Forma (ZER):</b>	<b>Funtzioa (ZERTARAKO):</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>– ALDATU (gaia, ikuspuntua, formaltasuna)</li> <li>– BEREIZI (ebidentziak eta iritzia, informazioa eta afektua, lehen eta bigarren mailako informazioa)</li> <li>– OSATU</li> <li>– DISTANTZIA JARRI (jarrera desberdina adierazi, aurrekoak esandakoari kontrakotasuna edo zalantza adierazi)</li> <li>– PERTSONA/AUDIENZIA JAKIN BATI HITZ EGIN</li> <li>– INDARTU, ARGITU, ENFATIZATU</li> <li>– AIPATU</li> <li>– ABESTIETAKO HITZAK ERABILI</li> <li>– FOSILDUTAKO/FINKATUTAKO ESAPIDEAK ERABILI</li> <li>– EMOZIOAK ADIERAZI</li> <li>– AGURTU, TXANDA MANTENDU EDO ELKARRIZKETA AMAITU</li> <li>– ZORIONDU</li> <li>– ANIMOAK EMAN</li> <li>– UMOREA ERABILI</li> <li>– IRONIA ERABILI</li> <li>– INTERJEKZIOAK SARTU</li> <li>– BOKATIBOA ERABILI (hasieran edo makulu gisa)</li> <li>– AGINDUA / AHOLKUA EMAN</li> <li>– HIZKUNTZARI BERARI BURUZ HITZ EGIN</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– MODALIZATZEKO</li> <li>– ELKARTASUNA, ADISKIDETASUNA ADIERAZTEKO</li> <li>– TALDEKIDETASUNA, HERRIKIDETASUNA, KULTURKIDETASUNA</li> <li>– GAZTE KUTSUA EMATEKO</li> <li>– FORMULAIC DISCOURSE PURPOSES delakoa</li> <li>– SOLASKIDEA INTEGRATZEKO</li> <li>– SOLASALDIARI JARRAIBIDEA EMATEKO</li> <li>– METALINGUISTIKOA</li> </ul>

Behin ikerketaren nondik norakoak azalduta, emaitzei emango diegu bide.



## 4. Emaitzak

### 4.1. Lehenengo ikerketa-galdera: Jakobsonek (1960) proposatutako hizkuntza-funtzioen sailkapena aplikagarria al da tartekako hitano-hiztunak hitanoa modu adierazkorrean erabiltzen duen kasuetan?

Esku batean gure corpusa eta bestean Jakobsonek (1960) zehaztutako hizkuntza-funtzioak hartuta, bi horiek ezkontzeko saiakera egin dugu, eta kategoria guztietako adibideak aurkitu ditugu. Jakobsonek zerrendatutako hizkuntza-funtzioen artetik gure corpusean gehien aurkitu duguna deitze funtzioa izan da (26/48) eta bere baitan dauden funtzio bokatiboa eta aginteraren (5/48) artean nabarmen ugariagoak izan dira mintzalaguna elkarrizketan integratzeko helburua daukaten adierazpen bokatiboak. Hona hemen horren adibide bat:

f1faf73f. Nik eztiot ezer komentatu oandik, bazpare 😊😊 hau goguaask  
hiiii

2b4b3988. Yatedigooooo

f1faf73f. Aer taldeak zemuzz ta nola drna aprobatukoegun hantxer eongo-  
ogea 😊👊

f1faf73f. #eztaametxetan 😊

2b4b3988. Rt 😊😊😊😊😊😊😊😊

[GS008.26]

Aipatutako agintera forman eginiko adierazpide baten adibidea, berriz, hemen:

f1faf73f. Etzute erremediyoik 😊

40fda639. Ta maitasunakin gañeaaa ooooo 😊😊

40fda639. 😊😊😊😊😊😊

f1faf73f. Maitasunakin zer? 😊😊

40fda639. Friki deitzenazula nei bakarrik

f1faf73f. Ulertuet babua 😊

f1faf73f. Ironia puntu batekin zijun

40fda639. 😊

f1faf73f. Intzak intzak near 😊

[GS008.1]



Baita funtzio fatikoa zeukaten adierazpenak ere (3/48):

2b4b3988. EIIllaaaaa ondopaxxxx  
**f1faf73f.** Zaankiuuu garmeeennn! **Eongogatxik**  
2b4b3988. Baii  
[GS008.27]

Eta funtzio poetikoa daukan adierazpidetzat hartu dugu honako kasua:

**f1faf73f.** Mikel nun **hago?**  
958862ed. Zer larretan  
958862ed. Ur epeleko artzaia  
f1faf73f. Mendi hegalegan gota  
f1faf73f. Ostia ze gaizki idatzieten☺  
406606ee. Segi lota  
958862ed. Oroitzapen den gerora  
**f1faf73f.** Ihesetan joan **intzana**  
958862ed. Mendi hegaletan gora  
[GS008.12]

Gure corpusean hika egindako adierazpenak sailkatzeko estreinako saia-keran Jakobsonen (1960) hizkuntza-funtzioen sailkapena hartu dugu oinarri eta sailkapen horretako kategoria guztien adibideak aurkitu ditugun arren, bereziki deitze funtzioa eta funtzio emotiboa helburu duten esapideak dira gehien erabili direnak. Horrekin batera, esan behar da «hi» izenordaina eta adizkiren bat hitanoan erabili arren, aztertutako subjektuak ez dituela perpaus bereko gainerako adizkiak hitano alokutiboan erabiltzen. Segidan, kode-aldaketak sailkatzeko proposamenak oinarri hartuta lortu ditugun emaitzen berri emango dugu.

#### 4.2. **Bigarren ikerketa-galdera: kode-aldaketen nolakotasuna eta arrazoiak zehazteko egin izan diren sailkapen-proposamenak aplikagarriak al dira tartekako hitano-hiztunak hitanoa modu adierazkorrean erabiltzen duen kasuetan?**

Atal teorikoan ikerketa-galdera honekin lotutako adierazpenak oinarri hartuta, eta metodologiaren atalean aurkeztutako sailkapena baliatuz, az-

tertutako corpusean aurkitu ditugun hitanoaren erabilera-kasuak erakutsiko ditugu jarraian, gehien erabili diren kasuetatik gutxien erabili direnetara.

Hitanoa maizen erabili den kasua bokatiboa (deitze funtzioa) izan da (21/48), nolabait solaskidea elkarrizketan integratzen duena. Batik bat makulu gisa erabili da, esaldiaren amaieran:

8b59ad44. Baa ez da ezer geatzeenn ee  
 8b59ad44. 3  
 8b59ad44. Astetxooo  
 8b59ad44. Taaaa farroon  
 f1faf73f. Ta aze hiru..  
 8b59ad44. Zeatiik?  
 f1faf73f. Eternidadebat  
 f1faf73f. Asako ikasiberdet  
**f1faf73f.** Ematedu ni re medizinan sartunazela **hi**  
 8b59ad44. 😊😊😊😊  
 8b59ad44. Keebaa nik partzialak ya indituutr😊  
 f1faf73f. Nik bateonbat biño bah, oan tokatzea okerrena  
 8b59ad44. Animooo👊👊  
 [GS008.10]  
 16b6b686. Mutxa agua veo yo...😊  
 01b657f4.  
 406606ee. Rt  
 f1faf73f.  
 416de847. Zer da?  
**f1faf73f.** Hauek hola ta gu albergetik atea eziñin **hi**  
 f1faf73f.  
 f1faf73f. Honen iguala  
 2b4b3988. Ezbaet ez bestia  
 416de847. Pues eztare ezin det😊  
 [GS008.14]

Baina esaldiaren hasieran ere erabili izan da:

**f1faf73f.** **Hi** garmen, bertsuak kusteaa guzela e  
 f1faf73f. Trankii txo  
 f1faf73f. Gaueako parrandarako abandonatua utzinaute😊

b33c8fbf. Aaaa baña intentziyua bazenekan ordun  
 b33c8fbf. Atzo gabian e bertsuak ez?? 😊  
 f1faf73f. Intentziyuaa bai, olentzero bezela biño..  
 [GS008.29]

Hurrengo maiztasun kopuru altuenean, fosiltze edo finkatze bidean doazela iruditu zaigun esapideetan erabili da hitanoa (17/48). Prozesu hori continuum moduan ikusten dugu, eta identifikatutako esapide guztiak ez ditugu maila berean ikusten. Hauek dira, esate baterako, prozesu horretan finkatetik hurbilen ikusten ditugun zenbait esapide:

eae08359.  
 f1faf73f. Etzaa ne lengusua o? 😊  
 eae08359. Mmmm  
 eae08359. Cold fountain  
 f1faf73f. Erkiba  
**f1faf73f. Geo eongogatxik**  
 eae08359. Eongo **gattun** bai  
 [GS008.35]  
 eae08359. Etxea deitu dute, ta bueno, ez dakigu 😊  
 f1faf73f. Erki  
 eae08359. Ba bai...  
 f1faf73f. Galdetzia etzaie okurritu ez?  
 eae08359. Eske ama etzen gotzen biyek aurkeztu nittula  
**f1faf73f. Hau dun** hau.. 😊  
 f1faf73f. Beno, ne amak etzun jakingo ezta aurkeztu nintzala asike  
 eae08359. Bueno jakin bazekin biño ezta kontutu momentuan  
 eae08359. Edo etzekiyen bestiak... ezdakit  
 [GS008.37]

Finkatzeko aukerarekin, baina oraindik egiteko bide gehiago daukaten esapidez hartu ditugu honako hauen gisakoak:

eae08359. Bueno, oain eantzun  
 f1faf73f. Zer  
 eae08359. Zuria da?  
 f1faf73f. Nik idatziut bai  
 eae08359. Uooo 🙌🙌🙌

f1faf73f. Zerdek?☺

eae08359. Deus

eae08359.

eae08359. Erra letra👉👉👉👉

f1faf73f. Yaa, leno kusiut

eae08359. Ta? Ona iruitzeizu?

[GS008.36]

Orain arte aipatutakoak baino maiztasun gutxiagorekin egin arren, agintera erabiltzeko edo aholkuak emateko ere erabili izan du hitanoa gure parte-hartzaileak (6/48). Hona hemen agintera adierazteko hitanora jotzen duen adibide bat:

eae08359. To pakia

f1faf73f. Eskertuzan bai☺

[GS008.38]

Guk aztertutako corpusean, hitanoa erabili izan den ohiko beste testuinguru bat da solaskide batek aurretik beste solaskideak esandakoarekiko kontrakotasuna edo zalantza adierazteko erabiltzea (5/48). Nolabait, aurrekoak esandakoarekiko distantzia markatzeko-edo. Honako hau litzateke kontrakotasuna adierazteko hika egiten den kasu baten adibidea:

f1faf73f. Haze prexko mendizabal?

958862ed. Prexko es poko!

958862ed. Nos van a cortar los dedos!

f1faf73f. ☺☺☺☺☺☺☺

f1faf73f. Biñoñoño, **hi** euskalduna al **haiz?** Ze **izangottuk** 6gradu xixtrin gutzako?

958862ed. 6gardu xixtrin???????????

958862ed. Ezinttut behatzakkk muiitttu

f1faf73f. ☺☺☺☺☺☺☺

f1faf73f. Floja zikiñaak jajajja

[GS008.33]

Hitanoari buruz hitz egiteko hika erabili duen kasurik ere (metalinguistika) utzi digu gure parte-hartzaileak (3/48). Arestian erabilitako pasarteak argi erakusten du ezaugarri hori:

**f1faf73f. Diñaan?** Jajajajajaja haundiyaa. Maite **haut** dela esangonuke e, jajajajajaja hau moxola paria

6c4d8999. Esssk eeaakaat putaaaiddeeikkaan tiio 😊😊 ♀

**f1faf73f. Diñan=** dizut

**f1faf73f. Haut=** zaitut

6c4d8999. Miyeesker

6c4d8999. Baliagaarriia izaango daa

f1faf73f. Esaa jajajaj

[GS008.45]

Parte-hartzaileak abestietako hitzak ahotan hartuz hitanoa erabili du kasuren batean (1/48). Lehen ere erakutsitako adibidea da hau:

**f1faf73f. Mikel nun hago?**

958862ed. Zer larretan

958862ed. Ur epeleko artzaia

f1faf73f. Mendi hegalegan gota

f1faf73f. Ostia ze gaizki idatzieten 😊

406606ee. Segi lota

958862ed. Oroitzapen den gerora

**f1faf73f. Ihesetan joan intzana**

958862ed. Mendi hegaletan gora

[GS008.12]

Eta, amaitzeko, ironia kutsuko esaldi batean ere hitanoa erabili du:

**f1faf73f. Hoi bai dukela** hoi gaztelera bikaina 🍀😊

5090c6e3. Flipatu itezu ee

5090c6e3. Esaldi horrekin amesten uzteizut 😊

f1faf73f. Gehiegi 😊 oixx aze ohorea 😊

[GS008.44]

Azpiatal honen hasieran esan bezala, lan honetan aztertu dugun corpusean aurkitutakoen azterketa deskriptiboa aurkeztu dugu aurreko lerroetan. Hitanoa gehien erabili den kasua bokatiboa izan da, bereziki makulu gisa, solaskidearen arreta bereganatzeko edo. Horrekin batera, fosiltze edo finkatze bidean doazela iruditu zaigun esapideetan ere maiz erabili da hitanoa guk aztertutako corpusean.

Horiez gain, maiztasun apalagoan izan arren, beste zenbait kasutan ere erabili izan da hitanoa: beste solaskideak esandakoarekiko kontrakotasuna adierazteko, aginduak emateko, abestietako hitzak errepikatzeko, hitanoari berari buruzko iruzkin metalinguistikoak egiteko edota ironia kutsuko adierazpenak egiteko.

## 5. Ondorioak

Azterlan honetan planteatutako ikerketa-galderei erantzunak ematen saiatu gara. Lortutako emaitzek gure jakin-mina erabat ase ez duten arren, bide bat urratzen hasi gara, interesa leukakeen edonori etorkizunean bide horri jarraipena emateko aukera eskainiz.

Hitanoa ikergai hartuta, lan honen erronka nagusiak bi izan dira: batetik, hitano-erabiltzaile profil berri bati arreta jartzea eta, bestetik, hitanoari orain arte begiratu ez zaion angelu batetik begiratzea. Bi helduleku horiek uztartuta ikusitakoen berri eman dugu hemen.

Zenbait kasutan pertsona batek bere diskurtsoa zuka eraikitzen du, baina gerta liteke momentu jakin batzuetan hitanoa erabiltzea (adibidez, pertsona hori ohiko hitano-erabiltzailea ez delako edo solaskideak hika ez duela egiten badakielako). Horren atzean egon litekeena zer den ezagutu nahi izan dugu, teoriarik aipatu dugun Boztepek (2003) azaldutako ideia abiapuntu hartuta: kode-aldaketa ez dela iritzira egiten, baizik eta puntu zehatzetan gertatzen dela. Gure kasuan kode-aldaketei ez, baizik eta tratamendu-aldaketei begiratu diegu, Boztepek (2003) esandakoekin bat eginez eta gure eremuan aplikatzen ahaleginduz.

Azterlan hau egiteko bi prisma baliatu ditugu: Jakobsonen (1960) hizkuntza-funtzioen sailkapena eta kode-aldaketa moten sailkapenak. Eta, biek ala biek, puntu berera eraman gaituzte. Zuka ari den pertsona batek sare sozialetako bere diskurtso pribatuan tartekako tratamendu-aldaketa adierazkorra egin eta hitanora jotzen duenean, nagusiki bi modutara erabiltzen du: lehenengo ikerketa-galdera kontuan hartuta, Jakobsonen (1960) *deitze funtzioa* deitu zion horren baitan hizlariak solaskidea elkarrizketan



integratzeko erabiltzen duen forma bokatiboen bidez eta *funtzio emotiboa* izendatu zuen horrekin, mintzalariaren sentipenak adieraziz; bigarren ikerketa-galdera kontuan hartuta, makulu-lanetan (forma bokatiboen bidez) eta fosildutako esapideak erabiliz.

Bildutako emaitzak ez dira harrigarriak izan. Atal teorikoan ikusi dugunez, hitanoa beren hizkuntza-errepertorioan guztiz txertatuta egon ez arren, tratamendu hori tarteka erabiltzeko ohitura daukatengandik ohikoena da egindako edo fosildutako esamoldeetan erabiltzea (Azkue 2000; Beitia 2017; Etxabe eta Garmendia 2003; Etxaniz 2001). Horrez gain, solaskidea elkarrizketan integratzea ekartzen duen forma bokatiboen presentzia ere nabarmena da. Bibliografiaren azterketan ez dugu horri buruzko aipamenik aurkitu, agian orain arte hitanoari ez zaiolako ikuspuntu honetatik begiratu, baina erabilitako kasuen maiztasuna kontuan hartuta, aurrera begira aztertzea mereziko lukeen fenomeno izan daitekeela deritzogu.

Beraz, nagusiki bi modutara egiten du gure parte-hartzaileak tartekako tratamendu-aldaketa adierazkorra: «hi» izenordaina makulu gisa erabiliz (deitze funtzioarekin) eta egindako esapideak erabiliz (funtzio emotiboarekin). Hori da aurkeztutako ikerketa-galderei erantzunda ikusi ahal izan duguna. Baina informazio hori edukitzeak zertarako balio digu? Batetik, hitanoaren nondik norakoak hobeto ezagutzeko, eta hitanoaren erabileraren atzeko motibazioetan sakontzeko; bestetik, hitanoa biziberritzeko egitasmoetan kontuan hartzeko moduko alderdia da. Halakorik martxan jarri nahi izanez gero, interesgarria izan liteke berezko hika-hiztuna ez den profil batek hitanoa bere errepertorioan sartzeko biderik leunenak zein diren ezagutzea. Izan ere, zenbaitek iradoki izan dute, hikako formen galeraren aurrean, forma sinpleak bakarrik erabiltzen hasi eta pixkanaka paradigma osatzen joatea komeni dela (Beitia 2017; Gaminde 1984). Dena den, horrek bere aurkia eta ifrentzua eduki ditzake: hizkuntza baten zenbait elementu modu errazean erabiltzeko formulak eskaintzea baliagarria izan liteke hizkuntza bat edo, kasu honetan, hizkuntza baten baitako tratamendu bat norbaiten hizkuntza-errepertorioan sartzeko. Pixkanaka aurrera egin ezean, ordea, oinarriko formatik harago joan ezean, erabilera nolabait «folkloriko»an geratzeko arriskua luke hitanoak.

Lan honen mugei begira jarrita, alde batetik, sailkapen-zerrendak erabiltzeak berak dakartzanak identifikatu ditugu; beste aldetik, ikerketa zehatz honekikoak. Sailkapen-zerrendak erabiltzeari dagokionez, ikusi dugu sailkapen hertsiek beren argi-ilunak dauzkatela: batetik, azterketa zehatz eta bateratuak egiteko aukera ematen dute; baina, bestetik, batzuetan ez da erraza izaten kategorizatu nahi diren elementu guztientzako kategoria ego-kiak edukitzea edo elementuak kategoria bakarrean sartzea. Ikerketa zehatz honi dagokionez, hemen aurkeztu dugun lana, batetik, kasu zehatz baten azterketa da eta, bestetik, hitanoa orain arte erabili gabeko ikuspuntu batetik aztertzeke lehen ahalegina; gaian sakontzea bainoago, aurrera begira gai honetan egokitasunez sakontzeke lehen urratsa. Mugak agerikoak dira, guztietan nabarmenena corpusaren urritasuna izaki. Interesgarria izango litzateke hika-hiztun profil gehiagoren ekarpenak aztertzea, hemen aurkeztutako metodologiarekin emaitza emankorrakoak lortze aldera; bereziki, nahiz eta tartekako hika-hiztuna baino ez izan hitanoa maizago erabiltzen duena, edota ohiko hika-hiztuna izanda zukako elkarriketetan tarteka hitanora jotzen duena.

Dena dela, benetan jakin nahiko genukeena da profil honetako hika-hiztun baten kasuan hitanoak zein funtzio betetzen duen; hots, hitanora zergatik eta zein helbururekin jotzen duen. Auzi horretan aztarrikatzeko ezinbestekoa iruditzen zaigu ikerketa kualitatiboa egitea, ez baitakigu hiztun bakoitzarentzat zein balio konnotatibo daukan hitanoak. Baina ikerketa kualitatiboa egiteak ere ez du konplexutasunik falta.

Aurrera begira egin daitezkeen ikerketetan pentsatzen jarrita, uste dugu ordenagailu bidezko komunikazioaren eremuan ikusitakoak baliagarriak izan daitezkeela orriotan aurkeztu dugun gisako ikerketa baterako. Aztertutako testuen jatorria kontuan hartuta, hasieratik ikusi genuen CMCen ikuspuntutik aztertu zitekeela, baina erabaki genuen kasu honetan gure helburua ez zela hainbeste testuinguru horretan erabiltzen zen hizkuntza aztertzea (beste ikerketa batzuetan hori egin dugun arren, ikus: Cenoz & Bereziartua 2016; Bereziartua 2017), baizik eta ezaugarri jakin baten erabilerara ikertzea, hitanoa, hain zuzen ere. Horretarako marko baliagarriak iruditu zitzaizkigun ikerketarako erabili ditugunak. Baina aurrera begira kontuan hartzeko eremu bat izan daitekeela iruditzen zaigu CMCena. Besteak

beste, Perezen eta Zulaikaren (2016) lanek erakutsitakoak ezagututa. Euskal gazteek txatetako mezuetan adierazgarritasuna lortzeko erabili zituzten osagaiak ikertu zituzten bi ikertzaileek eta honako hau aipatzen zuten ondorioetan: «Adierazgarritasunari dagokionez, euskal gazteek Tusónen (1996) funtzio autoespresiboaren, sintonia bilatzeko funtzioaren, eta Jakobsonen funtzio adierazkor, konatibo, fatiko eta poetikoaren erabilera sortzaile eta baliagarria egiten dutela ikusi dugu» (Perez & Zulaika 2016: 129).

Lan honetan hizkuntza-funtzioen eta kode-aldaketen eremuei begira jarri gara itsasargi baten bila, eta ikusi dugu abiapuntu aproposak izan daitezkeela tartekako tratamendu-aldaketa adierazkorra hobeto ulertzeko. Hala ere, gure ikergai den hitanoak berriazko sailkapen bat eskatuko luke. Hika-hiztun ororentzat sailkapen baliagarria izateko, ordea, corpus handiagoa behar ko litzateke, profil desberdinekin, eta, ahal izatera, hitanoa pixka bat gehiago erabiltzen duten parte-hartzaileen ekarpenekin. Dena dela, aurrez esan bezala, ikerketa hau erronka gisa hartu dugu eta hitanoari oraindik heldu gabeko angelu batzuetatik heltzen saiatu gara.

## 6. Erreferentziak

ALBERDI, Xabier (1993). «Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak». *FLV*, 64: 425-442.

——— (1994). «Hitanoa non eta nork erabiltzen duen». *Euskera*, 39: 983-993.

——— (1996). *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Iker 9. Bilbo: Euskaltzaindia.

ANDROUTSOPOULOS, Janis (2013). «Code-switching in computer-mediated communication», in Susan Herring, Dieter Stein & Tuija Virtanen (arg.), *Pragmatics of Computer-Mediated Communication*. De Gruyter Mouton, 667-694.

APPEL, René & MUYSKEN Pieter (1987). *Language Contact and Bilingualism*. Londres: Edward Arnold.

AUER, Peter (1984). *Bilingual conversation*. Amsterdam: John Benjamins.

——— (1988). «A conversation analytic approach to codeswitching and transfer», in Monica Heller (arg.), *Codeswitching: Anthropological and sociolinguistic perspectives*. Berlin: Mouton de Gruyter, 187-213.

——— (1995). «The pragmatics of code-switching: A sequential approach», in Lesley Milroy & Peter Muysken (arg.), *One speaker two languages: Cross-disciplinary perspectives on code-switching*. New York: Cambridge University Press, 115-135.

AZKUE, Xabier (2000). *Hitanoa Zumaian*. Zumaia: Zumaiko Udala.

BEITIA, Iñigo (2017). «Tokanoka tribua. Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balore eta jarrerak». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 103: 139-166.

BEREZIARTUA, Garbiñe (2017). «Berehalako mezularitzan erabilitako hizkuntza: ezaugarriak eta erabiltzaileen pertzepzioak». *Tantak*, 20-1: 27-52.

——— & MUGURUZA, Beñat (2021). «Basque informal talk increasingly restricted to men: The role of gender in the form of address *hika*». *Journal of Language and Linguistic Studies*, 17-1: 185-202.

BLOM, Jan-Petter, & GUMPERZ, John (1972). «Social meaning in linguistic structure: Code-switching in Norway», in John Gumperz & Del Hymes (arg.), *Directions in sociolinguistics*. New York: Holt, Rinehart and Winston, 407-434.

BOZTEPE, Erman. (2003). «Issues in code-switching: Competing theories and models». *Working papers in TESOL & Applied Linguistics* 3.

CAPARAS, Pilar & GUSTILO, Leah (2017). «Communicative aspects of multilingual code switching in computer-mediated communication». *Indonesian Journal of Applied Linguistics*, 7-2: 349-359.

CENOS, Jasone & BEREZIARTUA, Garbiñe (2016). «Is instant messaging the same in every language? A basque perspective». *Reading and Writing*, 29-6: 1225-1243.

DE RIJK, Rudolf P.G. (1991). «Familiarity or solidarity: The pronoun *hi* in Basque». *RIEV*, 36: 373-378.

ETXABE, Karmele & GARMENDIA, Larraitz (2003). *Zaldibiako euskara. Bertako bizimodua, ohiturak eta pasadizoak*. Zaldibia: Zaldibiako Udala.

ETXANIZ, Pello (2001). «Tratamenduen bilakaera, to eta no». *FLV*, 87: 225-234.

GAMINDE, Iñaki (1984). *Aditz etikoa*. Bilbo: AEK.

GARDNER-CHLOROS, Penelope (1991a). *Language selection and switching in Strasbourg*. Oxford: Oxford University Press.

——— (1991b). «Ni tu ni vous: principes et paradoxes dans l'emploi des pronoms d'allocution en français contemporain». *Journal of French Language Studies*, 1-1: 139-155.

GUMPERZ, John J. (1982). *Discourse strategies*. Cambridge: Cambridge University Press.

HOFFMANN, Charlotte (1991). *An introduction to bilingualism*. New York: Longman.

JAKOBSON, Roman (1960). «Linguistics and Poetics», in Thomas Sebeok (arg.), *Style in Language*. Cambridge: MIT Press, 350-377.

LABOV, William (1971). «The notion of 'system' in Creole languages», in Dell Hymes (arg.), *Pidginization and creolization of languages*. Cambridge: Cambridge University Press, 447-472.

MCCLURE, Erica & MCCLURE, Malcolm (1988). «Macro- and Micro-sociolinguistic Dimensions of Code-switching in Vingard (Romania)», in Monica Heller (arg.), *Codeswitching: Anthropological and Sociolinguistic Perspectives*. Berlin: Walter de Gruyter, 25-51.

MONTES-ALCALÁ, Cecilia (2007). «Blogging in Two Languages: Code-Switching in Bilingual Blogs», in Jonathan Holmquist, Augusto Lorenzino & Lotfi Sayahi (arg.), *Selected Proceedings of the Third Workshop on Spanish Sociolinguistics*. Somerville, MA: Cascadilla Proceedings Project, 162-70.

MUGURUZA, Beñat & BERZIARTUA, Garbiñe (2020). «Transmisioaren eragina hitanoaren osasunean: Azeptiko hiru belaunaldiren azterketa», in Iñaki Camino, Xabier Artiagoitia, Irantzu Epelde & Koldo Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 545-564.

MUÑO, Inma (2002). «Zergaitik eta zertarako erabiltzen ditugu euskara eta gaztelera solasaldi berean?» *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 42: 53-63.

NISHIMURA, Miwa (1997). *Japanese/English Code-switching—Syntax and Pragmatics*. Peter Lang, New York.

PEREZ, Elixabete & ZULAIKA, Esther (2016). «Adierazgarritasun zantzuak euskal gazteen txatetan». *Gogo*, 14: 105-130.

ROMAINE, Suzanne (1989). *Bilingualism*. Oxford: Basil Blackwell.

SAVILLE-TROIKE, Muriel (1986). *The ethnography of communication: An introduction*. Oxford: Basil Blackwell.

YANKOVA, Diana & VASSILEVA, Irena (2013). «Functions and Mechanisms of Code-Switching in Bulgarian Canadians». *Études Canadiennes / Canadian Studies. Revue interdisciplinaire des études canadiennes en France* [Online], 74: 103-121.

ZENTELLA, Ana (1997). *Growing up bilingual*. Massachusetts: Blackwell Publishers Inc.

ZULAIKA, Esther (2019). «Kode-aldaketaren tipologia euskal gazteen txatetan». *Fontes Linguae Vasconum (FLV)*, 128: 339-357.

## 7. Eranskina

Hona hemen metodologiaren atalean aurkeztu dugun sailkapen-propoamenaren bertsio osatua. Bertsio honetan, aldagai gehienei buruz beste lan batzuetan esandakoak bildu dira; zenbait aldagairen kasuan ez dago erreferentziarik, aldagai hori autoreek ekarri dutelako zerrendara:

FORMA (ZER)
<p>ALDATU (GAIA, IKUSPUNTUA)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– (Auer 1988) <i>Topic change</i></li> <li>– (Androutsopoulos 2013) <i>Switching to contextualize a shift of topic or perspective, to distinguish between facts and opinión, information and affect, and so on.</i></li> <li>– (Muñoa 2002) Gai batetik bestera mugitzea edo hizketagai berriak eranstea</li> </ul>
<p>BEREIZI (EBIDENTZIAK ETA IRITZIA, INFORMAZIOA ETA AFEKTUA, LEHEN ETA BIGARREN MAILAKO INFORMAZIOA)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– (Androutsopoulos 2013) <i>Switching to contextualize a shift of topic or perspective, to distinguish between facts and opinión, information and affect, and so on.</i></li> <li>– (Gumperz 1982) <i>Personalization versus objectivization: ikuspuntu pertsonalak eta objektiboak bereizteko.</i></li> <li>– (Auer 1988) <i>Distinguishing various types of information in an utterance (for instance, «given» and «new», or «focus of contrast» and the rest of the contribution, to use Chafe's terms.</i></li> <li>– (Auer 1988) <i>Sequential contrast: for instance, between an on-going sequence and a subordinated repair sequence, or side remark.</i></li> </ul>
<p>OSATU</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– (Gumperz 1982) <i>Message qualification: esan nahi dena osatzeko (adibidez, ekintzak eta iritziak bereiziz).</i></li> </ul>

FORMA (ZER)
<p>JARRERA DESBERDINA ADIERAZI, AURREKOAK ESANDAKOARI KONTRAKOTASUNA EDO ZALANTZA ADIERAZI (DISTANTZIA)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– (Androutsopoulos 2013) <i>Switching to or from the interlocutor’s code to index consent or dissent, agreement and conflict, alignment and distancing, and so on.</i></li> <li>– (Muñoa 2002) Esandakoa indartzea edo arbuizatzea.</li> </ul>
<p>PERTSONA/AUDIENZA JAKIN BATI HITZ EGIN</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– (Gumperz 1982) <i>Addressee specification</i></li> <li>– (Caparas &amp; Gustilo 2017) <i>To limit the intended audience.</i></li> <li>– (Androutsopoulos 2013) <i>Switching to index one particular addressee, to respond to language choices by preceding contributions, or to challenge other participants’ language choices.</i></li> </ul>
<p>GAIAREN FORMALTASUNAREN ARABERA ALDATU (FORMALA/ INFORMALA)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– (Gumperz 1982: 66) <i>The tendency is for the ethnically specific, minority language to be regarded as the «we code» and become associated with in-group and informal activities, and for the majority language to serve as the «they code» associated with the more formal, stiffer and less personal out-group relations.</i></li> <li>– (Auer 1988) <i>Change in mode of interaction (for instance, between a formal interview and a casual conversation, or between a move in a game and conversation).</i></li> <li>– (Reyes 2010) <i>Situation switch: Gai zientifikoak eta ez-zientifikoak bereizteko.</i></li> <li>– (Caparas &amp; Gustilo 2017) <i>Talking about a particular topic.</i></li> </ul>
<p>INDARTU, ARGITU, ENFATIZATU</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– (Androutsopoulos 2013) <i>Switching with repetition of an utterance for emphatic purposes.</i></li> <li>– (Gumperz 1982) <i>Reiteration: argitzeko, indartzeko edo enfatizatzeke</i></li> <li>– (Caparas &amp; Gustilo 2017) <i>Being emphatic about something.</i></li> <li>– (Caparas &amp; Gustilo 2017) <i>Repetition used for clarification.</i></li> <li>– (Caparas &amp; Gustilo 2017) <i>Clarification of the speech content.</i></li> <li>– (Muñoa 2002) <i>Esapide jakin batzuek adierazkortasun handiagoa dute hizkuntza batean bestean baino.</i></li> <li>– (Muñoa 2002) Esandakoa indartzea edo arbuizatzea.</li> </ul>

FORMA (ZER)
<p>AIPATU</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– (Gumperz 1982) <i>Quotations</i></li> <li>– (Caparas &amp; Gustilo 2017) <i>Quoting somebody else’s statements.</i></li> <li>– (Muñoa 2002) Aipamen zuzenak egitea.</li> </ul>
<p>ABESTIETAKO HITZAK ERABILI</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– (Androutsopoulos 2013) <i>Switching in order to perform culturally-specific genres such as poetry or joketelling.</i></li> <li>– (Appel &amp; Muysken 1987) <i>Poetic function</i>: hitz-jokoak eta txistekak egiteko erabiltzen denean; hizkuntza bera da helburu eta jolas-iturri.</li> </ul>
<p>FOSILDUTAKO/FINKATUTAKO (EDO BIDE HORRETAN DOAZELA IRUDITU ZAIGUN) ESAPIDEAK ERABILI</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– (Gumperz 1982) <i>Formulaic expressions</i></li> <li>– (Montes-Alcalá 2007) <i>Tags</i>: adierazpide idiomatikoak (naturalak) edo ohiko hizkuntza-jokamoldeak esateko.</li> </ul>
<p>EMOZIOAK ADIERAZI</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– (Appel &amp; Muysken 1987) <i>Expressive function</i>: norbere sentimenduak aditzera ematean datza, horrela bere norbanakotasuna azpimarratuz.</li> </ul>
<p>AGURTU, TXANDA MANTENDU EDO ELKARRIZKETA AMAITU</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– (Muñoa 2002)</li> </ul>
<p>ZORIONDU</p>
<p>ANIMOAK EMAN</p>
<p>UMOREA ERABILI</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– (Muñoa 2002)</li> </ul>
<p>IRONIA ERABILI</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– (Muñoa 2002)</li> </ul>
<p>INTERJEKZIOAK SARTU</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– (Gumperz 1982) <i>Interjections</i></li> <li>– (Caparas &amp; Gustilo 2017) <i>Interjection (inserting sentece fillers or sentence connectors)</i></li> </ul>



FORMA (ZER)
BOKATIBOA ERABILI (hasieran edo makulu gisa)
AGINDU / AHOLKUA EMAN
HIZKUNTZARI BURUZ HITZ EGIN

FUNTZIOA (ZERTARAKO)
MODALIZATZEKO – (Androutopoulos 2013) <i>Switching to mark what is being said as jocular or serious, and to mitigate potential face-threatening acts, for example through humorous CS in a dispreferred response or a request.</i> – (Caparas & Gustilo 2017) <i>To soften or strengthen a request or command.</i> – (Muñoa 2002) Konnotazio negatiboak leuntzeko.
ELKARTASUNA, ADISKIDETASUNA ADIERAZTEKO
TALDEKIDETASUNA, HERRIKIDETASUNA, KULTURKIDETASUNA – (Caparas & Gustilo 2017) <i>Expressing group identity.</i>
GAZTE KUTSUA EMATEKO
FORMULAIC DISCOURSE PURPOSES – (Androutopoulos 2013) <i>Switching for formulaic discourse purposes, including greetings, farewells, and good wishes.</i>
SOLASKIDEA INTEGRATZEKO – (Appel & Muysken 1987) <i>Directive and integrative function: solaskidearen parte-hartzea lortzeko adierazpideak izango lirateke (estandarrak diren agurrak, ohikoak diren tratamenduak, agintera, harridurak edo galderak).</i>
SOLASALDIARI JARRAIBIDEA EMATEKO – (Appel & Muysken 1987) <i>Phatic function: komunikatzeko bideak irekita mantentzea du xede (ohiko bihurtutako elkarrizketahasierak nahiz -amaierak, solaskideari hitza ematea...).</i>
METALINGUISTIKOA – (Appel & Muysken 1987) <i>Metalinguistic function: darabilten hizkuntzari buruzko erreferentzia esplizituak egiten ditu solaskideak (hizkuntzaren erabilerarekiko edo arauetikiko jarrerak edo kontzientzia adieraziz).</i>



# *Juan Sebastian Elkano* izen-deiturei buruzko irizpena

Dictamen sobre el nombre y el apellido *Juan Sebastian Elkano*

Avis sur le prénom et le nom *Juan Sebastian Elkano*

Opinion on the name and surname *Juan Sebastian Elkano*

LARRAÑAGA ARRIETA, Josu  
Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko kidea  
Member of the Onomastics Committee of Euskaltzaindia  
josularra@gmail.com

Noiz jaso: 2022-01-07

Noiz onartua: 2022-04-12

Euskal Herriko zein kanpoko historiografian modu askotara eman dira Getariako itsasgizon ezagunaren izen-deiturak. Oraintsu erabaki da zein den euskarazko idazkera arautua: *Juan Sebastian Elkano*. Artikulu honetan idazkera horren alde egiteko arrazoiak bildu dira. Horretarako, batetik, agiritegietako lekukotasunak ekarri ditugu, eta, bestetik, deitura modu batean baino gehiagotan idazteko batzuek eta besteek emandako argudioak jaso ditugu. Izenaren aldaerei erreparatu ostean, ponte izenaren eta deituraren artean erabili izan den erdarazko “de” preposizioaz ere aritu gara, izan ere jatorria adierazten zuen preposizio horrek ez dauka lekurik euskal idazkera akademikoan.

**Gako-hitzak:** Elkano, antroponimia, deitura, Getaria, itsasgizona.

Tanto en la historiografía de Euskal Herria como fuera de ella, se ha venido escribiendo de diferentes maneras el nombre y el apellido del conocido marino de Getaria. Recientemente se ha dictaminado cuál es su escritura normativa en euskera: *Juan Sebastian Elkano*. En este artículo se recogen las razones por las que se opta por esa forma escrita. Para ello, por un lado, aportamos testimonios documentales y, por otro, damos cuenta de los argumentos esgrimidos por unos y otros para escribir el apellido de una u otra forma. Tras analizar las

variantes del nombre, abordamos el uso de la preposición castellana “de”, utilizada históricamente entre el nombre de pila y el apellido para señalar su origen, concluyendo que no tiene cabida en la escritura académica en euskera.

**Palabras clave:** Elkano, antroponimia, apellido, Getaria, marino.

Dans l'historiographie du Pays Basque et de l'étranger, le prénom et le nom du célèbre navigateur de Getaria ont été cités de différentes manières. Il a été décidé récemment quelle serait la graphie correcte en basque : *Juan Sebastián Elkano*. Cet article résume les raisons de cette décision. Nous avons pour cela fourni des preuves d'archives et nous avons aussi pris en compte les arguments des uns et des autres qui l'écrivaient de différentes façons. Après avoir observé ces différentes variantes, nous avons étudié la préposition espagnole “de”, utilisée entre le prénom et le nom, et qui n'a pas sa place dans la graphie académique basque.

**Mots-clés :** Elkano, anthroponymie, dénomination, Getaria, navigateur.

In the historiography of the Basque Country and abroad, the name and surname of the famous sailor from Getaria have been cited in many ways. It has recently been decided which is the regulated written spelling in Basque: *Juan Sebastián Elkano*. This article summarizes the reasons for this writing. To do this, on the one hand, we give an account of the arguments put forward by the archives, and on the other hand, we give an account of the arguments put forward by each other to write the name in more than one way. After seeing the variants of the name, we have also dealt with the Spanish preposition “de”, which has been used between the name and the surname, and which has no place in Basque academic writing.

**Keywords:** Elkano, anthroponymy, surname, Getaria, sailor.

LARRAÑAGA, Josu (2021). “Opinion on the name and surname *Juan Sebastian Elkano*”, *Euskera*, 2021, 66: 113-140.

## Irizpenaren arrazoia

2021eko uztailaren 15ean Rafael Zulaikak, Elkano Fundazioko proiektuen koordinatzaileak, Euskaltzaindira jo zuen eskatzeko Getariako itsasgizon ezagunaren izen-deiturei buruzko irizpena eman zezan. Ibon Usarralde Euskaltzaindiko egitasmoen bateratzaileak, antroponimiari buruzko eskaera zela ikusirik, Roberto González de Viñaspre Onomastika Batzordeko buruari helarazi zion irizpen-eskaera. Txosten honek Elkano Fundazioaren eskaera horri erantzuteko irizpen proposamena jasotzen du.

### 1. Atarikoak

Sarritan, aspaldiko pertsona baten izen-deiturak idazteko orduan zalantzak sortzen zaizkigu. Nola idatziko dugu? Euskaraz eta gaztelaniaz ari garenean molde ezberdinak erabili behar ote ditugu? «Berak zerabilen moduan», esango dute batzuek. Orduan, ezin dugu euskarazko idazkera akademikoa erabili?

Galdera horri erantzuten ahalegintzeko, deituratik abiatuko gara. Aztertuko dugu zer-nolako grafia erabili zuen Juan Sebastian Elkanok –aurrerantzean J.S. Elkano– eta bere garaikoek. Idazkera ezberdinek sortutako gorabeheren berri ere emango dugu, eta *Elkano* deituraren alde egiteko zenbait argudio aipatuko ditugu. Atal hau amaitzeko, ustez deitura eragin zuen Elkano auzoaz jardungo dugu.

Ondoren, lehen aldiz munduari buelta eman zion pertsonaren ponte-izenari erreparatuko diogu eta, amaitzeko, izen-deiturak idazteko irizpena emango dugu.

Idatziaren ondotik, erabilitako bibliografia osoa jaso dugu, eta, azaldu-takoen osagarri, agirietatik ateratako zenbait irudi esanguratsu erantsi ditugu.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> Testuan, eranskin gisa jaso diren irudietara jotzeko aipamenak egiten dira (“ikus 5. irud.”, esaterako).

## 2. Elkano deitura

### 2.1. "Elcano" ala "del Cano"?

Asko idatzi da Getariako itsasgizon ezagunaren deituraz. Izan ere, ez da modu bakarra egon bere abizena idazteko: *Elcano*, *del Cano*, *Cano*... Azken hamarkadetan *Elkano* eta *Elcano* idazkerak gailendu –eta onartu– diren arren, oraindik ere bada bestelako formak erabiltzen dituenik.

Eztabaida biziak eragin ditu gai honek, bereziki XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran.<sup>2</sup>

1800. urtetik behintzat<sup>3</sup> iritzi eta argudio ugari agertu izan dituzte, bai "Juan Sebastián de Elcano" idatzi behar zela ziotenek, bai "Juan Sebastián del Cano" idazkeraren alde egiten zutenek.

Arrazoi ezberdinak emanez, beste batzuen artean, hauek egin zuten *de Elcano* idaztearen alde: Wilhelm von Humboldt hizkuntzalari alemaniarrak (1801), Pablo Gorosabel historialariak (1862), Eustaquio Fernández de Navarrete historialariak ([1866] 1872)<sup>4</sup>, Antonio Trueba idazleak (1873), Jose Artetxe idazleak (1942)...

Beste "alderdian"<sup>5</sup> zeudenek *del Cano* idaztearen aldeko argudioak ematen zituzten. Batzuk aipatzearen: Nicolás Soraluze historialaria (1870, 1881), Eugenio Urroz (1921), eta Abelardo Merino eta Ramón Seoane (1911, 1925).

<sup>2</sup> «La redacción del apellido del célebre protocircunvalador promovió hace algunos años una vivísima discusión entre varios escritores vascongados por hallarse divididos los pareceres respecto á la manera de expresarlo. Unos suponían que era Elcano, otros del Cano, no faltando también quien le denominase Delcano» (Seoane 1911: 263).

<sup>3</sup> Bernabé Antonio de Egañak, 1800. urtean, Tolosan idatzitako gutun batean honela argitzen dio auzia kontsulta egin dion familiartekoari: «todos sabemos que en el Pays no hay tal apellido del Cano y sí el barrio de Elcano» (Aguinagalde 2017: 74).

<sup>4</sup> 1866an hil zen, eta, paradoxa bada ere, Nicolás Soraluze editoreak izenburua aldatu zion bere hil osteko liburuari eta *Historia de Juan Sebastián del Cano* ipini.

<sup>5</sup> Bi *alde*, *talde* edo *mutur* hitzak erabil genitzake, horietako askok jarrera gogor samarrak, egia absolutuak, plazaratu zituzten-eta.

Talde bietan zeuden historialariak, idazleak eta pertsona ikasiak; orduan, zerk bereizten zituen euren jarrerak?

Batzuen eta besteen argudioak zehatz aletzeko ahalegina alde batera utzita, ikus ditzagun, gainetik bada ere, desadostasunak eragin dituzten puntu nagusiak:

... (del) *Canoren* aldekoek:

1. J.S. Elkanok berak erabiltzen zuelako idatziz forma hori.
2. Bere sasoiaren hori zelako idazkera nagusia, Euskal Herrian zein heremendik kanpo.
3. (del) *Cano* deitura egon bazegoen.
4. *Elkano* auzoarekiko lotura zalan-tzazkoa da.

... (del) *Elcanoren* aldekoek:

- Bere akatsa edo bere familiakoena izan zen.
- Gaztelaniaren logikari jarraituz sortutako idazkera makurra zen (del) *Cano*.
- Gipuzkoako itsasaldean *Elkano* deitura baino ez zen ezagutzen.
- Getariatik gertu dagoen auzoak deitura sortu zuen, eta inguruko herrietan deitura hori ezaguna zen.

## 2.2. Orduko erabilera

Aldaera grafiko ugari izan ditu Getariako itsasgizonaren deiturak. Eta hori, sasoi bateko historialariei ez ezik, oraintsuko historialariei ere ez zaie pasatu oharkabeen.

*Elcano es un topónimo relativamente frecuente en la geografía vasca, y de él deriva, como en otros muchos casos, el apellido. Pero el marino firmó siempre en la forma castellanizada “el Cano”, y así lo conoció toda la gente en su tiempo.* (Comellas 2012: 162)

*Aunque firmaba como Juan Sebastián del Cano, veremos referirnos a él también como delcano en algunos documentos originales. Más tarde se le empezó a referir como “de Elcano” o simplemente “Elcano”.* (Mazón 2020: 16. oharra)

Ohart gaitezen, José Luis Comellasen esanetan, J.S. Elkanok beti zerabilera “del Cano” idazkera. Tomas Mazónek, berriz, garai hartako bi forma aipatzen ditu: “del Cano” eta “delcano”.

Hori dela-eta batzuek, orduko agirietan agertzen zen idazkera oinarri hartuta, bere deitura “del Cano” zela adierazi izan dute:

*Juan Sebastián del Cano (que esta ortografía es la más conforme con los autógrafos del insigne marino con lo consignado en los papeles de aquellos días (...)) por lo que la consideramos la única aceptable*. (Merino & Seoane 1925: 245)

Jo dezagun, bada, jatorrizko agirietara ikusteko nola idazten zuten zorioneko deitura, bai Elkanok berak, bai eta bere sasoiko gainerakoek ere.

J.S. Elkanok idatzitako zenbait agiri ikusi ditugu eta bertan bost aldiz aipatzen du idatziz bere izena: sinadura lau aldiz eta, berak idatzitako gutun bateko testuan, bere izen-deiturak:

- “Capitan Ju<sup>o</sup> Sebastian delcano”. (1522ko bi sinadura). Ikus 11. eta 12. irud.<sup>6</sup>
- “Juan Sabastian del cano”. (1522ko testuan)<sup>7</sup>. Ikus 13. irud.
- “Ju<sup>o</sup> Sebastian del cano”. (1526ko bi sinadura)<sup>8</sup>. Ikus 9. eta 10. irud.

Elkanoren testamentua da “del Cano” idaztearen aldekoek maizenik aipatu izan duten agiria. Ozeano Barean, Victoria itsasontzian, idatzi zuten testamentua<sup>9</sup>, baina nork? 18 urteko gipuzkoar batek: Andres Urdanetak (Romero 2020: 199). Ordiziar gazte horrek, euskalduna eta kapitainaren hurrekoa izanik ere, 1526ko testamentu hartan “del Cano” idaztea froga nahikoa omen da erakusteko horixe zela bere “benetako deitura”.

Baina, jatorrizko agiria zorrotz aztertzen badugu berehala konturatuko gara Urdanetak ez zuela “del Cano” erabili, baizik eta “delcano”. Oso gauza ezberdina, beraz.<sup>10</sup>

<sup>6</sup> Lehenengoa: Laurgain dorretzeko artxiboa. Atala: Lardizabal. Anexo. Saila: Dossier de Juan Sebastián de Elcano. olim 15 paper-sorta, olim 09 zk. (1522, Carta de Juan Sebastián de Elcano a Carlos I dando noticias de su llegada y solicitando diversas Mercedes). Bigarrena: AGI, PATRONATO, 48, R.20, 2v (1522).

<sup>7</sup> 1522an Karlos II.ari idatzi zion gutunean agertzen da horrela (erreferentzia, 6. oin-oharrear).

<sup>8</sup> Juan Sebastian Elkanoren testamentuan. Erreferentzia, 9. oin-oharrear.

<sup>9</sup> Hemen kontsultatu dugu jatorrizko agiria: AGI, PATRONATO, 38, R.1.

<sup>10</sup> Aipatzeko modukoa iruditu zaigu Manuel Romero Tallafigok (2020: 207), Elkanoren testamentuaren azterketan, transkripzioan izandako irizpidea: «Huimos de poner “Delcano” o



- “el capitan Juan Sevastian delcano” (17). Ikus 5. irud.
- “el capitan Juan Sebastian delcano” (19). Ikus 6. irud.
- “domingo delcano mi hijo” (21). Ikus 7. irud.
- “sabastian delcano mi hrr<sup>o</sup> [hermano]” (21). Ikus 8. irud.

Elkanoren sinadurari dagokionez, gorago esan dugun bezala, bi aldiz agertzen da, eta bietan berdin: “Ju<sup>o</sup> Sebastian del cano”.

Horren aurrean bi azalpen eman dira: 1.- Juan Sebastianek berak edo familiakoek eragindako idazkera okerra zela hori (“castellanización del apellido” aipatu izan dute batzuek). 2.- Idazkera hori azaltzeko arrazoi grafikoak zeudela, eta ez hizkuntzari zegozkionak.<sup>11</sup>

Ikus ditzagun orain, XVI. mende hasiera hartan, nola agertu zituzten idatziz orduko eskribauek elkanotarren<sup>12</sup> izen-deiturak.

Batzuek esan izan dute, garai hartan, Juan Sebastianen familiaz aritzean, sistematikoki erabiltzen zela “del Cano” deitura. Hona hemen hori gezurta-tzen duen datua: Blas Artazubiaga Zestoako eskribauak honela papereratu zituen J.S. Elkanoren anaia zaharrenaren izen-deiturak:

- “Sebastian de elcano vezino de la villa de guetaria”.<sup>13</sup> Ikus 14. irud.

---

“delcano” como huimos en la medida de lo posible de transcribir “de este día” y aceptamos “de este día”».

<sup>11</sup> Ikertzaile berberak (Romero 2020: 207) honela azaltzen du: «... nos hemos visto urgidos a transcribir “de Elcano”. No nos es posible hacerlo como “del Cano” ni “Delcano”. El criterio de separar por el espacio interlineal en blanco entre “l” y “c”, no lo creemos convincente. Ese blanco se origina por una razón gráfica, no lingüística. Nace de que el remate final y bajo de la “l” no puede enlazar con el ataque superior de la “c” de doble trazo, que no es un arco sencillo. Tal pausa gráfica es la que crea el espacio. Igual espacio deja y por los mismos motivos la “a” que no enlaza con la “s” en “Sebastián”, y no la transcribimos “Seba Stián”».

<sup>12</sup> Zortzi senideetako bat izan zen J.S. Elcano. Bere anai-arrebak: Sebastian, Domingo, Martin Perez, Ochoa Martinez, Catalina, Maria, eta Inesa. (Ikus Aguinagalde 2019a: 141).

<sup>13</sup> GPAH 2/1606, A:15r-15v (1517-04-25, Altzolarats jauregiko Domingo Arronak Getariako Sebastian Elkanori Siziliako Messinan zituen burdinak ahalik eta prezio onenean saltzeko eman-dako ahalorde-agiria).

Hona hemen beste zenbait aipamen:

- “El m<sup>e</sup> iohan S<sup>an</sup> dl cano”.<sup>14</sup> (1519). Ikus 15. irud.
- “Juan Sebastian delcano capitan de la nao Vitoria”<sup>15</sup>. (1523) Ikus 25. irud.
- “ochoa mins delcano<sup>16</sup> maestre del dho patax e de Juan Sebastian de elcano” (1535eko agiria; hil ostekoa)<sup>17</sup>. Ikus bitez 16. eta 17. irud.
- “ochoa mins de elcano maestre del dho patax e de anton deelcano e de min ps de elcano (...) e de Ju<sup>o</sup> Sebastian...” (1535).
- “Ynesa delCano” (1533)<sup>18</sup>. Ikus 18. irud.
- “yo doña Catalina del puerto biuda muger legitima que fuy de domingo sebastian delcano mi marido defunto” (1534)<sup>19</sup>. Ikus 19. irud.
- “Juan sebastian de elcano” (1534). Ikus 20. irud.
- “capitan iohan sebastian de elcano” (1534). Ikus 21. irud.
- “Joanes de mutio e ma[ria] delcano fueron casados e belados” (1555). Ikus 22. irud.
- “Maria deelcano” (1555). Ikus 23. irud.

Azken adibide hori, J.S. Elcano hil ondokoa izan arren, oso esanguratsua da, Maria de Elcano arrebaren izena bi modutara idatzi baitzuen eskribauak orrialde berean: “delcano” eta “deelcano”.

Ondorioz, esan dezakegu lehengo eta oraingo historialarietako askok esandakoa ez dela erabat zehatza; izan ere, “del cano”, “delcano”, “deelca-

---

<sup>14</sup> Idazkera osoan: “El maestre iohan Sebastian del cano”. Hau da agiria: AGI, PATRONATO, 34, R.6, 33 (1519, Información y relación de las personas que llevó Fernando de Magallanes al descubrimiento de la Especiería).

<sup>15</sup> Aipatzeko modukoa da 1523. urtean Erregeak –bere idazkariak, segurutik– idatzi zionean ere, “delcano” erabili izana. Laurgain dorretxeko artxiboa. Atala: Lardizabal. Anexo. Saila: Dossier de Juan Sebastián de Elcano. olim 15 paper-sorta, olim 09 zk. (Ikus 25. irud.).

<sup>16</sup> J.S. Elkanoren anaia, *Ochoa Martínez de Elcano*.

<sup>17</sup> Aipamen hau eta hurrengoak agiri bilduma beretik: AGI. Patronato, 40, N.1, R.5.

<sup>18</sup> Bere arreba.

<sup>19</sup> J.S. Elkanoren gurasoak.

no” eta “de elcano”<sup>20</sup>, lau molde horietan agertzen dira elkanotarrak XVI. mende hasierako dokumentazioan.

Azken hiru idazkera horiek erraz azaltzen dira: de Elcano → deelcano → delcano. Azken batean, garai hartako idazkeran ohikoa zen letra berberetik bat egitea. Ekonomia grafikoagatik egiten zuten.

### 2.3. Zer dela-eta “del Cano” deitura?

Grafia aldakor samarreko sasoi hartan, “delcano” aldaeratik abiatuta, txukunago idaztearren nonbait, baten bat hasiko zen gaztelaniazko “del Cano” erabiltzen. Ordukoentzat esanahi iluneko *Elcano* baino argiagoa zen *El cano*. Herri-etimologietan ohikoa den bezala, hitz ezezaguna “motibatu” nahian, eta gaztelaniazko “el” eta “del” ezagunen eraginez, erraz zabaldu ziren grafia desegoki haiek.

Gauza bera gertatu zen beste euskal deitura batzuekin. *Elkoro* deitura, tarteka, okerreko bide berbera hartuta, “del Coro” gisa ere agertzen da dokumentazioan.

Humboldttek Euskal Herrian barrena egindako bigarren ibilaldiaren (1801) ondoren idatzi zuen liburu ederrean “akats” horren berri eman zuen:

*Es una falta ordinaria el corromper las primeras sílabas de nombres vascos en España y Francia en el artículo español y francés. Así en Bayona llaman a Larruna de ordinario la Rhune, Elorrio, Elanchove en los mapas españoles el Orrio, el Anchove. (Humboldt 1801: 27)*

*Los españoles y extranjeros acostumbran llamarle de ordinario Cano o el Cano. Únicamente en la inscripción de la estatua<sup>21</sup> se dice Elcano, solo este, no Cano, es un nombre propiamente vasco, y a menudo se pervierte,*

<sup>20</sup> XVI. mendetik aurrera, ia beti, “Elcano” deitura agertzen da. Esaterako, Martin de Elcano Zarauzko eskribauak 1594. urtean “de Elcano” erabiltzen zuen, bai testu barruan, baita sinatzeko ere: “Min deElcano scriuano” [testu barruan]; “Min deelcano” [sinadura]. (Ikus bitez 26. eta 27. irud.).

<sup>21</sup> 1800. urtean jarri zuten estatuaz ari da. Lehen karlistaldian, 1836an, kalteak eragin zizkioten eta kendu egin zuten.

*como ya he observado más arriba, la sílaba inicial de los nombres vascos transformándola en artículo español y francés.* (Humboldt 1801: 67)<sup>22</sup>

J.S. Elkanoren deitura “del Cano” zela aldarrikatzen zutenek, sarritan, Esteban Garibai historialaria aipatzen zuten *del Cano* erabili zuelako (1571):

*Iuan Sebastian del Cano, de nacion Cantabro, natural de Guetaria.*  
(Garibay 1571: 1. liburukia, 70. or.)

*D’esta villa de Guetaria, era aql insigne piloto y capitan, llamado Iuã Sebastiã d’el Cano, illustre entre historiadores y Geografos.* (Garibay 1571: 2. liburukia, 967. or.)

Baina, “Elcano” idazkeraren aldekoek ere bazuten urte gutxi batzuk ge-roagoko (1625) historialaria: Lope Martinez Isasti.<sup>23</sup> Sevillan bizi zen Juan Gamiz jesuitak ere *Elcano* deitura erabili zuen 1692ko argitalpen batean.<sup>24</sup>

Idazteko era eta ortografia aldatuz joan dira menderik mende, hori izan daiteke gorago aipatu dugun aldakortasun horren arrazoietakako bat. Horrez gain, XV-XVI. mendeetako pertsona baten idazkera eta ortografia ohiko arautik alden du daiteke. Ideia hori plazaratu zuen Eustaquio Fernández de Navarretek (1872: 195):

*De varios modos aparece en los autores escrito el apellido del navegante, á saber: Elcano, Delcano y del Cano. De esta última manera firma en su testamento, lo cual evidencia que esta es la forma más auténtica de su apellido.*

Dena dela, apur bat aurrerago, zalantzatan jartzen du:

*¿Qué confianza podemos tener en que escribirían rectamente su nombre, un marino vascongado, que casi ignoraba el castellano, y el beneficiario de Guetária?*

<sup>22</sup> Telesforo Aranzadik, W.F. von Humboldtaren kronikaren itzultzaileak, iritzi bera agertu zuen artikulu batean (Aranzadi 1922).

<sup>23</sup> Eskuizkribuan: «De esta villa fue natural Juan Sev<sup>n</sup> de Elcano Piloto cosmografo famoso». 1850. urteko argitalpenean: «...Juan Sebastian de Elcano...» (Isasti 1850: 590).

<sup>24</sup> Antonio Gaztañetaren liburu baten sarrera-hitzetan, hain zuzen ere: «el capitan Juan Sebastian de Elcano» (Gaztañeta 1692).

Espania aldeko bi adibide aipatuko ditugu. Batetik, Antonio de Nebrija (1441-1522) sevillar humanistak modu askotara idatzi zituen bere izen-deiturak: *Antonius Nebrissensis*, *Antonius Nebrissen*, *Antonius Lebrixen*... Eta, bestetik, Miguel de Cervantes (1547-1616) idazle ospetsuak, nola sinatzen zuen? *Miguel de Cerbantes*.

#### 2.4. *Elcano versus Cano*

Pentsatzekoa da jatorriz Elcano auzokoak izango zirela J.S. Elkanoren arbasoak. Horretan ere oinarritzen ziren Elcano deituraren aldekoak.

*... al paso de no ser vascongado el apellido Cano, ni ser usual en Guipuzcoa, es bastante comun el de Elcano, procedente del barrio del mismo nombre de la universidad de Aya. Tal ha prevalecido en la parentela del Juan Sebastian y en el uso general del pais; y esto no podia suceder sin algun fundamento sólido.* (Gorosabel 1862: 209)

*... las conocidas casas de Elcano, en el coto del mismo nombre, jurisdicción de Aya, de donde se supone que los ascendientes del marino fueron originarios: nadie extrañará, pues, que respetemos el uso.* (Fernández de Navarrete 1872: 196)

Oraintsu, Jose Antonio Azpiazuk eta Javier Elorzak (2021: 13) honela egin dute lotura:

XVI. mendetik bertatik, gure protagonistaren abizena era askotara idatzi izan dute hari buruz aritu diren historialariek: El Cano, Delcano, Del Cano, Cano... Bi arrazoik eragingo zuten hori, ziur asko. Alde batetik, abizena antzinako agirietatik transkribatu izana. Eta beste aldetik, lehengo nahiz oraingo historialariek ez jakitea, edota ahaztea, Getarian badela Elcano izeneko landa auzo bat. Gaur egun Aiako auzoa da Elcano, baina oso aspalditik Saiaitzeko lurraldeetan dago, Getariaren eta Zarautzen eraginpeko lurretan.

Deitura “Cano” edo “del Cano” zela zioten gehienek kanpotik etorritako leinutzat zuten.

Espainiako Historiako Errege Akademiak (RAH) Juan Sebastianen abizena “Cano” zela<sup>25</sup> adierazi zuenean 1873. urtean, Akademia hartako Fermín Caballerok azaldu zuen «que es una quimera el atribuir a Elcano oriundez vascongada, porque la tiene gallega» (Trueba 1882: 52).

Are urrunago joan ziren batzuk, eta Elkanoren jatorria Euskal Herrian zegoela ziotenak “separatistatzat” jotzeraino heldu ziren.<sup>26</sup>

Bitxia bada ere, egon zen getariarraren deitura *Elcano* edo *del Cano* barik, “Sebastian” izan zela defendatu zuenik.<sup>27</sup>

## 2.5. Elkano: auzoa eta oinetxeak

Elkano auzoak gaur egun Aia eta Zarauzko udaletako lurak hartzen ditu, baina sasoi batean Saiatz eskualdeko lurretan zegoen eta lur haiek, gorago esan bezala, Getariaren eta Zarautzen eraginpean zeuden. 1538ko agiri batean, honela aipatzen da: «coto de Elcano, iuzgado del alcaldia de Seyaz».<sup>28</sup>

*Helcano* eta *Helcanno*, bi modutara agertzen da Gipuzkoako leku-izen hori lehen lekukotasun idatzietan (1025. urte ingurukoak).<sup>29</sup>

<sup>25</sup> Aurrerago, 1927an, *Elcano* idaztearen alde egin zuen Historiako Errege Akademiak (RAH).

<sup>26</sup> «La pasión política, mezclada lamentablemente a la cuestión, llegó a acusar de separatismo a los que, en aras de la lógica y del sentido común, sostenían la razón del apellido Elcano» (Arteche 1942: 198).

<sup>27</sup> Aragón, 1922. Bere lana: “¿Es Elcano o es Sebastián?”. Jose Antonio Azpiazuk eta Javier Elorzak beste interpretazio bat eman zioten Sebastian izena hainbestetan agertzeari: «Esan dezakegu (...) familiaren erreferente onomastikoetan bereizgarriena eta nagusia Sebastian izena zela. Horrek argi eta garbi erakusten du familiak zenbaterainoko garrantzia ematen zion arbaso hari, Getarian kokatzen lehena izan zelako, ziur asko» (Azpiazu & Elorza 2021: 13).

<sup>28</sup> GPAH 2/1620, 311 (1538-07-19).

<sup>29</sup> Bi bertsio kontsultatu ditugu: bata, Espainiako Historia Artxibo Nazionalekoa (AHN, CLE-RO-SECULAR\_REGULAR, Car.695, N.8) eta, bestea, Manuel Agudek (Agud 1968) artikulua batean transkribatzen duena. Lehenengoa, Akademiakoek (AHN) 975. urtekotzat daukate; hala ere, Aguden iritziz (1968: 324), XII-XIII. mendeetako trasladoa edo kopia da. Bigarren bertsioa, berriz, aipatutako artikulua horretan aztertu zuen Agudek. Transkripzioaz gain, jatorrizko agiria ere argazkiak ere jaso zituen (1968: 329-330). “Libro Gótico” izenez ezagutzen den liburukian dago

Abraham Ortelius kartografoaren mapa ezagunean (1588) bistakoa da bere garairako garrantzi handiko gunea zela Elkano (ikus 4. irudia).

*Elkano* izeneko hiru etxe historiko egon dira auzo horretan<sup>30</sup>:

- *Elkanobarrena*: Elcano de yuso (1529), Elcano-Barrena (1577), Elkanobarrena (1632, 1927)
- *Elkanobitarte*: Elkanobitarte (1528), Elcano el de medio (1529), Elcano del medio (1577), Elcano de medio (1616, 1617, 1643, 1646), Elkanobitartea (1714, 1756, 1769, 1828, 1840, 1843), Elcano-vitartea (1835, 1843), Elcano erdicoa (1844)
- *Elkanogoena*: Elcano de suso (1514), Elcanogoyena (1578, 1927), Elcano de susso (1632), Elcano-goyena (1742), Elcano-goena (1844, 1864)

### 1. irudia: Elkano baserriak 1977. urtean<sup>31</sup>



eta Zaragozako Zuzenbideko Fakultatean gordetzen da. XII. mendekoa dela uste du Agudek. Historiografia tradizionalak, dena dela, 1025-1055 data ezarri ohi die bi agiriei. Lehen bertsioan “helcano” irakurtzen da (ikus 2. irud.); bigarreanean, berriz, “helcanno” (ikus 3. irud.).

<sup>30</sup> Hiru etxe horietatik bi baino ez daude zutik, Elkanobitarte (Aia) eta Elkanogoena (Zarautz).

<sup>31</sup> 1977-1978, Ortofoto interministerial (Geoeskaditik hartua).

Elkano auzoan (edo handik gertu) bizi zirenen artean, aspalditik dokumentatzen da “Elcano” deitura<sup>32</sup>:

- “Martin Ruis de Elcano, vesino de Elcano” (1486).<sup>33</sup>
- “Joan de Elcano de suso e Chomin de Elcano”; “Joan de Elcano, carpentero vesino de la villa de Çarauz” (1514).<sup>34</sup>
- “Domingo de Elcano, vesino de la alcaldia de Seyaz” (1514).

Gorago adierazitakoak indartzen ditu 1529ko agiri batek. Elkano auzoan bizi zen pertsona baten deitura “del cano” idatzita ageri zaigu. Beharbada, Elkano etxeetako batean biziko zen. Baina, hori bai, guk dakigula, ez zen J.S. Elkanoren familiakoa, hurreko familiakoa ez behinik behin:

- “domingo del cano de yuso vº que soy de alldja de saiaz” (ikus 24 irud.)<sup>35</sup>

Ez da ezagutzen agiririk frogatzen duenik J.S. Elcano itsasgizonak jatorria Aia-Zarauzko Elkano auzoan zuela. Baina, esan bezala, horixe da historia-lari askoren iritzia.<sup>36</sup>

Kaparetasuna probatzeko edo baten bat odol garbikoa zela erakusteko, askotan, deitura jakin bateko oinetxeak zuen armariaren ezaugarriak ematen ziren. Horretarako, heraldikari buruzko liburu zaharrak kontsultatzen ziren. Horrelako agiri baten berri izan dugu; 1642. urtekoa da eta Elkano etxearen berri ematen du:

«Yo Gerónimo de Villa Rey de Armas (...) Los de este Linaje y Apellido de el Cano, son muy Buenos y muy Antiguos hijos de algo Natu-

<sup>32</sup> Etxe horietan, XVI. mendearen hastapenetik behintzat, *Elcano* deitura izan dute bertan bizi zirenek.

<sup>33</sup> Valladolideko Kantzilertzako Artxiboa. Pleitos civiles. Escribanía de Zaramona y Walls. Pleitos olvidados. 88/6.

<sup>34</sup> Valladolideko Kantzilertzako Artxiboa. Pleitos civiles. Masas. Pleitos fenecidos. 422/2.

<sup>35</sup> Zavala Etxeko artxiboa. Administración del Patrimonio, 18.6 (1529).

<sup>36</sup> «Kontuan izatekoa da, euskal «*duonimina*» eratzeko, lehenik bataio izena jartzen dela, eta, ondoren, gurasoen jatorriaren toponimoa edo leku izena. Gure protagonistaren familia, beraz, Getariako herrigunean bizi zen, baina lehen aipatutako Elkano landa auzoan zuen jatorria». (Azpiazu & Elorza 2021: 13).



rales y orijinarios de la Provincia de Guipuzcoa donde tienen su Cassa y Solar de grande Antigüedad sita en la juridiccion de la tierra de Ayo(sic, [Aya]) que se llama la Cassa solar de el Cano Varrena (...).<sup>37</sup>

Erregeak 1523an emandako armez *–escudo de armas–* gain, Aiako Elkano barrena etxeko armak ere erabil zitzaizketen J.S. Elkanok eta bere ondorengoek:

«...y en los otros dos cuarteles en cada vno de ellos las Armas de la Cassa Solar de el Cano Varrena (...).»<sup>38</sup>

## 2.6. Esanahia argitzen

Koldo Mitxelena ([1953] 1973: 82) seinalatzen du lehen osagaia *elge* edo *\*elke* ('campo cultivado') hitza dela.<sup>39</sup> Elementu hori duten beste toponimo batzuk aipatzen ditu Errenteriako hizkuntzalariak: Helkeguren (Arabian, 1025. urtean) –gaur egungo Elgea izenarekin lotu daitekeena–, Elgeta, Elgezabal... Sail berekotzat jotzen du Elcano izena: «Quizá también Elcano (top. Helcanno, Guip. 1025), Elcarte, Elcoro...». Nafarroako "Elcano" toponimoa ere aipatzen du (1099. urterako dokumentatzen dena).

Bigarren osagaia *-no* atziki txikigarria da (ikus Mitxelena [1953] 1973: 133). Atzikia hartzean *elke-* forma *elka-* bihurtzen da, euskaraz ohikoa den joerari jarraituz.<sup>40</sup>

Mikel Belaskok (1996: 175), Nafarroako Eguesibarko Elcano kontzejjuaren izenaz jardutean, Mitxelena bide bera hartuta, honela adierazten du: «Elcano. Significado: probablemente 'pequeño campo cultivado' y *-no* sufijo diminutivo».

<sup>37</sup> Sociedad Geográfica Nacional, 1879: 439. "Blasón y armas de la casa solar de Elcano".

<sup>38</sup> Sociedad Geográfica Nacional, 1879: 444.

<sup>39</sup> Agud eta Tovarren arabera jatorria galiera hizkuntzan leukake. *Elga* hitzaren sarreran, besteak beste, hau jaso zuten: «ELGA BN, S 'campo cultivado'. (...) Es de origen celt. (galo *olca* 'pflügbares Land' [landu daitekeen lurra])» (Agud & Tovar 1991: 274).

<sup>40</sup> Beste horrenbeste gertatzen da *Etxano* izenarekin: *etxe-* > *etxa-* (*Etxano* 'etxe txikia, etxetxoa').

Egon da amaiera horretan latinezko *-anum* forma ikusi duenik.<sup>41</sup> Baina, *-anum* > *-ano* amaiera duten euskarazko toponimoek bokalarteko sudurkaria galdu ohi dute, eta hori ez da gertatzen Elkano izenaren kasuan.<sup>42</sup> Bokalarteko *-n-* hori *-N-* gogor edo *fortis* batetik dator, lehen lekukotasun idatzian *-nn-* gisa agertzen zaiguna (Helcanno).

### 3. Elkanoren izena

J.S. Elkanoren ponte-izena lau modutara dokumentatu dugu<sup>43</sup>: Juan Sebastian<sup>44</sup>, Juan Sevastian, Iohan Sebastian eta Iuan Sebastian.

*Juan Sebastian* da, alde handiz, gailentzen den idazkera. Horrela ageri da kontsultatu ditugun lau sinaduretan. *Iohan Sebastian* forma eskribauen eskutik ageri zaigu, bi aldiz, bata 1519an eta bestea *-hil ondoren-* 1534an. *Iuan Sebastian* behin baino ez dugu dokumentatu, Esteban Garibai historialariaren lanetan (1571), hain zuzen ere.

### 4. Idazkera akademiko ofizialak

Gorago aipatu dugun bezala, 1873an Espainiako Historiako Errege Akademiak (RAH) adierazi zuen J.S. Elkanoren deitura “Cano” zela.<sup>45</sup>

Handik sei urtera, 1879an, Madrileko Sociedad Geográfica kontrako bidea hartu eta “Elcano” jo zuen nabigatzailearen deituratzat.

<sup>41</sup> Julio Caro Barojak, esaterako. Ikertzaile horrek *-ano* eta *-aun* amaierak lotzen ditu, eta bigarrenak jatorria lehenengoan duela adierazten du: «un curioso fenómeno fonético que es el de la conversión del sufijo “-ano” en “-aun”, teniendo así: “Atano” y “Ataun”, “Echano” y “Echaun”, “Elcano” y “Elcaun”, “Torran” y “Torraun”» (Caro Baroja 1945: 94). Mitxelena ez da iritzi berekoa, eta amaiera horiek jatorri ezberdina dutela defendatzen du (Mitxelena [1953] 1973: 133).

<sup>42</sup> Patxi Salaberri eta Luis Mari Zalduak (1999: 31), Aia eta Zarauzko Elkano auzoaren berri ematean, ahozko lekukotasuna jasotzen dute: “él.ka.nò”.

<sup>43</sup> Ez dugu apartekotzat jo “Ju<sup>o</sup>” [>Juan] laburdura.

<sup>44</sup> “Juan Sabastian” aldaera ere dokumentatu dugu, getariarrak 1522an idatzitako gutun batean.

<sup>45</sup> Aho batez hartu zuten erabaki hura 1873ko martxoaren 14an (Soraluce 1881: V).

Historiako Errege Akademiak (RAH), dena dela, Itsas Ministroaren eskariz egindako txostenean irakur daitekeen bezala, “Juan Sebastián de Elcano” izen-deiturak hobestea erabaki zuen 1926. urtean (Castañeda 1927).

#### 4.1. Euskal deiturak, euskaraz

Euskal Herrira etorrira, orain artean ez da araurik eman J.S. Elkanoren izen-deiturei dagokienez.

Azalpen historiko-filologikoak deituratik hasi ditugun bezala, hemen ere, has gaitezen getariarraren deituratik.

Honezkerok aski frogatuta geratu da *del Cano* baztertu eta *Elcano* formaren alde egin behar dela. Baina, hori al da idazkera egokia XXI. mende honetan?

*Euskara Batuaren Eskuliburuak* (EBE), pertsona historiko ezagunei buruzko atalean, azaltzen du ez daudela araututa sail horretako euskal herritarren izenak.<sup>46</sup>

*Elkano* da, batere zalantzarik gabe<sup>47</sup>, erabili beharko genukeen idazkera. Horixe bera jasotzen du Euskaltzaindiak kale-izenak hautatzeko eta idazteko irizpideei buruz 2019. urtean argitara eman zuen lanean (Onomastika Batzordea 2019: 25):

Euskal abizen edo deiturak, printzipioz, idazkera akademikoz idaztea da irizpidea. (...) euskal toponimoekin gertatzen den moduan, komeni da euskal deiturei ere euskal forma eta idazkera zuzena ematea.

---

<sup>46</sup> «EUSKAL HERRIKO PERTSONA HISTORIKO EZAGUNAK. Ez dago araurik Euskal Herriko pertsona historikoei buruz. Ez daude araututa ez pertsona historikoen izenak –Ignazio Loiolakoa, Katalina Erauso...– eta ez euskal literatura eta kulturakoek ere –Bernart Etxepare, Joanes Leizarraga, Bertrand Etxautz...–» (Alberdi *et al.* 2019: 381).

<sup>47</sup> Euskal deiturei dagokien idazkera ortografikoa erabakitzeke irizpideak Euskaltzaindiaren *Euskal deituren izendegia* izeneko dokumentuan ageri dira. Hemen kontsultatu daitezke: [https://www.euskaltzaindia.eus/dok/jagonet/DeituraIzendegia\\_eu.pdf](https://www.euskaltzaindia.eus/dok/jagonet/DeituraIzendegia_eu.pdf)

Elkano, leku-izena<sup>48</sup> eta deitura izateaz gain, pertsona-izena ere bada. 2001ean gizona-zkoentzako izentzat onartu zuen Euskaltzaindiak (Gorrotxategi & Salaberri 2001), eta, aurrerago –2019an– izen epizeno izaera eman zion Akademiak.

Euskal Herrian aspalditik, eta urte luzez, jatorria adierazten zuen “de” hitza erabili izan da ponte izenaren eta deituraren artean. Euskal grafia akademikoan “de” horrek, salbuespenak salbuespen, ez dauka lekurik.

Araua ez bada ere, zabal dabilen joera da XV. mendetik aurrerako pertsona-izenetan ez erabiltzea deituraren aurreko, tarteko edo ondoko eranskinik:

1400. urteaz geroztiko pertsonen izenetan ez da onartuko deituraren aurreko, tarteko edo ondoko eranskinik (*de, d', -tar, -koa, -ko* eta *y*). Adibidez, ontzat emango dira Katalina Erauso (eta ez Katalina Erausoko), Resurreccion Maria Azkue (eta ez Resurreccion Maria de Azkue), Sabin Arana Goiri (eta ez Sabin de Arana y Goiri), Joanes Leizarraga (eta ez Joanes Leizarragakoa), Pedro Agerre *Axular* (eta ez Pedro de Axular edo Pedro Axularkoa), XV. mendeaz geroztikoak baitira denak. (Mujika *et al.* 2005: 56-57)

#### 4.2. Izena, nola idatzi?

Gauzak horrela, J.S. Elkanoren izena baino ez zaigu geratzen.

Gorago aipatutako Eskuliburuaren (EBE) arabera, bada nora jo Euskaltzaindiak ontzat ematen dituen irizpideen berri izateko, *Onomastika: irizpideak* argitalpena, hain zuzen ere.<sup>49</sup>

Argitalpen horretan Aro Modernoko eta XX. mendera arteko pertsonen izenak idazteko irizpideak ematen dira:

<sup>48</sup> Aia eta Zarautz udalerrietan kokatzen den Elkano auzoaren kasuan euskal forma da ofiziala, eta Nafarroako Eguesibarko kontzejuaren kasuan, aldiz, *Elcano* da idazkera ofiziala.

<sup>49</sup> «Euskaltzaindiak besterik arautzen ez duen bitartean, egoki da Hezkuntza Sailak ikasmaterialetarako duen EIMAKo estilo-liburuko *Onomastika* liburukiari jarraitzea, Euskaltzaindiaren oniritzia baitu» (Alberdi *et al.* 2019: 381).

Euskal literaturarekin eta euskalgintzarekin harreman estua izan ez duten XX. mendera arteko euskal herritarrak. Ponte-izenak ez dira euskarazko grafiaz idatziko, haiek egokitu ez badituzte. Adibidez: Juan Sebastian Elkano... (Mujika *et al.* 2005: 56)<sup>50</sup>

Kale-izenei buruzko argitalpenak ere bide bera hartzen du (Onomastika Batzordea 2019: 27):

Pertsona-izenari dagokionez (ponte-izena edo bataio-izena ere deitua), oro har ez dira euskal grafia akademikoaz idatziko edo euskarazko izen baliokideez ordeztuko. Adibidez, *Juan Sebastian Elkano* (eta ez *Joan Sebastian*) eta *Pablo Gorosabel* (eta ez *Paulo*).

Errege-erreginen izenen idazkera bestela arautu bazen ere<sup>51</sup>, gure kasuak nolabaiteko lotura du Errenazimentuko pertsona-izenak arautzen dituen 185. arauarekin<sup>52</sup>. Arau horren arabera, pertsona-izenen grafia, ahal dela, jatorrizko hizkuntzan bezala utzi behar da (esaterako, *Doménikos Theotokópoulos*).

Beraz, jatorrizko grafian idatzi beharko bagenu –euskarazkora ekarri gabe–, “Juan Sebastian” formaren alde egin beharko genuke. Baina, gaur egungo gaztelaniaz *Juan Sebastián* idazten da; orduan, azentu-markaz idatzi beharko dugu?

Aurrera jarraitu baino lehen, *Euskara Batuaren Eskuliburura* (EBE) itzulita, irakur dezagun *Azentu grafikoa erdal izenetan* atalak dakarrena (Alberdi *et al.* 2018: 87):

PERTSONA-IZENAK. Gaur egun, gure kultura-ingurune zaba-lean, kanpoko pertsona-izenen grafia ez da aldatzen. Hori da irizpide nagusia gure inguruko hizkuntzetan, bai eta euskaran ere. Alegia,

<sup>50</sup> Zehazten da XV-XVI. mendeaz geroztiko izenetarako dela irizpide hori.

<sup>51</sup> *Atzerriko pertsona-izenak. Grafia-irizpideak. Errege-erreginen eta kidekoen kasua*. 186. araua, 2017ko urriaren 27koa. «Europako errege-erregina historikoen izenak, oro jar, euskal grafiara egokituta idazten dira, santu-santen izenak egokitzen diren bezala eta gure inguruko hizkuntzetan ere ohitura den moduan. Errege-erregina garaikideen kasuan, berriz, haien jatorrizko izenak ez dira egokitzen».

<sup>52</sup> *Errenazimentuko pertsona-izenak*. 185. araua, 2017ko abenduaren 22koa.

Marie Curie, Adolf Hitler, Hillary Clinton edo Italo Calvino (\*Maria Kurie, \*Adolfo Hitler, \*Hilaria Klinton, \*Italo Kalbino). Beren jatorrizko grafia horrekin idazten dira euskaraz, abizenen grafia aldatu gabe eta ponte-izenen euskal ordainak erabili gabe. Azentu grafikoa eta zeinu diakritikoak ere ez dira aldatzen: Benito Pérez Galdós, René Descartes, Paul Cézanne, Nuno Gonçalves, Gyögy Lukács, Pelé, Edgar Varèse...

Egia esateko, *Elkano* ez da kanpokoa, baina gauzak ez dira asko aldatzen bere ponte-izena erdal ondarekoa delako. Orduan, lehengoan gaude, nola idatziko dugu, *Juan Sebastián* edo *Juan Sebastian*?

*Juan Sebastian* idazteko bi arrazoi egon litezke: batetik, bere sasoian (XV. eta XVI. mendeetan), oro har, ez zen azentu grafikorik erabiltzen<sup>53</sup>; eta, bestetik, *Sebastian* izena euskarazkoa ere bada.<sup>54</sup>

*Juan Sebastián* aldaera grafikoa hautatzeko arrazoiak, berriz, orduko izena gaztelaniazko gaurko ortografia akademikora ekartzea dateke.

Dena dela, kontuan hartuz gero gaur egun azentu-markarik gabeko molde oso zabal dabilela euskarazko testuinguruetan<sup>55</sup>, oinarri sendoa du azentu-markarik gabeko aukeraren alde egiteak.

Beraz, Gipuzkoako nabigatzaile ezagunaren izen-deiturak idazteko orduan *Juan Sebastian Elkano* da aukerarik egokiena. Bere deitura euskararen ondarekoa da, eta, beste edozein hizkuntzatan idazten dugula ere, euskararen idazkera akademikoan erabil daiteke: *Elkano*.

<sup>53</sup> J.S. Elkanok berak ez zuen azentu-markarik erabiltzen bere sinaduran. XVI. mendean hasi zen zabaltzen azentu grafikoa, baina ez zen orokortu harik eta 1726. urtean gaztelaniazko azentu arauak finkatu ziren arte.

<sup>54</sup> *Juan Sabastian* aldaera ere dokumentatu dugu Elkanoren gutunetako batean. Euskal Onomastikaren Datutegian (EODA) *Sebastian* jasota dago, *Saustin* eta *Sebastie* aldaerekin batera.

<sup>55</sup> Konparazio baterako, goragoko aipuetan ikus daitekeen bezala, Euskaltzaindiak berak ere halaxe darabil, azentu grafikorik gabe. Beste alde batetik, *Berria* egunkariko Estilo Liburuak proposatzen duen idazkeratik gertuago ere badago; honela jasotzen du estilo liburu horrek: "Joan Sebastian Elkano (Juan Sebastián de Elkano\*)".

## 5. Ondorioa

Elkano Fundazioak egindako galderari erantzunez, gomendioa da *Juan Sebastian Elkano* izen-deiturak erabiltzea Getariako itsasgizon ezaguna izendatzeko euskaraz.

## 6. Erreferentziak

### 6.1. Laburdurak

AGI: Archivo General de Indias (Sevilla).

AHN: Archivo Histórico Nacional (Madril).

GPAH: Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa (Oñati).

Irud.: irudia (7. atalean jasotzen den eranskinean biltzen diren irudiak).

### 6.2. Bibliografia

AGUD, Manuel (1968). «Donación del Monasterio de San Salvador de Olazabal. Guipúzcoa, año 1025», BRSBAP XXIV, 3-4: 323-339.

———; TOVAR, Antonio (1991). «Materiales para un Diccionario Etimológico de la lengua Vasca (X)», ASJU XXV-I, Gasteiz: EHU, 255-314.

AGUINAGALDE, F. Borja de (2016). «¿Qué sabemos realmente sobre Juan Sebastián de Elcano? Resultados provisionales de una indagación llena de dificultades», in *Medio Orbe. Sanlúcar de Barrameda y la I Vuelta al Mundo. Actas del I Congreso Internacional sobre la I Vuelta al Mundo, celebrado en Sanlúcar de Barrameda (Cádiz) los días 26 y 27 de septiembre de 2016*. Sevilla: 2016: 25-37.

——— (2017). «El archivo personal de Juan Sebastián de Elcano (1487-1526), marino de Getaria», in *Medio Orbe. Sanlúcar de Barrameda y la I Vuelta al Mundo. Actas del II Congreso Internacional sobre la I Vuelta al Mundo, celebrado en Sanlúcar de Barrameda (Cádiz) los días 20 y 21 de septiembre de 2017*. Sevilla, 2017: 65-93.

——— (2019a). «La Guetaria de Juan Sebastián de Elcano. Una encuesta genealógica y de cartografía social (1430 – 1530)», *Primus circumdedisti me. Claves de la primera globalización*. Madril: Ministerio de Defensa, 125-147.

——— (2019b). «Las dos “cartas” que escribió el capitán Juan Sebastián de Elcano a su regreso», Redondo, Dionisio (ed.), *La primera vuelta al mundo. Edición conmemorativa del V Centenario del viaje de Magallanes y Elcano, 1519-1522*. Madrid: Taberna Libraria, 145-176.

ALBERDI, Andres *et al.*, 2018, *Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE): A-tik Z-ra, zalantzak eta argibideak*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2019 (3. argitaraldia).

ARAGÓN, Cesáreo (1922). *¿Es Elcano o es Sebastián?* Madril: Imprenta de Jesús López.

ARANZADI, Telesforo de (1922). «Elcano y Cano. La dislocación y escamoteo de El», *Euskal-Erriaren Alde*, T.XII, 217 zk., 1922-enero, 1-4.

ARTECHE, José de (1942). *Elcano*. Madril: Espasa Calpe, 2.edizioa, 1972.

AZKUNE, Iñaki (2016). *Zestoaren historia (1): historiaurretik 1544. urtea arte* [Baliabide elektronikoa]. Donostia.

——— (2020). *Zestoaren historia (2): 1545-1556* [Baliabide elektronikoa]. Donostia.

AZPIAZU, José Antonio, ELORZA, Javier (2021). *Juan Sebastian Elcano: Ingurua, ibilbidea, epika*. Donostia: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte.

BELASKO, Mikel (1996). *Diccionario etimológico de los pueblos, villas y ciudades de Navarra: apellidos navarros*. Iruñea: Pamiela.

CARO BAROJA, Julio (1945). *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*. Donostia: Editorial Txertoa, 1990.

CASTAÑEDA, Vicente (1927). «Juan Sebastián de Elcano», *Boletín de la Real Academia de la Historia*, Tomo 90 (1927), 5-7.

COMELLAS, José Luis (2012). *La primera vuelta al mundo*. Madril: Rialp.

DÍAZ, Julián (2020). *J.S. Elcano. Tras la huella*. Bilbao: Itsasmuseum Bilbao; Elcano Fundazioa; Aquarium Donostia.

FERNÁNDEZ DE NAVARRETE, Eustaquio (1872). *Historia de Juan Sebastián del Cano*. Gasteiz: Imprenta de los Hijos de Manteli.



GARCÍA, Ernesto (1999). «La población de la villa guipuzcoana de Guetaria a fines de la Edad Media», *En la España Medieval*, nº22, 317-354.

GARIBAY, Estevan de (1571). *Los XL Libros D'el Compendio Historial de las Chronicas y uniuersal Historia de todos los reynos de España*. Anveres: Christophoro Plantino.

GAZTAÑETA, Antonio de (1692). *Norte de la navegación hallado por el cuadrante de reducción*. Sevilla: Juan Francisco de Blas.

GOROSABEL, Pablo de (1862). *Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipuzcoa*. Tolosa: Imprenta de Pedro Gurruchaga.

GORROTXATEGI, Mikel, SALABERRI, Patxi (2001). *Euskal izendegia: ponte izendegia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia; Bilbo: Euskaltzaindia.

HUMBOLDT, Wilhelm von (1801). *Los vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*. Donostia: Auñamendi, 1975.

ISASTI, Lope Martinez de [1625] (1850). *Compendio historial de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa*. Donostia: Ignacio Ramón Baroja. [XVII. mendeko eskuizkribu bat ere kontsultatu dugu: *Compendio de la historia de Guipuzcoa*, <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/8587>].

ISPIZUA, Segundo de (1921). «¿Elcano o del Cano? (Aportación de datos)», *Cultura Hispanoamericana*, Núm.98, Enero de 1921.

LARDIZABAL, Ignacio (1925). «De Elcano. Su casa solar», *Euskal-Erriaren Alde*, nº 262: 361-374.

MAZÓN, Tomás (2020). *Elcano, viaje a la historia*. Madril: Encuentro, S.A.

MERINO, Abelardo, SEOANE, Ramón (1925). «Los primeros navegantes que dieron la vuelta al mundo», *Boletín de la Real Sociedad Geográfica*, Tomo LXV, 1925 Julio, 241-246.

MITXELENA, Koldo [1953]. *Apellidos vascos*. Donostia: Txertoa, 3. edizioa, 1973.

MÚGICA, Serapio (1920). «Elcano y no Cano», *RIEV*, 11, 3 zk., 194-213.

MUJKA, Alfontso, GOENAGA, Ane, ALBERDI, Andres (2005). *Onomastika: irizpi-deak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ONOMASTIKA BATZORDEA (2019). *Kale eta karriken izenak hautatzeko eta idazteko irizpideak*. Euskal odonimiako eskuliburua. Bilbo: Euskaltzaindia.

ROMERO TALLAFIGO, Manuel (2020). *El testamento de Juan Sebastián Elcano (1526): palabras para un autorretrato*. Sevilla: Universidad de Sevilla; Junta de Andalucía.

SALABERRI, Patxi, ZALDUA, Luis Mari (2019). *Gipuzkoako herrien izenak: lekukotasuna eta etimologia*. Bilbo: Euskaltzaindia.

SEOANE, Ramón (1911). «Firmas de guipuzcoanos ilustres», *Euskal-Erria: revista bascongada*, nº 65: 260-270.

SOCIEDAD GEOGRÁFICA NACIONAL (1879). *Separata del Boletín de la Sociedad Geográfica de Madrid*, Año 6, nº6 (jun.1879). Madrid: Imprenta de Fontanet.

SORALUCE, Nicolás (1870). *Historia general de Guipúzcoa*. Gasteiz: Imprenta litografía y librería de la viuda de Egaña é hijos.

——— (1881). *Defensa del apellido familiar de Juan Sebastián del Cano*. Donostia: Establecimiento Tipográfico de Osés.


TRUEBA, Antonio de (1873). «La oriundez de Elcano», *La ilustración española y americana*, XVII, nº2, 1873-01-08, 22-26.

——— (1882). *De flor en flor*. Madrid: La Ilustración española y americana.


URROZ, Eugenio (1921). *Cano y Elcano. Juan Sebastian del Cano*. Donostia: Tipografía Baroja.

## 7. Eranskina: zenbait irudi

2. irudia: “haya et/helcano”  
(AHN)




3. irudia: “haya et/helcanno”  
(Agud 1968: 325)




4. irudia: Orteliusen mapa, 1588




5. irudia: “el capitan Juan Sevastian delcano”




6. irudia: “Juan Sebastian  
delcano”




7. irudia: “domingo delcano mi  
hijo”. Semea




8. irudia: “sabastian delcano mi hrr<sup>o</sup> [hermano]”.




9. irudia: sinadura (1526, 17. or.)




10. irudia: sinadura (1526, 30. or.)




11. irudia: sinadura (1522)




12. irudia: sinaduratzakoa (1522)




13. irudia: “Juan Sabastian del cano” (1522)




14. irudia: “Sebastian de elcano”  
(1517). Anaia





15. irudia: “El me iohan San dl  
cano” (1519)




16. irudia: “ochoa mins delcano”. Anaia





17. irudia: “Juan Sebastian de  
elcano” (1534)




18. irudia: “Ynesa delCano”.  
Arreba




19. irudia: “domingo sebastian delcano” [J.S. Elkanoren aita]



20. irudia: “Juan sebastian de  
elcano”




21. irudia: “iohan sebastian de  
elcano”




22. irudia: “ma delcano” [Maria, bere arreba]




23. irudia: “maria deelcano”. Arreba




24. irudia: “domingo del cano de yuso”




25. irudia: “Juan sebastian delcano” (1523)



26. irudia: “Min deElcano scriuano” (1594)



27. irudia: “Min deelcano” (1594)



# Euskaraz arduratzen direnen hizkuntzaren inguruko usteak

Opiniones de profesionales del euskera sobre la situación de la lengua

Avis de professionnels du basque sur la situation de la langue

Opinions of professionals of the Basque language on the situation of the language

MENTXAKATORRE ODRIUZOLA, Jon  
Mondragon Unibertsitatea  
Mondragon University  
jmentxakatorre@mondragon.edu

Noiz jaso: 2022-02-03

Noiz onartua: 2022-04-14

Hizkuntza komunikazio tresna soiltzat eta identitatea eratzeko elementu sinpletzat daukaten alde bien artean abiatuta, 2019ko otsaila-maiatza bitartean galdetegi bidez euskara ogibide eta helburu dutenen 143 adituren erantzunak jaso ziren, hizkuntzaren helburua, erabilera, jatorria eta balio kognitibo-filosofikoaz galdetuz. Ikuspegi soziolinguistikotik eta etnografikotik emaitzek erakusten dute hizkuntzaren estetikaz, sorreraz, balio sakonez eta ezagutzaz galdetzean iritziak asko aldatzen direla, eta adostasun handia dagoela hizkuntza komunikazio tresnatzat edo identitate ikurtzat hartzean. Artikuluaren xedea da euskaraz eta euskararentzat dihardutenen 143 profesional horien (73 hizkuntza aholkulari tartean) erantzunak azaltzea eta hizkuntza homogeneizazioaren eta aniztasunaren eremuan testuinguratzea.

**Gako-hitzak:** Euskara-teknikaria, hizkuntza aholkularitza, hizkuntza funtzioa, komunikazioa, nortasuna.

Con el fin de explorar la cuestión de la lengua como mera herramienta de comunicación o como elemento de identidad de Opiniones de expertos sobre la situación de la lengua



vasca, 143 expertos respondieron a un cuestionario en febrero-mayo de 2019 sobre la finalidad, el uso, el origen y la cognición-valor filosófico del lenguaje. Los resultados desde un punto de vista sociolingüístico y etnográfico muestran que al preguntar por la estética, el origen, el valor profundo y el conocimiento de la lengua, las opiniones varían mucho, aunque existe un amplio acuerdo en considerar la lengua como herramienta de comunicación o símbolo de identidad. El objetivo de este artículo es explicar y contextualizar las respuestas de estos 143 expertos (entre ellos 73 consultores lingüísticos) y situarlos en el contexto de la homogeneización y diversidad lingüística.

**Palabras clave:** Asesor de euskera, asesoría lingüística, función lingüística, comunicación, identidad.

Afin d'explorer la question de la langue en tant que simple outil de communication ou élément d'identité, 143 experts ont répondu à un questionnaire, entre février et mai 2019, sur la finalité de la langue basque, son usage, son origine, sa valeur cognitive et philosophique. Les résultats, d'un point de vue sociolinguistique et ethnographique, montrent que, en ce qui concerne les question sur l'esthétique, l'origine, la valeur profonde et la connaissance de la langue, les opinions varient beaucoup, même s'il existe un large consensus pour considérer la langue comme outil de communication ou symbole d'identité. L'objectif de cet article est d'expliquer et de contextualiser les réponses de ces 143 experts (parmi lesquels 73 conseillers linguistiques) et de les situer dans le contexte de l'homogénéisation et de la diversité linguistique.

**Mots-clés :** Technicien de la langue basque, conseil linguistique, fonction linguistique, communication, identité.

In order to explore the question of language as a mere communication tool or as an element of identity formation, 143 experts responded to a questionnaire in February-May 2019 on the purpose, use, origin and cognitive-philosophical value of language. The results from a sociolinguistic and ethnographic point of view show that when asking about the aesthetics, origin, deep value and knowledge of language, opinions vary greatly, although there is wide agreement towards regarding language as a communication tool or symbol of identity. The aim of this article is to explain and to contextualize the responses of these 143 experts (among them 73 language consultants) and to put them in the context of language homogenization and diversity.

**Keywords:** Basque language advisor, communication, identity, language consultancy, language function.

MENTXAKATORRE, Jon (2022). "Opinions of professionals of the Basque language on the situation of the language" *Euskera* 2021, 66: 141-163.



*Hizkuntza inportantea baita,  
batez ere esateko zer bait dagoenean.*

Gorka Urbizu

## 1. Sarrera

Euskal Herrian barrena, gaztelaniak eta frantsesak lege, administrazio eta hezkuntzan daukaten babesaren eta estatusaren ondorioz, euskara ez da, zenbait eremutan, hizkuntza funtzio oro betetzera heltzen. Eta, koofizialtasuna edo erabilera eskubidea bermatuta duenean, hizkuntza hegemonikoen aukera beti dauka ondoan. Baina, horren aurrean, normalizazioaren ikerketarako, plangintzarako eta ekimenerako erakunde publiko zein pribatutako hainbat soziolinguista, teknikari eta aholkulariren jarduna dago, hizkuntzalaritzan, kudeaketan eta berrikuntzan diharduten beste askorekin batera. Aditu horiek euskaraz eta euskararen alde lan egiten dute, administrazio, enpresa, erakunde eta gizarte zabalean eragiteko asmoz.<sup>1</sup> Hizkuntza langai eta helburu daukate. Testu honen helburua da profesional horien hizkuntzaren gaineko us-teak azaltzea, orain hiru urte egindako ikerketaren berri emanez.

Hizkuntza komunikazio tresna soil eta identitatea eratzeko elementu simpletzat daukaten polo bien artetik abiatuta, 2019ko otsaila-maiatza bitartean, galdetegi bidez, euskara ogibide eta helburu duten 143 adituren erantzunak jaso ziren, hizkuntzaren helburua, erabilera, jatorria eta balio kognitibo-filosofikoaz galdetuz. Testuaren xedea da, hortaz, euskaraz eta euskararentzat diharduten 92 soziolinguista eta hizkuntzalari –73 hizkuntza aholkulari–, eta 51 unibertitate irakasle/ikertzaile, kazetari eta itzultzailearen erantzunak azaltzea, hizkuntza homogeneizazioa eta aniztasunaren eremuan testuinguratzea, eta gogoeta arlo berrietarako bidea zabaltzea. Lehenik eta behin, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa aztertuz, ikerketaren oinarriak finkatuko dira, hizkuntza funtzioen gaiari helduz. Ondoren, ikerketaren nondik norakoak eta emaitzak aurkeztuko dira. Azkenik, ondorioak eta aurrera begirako lerroak azalduko dira.

---

<sup>1</sup> Egindako azken ahalegin edota ekimenen artean, nabarmendu beharreko bi: EHUKo Euskara Institutuak eta Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2020-2021 ikasturtean abian jarritako *Euskararen jabekuntza, kudeaketa eta hizkuntza-praktikak XXI. mendean* berezko masterra, eta herriko etxetan euskara teknikari postuak sortzeko Euskal Elkargoaren sustapena.

## 2. Hizkuntzaren lehen eta bosgarren funtzioen artean

### 2.1. Bosgarren funtzioa

Euskara biziberritzeko XX. mendean hasitako bideak balizko hiztunak eman ditu, baina euskaraz uste zena baino gutxiago egiten dutenak.<sup>2</sup> Adituek adierazitako erronka nagusienak, ondorioz, bi dira: euskaldunari euskaraz aritzeko testuinguruak ematea eta hiztun aktiboak lortzea. Eta, horretarako, euskalgintzako hainbat eragile eta erakunde honakoan bat dator: hizkuntza politikek emateko gai direna eman dute –euskararen ezagutzaren hazkundera, hezkuntza sistema eta helduen euskalduntzeari esker–, eta bestelakoak behar dira (Aierbe eta Erro 2021, Bilbao *et al.* 2021, Plaza Hutsa 2021: 16-23). Izan ere, Euskal Herrian euskararen izaera –koofiziala asko jota– arautzen duten administrazioetako hizkuntza politikek, era batera edo bestera, hizkuntza sustatu egin dute hainbat eremutan, baina berez ezinbesteko bihurtu gabe (Baztarrika 2019: 139). Euskararen normalizazioak eta euskaldunak euskal hiztun legez dituen eskubideak beste ezer eskatzen dute, hortaz (Irujo eta Urrutia 2008: 261; Zabaleta 2021). Irujok eta Urrutiak honela zioten 2008an, josi beharreko hainbat hari mahai ganean jarriz:

*A harmonized linguistic policy for all the Basque-speaking territories would be important for the development of Basque. Further than the occasional collaborations between those responsible for the linguistic policies from different territories, we need to propose the creation of a common organization whose object should be to establish the master lines of the future global linguistic policy related to Basque, in accordance with the sociolinguistic diversity of the territories where they should be applied [...] The teaching field must move towards a model that guarantees all students within the Basque-speaking territories the right to Basque instruction and of its effective knowledge [...] In public administration [...] the legitimate and democratic right of all citizens to use the country's languages should always be guaranteed, and the correlative right to be answered in the*

---

<sup>2</sup> 2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoak, urte bereko *Hizkuntzen erabileraren kale neurketak* eta EAEn ardaztutako 2017ko *Arrue Proiektuak* argi utzi dute azken hamarkadan euskaldun kopuruak gora egin duela, baina erabilerak maiztasuna eta, ondorioz, funtzio-eremuak ere galdu dituela uler daiteke.

*Basque language in all the territories [...] In social means of communication, both the right to receive information in Basque and the right to inform in Basque must be guaranteed. Informative pluralism –a principle of democratic regimes– promotes the guarantee to receive information from the media broadcasting for the country in its own language. To guarantee that right cannot be understood to be the exclusive job of public media, since that would assume an excessively limited view of informative pluralism. To demand a Basque broadcast quota from private media which broadcasts for territories where Basque is the mother tongue could be understood to be proportionate and suitable to the legal consideration of the Basque language. (Irujo eta Urrutia 2008: 258)*

Euskarari zor zaion begirunea, beraz, euskaldunari zor zaizkion eskubi-  
deen gaitasunaren bermeari lotzen zaio. Berme hori, ordea, soziolinguistika-  
ren ikuspegitik, hizkuntzak izan ditzakeen funtzioetatik ezinbestekoak diren  
zenbait asebetez baino ezin da lortu. Sánchez Carriónen (1991: 35-105)  
esanetan, hizkuntzaren funtzioak zazpi dira, honako hurrenkera honetan:

- Norberaren nortasuna edo identitatea
- Etxea edo familia
- Lana edo lan eremua
- Herria (lurraldea)
- Nazioa
- Zibilizazio kultura
- Nazioartea

Bosgarren funtzioa, nazio maila lortzea, nazioaren bizi, jardun eta ohitura  
gune izatea, ezinbestekoa zaio hizkuntzari normaltasunerako, ondoko hiz-  
kuntzak gaineratik egin ez diezaion. Aurretik aipatutako euskalgintzaren  
hausnarketak, beraz, soziolinguistikaren ondorio zientifikoetatik aspaldi  
esandako unera darama: euskararen normalizazioa nazio mailara egokituz  
baino ezin da lortu.<sup>3</sup> Gure ustez, bestalde, bosgarren funtzioa betetzeko es-

---

<sup>3</sup> Euskararen aldeko hizkuntza politiken helburua honela adierazi zuen Sánchez Carriónnek: «Nik, jadanik, ez dut horri buruzko beste ezer idatziko. Faltan dagoena ez da esperientziaren teoria gehiago, teoriaren esperientzia berria baizik» (1996: 19). Haren eta Fishmanen esanak oraindik bide-orri dira euskararen normalizazioan: hizkuntzaren prestigioa betetzen dituen funtzioei lotzen

kumenik edo araurik ez izateak, laugarren funtziotik bosgarrenera jauzi egiteko ezintasunak, eragina du aurreko funtzioen asebetetze mailan. Horren adierazpenerako, datozen lerroetan, adituen ekarpenak jaso eta aztertuko dira, laugarren mailatik bigarrenera.

## 2.2. Laugarren eta hirugarren funtzioak

Bosgarren funtzio maila asebetetzeko, edozein hizkuntza politikak hizkuntzaren zein aldaera nagusi izango den jakin behar du. Euskarari dago-kionez, aldaera batua, 1968tik aurrera abian dena (Salaburu 2018), haren alde edo aurkako gizarte mailako eztabaidarekin batera. Egun bizirik dirauen Sánchez Carriónen tirabirak, ordea, sakoneko beste zerbait erakusten du: euskararen normalizazioan, hizkuntzaren aldaeren eta erregistro mailen lanketa ez da egin hainbat eremutan, eta euskara batuak 50 urte baino gehiago bete ondoren, haren izaeratzat eta bilgunetzat hartzeko zubiak ondo erakusten edo ezagutzen ez diren adierazlea ageri da. Eta horrek, ezinbestean, laugarren funtzio maila asebetetzeko oztupoak jar-tzen ditu.

Izan ere, hainbat testuingurutan adi daiteke, beraz, euskara L1tzat izan-da, euskararen arlo bitan baino aritzeko gai ez dena: ahozko etxeko erre-gistroan, eta idatzizko batu formalean; ahozko zein idatzizko lurraldeko aldaera, haren izaera literarioa, eta ahozko batua bere baitan ezagutu ga-be.<sup>4</sup> Mintzairaren edertasun eta aberastasunak, gainera, garrantzi handia-go bereganatzen du VI. *Inkesta Soziolinguistikoak* 16-24 urteko euskaldu-nen % 53,9 hiztun berri dela adierazitakoan, eta hiztun aktibo izateko gako denean.

---

zaio, hizkuntzak lehian daude dagokien funtzio-mailan (ikus Verburg 1998), eta arnasmuneak bitartekari dira, helburu ez (ikus Zarraga *et al.* 2010: 261-273). Teoria zientifikoaren ondotik, ordea, gizarte eta politika mailako hainbat proposamen dago, euskarak izan behar duen tokiaren gainean; ikus Alegria *et al.* (2020), Baxok *et al.* 2006, Goirigolzarri eta Landabidea (2020), eta Odrizola eta Zabalo (2014).

<sup>4</sup> Hizkuntzaren aldaeren gaitasuna lantzearen garrantzia Goikoetxeak (2003: 229-235) mahai gainean ondo eta zehatz jarri zuen; ikus Mokoroa (1935) eta Oñederra (1992).

Adituek diotenez, lehen sozializazioko hizkuntza izan gabe, euskaraz naturaltasunez eta sarri hitz egiteko (euskal hitzun aktibo bihurtzeko), harreman-sarea eta erraztasuna (Aizpurua 2018: 44, *ald.* Sorolla *et al.* 2019: 37-41) ezinbestekoak dira, eta horiek lortzeko muda egin beharra dago.<sup>5</sup> Amorrortu eta bestek (2017: 15; ikus Puigdevall *et al.* 2018) adierazi dutenez, muda egonkorra lortzeko une erabakigarriak jakinak dira:

- Testuinguru oso euskaldunera bitzera joatean
- Bikotekide euskaldunarekin hasterakoan
- Guraso bihurtzerakoan
- Sare edo jarduera berrietan sartzerakoan (lagunartea, lantaldea, familia politikoa...)
- Euskaraz aritzea norberaren erantzukizuna den kontzientzia lotzean.

Mudarako, ordea, zailtasun handiak daude, eta arazo hori zuzen-zuzenean lotuta dago herriko edo lurraldeko testuinguru eta une jakinetan, erraztasunarekin ez ezik, solaskideak irabazteko gaitasunarekin, aldaera eta erregistroen ezagutza ezinbestekoa duena. Hizkuntzaren laugarren funtzioa, beraz, zail dauka bere baitan euskarak, tokian tokiko diglosiaz<sup>6</sup> eta jarraian aztertuko ditugun fenomenoek gain.

Lantok erakutsi zuenez, euskara L1tzat duten euskaldunen artean, gaztelaniarako kode aldaketak mesede egiten die jatortasun maila ezartzeko orduan: «Alternating between the languages was seen as natural for a native speaker; in the speech of a non-native speaker the introduction of Spanish elements was seen as a lack of mastery of Basque» (2016: 157). Hau da, euskararen aldaera eta erregistroek eman dezaketen aberastasuna edota

<sup>5</sup> Amorrortu eta bestek honela azaltzen dute muda zer den soziolinguistikaren eremuan: «Hizkuntza-mudantza gertatzen da hitzun batek bere hizkuntza-praktikak aldatzen dituenean: lehen hitz egiten ez zuen hizkuntza bat bere hizkuntza-errepertorioan sartzen duenean, edo lehen pertsona edo egoera jakin batzuetan erabiltzen zuen hizkuntza aldatzen duenean. Hiztun jakinen hizkuntza-praktiketako aldaketek gizartean hitzun horrek bere burua aurkezteko eran ere aldaketak sor litzake, nahiz eta ez duen derrigorrez zertan ekarri adskribatze soziokultural edo etniko berririk» (2017: 15).

<sup>6</sup> Diglosia, ikerketa honen testuinguruan, euskarak gaztelania eta frantsesarekiko daukan hizkuntza funtzioen asebetetze ezberdintasuna da. Erdarek azaldutako zazpi funtzioak betetzen dituzten bitartean, euskarak ez du halakorik egiten, adierazi legez. Ikus Zarraga *et al.* 2010: 157.

jatortasuna erdaraz orain-gero eginez ordezkatzeko du euskara L1tzat duenak, baina L2tzat duenak ez.

Esandakoa laburtuz, sarri askotan, euskalduna euskaraz eremu informalean ari da, erregistro informalean baino ez daki, eta hori gaztelaniaz loratzen da. Herriko edo lurraldeko erabilera sustatzeko edo bermatzeko gaitasun urria dauka, eta hiztun berrien mudarako zailtasun handiak jartzen ditu, horien hizkuntza jabetzean aldaera zein erabilera erraztasunik ematen ez duelako, eta erdarazkoa hobesten duelako.<sup>7</sup>

Horrek, zuzenean, hirugarren hizkuntza funtzioari eragiten dio; hau da, lan eremuari. Honen erdal izaera ezaugarritzeko, nahikoa da Worp-en lanera jotzea. Ikertzaileak (2020: 33) EAEko lan eremuko profesionalen hizkuntza ikuspegia aztertu zuen, eta honako hau ondorioztatu: lan eremuko berezko hizkuntza gaztelania da, hizkuntza plangintza argia duen erakundeetan izan ezik. Euskaraz hala zuzentzen den bezeroari baino ez zaio egiten, edo lankide euskaldunari, hurbileko solasaldian. Euskaraz jakitea, beraz, aberasgarria da, baina pasadizokoa.<sup>8</sup>

### 2.3. Bigarren funtzioetik laugarrenera

Euskal Herriko edozein euskal hiztun komunitatek oso zail dauka erdaretatik aldentzeko. Are gehiago, funtzionario, agintari edota zuzendari jaki-

<sup>7</sup> Horrek guztiak, ezer onik baldin badauka, aspaldiko euskaldun *zahar* eta *berri* kategoriak erais-tea da; euskaldun oro euskaldun berri da lehen aritzen ez zen funtzioa edo erregistroa hartzen duenean. Horrez gain, nola bermatu edo erraztu, beraz, hiztun berrien jabetza eta muda, euskaldunak euskalduntasuna erakustez gain, haren gaitasuna kode aldaketa egitean datzanean? Euskaraldia ekimenak, esaterako, gogoan izan beharreko kontuak dira, Colinak azpimarratu zuenez: «Euskara ardatzera ekartzeaz gain, euskaldunon % 100 erdalduna dela oroitarazteko balio izan du Euskaraldiak» (2018: 29). Gainera, beste zerbaitetarako arriskua ere sor daiteke: euskaldunak naturaltasunez etiketa berririk eta erdaraz egingo diotela onartzea, erdaldunaren «euskaraz ez dakit» edo «ikasten ari naiz» esaldiak sendotu baitaitezke.

<sup>8</sup> «It is interesting to see that the global language is now considered more important than the local majority and minority language. This might be because companies mainly set English as a requirement for new employees, whereas Spanish is taken for granted and Basque is mainly seen as a mere asset» (Worp 2020: 35).

nek euskaraz jakin behar ez badute, eta hala ezer gutxi galtzen dela adierazten badute. Eta zailtasun hori, neurri handi batean, moderno izatearen ondorio da; kulturalki moderno, modernitatearen izaera zabalaren baitan. Euskaraz ere erabiltzen den adierak agerian uzten du: kultura merkatuan jokatzeko duen *industria* da, *edukiak ekoitzi* egiten ditu, eta *kontsumitu* egiten da. «Kontsumo» hitza sarri erabiltzen da, euskaraz kontsumitu gutxi egiten den arren (Allur 2018), eta horrek hiztun komunitatearen kontzientzian eta nortasunean eragina dauka.

Filmak, telesailak, abestiak, liburuak... behin *erretzeko* badira, kultura *kontsumitzeko* da. Kultura komunikatu egiten da, baina komunitaterik eragin edo sendotu gabe.<sup>9</sup> Elikatzen ez duenak, tradizioz sortzen ez duenak, begiratzeko ortzi-mugarik margotzen ez duenak, ez du talde izaerarik egiten. Kultura *produktu* baino ez bada, ez du solasaldirik edo pentsamendurik susatuko, eta, ondorioz, gutxiengo hiztun komunitaterik (etxe edo familiakoa) indartuko. Izan ere, hitz egiten ez duen taldea ezin da hiztun izan. Amezagaren hitzok nabarmentzekoak dira:

Utzi beharra dago kultura aisialdi, luxu edo garai onetarako zer-bait bezala ikusteari. Kultura eta hizkuntza dira euskaldunoi izateko motiboa ematen digutenak. Horregatik, nekez ulertzen da gure ongizatea bermatu nahi duen industria estrategia bat garatzea, haren eskutik kultur estrategia bat garatzen ez bada. Eta horretan, nire ustez, bide luzea dugu egiteke. (2018: 61)

Hizkuntzaren bigarren funtzioa kultura partekatua gainean oinarritzen da, hurbiletik zabalera, hortik hirugarren, laugarren eta bosgarren funtzioetara jauzi egin baino lehen. Lujanbiok (2015) argi adierazi zuenez, Lazkao Txikik ez zuen Chillida ulertzen, eta Chillidak Lazkao Txiki ere ez; haien hizkuntzek ez zuten eta ez dute (hiztun) komunitate bera egiten (*ald.* Blom 1976). Horregatik, kulturatzat zer, noiz, nola eta zein hizkuntzaz egiten den gogoan izan behar da, hizkuntza, kultura eta gizartea gai praktikoa askotan lotuta daudelako (Giglioli 1972; Salzmänn 2014), baina are gehia-

---

<sup>9</sup> Sarasuak *herri kultura kontsumitzaile* eta *herria kultura-sortzaile* binomioa aipatzen du (2012: 24). Benetako kulturak edo artelanak taldeari bizitza aldatzen dio, zentzua eta esanahia adostera behartzen duelako (ikus Fuchs 2021).

go errealitateari heltzeko sakontasunean (Mentxakatorre 2019; Nogeras 2020; Sarasua 2012: 19-21). Eta are gehiago egun, etorkinak hainbat lurraldetakoak direnean (Urteaga 2020) eta euskalduna, lehen esan bezala, beti elebidun delako.<sup>10</sup>

## 2.4. Lehenengo funtzioa

Eratu eta aurkeztutako markoaren baitan, nazio mailako bosgarren funtzioa lortu ezinik dagoen euskararen testuinguruan, hizkuntzak eta kulturak komunikatu egiten dute, baina ez dute komuniorik eragiten. Horren ondorioz, gure ustez, hizkuntza ulertzeko lerro nagusi bi agerian geratzen dira: hizkuntza komunikazio tresna soiltzat hartzen duena, eta nortasuna eratzeke ikur-iturritzat duena. Hots, bosgarren funtziora ez heltzeak aurrekoen asebetetzea erabat kolokan uzten du, eta hizkuntza horren hiltzen hizkuntzaren gaineko ustetan eragiten du. Uste horiek, lerro handi biren artean ardatzera mugatzen dira: hizkuntza funtzioaren lehen maila, banakoaren nortasun edo identitatearena, eta edozein arlotan hizkuntza komunikazio tresna izatea, beste askoren artean bat, egiteko berezirik gabe. Egoera eta diagnostiko soziolinguistikoko hori da ondoren aurkeztu den ikerketaren oinarri hurbilena.

## 3. Ikerketaren nondik norakoak

### 3.1. Abiapuntua eta helburua

Egungo testuinguruaren irakurketaren ondoren, hizkuntzaren gaineko nolabaiteko hausnarketaren premia nabari da. Bosgarren funtziora heltzea ahalbidetzen ez duten hizkuntza politiken baitan, hizkuntzaren aldeko ekimen ugari eginda ere, aurreko funtzioen asebetetzea kolokan jartzen da. Horrek hizkuntzaren gaineko ustetan eragina duelakoan, honako hipotesi

---

<sup>10</sup> «La comunidad lingüística bilingüe solo tiene en consecuencia una imagen del mundo, pero en dos idiomas. Esta imagen es ya otra cosa que la que tienen los monolingües y pseudobilingües (que a su vez difieren entre sí) del grupo L1 y los bilingües y pseudobilingües del grupo L2» (Sánchez Carrión 1974: 35).



hau asmatu zen: gehienek hizkuntza nortasun ikurtzat eta komunikazio tresnatzat jotzean bat egingo dute, eta adostasuna gero eta txikiagoa izango da hizkuntzaren gaineko adierazpenak hortik zenbat eta gehiago urrundu.

Horretarako, ikerketa txikia egin da, hainbat euskaldunengana joz. Horiek, ordea, ez dira artistak izan, hizkuntza barnetik ulertu eta erabiltzen dutenak, herriz herri egiten dela dakitenak, egunero euskaraz arduratu eta lan egiten dutenak baino. Galdetegi bidez erantzuteko galdera nagusi bi eta baloratzeko 11 adierazpen egin zitzaizkien hainbat adituri, honako sarrera testu honen ondoren:

Iritzi batzeak helburu hau dauka: euskal gizarteak hizkuntzaren muin eta egitekoaren inguruan daukan gogoeta jaso. Izan ere, mintzamina hitzaz betez, ahoz zein idatziz, gizakiak une oro hitz egiten du. Aho zein eskuri dariona, beraz, oinarrian zertan datza? Horra hor ikerketaren pizgarri izandako galdera, hizkuntzarekin harreman berezia daukatengana joz erantzun nahi dena.

Hizkuntzari buruzko usteak adierazteko erantzuleak bilatu ziren euskara komunikazio tresna, identitate iturri, eta, era batera edo bestera, ogibide daukaten profesionalen artean, galdetegia honako talde edo erakunde hauetako hainbat lankideri posta elektronikoz zabalduz: Soziolinguistika Klusterra, haren bazkide diren aholkularitza enpresak, Deustu eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Euskal Herriko udal euskara zerbitzuak, Eusko Ikaskuntza, *Berria*, *Jakin*, Bai Euskarari, Euskalit, Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuna, UZEI, Barnetegiak eta Euskal Etxeak. Euskalgintzako beste hainbat eremu hartzaile-eremutik at utzi ziren, ikerketari emandako mugengatik.

### 3.2. Galdetegiaren gaineko zehaztasunak

Lehenik eta behin, generoaz, adinaz eta lan diziplinaz itaundu ondoren, elkarki lotutako galdera bi egin ziren:

- Hizkuntza bat baino gehiagotan ulertu edota hitz egiteko gai zara? (Bai/Ez erantzutekoa).

- Hala bada, hizkuntza horietako bati lotuago sentitzen zara? Zeini? Zein une edo eremutan? Zergatik? (Idatziz erantzutekoa).

Ondoren, atal bitan banatutako 11 adierazpenekiko adostasuna eskatu zen, 1etik 5erako mailan (1 inondik inora bat ez etorritz, eta 5 erabat ados egonez).

- Hizkuntza zer da?

1. Komunikazio tresna
2. Herri, komunitate, talde edota erakundeen ikur
3. Pentsamenduen oinarri
4. Nortasunaren iturri
5. Munduaren sortzaile edota egituratzaile

- Hizkuntzak zertarako balio du?

6. Norberaren gogoia, barneko sentipenak eta pentsamenduak, egituratu eta adierazi
7. Izakiak izendatu eta lotura ezberdinak adierazi
8. Antzina zertarako sortu zen ezin dezakegu jakin
9. Komunikazioa erraztu
10. Edertasuna eta egia esan
11. Jakituria batu eta eman

Azkenik, adierazpenen aurrean esandakoa aberasteko bidean, galdera ireki bi egin ziren, idatziz erantzuteko:

- Hizkuntza, oinarri-oinarrian, hau da.
- Hizkuntzaren helburua, lehenik eta behin, hau da.

Galdetegia, beti, posta elektronikoz bidali zen, zuzeneko hartzailearen erakunde-helbidera, honako mezu honekin batera:

Azken urtetako hausnarketak gora eta behera, ikerketa txikitxoak egiteko asmoz, honako galdetegia prestatu dut. Helburua hizkuntzari buruz zer uste dugun jasotzea da, hizkuntzaren gainean lan egin eta arduratzen direnen eskutik. Beteko al duzue, mesedez? 2-3 minutu baino ez dituzu beharko.

Gutxi batzuetan, erakunde esanguratsuren bateko hartzaile gutxiengana zuzenean helduta, mezu hauetako bat gehitu zen:

Horrez gain, zure lankideen artean zabaltzea eskertuko nizuke.  
Nahi izanez gero, zure lankideen artean ere zabalduko bazenu,  
mesede egingo zenidake.  
Bide batez, zure lankide direnei zabalduko diezu?

Eskaria zenbatengana heldu zen ezin jakin, baina ikertzaileak zuzenean igorritako mezuzak 259 izan ziren. Bidalketa 2019ko otsailaren 19tik maiatzaren 3ra arte egin zen. Hartzaileari mezua behin baino ez zitzaion bidali, eta handik aldi batera ez zitzaion gogorarazi. Erantzunak jasotzeko azken eguna maiatzaren 19a izan zen. Galdetegiari erantzuteko tartea, beraz, 3 hilabetekoa izan zen orotara, eta hartzaile guztiek izan zuten, gutxienez, 15 eguneko tartea. 143 erantzun jaso ziren. Ondoren, erantzun horien aurkezpena egingo da, eta, osteko atalean, irakurketa.

### 3.3. Erantzuleen zenbait datu

Guztira 143 erantzun jaso ziren: 76 emakume (% 53,1) eta 67 gizon (% 46,9). Horietatik 92 soziolinguista eta hizkuntzalari (% 64,3): 48 emakume (% 52,2) eta 44 gizon (% 47,8). Eta horietan, 73 hizkuntza aholkulari (% 79,3; guztizkoaren % 51): 38 emakume (% 52) eta 35 gizon (% 48). Gainerako 51 (% 35,6), unibertsitateko irakasle-ikertzaile, kazetari eta itzultzaile: 28 emakume (% 54,9) eta 23 gizon (% 45,1).

Adin tarteari dagokionez, 18-30 urte artean 10 (% 7): 5 emakume eta 5 gizon. 31-60 urte artean 125 (% 87,4): 69 emakume eta 56 gizon. Eta 61 urteko edo gehiagokoen artean 8 (% 5,6), 2 emakume eta 6 gizon.

Guzti-guztiek (% 100) hizkuntza bat baino gehiago ulertzeko edota hitz egiteko gai direla erantzun zuten. 118 (% 82,5) euskarari lotuago sentitzen omen dira: 60 emakume (% 50,8) eta 58 gizon (% 49,2). Horietatik 62 hizkuntza aholkulari (% 52,5): 32 emakume (% 51,6) eta 30 gizon (% 48,4).

## 4. Emaitzak eta azterketa

Ikerketa abiatu zuen hipotesiari begira, esanguratsuena galdera irekiei buruzko emaitzak aztertzetik hastea da, eta, ondoren, adierazpenetan erantzun-

dakora jotzea. Azken horiek direla-eta artikulu honetarako, 11 adierazpenetatik 7 ekarriko dira, eta emaitzen zehaztasuna maila orokorrean utziko da.

#### 4.1. Galdera irekiak

143 erantzuleetatik 88k (% 61,5), lehen galderari erantzunez, argi adierazi zuten hizkuntza, oinarri-oinarrian, komunikazio tresna dela: 47 emakume (% 53,4) eta 41 gizon (% 46,6). Soziolinguistak eta hizkuntzalariak 60 izan ziren (% 68,2; guztizkoaren % 42), eta horietan 49 hizkuntza aholkulari (% 81,6; guztizkoaren % 34,3).


Horrez gain, 88 erantzule horietatik gehienek hizkuntzaren helburuari buruzko bigarren galderari erantzun zioten. 63k (% 71,5; guztizkoaren % 44) adierazi zuten hizkuntzaren xedea komunikatzea dela, 9k nortasuna edo identitatea eratzea, 10ek komunitatea sortzea (horietan 2k komunitatea gizakiaz haragoko izakirik edo ingururik barne hartuz) eta 6k ez zuten ezer erantzun.

Lanaren hipotesiari eta markoari helduz, aurreikuspena bete egin da. Hau da, gehiengoaren iritziz hizkuntza, bere-bere horretan, komunikazio tresna da, eta uste hori dutenen artean, gehiengoek hizkuntzaren helburua komunikatzea dela adierazi zuten. Ondoren datoz lehen funtzioarekin, nortasunarekin, lotutako erantzunak, eta, horiekin bat, bigarren funtzioarekin, oinarrizko edo lehen zirkuluko komunitatearekin, lotutakoak.


#### 4.2. Adierazpenak

Adostasun mailari buruzko erantzunak azaltzeko, grafiko orokorrak erabiliko dira, emaitzen ondorengo zehaztasun eta irakurketarekin batera. Lehen bost adierazpenak hizkuntzaren izaeraren gainean egin ziren, eta guztiak azalduko dira. Gainerako seiak hizkuntzaren balioari buruz egin ziren, eta horietatik bi ekarriko dira hona.

Lehenak hizkuntza komunikazio tresna izateaz galdetzen zuen, eta grafikoak erakusten duenez, adostasuna handia zen, eta maila handian. Gehiengo nabarmenak, % 95ek, hizkuntza komunikazio tresna dela adierazi zuen: % 81ek adostasun osoz, eta % 14k adostasun handiz:


**1. irudia:** 1. adierazpenarekiko adostasun orokorra (komunikazio tresna)

Bigarren adierazpenak hizkuntza herri, komunitate, talde edota erakunderen ikur ote den galdetzen zuen. Gehiengoak, % 86, hizkuntza sinbolo edo ikur delakoan bat dator maila handian, baina horietan % 55 erabateko adostasunez, eta % 31 maila txikiagoan. Horrez gain, tarteko mailaz erantzun zuen % 10 ageri da.

**2. irudia:** 2. adierazpenarekiko adostasun orokorra (ikur)


Hirugarren adierazpenak hizkuntza pentsamenduaren oinarri ote den itauntzen zuen. Adostasun maila, aurreko adierazpenekin alderatuz, aldatu egin zen. Gehiengoak, % 82k, adostasun maila handia izaten jarraitzen du, baina horietan % 42k baino ez zuen erabateko adostasuna erakutsi, eta % 40k maila apalagoa. Horrez gain, tarteko mailen erantzunak puntu bat gora egin zuen (% 11).

**3. irudia:** 3. adierazpenarekiko adostasun orokorra (pentsamenduaren oinarri)



Laugarren adierazpenak hizkuntza nortasunaren iturritzat har daitekeen galde egiten zuen. Berriz ere, gehiengoak (% 81ek) adostasun maila handia erakutsi zuen, baina tarteko mailak gora egin zuen (% 13). Gehiengoaren baitan, gainera, ezberdintasuna ere nabari da: % 46 erabat ados zeterren, eta % 35 maila handian ados.


**4. irudia:** 4. adierazpenarekiko adostasun orokorra (nortasunaren iturri)



Hurrengo adierazpenetik aurrera, aiztasuna handiagoa da erantzunen artean. Bosgarren adierazpenak hizkuntza munduaren sortzaile edota egituratzaile ote den erantzutea eskatzen zuen. Adostasun handiko ehunekoa, aurreko emaitzekin alderatuz, txikitu egin zen (% 57), eta maila handikoa erabatekoa baino gehiago egin zen: % 32, % 25aren ondoan. Tarteko mai-


lak, bestalde, gorakada nabarmena izan zuen, eta % 30 lortu. Adostasun gutxi edo ezezko taldeak, azkenik, zabalera adierazten hasi ziren.

**5. irudia:** 5. adierazpenarekiko adostasun orokorra (munduaren eratzaille)




Zortzigarren adierazpenak, hizkuntzaren balioaren adierazpen-multzoak, honako hau zioen hizkuntzaz: “Antzina zertarako sortu zen ezin dezakegu jakin”. Azpimarratzekoa da, beraz, ezezkotasuna. Galdetegi osoan erantzun gabeko edo isiltasun gehien eragin zuen adierazpena izan zen (% 8), eta desadostasun handienaren taldea agerian utzi zuena (% 60): erabateko desadostasuna % 38koa izan zen, eta desadostasun handia % 22koa. Adierazpenaren formulazioari jarraituz, beraz, gehiengoak hizkuntza iraganean zertarako asmatu zen jakin badakigula adierazi zuen.

**6. irudia:** 8. adierazpenarekiko adostasun orokorra (antzinako zergatia)



Azkenik, hamargarren adierazpenaren berri emango dugu. Horrek hizkuntza edertasuna eta egia esateko balioaz itauntzen zuen, hots, ea estetika eta arrazoi-mena uztartu eta erabiltzeko ote den. Adierazpen honek galdetegiko aniztasun zabal eta orekatuena azaldu du: % 47k adostasun handiz erantzun zion adierazpenari, eta % 23k gutxierekin, eta tartean ehuneko handia kokatu zen (% 27).

**7. irudia:** 10. adierazpenarekiko adostasun orokorra (edertasuna eta egia)



Aipatutako adierazpenek erakusten dutenez, adostasun maila handia dago hizkuntza komunikazio tresnatzat hartzean (% 95). Ondoren, adostasun handikoaren ehunekoa jaitsez doa (eta bere baitan alde orekatuz): hizkuntza talde-ikur ote den galdetzean (% 86), pentsamenduaren oinarritzat iriztean (% 82), nortasun iturritzat hartzean (% 81) eta munduaren sortzailer edota egituratzailetzat ulertzean (% 57). Adostasun mailak berriz gora egiten du hizkuntza zertarako sortu zen galdetzean (% 60), eta punturik txikiena edertasuna eta egiaz itauntzean (% 47).

Bosgarren eta hamargarren adierazpenen kutsuak erakusten duenez, filosofia-eremuko baieztapenek aniztasunik handiena eragiten dute. Komunikazioaz galdetzean, ordea, adostasuna eta maila handia zabalak dira; hala da lehenengo eta hirugarren adierazpenetan, komunikazio tresna eta diskurtsoa edo mezu antolaketa agerian uzten baitute, hurrenez hurren. Gainera, zortzigarren adierazpena haien argitan irakur liteke: hizkuntza zertarako sortu zen jakiteak bat etorri beharko luke-eta komunikazioaz adierazitakoarekin. Azkenik, bigarren eta laugarren adierazpenak daude, sinboloari eta nortasunari lotuta, adostasun eta maila handi nabarmenekoak.



### 4.3. Irakurketa orokorra

Bai galdera irekietan, bai adierazpenetan esandakoaren harira, adostasun handia dago; baita hizkuntza komunikazioarekin lotzeko ere, haren zer-izan eta helburuan. Horrez gain, ikerketako alde biei erreparatuz ere, nortasunaren eremuak toki azpimarragarria hartzen du. Arlo horietatik at agertzen diren adierazpenetan, ordea, iritzi aniztasun zabalagoa dago.

Ikerketaren abiapuntuari begira, beraz, hipotesiak aurreratzen zuena baieztatu da: hizkuntzaren alderdi komunikatiboa eta identitatearena gailendu egiten dira, eta adostasuna dago. Lerro nagusi bi horiek ondo ezagun eta sendo agertzen dira adituen ustean, jakinik haien artean soziolinguistikako eta hizkuntzalaritzako, eta arlo horretako hizkuntza aholkularitzako profesional askok erantzun duela. Ardatz jakin horretatik urruntzen diren adierazpenetan, ordea, hizkuntzaren gaineko usteak anitzagoak dira. Horregatik, gerora so, hizkuntza komunikazio tresna eta nortasunaren gune edo ikur baino gehiago den lerroa azaldu beharra dagoelakoan gaude, Sapiroren eskutik, besteren artean:

*Las lenguas son algo más que meros sistemas de transmisión del pensamiento. Son las vestiduras invisibles que envuelven nuestro espíritu [...] Toda lengua es en sí misma un arte colectivo de la expresión. En ella yace oculto un conjunto peculiar de factores estéticos (fonéticos, rítmicos, simbólicos, morfológicos) que no coinciden nunca por completo con los de otra lengua [...] Todo artista tiene que aprovechar los recursos estéticos de su propio idioma [...] El lenguaje es en sí mismo el arte colectivo de la expresión, la suma de miles y miles de intuiciones individuales. El individuo se pierde en la creación colectiva, pero su expresión personal deja alguna huella en ese margen de libertad y de flexibilidad inherente a todas las obras colectivas del espíritu humano. (1966: 250-261, ikus Whorf 1956)*

## 5. Ondorioak

Ikerketak euskararen normalizazio-prozesuaren irakurketatik egindako markoa du euskarri, eta honela dio: bosgarren funtzio-maila ahalbidetu ez duten hizkuntza politiken joko eremuan, hizkuntza funtzioen asebetetzea-

ren lanketan hainbat hamarkadaz ari izanak eragina dauka hizkuntzaren gaineko usteetan. Hau da, hizkuntzaren normalizazioan soziolinguistikak ezinbestekotzat jotzen duen funtzioa ez betetzeak eragiten ditu galerak edo desorekak aurrekoetan, eta horiek hiztunaren hizkuntzari buruzko iritzietan. Euskarari erreparatuz, funtzio-mailen egoerak hizkuntza lerro bitan harilkatzera eramán duela adierazi da: komunikazioaren alderdia eta lehen funtzioa, nortasunarena. Hori hala ote den ezaugarritzen hasteko, ikerketa antolatu, egin eta aztertu egin da, eta haren lehen emaitza esanguratsuenak aurkeztu. Ikerketak erakusten duenez, markoaren diagnostikotik eratorritako hipotesia baieztatu egiten da: aipatutako lerro biak sendo daude iritzi mailan; hortik ateratzen dena, ez.

Orain arteko lan eta ondorioek iragartzen dutenez, gerora begira lana dago, bai ikerketaren emaitzak sakonago aztertzean, bai soziolinguistikaren eremutik eraikitako markoaren berrikuspenean. Egindakotik, ordea, honako hau azpimarratzen da: hizkuntzaren funtzioak sendotasunik edo orekarik gabe betetzean, hizkuntzaren izaera eta balioaren gaineko iritzia alda daiteke, hizkuntzaren profesionalen erantzunak erakusten dutenez.

## Bibliografia

AIERBE, Urko eta ERRO, Kontxi (2021). «Bada euskara bidegurutzetik ateratzeko garaia», Lander Muñagorri (elk.), *Berria*, 2021-02-28. <https://www.berria.eus/paperekoa/1950/016/001/2021-02-28/bada-euskara-bidegurutzetik-ateratzeko-garaia.htm>

AIZPURUA, Jon (2018). «Euskararen erabilera eta erabileran eragiten duten faktore nagusiak», *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 106: 29-45. [http://www.soziolinguistika.org/files/jon\\_aizpurua\\_106.pdf](http://www.soziolinguistika.org/files/jon_aizpurua_106.pdf)

ALEGRIA, Edurne *et al.* (2020). «Euskara hizkuntzen itsasoan», *Berria*, 2020-05-11. <https://www.berria.eus/paperekoa/1876/019/001/2020-05-15/euskara-hizkuntzen-itsasoan.htm>

ALLUR, Juanjo (2018). «Argazkia euskarazko kultur kontsumoari», *Jakin* 226: 11-30.

AMEZAGA, Josu (2018). «Euskarazko kulturaren kontsumoa ulertu nahirik», *Jakin* 226: 39-64.

AMORRORTU, Esti *et al.* (2017). «Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak», *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 104: 11-49. [http://www.sociolinguistika.eus/files/amorrotu\\_et\\_al\\_104.pdf](http://www.sociolinguistika.eus/files/amorrotu_et_al_104.pdf)

BAXOK, Erramun *et al.* (2006). *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

BAZTARRIKA, Patxi (2019). «El euskera: un caso de revitalización», *La normalización social de las lenguas minoritarias. Experiencias y procedimientos para la salvaguarda de un patrimonio inmaterial*, Javier Giralte eta Francho Nagore (arg.), 83-146. Zaragoza: Zaragozako Unibertsitatea. <http://catedrajoanfernandezdheredia.lenguasdearagon.org/wp-content/uploads/2019/06/Normalizaci%C3%B3n-social-de-las-lenguas-minoritarias-Curso-2018.pdf>

BILBAO, Paul *et al.* (2021). «Hizkuntza eta politika, normalizazioa helburu», *Berria-Hamaika Gara*, 2021-03-17. <https://www.youtube.com/watch?v=USoTL1zIN-Q>

BLOM, Jan-Petter (1976). «La diferenciación étnica y cultural», *Los grupos étnicos y sus fronteras. La organización social de las diferencias culturales*, Fredrik Barth (arg.), Segio Lugo (itz.), 96-110. Mexiko: FCE.

COLINA, Sustrai (2018). «Kultura eguneroko bizitza delako», *Jakin* 229: 27-42.

FUCHS, Ximun (2021). «Herri kontakizuna birsortzeko bulkada kulturala», *Euskararen Plaza Hutsa*, 2021-01-29. <https://www.youtube.com/watch?v=IQwLijpbR-To> (00:00-23:30).

GIGLIOLI, Pier Paolo (arg.) (1972). *Language and Social Context: Selected Readings*. Baltimore: Penguin Books.

GOIKOETXEA, Juan Luis (2003). *Euskalkia eta hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian*. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/ikerbilduma/53932.pdf>

GOIRIGOLZARRI, Jone eta LANDABIDEA, Xabier (2020). «Conflicting discourses on language rights in the Basque Autonomous Community», *Language Policy* 19: 505-525. DOI: <https://doi.org/10.1007/s10993-019-09534-z>

IRUJO, Xabier eta URRUTIA, Iñigo (2008). «The legal status of the Basque language today: final considerations», *The Legal Status of the Basque Language Today: One Language, Three Administrations, Seven Different Geographies and a Diaspora*, Gloria Toticaguena eta Iñigo Urrutia (arg.), 243-261. Donostia: Eusko Ikaskuntza. [https://www.euskonews.eus/0463z/bk/ene\\_120.pdf](https://www.euskonews.eus/0463z/bk/ene_120.pdf)

LANTTO, Hanna (2016). «Conversations about code-switching: contrasting ideologies of purity and authenticity in Basque bilinguals' reactions to bilingual speech», *Multilingua* 35(2): 137-161. DOI: <https://doi.org/10.1515/multi-2015-0040>

LUJANBIO, Maialen (2015). «Arial 12, lerroartekoa 1,5, marjinak 2,5 zm», *EHU-ko Udako Ikastaroen irekiera hitzaldia*. Donostia. <https://bertsoa.eus/albisteak/4994-lujanbioren-hitzaldia-ehu-ko-udako-ikastaroen-irekieran>

MENTXAKATORRE, Jon (2019). «Izen eman: hitzak gizakia gizaki dagi», *III. Iker-Gazte. Nazioarteko Ikerketa Euskaraz. Giza Zientziak eta Artea*, Olatz Arbelaitz et al. (arg.), 18-24. Bilbo: UEU.

MOKOROA, Justo (1935). *Genio y lengua*. Tolosa: Librería de Moco-roa Hermanos.

NOGERAS, Itziar (2020). «Euskara eta balioak», *Berria*, 2020-05-12. <https://www.berria.eus/paperekoa/1876/021/001/2020-05-12/euskara-eta-balioak.htm>

ODRIOZOLA, Onintza eta ZABALO, Julen (2014). «Euskararen garrantzia diskurtso abertzalean: ardatz ala osagarri?», *Uztaro* 91: 67-82. DOI: 10.26876/uztaro.91.2014.4

OÑEDERRA, Lourdes (1992). «Hizkuntzen osasuna. Neubide eta diagnosi linguistikoak», *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 7-8: 141-157. <http://www.soziolinguistika.eus/files/13%20Onederra.pdf>

EUSKARAREN PLAZA HUTSA (2021). *Euskalduntze prozesuari begirada bat, Ezkerretik eta independentismotik*. [https://plazahutsa.eus/dokumentuak/Euskalduntze\\_prozesuari\\_begirada\\_bat.pdf](https://plazahutsa.eus/dokumentuak/Euskalduntze_prozesuari_begirada_bat.pdf)

PUIGDEVALL, Maite et al. (2018). «“I’ll be one of them”: Linguistic mudes and new speakers in three minority language contexts», *Journal of multilingual and multicultural development* 39(5): 445-457. DOI: <https://doi.org/10.1080/01434632.2018.1429453>

SALABURU, Pello (2018). «Euskara garaikidea. Batasunaren bide luzea», *Euskararen historia*, Joakin Gorrotxategi et al. (arg.), 737-800. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

SALZMANN, Zdenek (2014 [1993]). *Language, Culture, and Society: An Introduction to Linguistic Anthropology*. Boulder/Oxford: Westview Press.

SÁNCHEZ CARRIÓN, José María (*Txepetx*) (1974). «Bilingüismo, disglosía, contacto de lenguas. Hacia una delimitación de conceptos», *ASJU* 8: 3-79. <https://ojs.ehu.eus/index.php/ASJU/article/download/7445/6647>

——— (1991 [1987]). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. ASJUren gehigarriak 25. Donostia: GFA. <https://ojs.ehu.es/index.php/ASJU/article/download/8593/8341>

——— (1996). «Un futuro para nuestro pasado idazlaneko ideiei buruzko jarrera intelektualak», *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 18: 17-22. <http://www.soziolinguistika.eus/files/Jos%C3%A9%20Mar%C3%ADa%20S%C3%A1nchez%20Carr%C3%B3n.pdf>

SAPIR, Edward (1966 [1954]). *El lenguaje. Introducción al estudio del habla*, Margit F. eta Antonio Alatorre (itz.). Mexiko: FCE.

SARASUA, Jon (2012). «Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboaren emaitzak, ondorioak eta proposamenak», *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 83: 11-28. [http://www.soziolinguistika.eus/files/Jon%20Sarasua\\_0.pdf](http://www.soziolinguistika.eus/files/Jon%20Sarasua_0.pdf)

SOROLLA, Natxo et al. (2019). *Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak. Udalerri mailako analisisa. Laburpena eta ondorioak*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra. <http://www.soziolinguistika.eus/erabilerafaktoreak>

URBIZU, Gorka (2019). «Okeyish», *Jakin* 235: 11-23.

URTEAGA, Eguzki (2020). «Euskara eta inmigrazioa Ipar Euskal Herrian: egoerak eta erronkak», *Hermes* 65: 24-29. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/7690615.pdf>

VERBURG, Pieter A. (1998). *Language and its Functions*, Paul Salmon (itz.). Amsterdam/Filadelfia: John Benjamins Publishing Company.

WHORF, Benjamin L. (1956). *Language, Thought, and Reality: Selected Writings of Benjamin Lee Whorf*, John B. Carroll (arg.). Cambridge/New York: Technology Press of MIT eta John Wiley and Sons.

WORP, Karin van der. (2020). «Languages at work in the Basque Autonomous Community», *Revista Internacional de Organizaciones* 23: 17-38. DOI: <https://doi.org/10.17345/rio23.17-38>

ZABALETA, Patxi (2021). «Hizkuntza akademien akordioa eta diplomazia», *Berria*, 2021-03-11. <https://www.berria.eus/paperekoa/1942/016/003/2021-03-11/hizkuntza-akademien-akordioa-eta-diplomazia.htm>

ZARRAGA, Arkaitz et al. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra. [http://www.soziolinguistika.eus/files/eskuliburua\\_osoan.pdf](http://www.soziolinguistika.eus/files/eskuliburua_osoan.pdf)



# Izena/aditza kolokazioak euskaraz<sup>1</sup>

## Colocaciones sustantivo/verbo en euskera

## Collocations nom/verb en basque

## Noun/verb collocations in Basque

ODRIOZOLA PEREIRA, Juan Carlos  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
University of the Basque Country (UPV/EHU)  
juancarlos.odrizola@gmail.com

Noiz jaso: 2022-02-12

Noiz onartua: 2022-05-03

Sintaxiak bere oinarritzko abiapuntutik onartzen du *pilota bota* bezalako aditz-sintagmetan, *bota* aditzak egituraren burua dela eta [+konkretua] tasuneko izen-azpikategoriako kideak hautatzen dituela osagarri gisa. Fraseologiak bere oinarritzko abiapuntutik aldarrikatzen du *bertsoak bota* bezalako kolokazioetan *bota* aditza sinsematikoa dela, hau da, mugimendua adierazteari utzi eta irudizko sorkuntza adiera “ustekabe” bat hartzen duela, izen klase murrizt jakin bateko kideekin elkartzen den kasuetan soil-soilik: ahoz esan edo kanta daitezkeen gauzen izenekin. Bertso izena autosemantikoa da, betiere esangura berari eusten diolako horrelako sintagma murriztuetan ere. Urte askotako ikerkuntza zabal batean tanke-ra horretako 50 aditz eta 20 izen azpiklase aztertu dira euskaraz, haien irudizko adieradun konbinazioen berri emateko. Lan horren ondorioak laburbiltzen dira artikuluko honetan.

**Gako-hitzak:** Izen klaseak, aditzak, kolokazio lexikoak, metaforak.

La sintaxis asume desde su punto de vista básico, que en frases verbales como *pilota bota*, el verbo *bota* al ser el componente principal del complemento, elige a los miembros de la subcategoría nominal de cualidad [+ concreto]. La fraseología pretende desde su concep-

---

<sup>1</sup> Ikerkuntza jarduera luze baten ondorio ugarien laburpen bat baizik ez da artikuluko hau guztia. Pozgarria izango litzateke oso, juancarlos.odrizola@gmail.com helbidera joko balu ikerkuntza-lerro honen zehaztapen sakonagoak jakin nahi dituenak, edota lerro honetan bertan ikertzen hasi edo jarraitu nahi duenak.

ción primigenia, que en colocaciones del tipo *bertsoa bota*, el verbo *bota* es un verbo sinsimático, es decir que deja de expresar movimiento y adquiere un significado “inesperado” en la creación imaginaria, sólo si se asocia a miembros de una clase limitada de sustantivos. Es decir con los nombres de las cosas que se pueden decir o cantar. El nombre *bertso* es autosemántico porque siempre conserva el mismo significado en frases tan reducidas. Como resultado de este artículo, se han estudiado en euskera 50 verbos y 20 subclases de nombres, con el fin de comunicar sus expresiones figurativas.

**Palabras clave:** Clases de nombres, verbos, colocaciones léxicas, metáforas.

La syntaxe suppose, de son point de vue fondamental, que dans des phrases verbales comme *pilota bota*, le verbe *bota*, étant le composant principal du complément, choisit les membres de la sous-catégorie nominale de qualité [+ concret]. Dès sa conception originelle, la phraséologie prétend que dans les collocations de type *bertsoa bota*, le verbe *bota* est un verbe synsymmatique, c'est-à-dire qu'il cesse d'exprimer le mouvement et acquiert un sens « inattendu » dans la création imaginaire, seulement s'il est associé à des membres d'une classe restreinte de noms. C'est-à-dire avec les noms des choses qui peuvent être dites ou chantées. Le nom *bertso* est autosemántique car il conserve toujours le même sens dans des phrases aussi réduites. À la suite de cet article, 50 verbes et 20 sous-classes de noms ont été étudiés en basque, afin de communiquer leurs expressions figuratives.

**Mots-clés :** Classes de noms, verbes, collocations lexicales, métaphores.

The syntax assumes, from its basic point of view, that in verb phrases like *bota pilota*, the verb *bota*, being the main component of the complement, chooses the members of the nominal subcategory of quality [+ concrete]. From its original conception, phraseology claims that in collocations of the *bertsoa bota* type, the verb *bota* is a synsymmatic verb, that is, it stops expressing movement and acquires an “unexpected” meaning in the imaginary creation, only if it is associated with members of a limited class of nouns. That is, with the names of things that can be said or sung. The name *bertso* is autosemántic because it always retains the same meaning in such reduced phrases. As a result of this article, 50 verbs and 20 sub-classes of nouns have been studied in Basque, in order to communicate their figurative expressions.

**Keywords:** Classes of nouns, verbs, lexical collocations, metaphors.

ODRIOZOLA PEREIRA, Juan Carlos (2022). “Noun/verb collocations in Basque”, *Euskera* 2021, 66: 165-209.



## 1. Sarrera

### 1.1. *Pilota* argumentua / *bota* predikatua → *bertsoa* oinarria / *bota* kolokatua

Sintaxiaren esparruaren oinarrietako bat dira aditzaren eta bere argumentuen arteko egitura eta esangura-harremanak: aditzek ezartzen dituzte semantika eta morfosintaxi-baldintzapenak eta predikatu funtzioa betetzen duten aditz horiek “hautatu” egiten dituzte argumentu funtzioa betetzen duten beste osagai batzuk.

Horrela, *bota* aditzak perpausari nolabait ezartzen dizkion hainbat zehaztapen daramatza bere baitan: 1) Egile bat (ergatibo kasu marka batekin gauzatuko dena): botatzearen ekintza gauzatzen duena. 2) Jarduera nolabait jasaten duena (absolutibo kasu marka batekin gauzatuko dena): bota egiten dena. 3) Aukerazko hartzaile bat (datibo kasua hartuko duena): botakoa har lezakeena. Beraz, (1) perpausean *bota* aditzak nolabait ezartzen ditu agian ergatibo modura gauzatuko den *Jordik* sintagma, baina batez ere absolutibo modura gauzatzen den *pilota* sintagma. Datibo modura gauzatuko duen *Joni* (aukerako) sintagma ere *bota* aditzaren menpe dago nonbait:

(1) *Jordik Joni pilota bota* dio.

Halaber, zabalki onartua dago *pilota* sintagmak gertuko egitura bat osatzen duela *bota* aditzarekin batera. *Joni* eta *Jordik* sintagmak ere egitura-baldintzapen batzuetan gauzatzen dira:

(2) [*Jordik* [*Joni* [*pilota bota*]]]

Ez gara lan honetan arituko (2)an azalean zirriboratu baizik egiten ez den ikuspegi horretatik. Hemen, (3-4)ko (ez)egokitasun batzuk hartuko ditugu aztergai:

(3) a *Jordik Joni pilota bota* dio.  
 b *Jordik Joni besarkada bota* dio.  
 c *Jordik Joni bertsoak bota* dizkio.

(4) a #*Jordik Joni laztana bota* dio.  
 b #*Jonek Jordiri maitasun handia bota* dio.

(4)koak ez daude euskal gramatikatik kanpo. Ulertu ere, ulertuko genuke euskaldunok perpaus horien esangura, baina den-denok esango genuke “hori ez da horrela esaten euskaraz”. Ziur aski, bakar-bakarrik euskaraz ondo mintzatzen ez den norbaitek botako lituzke horrelakoak. Beraz, aztergai har daiteke *pilota*, *laztan*, *besarkada*, *bertso* eta *maitasun* izen horiek haien artean erakusten duten aldea.

Sintaxian, *bota* bezalako aditzek [+objektua] edota [+konkretua] tasunak hauta ditzakete. Hortaz, esan genezake *bota* aditzak [+objektua] tasuna hautatzen duela (3a) horretan, baina oraindik ere (3b-c)koen egokitasunaren berri eman beharko genuke, *besarkada* eta *bertso* [-objektua] direlako, hain zuzen ere (4)ko biak bezala.

Bestetik, [-ekintza] tasuna edota azpikategorizazioa ikus genezake (4b) horretan, *bota* aditzak ekintzak ere onartzen dituela onartuta. Hala ere, *laztan* izen horrek nolabaiteko ekintza adierazten du, eta azaltzeke geldituko litzateke (4a)koaren egokitasuna. Alegia, [+objektua] edo [+ekintza] tasun zabalak edo azpikategorizazioak ez dira nahiko *bota* aditzaren jokamoldea auresateko edota deskribatzeko.

Ikus ditzagun orain *Euskaltzaindiaren Hiztegiak bota* eta *jaurti* aditzetarako emandako semantika-ezaugarriak:

(5) *bota*, *bota*, *botatzen*.

a. *du* ad. ‘Jaurti’.  
...*bota diezaiola lehenengo harria*.

b “Ahoz esan edo kantatu”.  
*Bilintxek Domingo Kanpañari bota zion bertsoa*.

(6) *jaurti*, *jaurti*, *jaurtitzen*.

1. *du* ad. “Eskuaz, oinaz edo tresna egoki baten bidez zerbait abiada handiz bidali”.

(5b)koak ondo zehazten du *bota* aditzaren irudizko esangura, eta horren harira, azpikategorizazioa baino askoz ere zehaztapen hertsia goa sumatzen da: ‘ahoz esan edo kantatu’. Berez, horrelako zehaztapena ez da azpikategorizazio gisa inola ere erabiltzen sintaxi-lanetan.

Ikuspegi praktiko batetik, euskaraz (trakets) sortzen ari den batek, adibidez, *make verses singing* edo antzerako zerbaiten euskal kidea igortzeko unean, *bota* aditza behintzat ez luke bilatuko euskara hutsezko hiztegi batean, zeren eta ingeles hizkuntzatik abiatuta eta ezagumendu estralinguistikoari lotuta, inoiz ez bailuke *throw* ‘bota’ buruan izango. *Bertso* esan behar dela garbi izanda, hau da, *verse* = *bertso* hizkuntz parekatzea bereganatuta, *make* nola esan bilatuko luke erabiltzaile horrek.

Aurrerantzean, erraztu egingo ditugu gure hemengo hausnarketak, eta *throw* = *bota* delako hizkuntz baliokidetasuna batez ere munduaren ezagumenduan oinarrituta dagoela esango dugu: hizkuntza askotan edo guztietan egongo da ‘indarrez jaurti’ adiera fisikoa ematen duen aditz bat. *Make verses singing* = *bertsoak bota* baliokidetasuna, aldiz, oinarrituago egongo da hizkuntza bi hauen ezagumendu espezifikoa, munduaren ezagumenduan baino: *bota* aditzarekin batera *bertsoa* zein *pilota* hartu ahal izate hori ez dagokio ezagumendu estralinguistikoari, euskararen ezagumendu linguistiko espezifikoa baizik.

Beraz, nolabaiteko “zurruntasuna” dutenen esparru zabalaz arituko gara, hau da, unitate fraseologikoen esparruaz (Corpas 2001a, b; Odriozola 2010; Urizar 2012, §III, IV: 1) unitate fraseologikoko bi “hitzak” ohiko sintaxi askean susma litekeen baino maizago azaltzen dira elkarrekin; 2) nolabaiteko instituzionalizazio bat daukate hizkuntzaren erabileran; 3) sintaxi askeak jorratzen ez duen nolabaiteko egonkortasuna dute; 4) beretan nolabaiteko berezitasuna suma daiteke sintaxian edota semantikan, eta honelako unitateek hitzez hitzeko esangura har dezakete batzuetan, baina era berean irudizko adiera hartzen dute oso maiz; 5) unitate fraseologikoetan aurretik ezin zehaztu daiteke esangura jakin bat zein hitz bikotetan gauzatuko den hizkuntza jakin batean.

Bila ditzagun are zehatzago gure aztergaiak:

- 1) Ez ditugu aztertuko diskurtso mailako unitate fraseologikoak (ez *hala eta guztiz* ere bezalako esapideak, ez *egun on* bezalako errutinazko formulak, ez eta *zozoak beleari ipurbeltz* bezalako atsotitzak).
- 2) Sintaxi-funtzio jakin bat betetzen dutenen artean, ez ditugu aztertuko lokuzioak (ez *gose izan* bezalako izenki-predikatuak, ez *bizi izan* beza-

lako adizki-lokuzio diren predikatuak (Aldai 2002; Odriozola & Altzibar 2013).

- 3) Kolokazio deitu izan direnen artean, ez ditugu aztertuko *-kin ezkondu* bezalako kolokazio ez-lexikoak (Ginebra 2001, 2003, 2017; Koike 2001; Odriozola 2010), eta osagai biak bete-bete lexikoak diren kasuak baizik ez ditugu aztergai hartuko.
- 4) Kolokazio lexikoen artean, ez ditugu *zorrak kitatu* bezalako kolokazioak aztertuko: horrelakoetan harreman estua dago *zor* izenaren eta *kitatu* aditzaren artean, baina, hala ere, garbi ikus daiteke euskal hiztegietan *kitatu* aditzak bere adiera bakarrari eusten diola betiere (“*zor*ra garbitu”), eta berarekin batera azaltzen diren izenak nekez ateratzen direla diru modura azaltzen diren kopuru-izenen klasetik (*gastu*, *hipoteka*, *kreditu*, *mailegu*, *zerga*, *zor*...).
- 5) *Pilota bota* adiera fisikoa / *bertsoak bota* irudizko adiera bezalako txandaketak erakusten dituzten aditzak aztertuko ditugu hemen (Odriozola 2017).

*Zorrak kitatu* edo *bertsoak bota* bezalako kolokazioen azterketa, bai eta kolokaziotzat jotzen diren beste hainbat unitateren azterketa ere (Altzibar & Odriozola 2013; Gurrutxaga 2014; Iñurrieta 2019; Odriozola 2010; Odriozola 2017; Urizar 2012: §III, IV) nahiko aurreratua dago euskaraz. Esana dugu aditzek [+konkretua] bezalako azpikategorizazio zabal bat aukeratzen dutela batez ere izenak adiera fisikokoak direnean (*pilota bota* / *#maitasuna bota*), baina bestetik esan liteke *bertsoak bota* bezalako kasuan sintaxi-urraketarik egon gabe ere izenaren menpe geratzen direla semantikan, *bertsoak bota* / *besarkada bota* / *#laztana bota* bezalako irudizko adierak gauzatzen (ez) direnean. Horrela, maila batean edo bestean, “ahoz esan edo kantatu” egiten diren gauzen izenen klase bat dugu “nagusi”, baldin eta *bota* aditzak “abiadura handiz bidali” adiera fisiko horretatik kanpo egingo badu. Kolokazio hauetako *bertso* bezalako izen oinarriak “autosemantikoak” dira (hots, semantika beregainekoak) (Alonso Ramos 2013, 2017; Martínez Salom 2012) eta *bota* bezalako aditz kolokatuak “sinsemantikoak” dira, hau da, oinarriaren menpekoak semantikan. Hori dela eta, azpimarratu beharrekoa da *zor*ra *kitatu* bezalakoetan, autosemantikoak di-

rela bai *zor* izena, bai eta *kitatu* aditza ere. *Bertsoak bota* bezalakoetan, “aldaketa” edo “desberdintasun nabari” bat dago kolokatuetan, izen oinarriarekin elkartzen direnean (Odriozola 2017).

- (1) a *pilota bota* (*Euskaltzaindiaren Hiztegian*, “abiadura handiz bidali”).  
b *bertsoak bota* (*Euskaltzaindiaren Hiztegian*, “ahoz esan edo kantatu”).
- (2) a *labana zorroztu* (*Euskaltzaindiaren Hiztegian*, “punta mehegoa jarri”).  
b *azterketa zorroztu* (geuk sortu dugun definizio erraztuan, ‘findu’).

Aditz askok eta askok badute adiera fisiko bat, hautatzen duten izenen azpikategoria zabalari lotua, hiztegietan lehenago aurkitu ohi dena.

Bada oso maiz irudizko edo metaforazko adiera bat ere: nolabaiteko aldaketa (sinkronikoa edo diakronikoa) suma daiteke “nonbaitera abiadura handiz joan daitezkeen gauza konkretu guztiak” (*pilota*) delako talde oso handitik “ahoz esan edo kanta daitezkeen gauzak” (*bertsoa*) talde txikiagora. Beraz, ondo bereiz ditzakegu *zorra kitatu* bezalako kolokazioak, lan honetan aztergai hartuko ditugun *bertsoak bota* edo *azterketa zorroztu* gisako kolokazioetatik: azken hauek bakarrik hartzen dute irudizko adiera hori, kolokazioari are nabarmentasun handiagoa ematen diona. Bestela esanda, *kitatu* autosemantikoa da, baina sinsematikoa dugu *bertsoak bota* delakoaren kasuan *bota* aditza (bai eta *zorrak kitatu* bezalakoetan, *kitatu* aditza).

Honelakoetan, egileek (Alonso Ramos 2013, 2017; Cotelo 2017; De Miguel & Batiukova, O. 2017; Lorente & Martínez Salom 2017; Zeldes 2012: §2) zuzenean erreparatzen diote “kolokatu” deitu izan den osagai horri, hau da, gure kasuan aditzari, bera baita nabarmen bereziagoa den esangura erakusten duena (Odriozola 2017).

Fraseologiaren barruan kokatzen den kolokazioen esparru honi, bi ikuspegitatik eutsi diote ikertzaileek betidanik:

- (a) Predikatuek (*bota*, *zorroztu*) klase semantiko murriztatzeko izen argumentuak (*bertsoa*, *azterketa*) hautatzen dituzte (Bosque 2002, 2006, 2011, 2017).
- (b) Izen batzuei (*bertso*, *azterketa*) hainbat eragiketa semantiko ezarri (‘sortu’, ‘areagotu’) eta aditzak (*bota*, *zorroztu*) lortzen dira (Mel’cuk 1998).

Lan honetan *bota* edo *zorroztu* bezalako aditzek zer-nolako izen klaseak bereganatzen dituzten aztertuko dugu, eta alderantzizko ikuspegitik, *bertsoa* edo *azterketa* gisako izenek osatzen dituzten klase lexiko hertsia mugatuko ditugu.

Gure lanaren muina hemen berriz bilduta, bada, *pilota bota / labana zorroztu* bezalako bikote entziklopedikoetatik abiatuko gara, kognizioan “zailagoak” diren *bertsoak bota / azterketa zorroztu* kolokazio irudizkoen berri emateko. Alegia, jakintzat emango dugu *pilota* eta *bota* funtsean munduaren ezagumendu entziklopedikoaren bidez elkartzen direla, eta *bertsoa* eta *bota* hiztegi-sarrerek, aldiz, euskararen hizkuntz ezagumenduaren laguntza ere behar dutela, zeren eta azken batean hizkuntzaz hizkuntza aditz desberdina erabiliko baita edo erabil baitaiteke *bertsoa* izenaren sorkuntza adierazteko. Sarrera honetako beste azpiataletan, aztergai hartuko ditugu kolokazioen oinarritzat hartu ohi diren izenak (→§1.2), eta kolokatutzat jotzen diren aditzak (→§1.3). Horretaz gain, gertutik begiratuko diegu irudizko adiera horiei (→§1.4). Geroagoko atal nagusietan gure lanaren esparrua mugatze-ko erabili ditugun irizpideen berri emango dugu (→§2), eta 50 aditzen azterketaren laburpena eskainiko dugu (→§3), jatorrizko adierak eta irudizko adierak kontuan hartuta.

## 1.2. Kolokazioen oinarri modura jokatzeko izenen klaseak

Esana dugu sintaxi askean, besteak beste, izenak hautatzen dituztela aditzek. Horrelakoetan, badakigu “izena” gramatika-kategoria bat dela. Zehaztu beharrekoa da sintaxian berez, gramatika-kategoria gabe, sintaxi-kategoria hautatzen duela aditzak, hau da, *bota* aditzak *pilota* izen-sintagma (edo determinatzaile-sintagma) hautatzen duela. Badakigu era berean *bota* aditzak bere adiera fisiko horretan [-abstraktua] edo [+objektua] azpikategoriako izenak aukeratzen dituela. Horrelakoetan, sintaxi askean ari gara nonbait: tankera horretako tasunak oso zabalak dira, eta mugarik gabeko talde bat osatzen dute tasun horiek betetzen dituzten izenek.

“Ahoz esan edo kantatu” izenen multzoaz ari bagara, ordea, izenen artean askoz ere murriztagoa den klase lexikotzat jo izan den talde batez ari

gara (Bosque 2002, 2006, 2011, 2017). Hemen, sakonean aztertuko dugu irudizko adiera hauek bereganatu eta kolokazioak gauzatu ahal izateko, aditzak zer-nolako klase lexikorekin elkartzen diren. Lan honetan, honelako 20 klase eta 117 azpiklase lexiko gauzatu ditugu:

1. (Tresnen) objektu-izenen azpikategoria edota klase lexikoa (*fusila atzeman*).
  - 1.1. Jaurtikiak izateko eginda dauden objektuen izenen azpiklase lexikoa.
  - 1.2. Puntadun objektuen izenen azpiklase lexikoa.
  - 1.3. Bi dimentsiokotzat jo daitezkeen objektuen izenen azpiklase lexikoa.
  - 1.4. Bi dimentsiokotzat edo dimentsio bakarrekotzat jo daitezkeen objektuen izenen azpiklase lexikoa.
  - 1.5. Sari-izenen klase lexikoa eta asmo onez emandako objektuen izenen azpiklase lexikoa.
  - 1.6. Sua (erabiltzen) duten gailuen objektu-izenen azpiklase lexikoa.
  - 1.7. Suaren formen izenen azpiklase lexikoa.
  - 1.8. Tabakoa erretzen duten gailuen izenen azpiklase lexikoa.
  - 1.9. Edukiztaileen objektu-izenen azpiklase lexikoa.
  - 1.10. Ontzi modura erabil daitezkeen objektuen izenen azpiklase lexikoa.
  - 1.11. Elektrizitatearen bidez funtzionatzen duten gailuen objektu-izenen azpiklase lexikoa.
  - 1.12. Jantzien objektu-izenen azpiklase lexikoa.
  - 1.13. Soinean jarri ohi diren objektuen izenen azpiklase lexikoa.
  - 1.14. Ibilgailuen objektu-izenen azpiklase lexikoa.
  - 1.15. Jateko eta edateko tresnen objektu-izenen azpiklase lexikoa.
  - 1.16. Salgai jartzen diren objektuen izenen azpiklase lexikoa.
  - 1.17. Irudikapen grafikoko formatuen izenen azpiklase lexikoa.
2. Gorputz-atalen izenen klase lexikoa (*belarriak zorroztu*).
  - 2.1. Iledun gorputz-zatien izenen azpiklase lexikoa.
  - 2.2. Ontzien antzekoak diren bizidun-organoen izenen azpiklase lexikoa.

- 2.3. Zentzumenezko gorputz-atalen, gorputz-zatien eta gorputz-organoen izenen azpiklase lexikoa.
- 2.4. Fonazio-aparatuko gorputz-atalen izenen azpiklase lexikoa.
- 2.5. Digestio eta zirkulazio-aparatuetakoko gorputz-atalen izenen azpiklase lexikoa.
- 2.6. Muskuluen bidez berariaz mugitzen diren gorputz-atalak.
- 2.7. Gorputz-adarren izenen azpiklase lexikoa.
- 2.8. Gorputz-atalen, gorputz-zatien eta gorputz-organoen izenen azpiklase lexikoa.
- 2.9. Irudi bidezko sentipena edota adimena adierazten duten gorputz-atalen, gorputz-zatien eta gorputz-organoen izenen azpiklase lexikoa (ikus bedi, halaber, psikologiako izen abstraktuak).
3. Masa-izenen klase lexikoa (*testosterona piztu*).
  - 3.1. Magnitudeen masa-izenen azpiklase lexikoa.
  - 3.2. Janarien eta edarien masa-izenen azpiklase lexikoa.
  - 3.3. Lurraren masa-izenen azpiklase lexikoa.
  - 3.4. Isuri fisiologikoen masa-izenen azpiklase lexikoa.
  - 3.5. Irudizko sentipena adierazten duten konposatu biologikoen izenen azpiklase lexikoa.
  - 3.6. Legez kanpoko gaien eta bestelakoen izenen azpiklase lexikoa.
  - 3.7. Gaien eta bestelakoen masa-izena.
  - 3.8. Seinale iraunkorren (masa-)izenen azpiklase lexikoa.
  - 3.9. Itxuraren masa-izenen azpiklase lexikoa.
  - 3.10. Ekologiako masa-izenen azpiklase lexikoa.
  - 3.11. Bere baitan ura daukaten izakien masa-izenen azpiklase lexikoa.
  - 3.12. Likidoen masa-izenen azpiklase lexikoa.
4. Tokien eta eraikinen izenen klase lexikoa (*kostaldea astindu*).
  - 4.1. Geografia-izenen azpiklase lexikoa.
  - 4.2. Nolabaiteko ezaugarri txarra duten tokien eta eraikinen izenen azpiklase lexikoa.
  - 4.3. Jendez bete daitezkeen tokien izenen azpiklase lexikoa.



- 4.4. Eskualdeen izenen azpiklase lexikoa.
- 4.5. Astronomia-izenen azpiklase lexikoa.
- 4.6. Jateko tokien izenen azpiklase lexikoa.
- 4.7. Zulo-izenen azpiklase lexikoa.
- 4.8. Tokien eta eraikinen izenen azpiklase lexikoa.
- 4.9. Ekintzatat har daitezkeen tokien izenen azpiklase lexikoa.
5. Onura-izenen klase lexikoa (*ondasunak bideratu*).
  - 5.1. Diru modura adierazi ohi diren onuren izenen azpiklase lexikoa.
  - 5.2. Negatibotzat jo daitezkeen diru kopuruen izenen azpiklase lexikoa.
  - 5.3. Moneten onura-izenen azpiklase lexikoa.
6. Gizakiak ez diren bizidunen izenen klase lexikoa (*basoa agortu*).
  - 6.1. Landareen eta landare-atalen izenen azpiklase lexikoa.
  - 6.2. Animalia izenen azpiklase lexikoa.
  - 6.3. Mikroskopia mailako bizidunen izenen azpiklase lexikoa.
  - 6.4. Bizidunen izenen azpiklase lexikoa (gizaki-izenena baino zabalagoa).
  - 6.5. Bizidun taldeen izenen azpiklase lexikoa.
7. Soinu-izenen klase lexikoa (*bertsoak bota*).
  - 7.1. Musika bidez edo ahoz gauzatzen diren soinuen izenen azpiklase lexikoa.
  - 7.2. Ahozko zarata fisiologikoen soinu-izenen azpiklase lexikoa.
  - 7.3. Zarata fisiologikoen soinu-izenen azpiklase lexikoa.
8. Giza izenen klase lexikoa (*abertzaleak zokoratu*).
  - 8.1. Lanbideen giza izenen azpiklase lexikoa.
  - 8.2. Kirolari-izenen azpiklase lexikoa.
  - 8.3. Legez kanpoko ekintzen egileen izenen azpiklase lexikoa.
  - 8.4. Ekintzatat har daitezkeen gizakien izenen azpiklase lexikoa.
  - 8.5. Gizataldeen eta erakundeen izenen azpiklase lexikoa.
  - 8.6. Irakurketa espezifikoko giza izenen azpiklase lexikoa.
  - 8.7. Irakurketa generikoko edo espezifikoko giza izenen azpiklase lexikoa.

9. Argiaren inguruko izenen klase lexikoa (*eguna itzali*).
  - 9.1. Argidun izakien izenen azpiklase lexikoa.
  - 9.2. Argi-izenen azpiklase lexikoa.
10. Hizkuntz komunikazioko izenen azpiklase lexikoa (*esamesa uxatu*).
  - 10.1. Jendaurreko hizkuntz komunikazioan eskaintzen diren ekin-tzen izenen azpiklase lexikoa.
  - 10.2. Hizkuntz komunikazio idatzizko izenen azpiklase lexikoa.
  - 10.3. Hizkuntzen eta hizkuntz esparruen izenen azpiklase lexikoa.
11. Fisiologia-izenen azpiklase lexikoa (*egarria ase*).
  - 11.1. Zentzumen esparruko izenen azpiklase lexikoa.
  - 11.2. Medikuntzako tratamenduen izenen azpiklase lexikoa.
  - 11.3. Medikuntzako fisiologia-izenen azpiklase lexikoa.
12. Atalen eta multzoen izenen azpiklase lexikoa (*kopurua gainditu*).
  - 12.1. Atal fisikoen izenen azpiklase lexikoa.
  - 12.2. Atal abstraktuen izenen azpiklase lexikoa.
  - 12.3. (Azpi)multzoen izenen azpiklase lexikoa.
13. Administrazio, zuzenbide eta politikako izenen azpiklase lexikoa (*arautegia zorroztu*).
  - 13.1. Administrazioko eta politikako postuen izenen azpiklase lexikoa.
  - 13.2. Politikako izenen azpiklase lexikoa.
  - 13.4. Administrazioko ekintza edota ondorio (idatzi)en izenen azpi-klase lexikoa.
  - 13.5. Politikako ekintzen edota ondorioen izenen azpiklase lexikoa.
  - 13.6. Administrazioko eta zuzenbideko ekintza/ondorio izenen azpi-klase lexikoa.
  - 13.7. Zuzenbideko prozedurek ematen dituzten ondorio (idatzi)en izenen azpiklase lexikoa.
  - 13.8. Administrazioko eta zuzenbideko denbora-izenen azpiklase lexikoa.
  - 13.9. Administrazioko eta politikako prospekzio-izenen azpiklase lexikoa.

14. Kulturako eta hedabideetako produktuen izenen azpiklase lexikoa (*egunkaria kaleratu*).
  - 14.1. Baliabide idatzien edo grafikoen izenen azpiklase lexikoa.
  - 14.2. Gauzak irudikatzeke hainbat formatutan erabiltzen direnen izenen azpiklase lexikoa.
15. Beste zientzia eta teknika esparruetako izenen azpiklase lexikoa (*katabolismoa jasan*).
  - 15.1. Astronomiako izenen azpiklase lexikoa.
  - 15.2. Meteorologiako izenen azpiklase lexikoa.
16. Ekintzen edota ondorioen izenen azpiklase lexikoa (*antzerkigintza alboratu*).
  - 16.1. Ekintzatzat har daitezkeen tokien izenen azpiklase lexikoa.
  - 16.2. Ekintzatzat har daitezkeen gizakien izenen azpiklase lexikoa.
  - 16.3. Ekintzatzat har daitezkeen epeen debora-izenen azpiklase lexikoa.
  - 16.4. Ekintzatzat har daitezkeen izen batzuk.
  - 16.5. Onuragarritzat jotzen diren ekintzen edota ondorioen izenen azpiklase lexikoa.
  - 16.6. Txartzat jo daitezkeen ekintzen edota ondorioen izenen azpiklase lexikoa.
  - 16.7. Lanbideen ekintza-izenen azpiklase lexikoa.
  - 16.8. Ekintzen edota ondorioen proba-izenen azpiklase lexikoa.
  - 16.9. Egin beharrekoen ekintza-izenen azpiklase lexikoa.
  - 16.10. Kolpeen ekintza-izenen azpiklase lexikoa.
  - 16.11. Ekintzek ematen dituzten ondorio (idatzi)en izenen azpiklase lexikoa.
  - 16.12. Mugimenduzko ekintzen izenen azpiklase lexikoa.
  - 16.13. Errepikagarriak diren ekintzen izenen azpiklase lexikoa.
  - 16.14. Irakaskuntzako ekintzen edota ondorioen izenen azpiklase lexikoa.
  - 16.15. Ekintza-izenen azpiklase lexikoa.
  - 16.16. (Txartzat jo daitezkeen) adigaien izen abstraktuak edota ekintzen edota ondorioen izenen azpiklase lexikoa.

- 16.17. Taldeka egiten diren ekintzen izenen azpiklase lexikoa.
- 16.18. Metonimia bidez ekintzat har daitezkeen izenen azpiklase lexikoa.
- 17. Denbora-izenen azpiklase lexikoa (*epea bete*).
  - 17.1. Administrazioko eta zuzenbideko denbora-izenen azpiklase lexikoa.
  - 17.2. Ekintzat har daitezkeen epeen denbora-izenen azpiklase lexikoa.
  - 17.3. Egoera txarreko zat jotzen diren aldien izenen azpiklase lexikoa.
- 18. Psikologiako izenen azpiklase lexikoa (*atxikimendua jaso*).
  - 18.1. Adeitasun-izenen azpiklase lexikoa.
  - 18.2. Irudizko sentipena adierazten duten konposatu biologikoen izenen azpiklase lexikoa.
  - 18.3. Irudi bidezko sentipena edota adimena adierazten duten gorputz-atalen, gorputz-zatien eta gorputz-organoen izenen azpiklase lexikoa.
  - 18.4. Psikologiako edota adimenezko izenen azpiklase lexikoa.
- 19. Adimenaren inguruko izenen azpiklase lexikoa (*zalantzak argitu*).
  - 19.1. Ustez konpontzeko dauden adimen-ondorioen izenen azpiklase lexikoa.
  - 19.2. Adimen-izenen azpiklase lexikoa.
- 20. Izen abstraktu hutsak (*psikologia jorratu*).
  - 20.1. Onuragarritzat har daitezkeen adigaien izen abstraktuak.
  - 20.2. Izaki espiritualen izen abstraktuak.
  - 20.3. Jakintza arloen izen abstraktuak.

Talde hauetako batzuk oso zabalak dira, eta ohiko sintaxiaren eta fraseologiaren arteko mugetan daude, azpikategorizazio mailatik hurbil. Horrelakoak dira izen konkretuen taldea, bizidun-izenen taldea, giza izenen taldea, eta, agian, ekintza/ondorio izenen taldea ere: sintaxian betidanik jakin izan dugu *suspertu* bezalako aditz batek “bizidunak” hautatzen dituela, eta bizidunek ez diote *suspertu* aditzaren esangurari bereziki “eragiten”.

Beste talde batzuk zehatzak dira oso. Adibidez, gorputz-atalen izenen taldeko hainbat aditzek hautaketa zorrotza erakusten dute, eta horretan euskarak bere kolokazio idiomatikoak ditu, azpiklase oso zorrotzen mende: fonazio-aparatuko organoak (*extarria korapilatu*), zentzumenezko organoak (*begia zorroztu*), muskuluen bidezko mugimendukoak (*ezpainak estutu*) eta sentipena adierazten dutenak (*kopeta argitu*).

Bestela, gradiente bat dago izena/aditza harreman hauen murriztapenetan (Bosque 2002, 2011, 2017). Mutur batean, ikusi dugu *pilota / bota* bezalakoak direla sintaxi askearen ikur, aditzak [+objektua] tasuna hautatzen duelarik tartean. Bestetik, euskal kolokazioen erdigunean ikusi dugu *bertsoak bota: bota* aditz kolokatuak “ahoz esan edo kantatu” adiera hartzen du, *bertsoa* bezalako izenen klase murriztaren barruan dauden izen oinarriekin batera.

“Murrizagoak” eta “hain murrizagoak ez direnak” berezi beharko ditugu, beraz: nabarmentasun semantikoaren ideari eutsita aurkituko dugu gradiente hori, eta mutur batetik beste muturrerainoko esparru osoa har dezake aztergai fraseologiako lan batek. Horrela, jakitun gaude sintaxiaren muturrean ez garela propio fraseologian arituko, baina, bestalde, badakigu ez dugula fraseologiakoa izan litekeen bazterrik ere aztertu gabe utziko. Beraz, guk geuk, onartuko dugu fenomeno bera aztertzeko bi ikuspegi desberdin baizik ez direla sintaxia eta fraseologia. Beraz, biek ala biek beregana dezakete izena ↔ aditza harreman hau aztergai gisa: argumentuak aukeratzeko dituzten predikatuez arituko gara murriztapen txiki edo handiren pean, baina era berean, onartuko dugu izen oinarri horietako bati funtzio lexiko bat ezar diezaiokegula, izena/aditza kolokazio egokia lortzeko.

### 1.3. Kolokatu modura jokatzeko duten aditzak

Hemen egin behar dugun hasierako aditz-sailkapen bakuna ez dator bat aspektu lexikoen sailkapenarekin (lorpenak, gauzatzeak, jarduerak eta egoerak bereizten dituen sailkapenarekin, alegia) (Verkuyl 1989). Izan ere, aspektu lexiko horiek fraseologiako talde hauetan zehar barreiatuta daude, talde biribilik gauzatu gabe. Oso kontzeptu bakunetan oinarrituko dugu sailkapena:

- a) Mugimendu-aditzak (*pilota bota* ↔ *bertsoak bota*): gutxienez, *akuilatu*, *alboratu*, *atera*, *astindu*, *atera*, *aurkitu*, *baztertu*, *bereganatu*, *berezi*, *bideratu*, *bildu*, *bota*, *bultzatu*, *egotzi*, *eskuratu*, *etorri*, *ezkutatu*, *finkatu*, *gainditu*, *jaso*, *kaleratu*, *kendu*, *saihestu*, *urrundu*, *uxatu*, *utzi*, *zirikatu*, *zokoratu* eta *zuzendu*.
- b) Hizkuntz komunikazioko aditzak (*bekatua aitortu* ↔ *askatasuna aitortu*): gutxienez, *aitortu*, *aurkeztu*, *eskaini*, *mugatu* eta *zehaztu*.
- c) Aldaketa fisikoko aditzak (*iturria agortu* ↔ *epea agortu*): gutxienez, *agortu*, *antzean*, *argitu*, *arindu*, *ase*, *atzeman*, *bete*, *ekin*, *estutu*, *finkatu*, *galdu*, *garatu*, *gogortu*, *ito*, *itzali*, *korapilatu*, *kutsatu*, *leundu*, *orraztu*, *jasan*, *jorratu*, *mugatu*, *pairatu*, *sendotu*, *suspertu*, *zabaldu*, *zorroztu* eta *zurrundu*.

#### 1.4. Aditzen adiera fisikoak eta irudizko adierak

Izenetatik abiatuta, funtzio lexikal (Mel'cuk 1998) edota (irudizko) adiera batzuk gauzatu daitezke aditz jakin batzuekin elkartuta:

- 1) *Bertso* izenari “sorkuntza” delako funtzio lexikala erantsi eta *bertsoak bota* sintagma “sortzen” zaigu.
- 2) *Epe* + “deuseztapena” → *epea agortu*.
- 3) *Irain* + “betekizuna” → *irainak egotzi* (alegia, egotzi egiten denean bihurtzen da irain bat zinez irain).
- 4) *Mugimendu* + “areagotzea” → *mugimendua akuilatu*.
- 5) *Urduritasun* + “txikiagotzea” → *urduritasuna arindu*.

Beraz, honela geldituko zaigu sailkapena, funtsezko adiera fisikoak eta irudizko adierak edota funtzio lexikalak batera aztertuta:

##### 1. Sorkuntza.

- 1.1. Sorkuntza ere adieraz dezaketen mugimendu-aditzak (*pilota bota* ↔ *bertsoak bota*): gutxienez, *astindu*, *atera*, *bereganatu*, *bildu*, *bota*, *egotzi*, *eskuratu*, *etorri*, *jaso* eta *zokoratu*.

- 1.2. Sorkuntza ere adieraz dezaketen komunikazio-aditzak (*emakumea aurkeztu* ↔ *alegazioa aurkeztu*): gutxienez, *aurkeztu*, *aitortu* eta *eskaini*.
2. Deuseztapena.
  - 2.1. Deuseztapena ere adieraz dezaketen mugimendu-aditzak (*tontorra gainditu* ↔ *zorabioa gainditu*): gutxienez, *alboratu*, *baxtertu*, *gainditu*, *kendu*, *saihestu*, *uxatu*, *zokoratu*, *urrundu* eta *utzi*.
  - 2.2. Deuseztapena ere adieraz dezaketen aldaketa-aditzak (*iturria agortu* ↔ *epea agortu*): gutxienez, *agortu*, *ito*, *itzali* eta *galdu*.
3. Betekizuna.
  - 3.1. Betekizuna ere adieraz dezaketen mugimendu-aditzak (*gorbata zuzendu* → *erakundea zuzendu*): gutxienez, *antzeman*, *atzeman*, *bereizi*, *bideratu*, *egotzi*, *kaleratu*, *kanporatu*, *leporatu*, *plazaratu* eta *zuzendu*.
  - 3.2. Betekizuna ere adieraz dezaketen aldaketa-aditzak (*aurpegia ezkutatu* ↔ *misterioa ezkutatu*): gutxienez, *argitu*, *ase*, *bete*, *ezkutatu*, *jasan*, *jorratu*, *kutsatu*, *orraztu*, *pairatu* eta *suspertu*.
4. Areagotzea.
  - 4.1. Areagotzea ere adieraz dezaketen mugimendu-aditzak (*behiak akuilatu* ↔ *mugimendua akuilatu*): gutxienez, *akuilatu*, *bultzatu* eta *zirikatu*.
  - 4.2. Areagotzea ere adieraz dezaketen aldaketa-aditzak: gutxienez, *estutu*, *garatu*, *gogortu*, *korapilatu*, *sendotu*, *zabaldtu* eta *zorroztu*.
5. Txikiagotzea.
  - 5.1. Txikiagotzea ere adieraz dezaketen aldaketa-aditzak (*pisua arindu* ↔ *urduritasuna arindu*): gutxienez, *arindu* eta *leundu*.
  - 5.2. Txikiagotzea ere adieraz dezaketen komunikazio-aditzak (*erreka mugatu* ↔ *askatasuna mugatu*): gutxienez, *mugatu* eta *zehaztu*.

Kolokazioen nabarmentasan delako hori oso lotuta dago askotan aditz kolokatuen izaera eratorriarekin. *Eskuratu* aditzak batez ere ‘beregianatu, lortu’ adiera hartzen du, baina begi bistakoak dira *esku* + *-ra* oinarritzko prozesua eta esangura (‘eraman eskura’), bai azaleko morfologia-azterketa

batean, bai eta hiztun arrunten kontzientzian ere. *Eskuratu* aditz hau izango da, hain zuzen ere, gure lanaren mugetako bat: nekez bada ere, oraindik adiera fisikoari eusten dio, eta badugu gure lan honetan *pilota eskuratu* ↔ *alkatetza eskuratu* bikotea aztertzea.

Bestetik, pentsa dezakegu, adibidez, *azaldu* aditzaren kasuan egungo euskal hiztun arrunta ez dela ohartzen *azal* izena dela aditz eratorriaren oinarria, eta, beraz, “gaixotasun azaldu” esaten dugunean, egun ez dugu halaberharrez esan nahi “gaixotasuna larruazalera atera da”.

Edonola, euskal hiztegietan islatuak izango dira hemen ibiliko ditugun adiera-adibide guztiak. Guk betiere buruan izango dugu adiera fisikoa izango zela lehenengoa eta geroago etorriko zela metafora, baina hori hipotesi bat besterik ez da, azken batean mende honetako euskara idatzian bizirik daudelako aditz hauetako bakoitzean.

Bukatzeko, esan beharrekoa da hainbat aditzek zorrotz jokutzen dutela, baina adiera mota oso desberdinak ematen dituztela haiekin batera elkar-tzen diren izen azpiklaseen arabera: irakurleak zehatz irakurtzen baditu he-mengo sailak berehala ikusiko du, esate baterako, *astindu* aditzak oso maiz adierazten duela sorkuntza edota areagotzea (→§3.1.1, §3.4.1), besteak beste onuragarritzat jotzen diren ekintzen izenekin (*extabaida astindu*), baina deuseztapena ere adierazten duela (→§3.2.1) prozesu fisiologikoen izenekin batera (*logura astindu*).

## 2. Gure lanaren esparrua mugatzeko irizpideak

Zerbait esango dugu ustez erdal kalkoak izan litezkeen kolokazioei buruz (→§2.1), eta hainbat sintaxi-irizpide erabiliko ditugu (→§2.2) gure azter-gai-esparrutik kanpo zer utziko dugun argi adierazteko.

### 2.1. Gaztelaniarekiko (ustezko) hurbiltasuna

Badakigu euskarak gertuko auzo-harremanak (ez tipologia-harremanak) dituela frantsesarekin eta gaztelaniarekin. Hori dela eta, maiz ikusiko dugu



*bota* aditza bezalako batek bat egiten duela gaztelaniaren *tirar* edo *echar* aditzen izena/aditza bikote askorekin: objektu-izenekin (*harria bota / tirar una piedra*), masa-izenekin (*asfaltoa bota / echar asfalto*), eta komunikazio-jardueretako izenekin (*errieta bota / echar una bronca*). Lan honetan ez gara arituko inongo diakronia edo diasistema ikuspegitik eta ez dugu aztertuko aurrean aipatu horiek noiz eta noraino sartu diren kanpotik euskal hizkuntzara:

- 1) Besterik gabe, hiztun arrunt modura badakigu honelako kolokazioak arrunt-arruntak direla egungo euskaran.
- 2) Aurrekoa gutxi balitz, mende honetako corpusetan zinez eta maiz aurkituko ditugun adibideak erabiliko ditugu. Horrela, lan honen egilearen hizkuntz konpetentziarekin bat egingo dugu eta horretaz gain corpusetan biltzen diren benetako erabilerak jasoko dira hemen.
- 3) “Kalkoa” delako adigaia ez dugu hemen jorratuko, baina betiere gure ereduzko *bota* aditzari eutsita, gogora dezagun *bota* aditzak eta *echar*, *tirar* eta *lanzar* aditzek uste baino askoz ere auzo-harreman korapilatsuagoak dituztela, eta euskal aditzak bere esparru propioari eusten diola gutxienez aipatutako “ahoz esan edo kantatu” horretan: *bertsoak bota /#echar, lanzar, tirar versos*. Areago, guk geuk esango genuke *gritar* aditz soila dela *oihua bota* euskal bikotearen itzulpen egokiena.

Horrela, bada, alde batera utziko dugu lan honetan zehar erdarek (eta itzulpen bidezko euskararen normalizazioak) nola eragin dioten euskarari, eta egungo erabilera errealari erreparatuko diogu.

## 2.2. Esparrua mugatzeko hizkuntzalaritza-irizpideak

Zerbait esango dugu izena/aditza ez bezalako kolokazio lexikoei buruz (→§2.2.1), eta bestelako irizpide gardenak erabiliko ditugu (→§2.2.2) gure esparrua mugatzeko.

### 2.2.1. *Gure aztergaietatik kanpo utziko ditugun kategoria lexikoak dituzten kolokazioak*

Baditugu bestelako kategoria lexikoez osatutako kolokazioak. Ikus bedi ustekabeen (Koike 2001). zeharkatzen dituela kolokazioak egiteko ahalmen honek gramatika-kategoriak: gure aztergai izango den *azterketa zorrotzu* horretan izen oinarria / aditz kolokatua dugu, baina *zorrotz aztertu* sintagman (Bosque 2002, 2006, 2011, 2017). izenondo kolokatua / aditz oinarria, *zorrotzki aztertu* sintagman aditzondo kolokatua / aditz oinarria, eta *azterketa zorrotza* sintagman izen oinarria / izenondo kolokatua. Horrela, bada, izen oinarria (*azterketa*), aditz oinarria (*zorrotzu*) eta izen oinarria (*azterketa*) dira hurrenez hurren hiru kolokazio horietan esangura-aldaketarik jasaten ez dutenak. Bestetik, hurrenez hurren aditz kolokatua (*zorrotzu*), izenondo kolokatua (*zorrotz*) eta izenondo kolokatua (*zorrotz*) ditugu kolokatuak, irudizko esangura hartzen dutenak.

*Azterketa zorrotza* bezalako izen/izenondo kolokazio batzuk behintzat aztertutak daude euskaraz (Euskara Institutua, EHU, <https://www.ehu.eus/seg/morf/5/7/2/3>): *zorrotz* izenondoaren antzera, izenaren neurketa eta beste hainbat zehaztapen adberbial ematen dituzten izenondoak (*gauza ziurra*, *gezur hutsa*, *euskaldun berria*,...). Ikertzeke dago oraindik tasunezko izenondoek eta erreferentziatzko izenondoek zinez inongo murriztapen lexikorik ezartzen dieten izenei.

### 2.2.2. *Bestelako irizpideak*

#### 1) $\emptyset$ kasu marka aztergai.

Lehenengo hurbilketa bakun batean (ez sakonean), esan liteke osagarri ez den orok ez duela murriztapen (nabari)rik jasaten aditzarekin elkartzera-koan. Euskararen kasuan,  $\emptyset$  absolutibo kasu marka duten izen-sintagmak izango lirateke osagai horiek hasiera batean, baina gogora ekarri behar dugu horrelakoak aditz iragankorren osagarriak zein aditz iragangaitzen subjektuak markatzen dituela euskal kasu-marken sistemak (Euskara Institutua, EHU, <https://www.ehu.eus/seg/morf/2/1>.) Horretaz gain, hemen diakroniaz

eta diasistemez ez gara arituko (Aldai 2002; Odriozola & Altzibar 2013; Zabala 2004: §3.3.6.1.2)., eta zuzen aztertuko ditugu bai *hitz eman* (*hitze-man*) mugatzailegabeak, bai eta *hitza eman* bezalako mugatzailedunak. Horrela, bada, morfologiako irizpide gardena erabil dezakegu hasiera batean:  $\emptyset$  kasu marka duten izen-sintagma hartuko ditugu aztergai.

- 2)  $\emptyset$  kasu marka/postposizio-sintagma/ergatibo kasu marka txandaketa aztergai.

Semantikan beharrezko den osagai hori ez da beti  $\emptyset$  kasu markako osagai modura agertzen. Berez, hainbat egilek saihestu egin dute “aditzarekin ezinbestez” (=argumentu funtzioa) eta “aditzarekin inoiz” (modifikatzaile funtzioa) direlako osagai horien arteko bereizketa egitea (Aldeazabal 2012). Izan ere, hainbat kasutan postposizio-sintagmetan asetzen da ezinbestekotasun lexiko hori (Euskara Institutua, EHU: <https://www.ehu.eus/seg/morf/2/2/1>; Euskara Institutua, EHU: <https://www.ehu.eus/seg/morf/5/9>; Odriozola 1999; Zabala eta Odriozola 2004): *konponbidea* / *konponbidetik urrundu*. Honelako kasuetan, *konponbidea* zein *konponbidetik* aztertuko dugu.

Bestalde, ergatiboa/absolutiboa/postposizioa txandaketa ere gerta daiteke aditz baten erabileran: *koronabirusak* / *koronabirusa* / *koronabirusaz kutsatu* edo *jendeak bete* / *jendex bete*. Kasu guztietan aztertuko ditugu *kutsatu* edo *bete* aditzekin elkartzean gertatzen diren murriztapenak, azken batean tankera berekoak direnak. Antzera gertatzen da *banandu* / *banatu* / *bereizi* aditzen kasuan.

- 3) Ageriko sintaxia.

*Barnetik atera* edo *latinetik etorri* bezalakoetan erabat lexikoa ez den *-tik* dugu ikur betiere, baina bistan da *etorri* aditzaren kasuan, postposizio-sintagma ezinbestekoa dela, *etorri* aditzak ‘jatorri’ adiera hartuko badu. *Atera* aditzean, aldiz, ez bide da beharrezkoa (gutxienez sintaxian) postposizio-sintagma. Bide batez, adiera hori hartzeko *etorri* aditzarekin batera azaltzen diren izenak oso izen klase murrizari dagozkio, eta badirudi, beraz, bada-goela tartean kolokazio lexiko bat *latinetik* eta *etorri* osagaien artean.

Bestetik, gure esparru honetatik inongo teoria-azalpen sakonik gabe baztertuko ditugu predikatu funtzioko osagaiak: *zarata sartu* bezalakoak aztertuko ditugu, baina ez, ordea, *irakasle sartu* bezalakoak (Odriozola 2010).

4) *Euskaltzaindiaren Hiztegia*.

Egotzi bezalako aditzak hiru argumentu dituzten aditz gisa azaltzen dira *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n, eta, beraz, geureganatu egingo ditugu *ezker abertzaleari (errua) egotzi gisakoak*.

Hainbatetan, aditzek oso erabilera desberdin bi erakusten dituzte. *Zuzendu* bezalako aditzen kasuan, esan daiteke *medikuak Joni belauna zuzendu dio* perpausean *Joni* aukerakoa dela, baina, bestetik, *Jon ikasleei haserre zuzendu zaie* erabileran, *zuzendu* aditzak ezinbestez eskatzen duela *ikasleei* bezalako osagai bat (edo agian *ikasleengana* gisako osagai bat). Areago, *belauna zuzendu* horretan ez bezala, *ikasleei zuzendu* bezalakoetan, datibo markako osagaia oso izen klase argiarekin lotzen da: giza izenak edo izen bizidunak dira aditz honen erabileran agertzen direnak. Edonola, *zuzendu* aditza ergatibo eta datibo argumentuak dituelakoan baizik ez da azaltzen *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n, eta, beraz, geure aztergaiari zabaldu egin beharko dugu dagoeneko hiztegiaren zehaztua datorrena.

## 5) Datiboaren kasu marka gehienak gure esparrutik kanpo.

Hainbatetan, batez ere aditzen esanguran bertan ikus daiteke osagai jakin bat estuki lotuta dagoela aditzaren esanahi jakin batekin. Horrela, *atera* aditza ergatibo eta datibo argumentuak dituelakoan baizik ez da agertzen *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n, baina, bestalde, denbora-izenekin batera (*norbaiti segundoak atera*) badirudi datibo hori ezinbestekoa dela, esanguran behintzat.

Hala ere, datibo markakoak aztertu ahala, erraz gerta lekiguke fraseologiatik kanpoko esparrura joatea. Izan ere, betetzen duten funtzioa betetzen dutela ere, hurrengo datibo markakoak ez bide dira aditzen oinarri, fraseologiaren ikuspegitik: (*norbaiti*) *maitasuna agortu*, (*norbaiti*) *lehentasuna aitortu*, (*norbaiti*) *amorrua akuilatu*, (*norbaiti*) *zigorra arindu*, (*norbaiti*) *ahulezia atzeman*, (*norbaiti*) *agiria aurkeztu*, (*norbaiti*) *ipuinak bildu*, (*norbaiti*) *besarkada bota*, (*norbaiti*) *heziketa eskaini*, (*norbaiti*) *baldintzak korapilatu*, (*norbaiti*) *zoriontasuna ito*, (*norbaiti*) *maitasuna itzali*, (*norbaiti*) *desira piztu*, (*norbaiti*) *araua leundu*, (*norbaiti*) *askatasuna mugatu*, (*norbaiti*) *adorea suspertu*, (*norbaiti*) *baldintzak zehaztu*. Gainera, aditz horiek argumentu biko edo bakarreko aditz modura azaltzen dira *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n.

### 6) Postposizio-sintagma gehienak gure esparrutik kanpo.

Aurretik aipatutako *bete* edo *kutsatu* bezalakoak alde batera utzita, badi-rudi fraseologia esparru honetatik kanpo daudela postposizio gehienak: *agiri*a (nonbaitetik) *atera*, *adorea* (nonbait) *aurkitu*, *antzerkigintza alboratu*, *emakumeak* (nonbaitetik) *baztertu*, *bertsoa* (nonbaitetik) *bota*, *gidabaimena* (norbaitengandik, nonbaitetik) *eskuratu*, *ustelkeria* (norbaitengandik) *ezkutatu*, *langilea* (nonbaitetik) *kaleratu*, *agindua* (norbaitengandik) *jaso*, *gorrotoa* (nonbaitetik) *kanporatu*, *arauak* (nonbait) *finkatu*, (norbaitengandik) *irainak pairatu*, *gorrotoa* (norbaitengan) *zabaldu*, *harremana* (norbaitengan) *sendotu*, *gazteak* (nonbaitera) *zuzendu*, *beldurra* (nonbaitetik) *uxatu*.

## 2.3. Erabilitako corpusak eta adibideak emateko tipografia

Tipografia kontu batzuk azalduko ditugu (→§2.3.1), eta gainbegirada bat botako diegu lan hau gauzatzeko erabili ditugun corpusei (→§2.3.2).

### 2.3.1. Tipografia kontu batzuk

Letra etzanaz emango dira izenak, betiere etenpuntuak jarrita bukaeran: izen klase lexiko bakoitza zehatza izango da, baina ez inola ere guttiz itxia. Adibideen iturri orokorrak azalduko ditugu (→§2.3.2, §2.3.3, §2.3.4), baina aditzen deskripzioan hain corpus handia erabilia, nekez eman dezakegu izen bakoitzaren jatorria; gainera, agerian utzi nahi dugu hasieratik izen hauek azken batean egungo euskaldunon hizkuntz konpetentziari zor zaizkiola, eta edonon aurki daitezkeela plazaratuta.

### 2.3.2. Egungo Testuen Corpora (ETC)

Abiapuntu gisa, mende honetan sasoi onean dauden kolokazioak bildu nahi izan ditugu, eta horretarako, Euskal Herriko Unibertsitateak eskaintzen duen *Egungo Testuen Corpora* izenekora jo dugu. Horrela, bada, lan honetan aipatzen diren ia kasu guztiak erabiliak dira mende honetako biga-

rren-hirugarren hamarkadan. Hautu horrekin batera, esana dugu ez diogula hemen inongo diakroniaren ikuspegiari eutsi nahi izan. Bide batez, gogora dezagun diasistemen ikuspegia ere ez dugula gauzatuko, eta euskara osoan erabilera arrunta duten kolokazioak aztertuko ditugula, bereizkuntzarik egin gabe gaztelaniarekiko hurbiltasun nabaria dutenen eta euskararen baitakoak direnen artean. Gauzak horrela, Sarasolaren hiztegian (EEH) ikus daiteke gure *bota* aditza XVII. mendetik aurrera azaltzen dela euskara idatzian, baina, hala ere, hiztegi horretan ez da biltzen *errieta (bota)* bezalako komunikazio-izenik, edo *besarkada (bota)* gisako mugimenduzko ekin-tzen izenik. Izan ere, XXI. mendean argitaratutako testuetan oinarritua dago corpus hori. Bistan da *errieta bota* edo *besarkada bota* hurbileko pareak dituztela gaztelaniaz eta pentsa liteke horrelakoak etorri berriak direla gura, baina aurretik, lehen esan bezala, lan honetan guztiak berdin aztertuko ditugu. Berez, ezin ukatuzkoa da erabilera arruntekoak direla biak ere egungo euskararen.

Bestetik, corpus honetan adibideak eskuratzean ez dugu irizpide kuantitatiborik erabili, eta zuzen geureganatu ditugu, bai maiz erabiltzen direnak, bai eta erabilera urritzekoak direnak ere. Hau dela eta, gogoratu beharrekoa da semantikako nabarmentasuna dagoela, bai kolokazioen oinarri-oinarrian, bai eta hiztun arrunten intuizioan ere. Aurretik esan bezala, *harria bota* erabilera fisikokoa da, eta kuantitatiboki adiera fisikoa da nagusi aditz honen kasuan behintzat; *bertsoa bota* bere aldetik, irudizko erabilerakoa da, eta askoz ere gutxiagotan azaltzen da testu hauetan; *extenkada bota* ere gutxitan azaltzen da testu hauetan. Hirurak azaltzen dira, ordea, eta hirurak aztertuko ditugu, *harria bota* kolokazioa ez dela garbi utziko badugu ere. Esan liteke berez *bertsoa bota* horretan dagoela nabarmentasun gorena, eta hiruretatik ere *bertsoa bota* bezalakoek betetzen dituztela gure aztergaiaren ezaugarri argienak.

### 2.3.3. *Euskaltzaindiaren Hiztegia (EH)*

Ezinbestekoak ditugun aditzen definizioak lortzeko, *Euskaltzaindiaren Hiztegi*a jo dugu. Definizio horiek komatxo artean (“ ”) emango ditugu:

(1) *Bota*.

“Jaurti”: “Eskuaz, oinaz edo tresna egoki baten bidez zerbait abiada handiz bidali”.

- a Izen konkretu zenbakarriak  
*harria, kohetea, konfetiak, ... bota*
- b Masa-izen konkretuak  
*asfaltoa, azukrea, pozoia, ... bota*

Akademiak “jaurti” eman du *bota* aditzaren adiera fisikoaren definizio modura. Hala ere, (1)ean ikus daiteke *jaurti* horretarako Euskaltzaindiak emandako definizioa hartu dugula, tautologia saiheste aldera. Hala jokatu dugu oso maiz, betiere *urrundu* edo *zehaztu* bezalakoak definitzeko unean, “distantzia handira joan” edo “gutxi gorabehera ez dena eman” bezalako definizioak eta parafraasiak erabili eta “urrun joan” edo “zehatz eman” tautologiak saihestuz.

Edonola, irudizko adierak ere eskaintzen ditu Euskaltzaindiak, eta guk geuk, izenen azpiklaseak erantsiko dizkiegu definizioei:

## (2) “Ahoz esan edo kantatu”.

- a Musika bidez gauzatzen diren soinuen izenak  
*bertsoak, doinuak, errima, ... bota*
- b Komunikazio-jardueretako ekintza/ondorio izenak  
*sermoia, enbidia, erdarakadak, erretolika, errieta, galdera, hitzaldia, irainak, mehatxua, ... bota*

Zenbaitetan Euskaltzaindiak ez ditu egungo erabilera batzuk zehaztu. Horrelakoetan, adiera fisikotik irudizko adierarako aldaketaren berri eman-gu dugu, gezia (→) eta komatxo bakunak (‘ ’) erabiliz:

## (3) Isuri fisiologikoen gai-izenak

- arnasa, gasa, hasperena, haizea, izerdia, listua, listukada, malkoak, odola, ... bota*
- ‘jaurti’ => ‘kanpora eraman’.

### 2.3.4. *Egungo Euskararen Hiztegia (EEH)*

Ibon Sarasolaren *Egungo Euskararen Hiztegia* ere erabili dugu, batez ere bertako adibideetan oinarrituta nolabaiteko izen klase berriak sortzeko, eta hainbatetan bertan ematen diren izena/aditza kolokazioak geureganatzeko.

## 3. **Izena/aditza kolokazioak, irudizko adieren arabera eta izenen azpiklaseen arabera sailkatuta**

Sail honetan irudizko adiera hartzen duten izena/aditza kolokazio lexi-koen deskripzioari utsiko diogu. Irakurleak kontuan hartu behar du aurreko ataletan aipatu diren aditz eta izen azpiklase guztiak aztertu direla lan honen oinarrian dagoen ikerlanean, baina artikulua honen tamaina-mugak direla eta, izen gutxi batzuk eta aditz guztietatik irudizko adiera deigarriena hartzen dutenak baizik ez direla hemen azalduko: sorkuntza (→§3.1), deuseztapena (→§3.2), betekizuna (→§3.3), areagotzea (→§3.4) eta txikiagotzea (→§3.5).

### 3.1. **Sorkuntzaren irudiak**

Haiekin elkartzen diren izenen arabera, sorkuntza adieraz dezakete gutxienez *astindu*, *atera*, *bildu*, *bota*, *eskuratu*, *etorri* eta *jaso* mugimendu-aditzek (→§3.1.1). *Astindu* aditza deuseztapenaren (→§3.2.1) eta areagotzearen (→§3.4.1) ikuspegitik aztertuko dugu. Era berean, sorkuntza adieraz dezakete gutxienez *aitortu*, *aurkeztu* eta *eskaini* hizkuntz komunikazioko aditzek (→§3.1.2).

#### 3.1.1. *Mugimendua sorkuntzaren irudia*

##### (1) *Bota.udi*

Mugimendu-aditzek objektutzat jo daitezkeen izaki batzuen hutsetiko sorkuntza adieraz dezakete (1), eta nolabaiteko isla fisikoa duten beste hainbat izakiren hutsetiko sorkuntza ere (2):



- (1) Kulturako eta hedabideetako produktuen izenak.  
 ~ *bilduma, diskoa, liburua,...* atera “tokitik at ezarri/joan” → ‘argitaratu’.
- (2) a Administrazioko ekintza edota ondorio (idatzi)en izenak.  
 ~ *agiria, gidabaimena, karneta, titulua,...* atera “tokitik at ezarri/joan” → ‘lortu’.  
 ~ *akreditazioa, ziurtagiria,...* eskuratu “eskura eman/bere egin” → ‘lortu’.
- b Politikako izenak.  
 ~ *askatasuna, hiritartasuna,...* eskuratu “eskura eman/bere egin” → ‘lortu’.

Entzumen bidez atzeman daitezkeen soinuen hutsetiko sorkuntza ere adieraz dezakete:

- (3) a Soinu-izenak.  
 ~ *garrasia, zalaparta, zarata,...* atera “tokitik at ezarri/joan” → ‘sortu’.
- b Musika bidez gauzaten diren soinuen izenak.  
 ~ *bertsoak, doinuak, errima,...* bota “jaurti” → ‘ahoz esan edo kantatu’.
- c Hizkuntz komunikazioko izenak.  
 ~ *erdarakadak, errieta, irainak,...* bota “jaurti” → ‘ahoz esan edo kantatu’.
- d Ahozko zarata fisiologikoen soinu-izenak.  
 ~ *deiadarra, garrasiak, irrintzia, oihua,...* bota “jaurti” → ‘egin’.
- e Zarata fisiologikoen soinu-izenak.  
 ~ *korroskada, purrestada, puzkerra, txistukada,...* bota “jaurti” → ‘egin’.

Hizkuntzen jabekuntza ere adieraz dezakete:

- (4) Hizkuntzen eta hizkuntz esparruen izenak.  
 ~ *euskara, finlandiera,...* eskuratu “eskura eman/bere egin” → ‘ikasi’.

Oso maiz adierazten dute nola edo halako ekintzen edota ondorioen sorkuntza:

- (5) a Prozesu fisiologikoen izenak.  
 ~*ikusmena, immunitatea, konortea,...* *eskuratu* “eskura eman/bere egin” → ‘onera itzuli, lortu’.  
 ~*extula, goragale, hilerokoa, logura, negargura,...* *etorri* “bertaratu” → ‘eragin’.
- b Mugimenduzko ekintzen izenak.  
 ~*besarkada, eztenkada, harrikada, ostikada, zirikada,...* *bota* “jaurti” → ‘eman’.
- c Onuragarritzat jotzen diren ekintzen edota ondorioen izenak.  
 ~*auzolana, bedeinkapena, erromeria,...* *eskuratu* “eskura eman/bere egin” → ‘(berriz) lortu’.
- d Errepikagarriak diren ekintzen izenak.  
 ~*errittoa, ohitura, tradizioa,...* *etorri* “bertaratu” → ‘(nonbait) jatorria izan’.
- e Ekintzen edota ondorioen izenak.  
 ~*berrikuntza, hondamendia, murrizketa,...* *etorri* “bertaratu” → ‘egin/gertatu’.
- f Ekintzek ematen dituzten ondorio (idatzi)en izenak.  
 ~*ekarpenak, proposamenak, sinadurak,...* *bildu* “elkartu” → ‘eskatu eta hartu’.

Berdin adierazten dute bai abstraktutzat jo daitezkeen izakien hutsetiko sorkuntza (9), bai eta abstraktu hutsak diren izakien sorkuntza ere (10):

- (6) Administrazioeko eta politikako postuen izenak.  
 ~*katedra, lehendakaritza,...* *eskuratu* “eskura eman/bere egin” → ‘lortu’.
- (7) a Psikologiako edota adimenezko izenak.  
 ~*irudimena, kontzientzia,...* *astindu* “higidura bortitzez eragin” → ‘sortu/areagotu’.  
 ~*adorea, ausardia, kemena, pazientzia,...* *bildu* “elkartu” → ‘lortu’.
- b Izen abstraktuak.  
 ~*lehiakortasuna, sinesgarritasuna,...* *eskuratu* “eskura eman/bere egin” → ‘lortu’.

### 3.1.2. *Hizkuntz komunikazioa sorkuntzaren irudi*

Hizkuntz komunikazioko aditzek performazioa adierazten duten kasuetan, abstraktutat jo daitezkeen izakien sorkuntza adieraz dezakete, zeren eta komunikazioaren unean bertan sortzen baitira izaki horiek. Hala gertatzen da, nolabaiteko isla fisikoa duten hainbat izakiren kasuan (1), bai eta izaki abstraktu huts batzuen kasuan ere (2):

- (1) a Zuzenbideko prozedurek ematen dituzten ondorio (idatzi)en izenak.  
~*helegitea, salaketa,...* *aurkeztu* “norbaiten eskuko jarri” → ‘prozedurari jarraitu’.
- b Politikako izenak.  
~*askatasuna, burujabetasuna, hiritartasuna,...* *aitortu* “ontzat eman” → ‘eman’.
- c Prospekzio-izenak.  
~*aukera, bidea, sarbidea,...* *eskaini* “norbaiten eskuko jarri” → ‘eman’.
- (2) a Adeitasun-izenak.  
~*arreta, kontsolamendua, laguntza,...* *eskaini* “norbaiten eskuko jarri” → ‘eman’.
- b Onuragarritzat har daitezkeen adigaien izen abstraktuak.  
~*gardentasuna, ziurtasuna,...* *eskaini* “norbaiten eskuko jarri” → ‘eman’.

### 3.2. **Deuseztapenaren irudiak**

Haiekin elkartzen diren izenen arabera, deuseztapena adieraz dezakete gutxienez *alboratu*, *baztertu*, *gainditu*, *urrundu* eta *zokoratu* mugimendu-aditzek (→§3.2.1). Horiekin batera aztertuko ditugu *saihestu* eta *uxatu* aditzak. *Astindu* aditzak ere deuseztapena adierazten du hainbatetan. Era berean, deuseztapena adierazten dute gutxienez *agortu*, *ito* eta *itzali* aldaketa-aditzek (→§3.2.2).

3.2.1. *Mugimendua deuseztapenaren irudi*

Mugimendu-aditzek izaki konkretu jakin batzuk komunikazio-egoeratik kanpo uzten direla adierazten dute hainbatetan:

- (1) Irakurketa generikoko edo espezifikoko giza izenak.  
 ~*emakumeak, homosexualak, jendartea,...* *baztertu* “aldaratu” → ‘gaitzetsi’.  
 ~*abertzaleak, ama, gazteak, jendea,...* *zokoratu* “zokoan utzi” → ‘gaitzetsi’.

Hizkuntzen edo hizkuntz kontuen desagerpena edo deuseztapena ere adieraz dezakete:

- (2) a Hizkuntz komunikazioko izenak.  
 ~*iraina, zurrumurrua,...* *alboratu* “albora egin” → ‘erabiltzeari utzi, kontuan ez hartu’.  
 ~*erdarakadak, esamesak,...* *baztertu* “aldaratu” → ‘erabiltzeari utzi’.  
 ~*esamesa, madarikazioa, zurrumurrua,...* *uxatu* “ihes eragin” → ‘deuseztatu’.
- b Hizkuntzen eta hizkuntz esparruen izenak.  
 ~*dialektoa, gaztelania, hizkuntza,...* *alboratu* “albora egin” → ‘erabiltzeari utzi’.  
 ~*euskara, gaztelania,...* *baztertu* “aldaratu” → ‘erabiltzeari utzi’.  
 ~*euskara, gaztelania, latina,...* *zokoratu* “zokoan utzi” → ‘erabiltzeari utzi’.

Nolabaiteko isla fisikoa duten beste hainbat izakiren deuseztapena adieraz dezakete:

- (3) a Zuzenbideko prozedurek ematen dituzten ondorio (idatzi)en izenak.  
 ~*eskakizuna, helegitea,...* *baztertu* “aldaratu” → ‘kontuan ez hartu’.
- b Prospekzio-izenak.  
 ~*estrategia, proposamena,...* *alboratu* “albora egin” → ‘ez erabili’.

Nola edo halako ekintzen edota ondorioen desagerpena ere adieraz dezakete:

- (4) a Prozesu fisiologikoen izenak.  
 ~*logura, nekea,...* *astindu* → ‘deuseztatu’.

~amesgai<sup>z</sup>toa, hotza, irria, loa, nekea,... uxatu “ihes eragin” → ‘deuseztatu’.

b Medikuntzako fisiologia-izenak.

~ahulezia, ajea, minbizia, ondoeza, zorabioa,... gainditu “atzean utzi” → ‘desagertu’.

~eritasuna, eromena, tentsioa, zotina,... uxatu “ihes eragin” → ‘sendatu’.

c (Txartzat jo daitezkeen) ekintzen edota ondorioen izenak.

~ekimena, eztabaida, iraultza,... alboratu “albora egin” → ‘egiteari utzi, ez egin’.

d ~erabilera, eskaera,... baztertu “aldaratu” → ‘ez egin’.

~blokeoa, gatazka, haustura,... gainditu “atzean utzi” → ‘deuseztatu’.

~ekintza, laguntza, liskarra, salaketa,... uxatu “ihes eragin” → “egiten ez utzi”.

~eztabaida, ikerketa, jarrera,... zokoratu → ‘egiteari utzi’.

Maiz adierazten dute abstraktu hutsak diren izaki batzuen deuseztapena:

(5) a Psikologiako edota adimenezko izenak.

~ametsa, beldurra, gorrotoa, kezka,... alboratu “albora egin” → ‘sentitzeari utzi’.

~erresumina, gorrotoa, gozamina,... baztertu “aldaratu” → ‘sentitzeari utzi’.

~dolua, gorrotoa, harridura, haserrea,... gainditu “atzean utzi” → ‘deuseztatu’.

~buruhaustea, erantzukizuna,... saihestu “fisikoki itzurtzeko eran aritu” → ‘ezabatu’.

~alaitasuna, bakardadea, beldurra, maitasuna,... uxatu “ihes eragin” → ‘deuseztatu’.

b Txartzat jo daitezkeen adigaien izen abstraktuak edota ekintzen edota ondorioen izenak.

~alderdikeria, gehiegikeria, indarkeria,... alboratu “albora egin” → ‘egiteari utzi’.

~berekoikeria, indarkeria,... baztertu “aldaratu” → ‘egiteari utzi’.

~bortizkeria, hertsikeria, zorroztasuna,... gainditu “atzean utzi” → ‘deuseztatu’.

- ~*arriskua, bikoiztasuna, estereotipoak, menpekotasuna, tentazioa,...*  
*saihestu* “fisikoki itzurtzeko eran aritu” → ‘deuseztatu’.
- ~*ankerkeriatik, indarkeriatik,...* *urrundu* “distantzia handira joan/  
 eraman” → ‘deuseztatu’.
- c Ustez konpontzeko dauden adimen-ondorioen izenak
- ~*antropozentrismoa, zalantza,...* *alboratu* “albora egin” → ‘kontuan  
 ez hartu, gaitzetsi’.
- ~*aurreiritziak, mamuak,...* *astindu* “higidura bortitzez eragin” →  
 ‘deuseztatu’.
- ~*aurreiritzia, ustekabea, zalantza,...* *gainditu* “atzean utzi” → ‘deu-  
 seztatu’.
- ~*aitzakia, aurreiritzia, zalantza,...* *uxatu* “ihes eragin” → ‘deuseztatu’.
- d Adimenezko ondorioen izenak.
- ~*hipotesia, zalantza,...* *alboratu* “albora egin” → ‘kontuan ez har-  
 tu, gaitzetsi’.
- ~*argudioa, aukera, asmoa, ideia,...* *baztertu* “aldaratu” → ‘ez hartu  
 kontuan’.
- ~*aurreiritzia, ustekabea,...* *gainditu* “atzean utzi” → ‘deuseztatu’.
- ~*ezagutzatik, ikusmoldetik, ikuspegitik,...* *urrundu* → ‘gaitzetsi’.
- ~*pentsamendua, susmoa, zalantza,...* *uxatu* “ihes eragin” → ‘deu-  
 seztatu’.
- e Adeitasun-izenak.
- ~*sinesgarritasuna, zilegitasuna,...* *kendu* “tokitik mugitu” → ‘gabe-  
 tua utzi’.
- ~*kidetasuna, leialtasuna,...* *utzi* “ez itzultzekotan urrundu” →
- f Izen abstraktuak.
- ~*adiskidetasuna, harrotasuna,...* *alboratu* “albora egin” → ‘senti-  
 tzeari utzi’.
- g Izen abstraktuak edota ekintzen edota ondorioen izenak.
- ~ *hipokrisia, sentipena,...* *baztertu* “albora egin” → ‘egiteari utzi’.

3.2.2. *Aldaketa fisikoa deuseztapenaren irudi*

Osagarriaren edo subjektuaren gainean nolabaiteko aldaketa adierazten duten aditz hauek, izaki konkretuen deuseztapena edo bukaera adieraz dezakete:

- (1) a Masa-izenak.  
~*energia, erregaia, gatzia, hornigaia,...* agortu “urik gabe gelditu/utzi” → ‘bukatu’.
- b Gaien eta bestelakoen masa-izenak.  
~*ikatzia, oxigenoa,...* agortu “urik gabe gelditu/utzi” → ‘bukatu’.
- c Diru modura adierazi ohi diren onuren izenak.  
~*dirua, kaudimena, kreditua, saldoa,...* agortu → ‘bukatu’.
- d Kultur produktuen izenak.  
~*diskoa, liburua,...* agortu “urik gabe gelditu/utzi” → ‘guztiak saldu’.
- e Salgai jartzen diren objektuen izenak.  
~*kamisetak, sarrerak,...* agortu “urik gabe gelditu/utzi” → ‘guztiak saldu’.
- f Bizidun taldeen izenak.  
~*espezia, leinua,...* agortu “urik gabe gelditu/utzi” → ‘suntsitu’.  
~*arrazia, espezia, basoa, biodibertsitatea,...* galdu “gabetua gertatu” → ‘suntsitu’.

Izen konkretu jakin batzuekin batera, metonimia bat gauzatzen da maiz, nolabaiteko deuseztapenetik hurbil. Izan ere, ‘edukitzailea bukatu’ esaten da hitzez hitz, baina ‘edukia bukatu’ adiera sumatzen da:

- (2) a Edukitzaileen objektu-izenak.  
~*bateria, pila,...* agortu “urik gabe gelditu/utzi” → ‘barnean duten gaia bukatu’.
- b Tokien eta eraikinen izenak.  
~*harrobia, meategia,...* agortu “urik gabe gelditu/utzi” → ‘bere baitan duten gaia bukatu’.
- c (Azpi)multzoen izenak.  
~*ilara, lerroa, zerrenda,...* agortu “urik gabe gelditu/utzi” → ‘bere osagaiak bukatu’.

Denbora-zehaztapenen berri ematen da batzuetan, bai nolabaiteko isla fisikoa duten izaki batzuen inguruan (3a-b), bai eta denbora-epeak berak hizpide hartuta ere (3c):

- (3) a Zuzenbideko prozedurek ematen dituzten ondorio (idatzi)en izenak.  
 ~*baimena, lizentzia, ... agortu* “urik gabe gelditu/utzi” → ‘bere indarraldia bukatu’.
- b Administrazioeko ekintza edota ondorio (idatzi)en izenak.  
 ~*ituna, konstituzioa, ... agortu* “urik gabe gelditu/utzi” → ‘bere indarraldia bukatu’.
- c Denbora-izenak.  
 ~*astebetea, astia, denbora, haurtzaroa, urtebetea, ... galdu, gabetua gertatu* → ‘igarotzen alferrik utzi’.

Entzumen bidez atzeman daitezkeen soinuen deuseztapena ere adieraz dezakete:

- (4) a Ahozko zarata fisiologikoen soinu-izenak  
 ~*garrasia, oihartzuna, oihua, ... ito* “arnasa hartzea eragotzirik hil/erail” → ‘isildu’.
- b Soinu-izenak.  
 ~*zarata, zurrunbiloa, ... ito* “arnasa hartzea eragotzirik hil/erail” → ‘isildu’.  
 ~*musika, oihartzuna, soinua, zalaparta, ... itzali* “erretzetik gelditu” → ‘gelditu’.

Nola edo halako ekintzen edota ondorioen desagertapena adierazten dute batzuetan:

- (4) a Prozesu fisiologikoen izenak.  
 ~*egarria, barrea, hasperena, ... ito* “arnasa hartzea eragotzirik hil/erail” → ‘deuseztatu’.
- b Ekintzen edota ondorioen izenak.  
 ~*bilaketa, elkarrizketa, ibilbidea, ... agortu* “urik gabe gelditu/utzi” → ‘bukatu’.  
 ~*ekimena, hazkundea, ... ito* “arnasa hartzea eragotzirik hil/erail” → ‘geldiarazi’.  
 ~*altxamendua, matxinada, ... itzali* “erretzetik gelditu” → ‘gelditu’.



Antzera gertatzen da izen abstraktuen esparruan:

- (5) a Psikologiako edota adimenezko izenak.  
 ~ *irudimena, kementa, maitasuna, ... agortu* “urik gabe gelditu/utzi”  
 → ‘bukatu’.  
 ~ *ernegua, etsipena, ... ito* “arnasa hartzea eragotzirik hil/erail” →  
 ‘deuseztatu’.  
 ~ *ardura, grina, maitasuna, ... itzali* “erretzetik gelditu” → ‘deu-  
 seztatu’.
- b Adimenezko ondorioen izenak.  
*argudioa, asmoa, ... agortu* “urik gabe gelditu/utzi” → ‘erabat erabi-  
 lita bukatu’.
- c Izen abstraktuak.  
 ~ *arrakasta, lehiakortasuna, ... ito* “arnasa hartzea eragotzirik hil/  
 erail” → ‘deuseztatu’.

### 3.3. Betekizunaren irudiak

Betekizuna delako honek azalpen berezia behar du. Berez, esparru honetan, izaki abstraktu bat izaki konkretu batean gauzatzen da gerta-kariaren unean bertan: *bikotekidea aurkitu* edo *enbaxadorea egotzi* esaten dugunean, gizaki bat aurkitzen/egozten den unean bilakatzen da *bikotekide/enbaxadore*, baina zer esanik ez, kontuan hartu beharrekoa da gizakia ez dela une horretan sortzen; *prozedura bideratu* esaten dugunean ere, prozedura hori bideratzean gauzatzen dugu benetako prozedura fisikoki, baina ezin esan daiteke aurretik sortu gabe zegoenik dena delako prozedura hori.

Haiekin elkartzan diren izenen arabera, betekizuna adieraz dezakete gutxienez *kaleratu*, *plazaratu* eta *egotzi* mugimendu-aditzek (→§3.3.1). Horiekin batera aztertuko ditugu *aurkeztu*, *ezkutatu* eta *jaso* aditzak ere. Era berean, betekizuna adieraz dezakete gutxienez *bete* eta *finkatu* aldaketa fisikoko aditzek. Horiekin batera aztertuko ditugu, era berean *eutsi*, *jasan* eta *jorratu* aditzak ere (→§3.3.2).

3.3.1. *Mugimendua betekizunaren irudi*

Mugimendu-aditzek, hainbatetan, gauzatu egiten dute izaki abstraktu bat, izenak adierazten duen izaki konkretuaren gainean:

- (1) Irakurketa espezifikoko giza izenak.

~*bikotekidea, eroslea, ... aurkitu* “non den jakin” → ‘lortu’.

(Erabat) abstraktutzat ezin jo daitezkeen beste hauekin ere antzerako zerbait gertatzen da: edizio bat, kaleratzen den unean bertan bilakatzen da zinez edizio (2a); egotzi arte, irain bat ez da gertatzen (2b); azpijokoa, ezkutatu egiten den bitartean da azpijoko (2c).

- (2) a Kulturako eta hedabideetako produktuen izenak.

~ *edizioa, egunkaria, ... kaleratu* “kalera eraman/joan” → ‘jendar-tean jarri’.

~ *aldizkaria, alea, astekaria, egunkaria, idazlana, lana, liburua, bildu-ma, ... plazaratu* “plazara eraman” → ‘jendar-tean jarri’.

- b Hizkuntz komunikazioko izenak.

*biraoak, iraina, ... egotzi* “bidali” → ‘esan’.

- c Txartzat jo daitezkeen ekintzen edota ondorioen izenak.

~ *azpijokoa, engainua, ... ezkutatu* “ageritik kendu” → ‘jakitera ez eman’.

*Jaso* aditzak askoz ere adiera sorta zabalagoa adieraz dezake, baina hainbatetan hurbil dabil betekizunetik: agian onar liteke *jaso* arte sari bat ez dela sari gisa gauzatzen (3a), edo gorazarrea *jaso* egin behar dela gorazarre izateko (3b). Hala ere, garbi dago izen azpiklase hauek betekizuna baino askoz ere adiera sorta zabalagoa adierazten dutela:

- (3) a Sari-izenak eta asmo onez emandako objektuen izenak.

*domina, garaikurra, intsignia, kondekorazioa, oparia, oroigarria, saria, ... jaso* “goratu” → ‘hartu’.

- b Hizkuntz komunikazioko izenak.

*abisua, agindua, aldarria, albistea, aholkua, berri(a), deia, erantzuna, errieta, eskaera, erantzuna, gomendioa, gorazarrea, laudorioa, mehatxua, ... jaso* “goratu” → ‘hartu’.

Betekizuna hainbat izen abstrakturekin batera ere gauzatzen da:

- (4) Izen abstraktuak.  
 ~*misterioa, sekretua, ... ezkutatu* “ageritik kendu” → ‘jakitera ez eman’.

### 3.3.2. *Aldaketa fisikoa betekizunaren irudi*

Noizean behin aditz hauek betekizuna adierazten dute, esangurak oro har askoz ere esparru zabalagokoak badira ere.

Denbora-epeen gauzatzea adierazten da batzuetan:

- (1) a Denbora-izenak.  
 ~*astea, epea, epemuga, urteak, ... bete* “zeharo hartu” → ‘ahitu’.  
 b Administrazio eta Zuzenbideko denbora-izenak.  
 ~*espetzealdia, legegintzaldia, soldadutza, ... bete* “zeharo hartu” → ‘ahitu’.  
 c Zuzenbideko prozedurek ematen dituzten ondorio (idatzi)en izenak.  
 ~*zigorra, ... bete* → ‘ezarritakoa egin’.

(Erabat) abstraktutzat ezin jo daitezkeen izenen esparruan gertatzen da noizean behin:

- (2) a Tokien eta eraikinen izenak.  
 ~*bizilekua, egoitza, ... finkatu* “eusteko moduan ezarri” → ‘iraunkortasunez ezarri’.  
 b Nolabaiteko ezaugarri txarra duten tokien izenak.  
 ~*erbestea, ... jasan* “eutsi” → ‘eraman’.  
 c Medikuntzako fisiologia-izenak.  
 ~*minbizia, zauria, zorabioa, ... jasan* “eutsi” → ‘eraman’.  
 d Beste zientzia eta teknika esparru berezituetakoko izenak.  
 ~*hartzidura, marruskadura, higadura, ... jasan* “eutsi” → ‘gertatu’.  
 e Ekintzen edota ondorioen izenak.  
 ~*gatazka, lankidetzeta, ... jorratu* “lurra harrotu” → ‘jardun’.

### 3.4. Areagotzearen irudiak

Haiekin elkartzen diren izenen arabera, areagotzea adieraz dezakete gutxienez *akuilatu*, *bultzatu* eta *zirikatu* mugimendu-aditzek (→§4.1). Horiekin batera aztertuko dugu *astindu* aditza ere. Era berean, areagotzea adieraz dezakete gutxienez *estutu*, *korapilatu*, *zurrundu*, *zorroztu* aldaketa-aditzek (→§4.2). Horiekin batera aztertuko ditugu *garatu* eta *zabaldu* aditzak ere.

#### 3.4.1. Mugimendua areagotzearen irudi

Erabat abstraktuak ez diren izen batzuekin batera areagotzea adierazten da nabarmen:

- (1) a Hizkuntzen eta hizkuntz esparruen izenak  
 ~*euskara*, *bizkaiera*, *galesera*,... *bultzatu* “higitzera behartu” → ‘erabilera areagotu’.
- b Ekintzen edota ondorioen izenak.  
 ~*elkarrizketa*, *exTABAIDA*, *lehia*, *prozesua*,... *akuilatu* “ziztatu” → ‘eragin, areagotu’.  
 ~*aldaketa*, *elkarrizketa*, *ekimena*, *bultzatu* “higitzera behartu” → ‘sortu, areagotu’.
- c Onuragarritzat jotzen diren ekintzen edota ondorioen izenak.  
 ~*bertsolaritza*, *exTABAIDA*,... *astindu* “higidura bortitzez eragin” → ‘areagotu, erabili’.

Izen abstraktuekin ere areagotzea adierazten da hainbatetan:

- (2) a Psikologiako edota adimenezko izenak.  
 ~*adimena*, *desira*,...*akuilatu* → ‘eragin, areagotu’.  
 ~ *sentiPENa*, *sormena*, *zIRRARA*,...*bultzatu* “higitzera behartu” → ‘sortu, areagotu’.  
 ~*gogoa*, *ikusmina*, *irudimena*, *jakingura*,...*zirikatu* “ziztatu” → ‘eragin, areagotu’.
- b Adimenezko ondorioen izenak.  
 ~*ideiak*, *pentSAMENDUA*,...*astindu* “higidura bortitzez eragin” → ‘era ez fisikoan larriki eragin/sortu’.

3.4.2. *Aldaketa fisikoa areagotzearen irudi*

(Erabat) abstraktuak ez diren izen batzuekin batera areagotzea edo handitzea adierazten da:

- (1) a Irudi bidezko sentipena edota adimena adierazten duten gorputz-atalen, gorputz-zatien eta gorputz-organoen izenak.  
~*aurpegia, begitartea, expaina, ... zurrundu* “tolesteko edo bihurtzeko ezintasunera iritsi” → ‘sentipen txarra adierazi’.
- b Zentzumenezko prozesu fisiologikoen izenak.  
~*entzumena, ikusmena, usaimena, ... zorroztu* “punta meheagoa jarri” → ‘ahalmen handiagoko zentzumena lortu’.
- c Zentzumenezko gorputz-atalen, gorputz-zatien eta gorputz-organoen izenak.  
~*begia, belarria, ... zorroztu* “punta meheagoa jarri” → ‘ahalmen handiagoko zentzumena lortu’.
- d Ekintzen edota ondorioen izenak.  
~*borroka, eztabaida, gatazka, ... korapilatu* “bi mutur lotu” → ‘handitu’.
- e Ekintza-izenak.  
~ *azterketa, bilaketa, jarduna, zainketa, ... zorroztu* “punta meheagoa jarri” → ‘findu’.  
~ *merkatua, jokia, ... zurrundu* “tolesteko edo bihurtzeko ezintasunera iritsi” → ‘ezaugarri txarra areagotu’.

Izen abstraktuekin ere areagotzea adierazten da hainbatetan:

- (2) a Psikologiako edota adimenezko izenak.  
~*memoria, presioa, ... estutu* “tinkoagoa egin” → ‘handitu’.  
~*adimena, arreta, asmamena, ... zorroztu* “hedadura handiagoa egin” → ‘handitu’.
- b Adimenezko ondorioen izenak.  
~*argudioa, gogoeta irizpidea, ... zorroztu* “punta meheagoa jarri” → ‘findu’.
- c Izen abstraktuak  
~*nortasuna, trebetasuna, ... garatu* “gara egin” → ‘handitu’.

~*adostasuna, zaletasuna, ... zabaldu* “hedadura handiagoa egin” → ‘kide gehiagori iritsi’.

### 3.5. Txikiagotzearen irudiak

Haiekin elkartzen diren izenen arabera, txikiagotzea adieraz dezakete gutxienez *arindu* eta *leundu* aldaketa-aditzek (→§3.5.1), eta gutxienez hizkuntz komunikazioko *mugatu* aditzak ere (→§3.5.2).

#### 3.5.1. Aldaketa fisikoa txikiagotzearen irudi

(Erabat) fisikoak ez diren izen batzuekin batera, areagotzea adierazten dute aditz hauek maiz:

- (1) a Gorputz-atalen, gorputz-zatien eta gorputz-adarren izenak.  
~*hanka, sabela, ... arindu* “zama kendu” → ‘egoera fisiologikoa hobetu’.
- b Tokien eta eraikinen izenak.  
~*aldapa, bidea, ... leundu* “amore gehiago emateko moduan jarri” → ‘errazago jarri’.
- c Soinu-izenak.  
~*ahotsa, doinua, tonua, zarata, ... leundu* “amore gehiago emateko moduan jarri” → ‘zentzumenentzat atseginago egin’.
- d Itxuraren masa-izenak.  
~*forma, irudia, itxura, ... leundu* “amore gehiago emateko moduan jarri” → ‘zentzumenentzat atseginago egin’.
- e Meteorologiako izenak.  
~*beroa, euria, klima, negua, ... leundu* “amore gehiago emateko moduan jarri” → ‘zentzumenentzat atseginago egin’.
- f Medikuntzako fisiologia-izenak.  
~*azkura, zorabioa, ... arindu* “zama kendu” → ‘egoera fisiologikoa hobetu’.
- g Hizkuntz komunikazioko izenak.  
~*diskurtsua, hitzaldia, hitzak, hizkuntza, mezua, ... leundu* “amore gutxiago emateko moduan jarri” → ‘hizketa atseginagoa egin’.

- h Zuzenbideko izenak.  
 ~*espetxea, pena, zigorra, ... arindu* “zama kendu” → ‘egoera fisiologikoa hobetu’.
- i Zuzenbideko prozedurek ematen dituzten ondorio (idatzi)en izenak.  
 ~*ebazpena, espetxealdia, legea, zigorra, ... leundu* “amore gutxiago emateko moduan jarri” → ‘larritasuna txikitu’.
- j Administrazioeko eta zuzenbideko denbora-izenak.  
 ~*espetxealdi, zigorraldia, ... arindu* “zama kendu” → ‘laburtu’.
- k Administrazioeko ekintza edota ondorio (idatzien) izenak.  
 ~*araua, araudia, eskaera, eskakizuna, neurriak, zergak, ... leundu* “amore gutxiago emateko moduan jarri” → ‘larritasuna txikitu’.
- l Ekintzen edota ondorioen izenak.  
 ~*gatazka, negoziazioa, prozedura, ... arindu* ‘zama kendu’ → ‘erraztu’.  
 ~*borroka, eragozpena, leherketa, jipoia, zimurdura, ... leundu* “amore gutxiago emateko moduan jarri” → ‘larritasuna kendu’.
- m Prospekzio-izenak.  
 ~*proposamena, prozedura, ... leundu* “amore gutxiago emateko moduan jarri” → ‘larritasuna kendu’.
- n Irudi bidezko sentipena edota adimena adierazten duten gorputz-atalen, gorputz-zatien eta gorputz-organoen izenak.  
 ~*aurpegiera, kopeta, ... leundu* → ‘aldarte adeitsuagoa adierazi’.

Izen abstraktu batzuekin batera ere areagotzea adierazten dute:

- (2) a Psikologiako edo adimenezko izenak.  
 ~*damua, kezka, tristura, ... arindu* “zama kendu” → ‘egoera psikologikoa hobetu’.  
 ~*atsekabea, egonezina, kezka, urduritasuna, ... leundu* “amore gutxiago emateko moduan jarri” → ‘txikitu’.
- b Izen abstraktuak.  
 ~*larritasuna, menpekotasuna, ... arindu* → ‘gutxitu’.  
 ~*izaera, kontraesana, laztasuna, zailtasuna, zorrotasuna, ... leundu* “amore gutxiago emateko moduan jarri” → ‘txikitu’.

### 3.5.2. Hizkuntz komunikazioa txikiagotzearen irudi

*Mugatu* aditza komunikaziotzat jo daiteke, eta (erabat) abstraktuak ez diren izenekin batera txikiagotzea adierazten du:

- (1) a Gaien eta bestelakoen masa-izenak.  
~*gantza, plastikoa, ... mugatu* “kopurua ezarri” → ‘txikitu’.
- b Zentzumenezko prozesu fisiologikoen izenak  
~*bereizmena, ikusmena, zentzumena, ... mugatu* “kopurua ezarri” → ‘txikitu’.

Erabat abstraktuak diren izen batzuekin batera ere txikiagotzea adierazten du:

- (2) Adimenezko ondorioen izenak.  
~*ikusmoldea, ikuspuntua, pentsamendua, ... mugatu* “kopurua ezarri” → ‘doitu’.  
~*azalpena, irizpidea, ... zehaztu* “doi adierazi” → ‘hobetu’.

## Bibliografia

ALDAI, G. (2002). *The grammaticalization of present and past in Basque*. Philosophical Dissertation. University of Southern California.

ALDEZABAL, I. (2002). *Azpkategorizazioaren azterketa sintaxi partzialetik sintaxi osorako bidean*. Doktorego tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

ALONSO RAMOS, M. (2010). «No importa si la llamas colocación o no, descríbela». Mellado, C. et al. (eds.). *Nuevas propuestas para el español y el alemán*. Frank & Timme, Berlin: 55-80.

——— (2017). «Can collocations be deduced? A lexically-driven analysis from the perspective of language production», *Collocations and other lexical combinations in Spanish. Theoretical and Applied Approaches*. S. Torner & E. Bernal (eds.): 22-37.

ALTZIBAR, X. & ODRIEZOLA, A. (2013). «Kolokazioak: OEH eta egungo erabilerak». *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*. Gasteiz: 23-40.

ARTIAGOITIA, X. (2000). *Hatsarreak eta parametroak*. Euskal Herriko Unibertsitatea eta Arabako Foru Aldundia.



BOSQUE, I. (2002). *Redes. Diccionario combinatorio del español contemporáneo*. Ediciones SM, Madrid.

——— (2006). *Redes. Diccionario práctico combinatorio del español contemporáneo*. Ediciones SM, Madrid.

——— (2011). «Deducing collocations», *Proceedings of the 5th International Conference on Meaning-Text Theory*. Barcelona.

——— (2017). «On the conceptual bases of collocations: restricted adverbs and lexical selection», *Collocations and other lexical combinations in Spanish. Theoretical and Applied Approaches*. S. Torner & E. Bernal (eds.): 12-21.

CORPAS, G. (2001a). «Corrientes actuales de la investigación fraseológica en Europa», *Euskera* 46 (1): 21-49.

——— (2001b). «En torno al concepto de colocación», *Euskera* 46 (1): 89-108.

COTELO, R. (2017). «Lexical Combinations in Galician», *Collocations and other lexical combinations in Spanish. Theoretical and Applied Approaches*. S. Torner & E. Bernal (eds.): 254-261.

DE MIGUEL, E. & BATIUKOVA, O. (2017). «Compositional mechanisms in a generative model of the lexicon», *Collocations and other lexical combinations in Spanish. Theoretical and Applied Approaches*. S. Torner & E. Bernal (eds.): 74-91.

EUSKARA INSTITUTUA, EHU. «Hizkuntza ergatiboa», *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, [www.ehu.es/seg/morf/2/1](http://www.ehu.es/seg/morf/2/1).

——— «Hizkuntza eranskaria», *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, [www.ehu.es/seg/morf/2/2](http://www.ehu.es/seg/morf/2/2).

——— «Postposibotasunaz», *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, [www.ehu.es/seg/morf/2/2/1](http://www.ehu.es/seg/morf/2/2/1).

——— «Determinatzailea», *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, [www.ehu.es/seg/morf/5/3](http://www.ehu.es/seg/morf/5/3).

——— «Kasu markak», *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, [www.ehu.es/seg/morf/5/5](http://www.ehu.es/seg/morf/5/5).

——— «Postposizioa eta postposizio-sintagma», *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, [www.ehu.es/seg/morf/5/9](http://www.ehu.es/seg/morf/5/9).

——— «Aditza eta aditz sintagma», *Sareko Euskal Gramatika* (SEG), [www.ehu.eus/seg/morf/5/12](http://www.ehu.eus/seg/morf/5/12).

——— «Adjektibo adberbialak», *Sareko Euskal Gramatika* (SEG), [www.ehu.eus/seg/morf/5/7/2/3](http://www.ehu.eus/seg/morf/5/7/2/3).

GINEBRA, J. (2001). «Sobre sintaxi i fraseologia: els limitis de les unitats fraseològiques verbals», *El discurs prefabricat. Estudis de fraseologia teòrica i aplicada*. V. Salvador, I.A. Piquer (eds.). Castelló, Universitat Jaume I.

——— (2003). «Fraseologia, concurrences lèxiques i llengua estàndar», M.A. Pradilla (ed.). *Identitat lingüística i estandarització*. Valls Cassetània Edicions: 7-55.

——— (2017). «Lexical combinatorics in Catalan», *Collocations and other lexical combinations in Spanish. Theoretical and Applied Approaches*. S. Torner & E. Bernal (eds.): 246-253.

GURRUTXAGA, A. (2014). *Idiomatikotasunaren karakterizazio automatikoa: izena + aditza konbinazioak*. Doktorego tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

IÑURRIETA, U. (2019). *Aditza + izena unitate fraseologikoak gaztelaniatik euskara-ra: azterketa eta tratamendu konputazionala*. Doktorego tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

KOIKE, K. (2001). *Colocaciones léxicas en el español actual: estudio formal y léxico-semántico*. Universidad de Alcalá – Takushoku University. Madrid.

LORENTE, M., MARTÍNEZ SALOM, A. & SANTAMARÍA, I. & VARGAS-SIERRA, C. (2017). «Specialized collocations in specialized dictionaries», *Collocations and other lexical combinations in Spanish. Theoretical and Applied Approaches*. S. Torner & E. Bernal (eds.): 161-178.

MARTÍNEZ SALOM, A. (2012). *Combinacions lèxiques restringides: de les 'col·locacions' a les 'clases lèxiques'*. *Primeres exploracions en llengua catalana*. Master's thesis. Barcelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada - Universitat Pompeu Fabra.

MEL'CUK, I. (1998). «Collocations and lexical functions», in Cowie, A. P. (ed.). *Phraseology. Theory, Analysis, and Applications*. Oxford: Oxford University Press: 23-53.

ODRIOZOLA, J.C. (1999). «Postposizioak EGLUn: egitura motak eta gramatika-kategoriak», *Euskera* 44 (2): 243-265.

——— (2010). *Euskararen aditz-unitate fraseologikoen deskribapena* (eskuizkribua.). University of the Basque Country.

——— (2017). «Metaphors as one of the foundations of Basque collocations», *Collocations and other lexical combinations in Spanish. Theoretical and Applied Approaches*. S. Torner & E. Bernal (eds.): 324-336.

——— & ALTZIBAR, X. (2013). «Basque Complex Predicates and Grammatical Change», *Fontes Linguae Vasconum* 45 (16): 171-189.

——— & ETXEBARRIA, E. (2017). «Hainbat ohar euskararen izen-flexioari buruz», *Euskera* 62 (2): 289-341.

URIZAR, R. (2012). *Euskal Lokuzioen tratamendu konputazionala*. Doktorego tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

VERKUYL, H.J. (1989). «Aspectual classes and aspectual composition», *Linguistics and Philosophy* 12: 39-94.

ZABALA, I. (2004). «Los predicados complejos en vasco», In Pérez-Gaztelu, E.; Zabala, I. & Gràcia, L. (eds.). *Las fronteras de la composición en lenguas románicas y en vasco*. Bilbao. Universidad de Deusto: 445-534.

——— & ODRIOZOLA, J.C. (2004). «Los compuestos posposicionales en vasco», In Pérez-Gaztelu, E.; Zabala, I. & Gràcia, L. (eds.). *Las fronteras de la composición en lenguas románicas y en vasco*. Bilbao. Universidad de Deusto: 282-316.

ZELDES, A. (2012). *Productivity in Argument Selection. From Morphology to Syntax*. Berlin: De Gruyter.



# Irakaskuntza elebiduna Ipar Euskal Herrian: ahulguneak eta indarguneak

La educación bilingüe en el País Vasco Norte: debilidades y fortalezas

L'enseignement bilingue au Pays Basque Nord : faiblesses et forces

Bilingual education in the Northern Basque Country: weaknesses and strengths

URTEAGA, Eguzki  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
Soziologia eta Gizarte Langintza Saila  
University of the Basque Country (UPV / EHU)  
Department of Sociology and Social Work  
eguzki.urteaga@ehu.eus

Noiz jaso: 2022-01-27

Noiz onartua: 2022-03-30

Nahiz eta Konstituzioaren 2. artikulua dioen frantsesa dela Errepublikaren hizkuntza, euskararen eta euskarazko irakaskuntzak hazkunde etengabea ezagutu du azken urteetan Ipar Euskal Herrian. Horri esker, irakaskuntza elebiduneko ikasleen kopuruak hazi dira eta irakaskuntza-eskaintza handitu zein ugartu da denborak aurrera egin ahala. Hazkunde horrek gutxietea komeni ez den hainbat oztopori aurre egin behar izan badie, euskararen eta euskarazko irakaskuntzak indarguneak dauzka, hala nola adostasunak lortzeko gailua, murgiltzearen esperimentazioa irakaskuntza publiko naiz pribatuan, helburu komun baten inguruan batutako hezkuntza eragileak ala martxan jarritako ebaluazio prozedurak.

**Gako-hitzak:** Irakaskuntza elebiduna, ordu parekotasuna, murgiltzea, euskara, Ipar Euskal Herria.

Aunque el artículo 2 de la Constitución establece que el francés es la lengua de la República, la enseñanza del euskera y en euskera ha experimentado un crecimiento constante en

los últimos años en el País Vasco Norte. Como resultado de ello, ha aumentado el número de alumnos en educación bilingüe y la oferta docente ha aumentado y se ha multiplicado con el transcurso del tiempo. Si es verdad que este crecimiento ha tenido que hacer frente a una serie de obstáculos que no deben subestimarse, es igualmente cierto que existen fortalezas en la enseñanza del euskera y en euskera, tales como el que sea una herramienta de construcción de consenso, la experimentación de la inmersión lingüística en la educación pública y privada, o que haya agentes educativos unidos por un objetivo común y procedimientos de evaluación.

**Palabras clave:** Educación bilingüe, paridad, inmersión, euskera, País Vasco Norte.

Bien que l'article 2 de la Constitution stipule que le français est la langue de la République, l'enseignement du basque et en basque a connu un progression constant au cours des dernières années au Pays Basque Nord. Il en résulte que le nombre d'élèves dans l'enseignement bilingue et l'offre d'enseignement ont augmenté et se sont multipliés au cours du temps. S'il est vrai que cette croissance a dû faire face à de nombreux obstacles qu'il ne faut pas sous-estimer, il faut reconnaître que l'enseignement du basque et en basque comporte certaines forces : un instrument d'élaboration de consensus, l'expérimentation de l'immersion linguistique dans l'enseignement public et privé, l'existence d'acteurs de la communauté scolaire unis par un objectif commun et la mise en place de procédures d'évaluation.

**Mots-clés :** Enseignement bilingue, parité, immersion, langue basque, Pays Basque Nord.

Although article 2 of the Constitution establishes that French is the language of the Republic, the teaching of Basque and in Basque has experienced constant growth in recent years in the Northern Basque Country. As a result, the number of students in bilingual education has increased and the teaching offer has increased and multiplied over time. If it is true that this growth has had to face a series of obstacles that should not be underestimated, it is equally true that there are strengths in the teaching of Basque and in Basque, such as the fact that it is a tool for building consensus, the experimentation of linguistic immersion in public and private education, or that there are educational agents united by a common goal and evaluation procedures.

**Keywords:** Bilingual education, parity, immersion, Basque, Northern Basque Country.

URTEAGA, Eguzki (2021). "Bilingual education in the Northern Basque Country: weaknesses and strengths", *Euskera*, 2021, 67: 211-246.

## 1. Sarrera

Ipar Euskal Herrian gertatzen ari den familia zein komunitate transmisioaren atzerakadak ezaugarritzen duen testuinguru soziolinguistiko batean (OPLB, GN eta GB 2017), koofizialtasun-ezaren eta dagokion hizkuntza politika-faltaren ondorioz (Urteaga 2004), euskara-frantsesa irakaskuntza elebiduna eta murgiltzearen bidezko euskararen irakaskuntza erronka nagusiak bilakatu dira euskararen biziraupena eta biziberritzea bermatzeko (Unesco 2010; 2017).<sup>1</sup> Ildo horretan, nahiz eta, 1992az geroztik, frantsesa Errepublikaren hizkuntza izan, Konstituzioaren 2. artikulua dioen bezala (Conseil Constitutionnel 2008), euskararen eta euskarazko irakaskuntzak hazkunde etengabea ezagutu du azken urteetan, izan dadila irakaskuntza publiko, pribatu kristau ala laiko asoziatiboan (Coyos 2010). Horri esker, ordu parekotasun eta murgiltze bidezko irakaskuntza elebidunak, lehen zein bigarren mailetan, hazten joan dira denborak aurrera egin ahala, eta irakaskuntza horren eskaintza handitu bezain ugaitu da denboraren poderioz.

Alabaina, hazkunde horrek gutxieste komeni ez den hainbat oztopori aurre egin behar izan die. Hain zuzen ere, eskola-ibilbidean zehar eta bereziki mailen arteko trantsizio uneetan gertatzen diren abandonuei, erabateko ordu berdintasun-eza gehitu behar zaizkie bigarren mailan, funtsean Etxepareren hizkuntza menperatzen duten irakasle formatuen gabeziarengatik (Añamendi Eusko Entziklopedia 2018). Horri guztiari, giza baliabideen eskasia erantsi behar zaio, batik bat irakaskuntza mailan, eta baita ere euskarazko baliabide didaktiko urriak. Aitzitik, une berean, euskararen eta euskarazko irakaskuntzak indarguneak dauzka, hala nola adostasunak lortzeko dispositibo egonkor bat, murgiltzearen esperimendazioa irakaskuntza publiko nahiz pribatu kristauean, helburu komun baten inguruan batutako hezkuntza eragileak, martxan jarritako ebaluazio eta ziurtatze prozedurak eta batezbestekoa baino emaitza hobekak (Urteaga 2019).

---

<sup>1</sup> Unesco-ren arabera, “hizkuntza bat desagertzeko arriskuan dago bere hiztunek uzten diotelarik erabiltzeari, bere erabilera esparru geroz eta txikiagoetara murrizten denean, bere hizkuntza erregistro eta estiloak geroz eta gutxiago baliatzen dituztenean, ala ondorengo belaunaldiei transmititzen uzten diotelarik” (Unesco 2017).

## 2. Irakaskuntza elebidunaren bilakaera

Hain justu, Ipar Euskal Herrian, historia luze bezain konplexu baten emaitza den irakaskuntza elebidunak hazkunde nabarmena ezagutu du azken urteetan. Hori agerian uzten dute hala ikasle kopuruaren handitzeak nola irakaskuntza eskaintzaren ugartzeak.

### 2.1. Irakaskuntza elebidunaren ezaugarriak

#### 2.1.1. *Irakaskuntza elebidunaren historia laburra*

Euskararen eta euskarazko irakaskuntza ez da XX. mendean hasi, XVII. mendean gerotik jadanik indarrean baitzegoen, nahiz eta, garai hartan, helburu nagusia “euskaraz idatzitako testuak ulertzeko gai diren irakurleak formatzea den, (...) erlijio [kristauaren] hizkuntza bezala kontsideratua baita” (Coyos 2018: 3). Coyosek dioen bezala, “Eliza katolikoa ondo ezarria dago Ipar Euskal Herrian XVII. mendetik gora, Ziburun nabigazio eskola bat eta guzti dagoelarik” (Coyos 2013: 434). Horri, hainbat herritan, ezaugarri laikoak dituzten zenbait eskola gehitu behar zaizkie (Oyharçabal 1999). Bi mendetan zehar, irakaskuntza horrek bermatuko du “euskarazko irakurleago baten heziketa. Halaber, euskarazko literaturaren hedapena ahalbideratuko du [klase] herrikoietan” (Coyos 2013: 434). Funtsean, irakurketaren ikaskuntzan erdiratuz, “erlijioaren irakaskuntza faboratzen du, zeren katekesiaren irakaskuntzari lotua dago” (Coyos 2013: 435).

Aitzitik, Frantziako 1789ko Iraultzak eta, batik bat, Grégoire abadearen *Dialektoak suntsitzeko eta frantses hizkuntzaren erabilera unibertsalizatzeko behar eta baliabideei buruzko txostena* idatziak<sup>2</sup> (1794) euskararen irakaskuntzaren kasik erabateko desagerpena suposatu dute, zeren sortu berria den Errepublikak frantsesa inposatu nahi baitu Hexagono osoan (Urrutikoetxea 2018). Monarkiari, tradizioari eta obskurantismoari lotzen den Elizaren aur-

---

<sup>2</sup> Rapport sur la nécessité et les moyens d’anéantir les patois et d’universaliser l’usage de la langue française.



ka borrokatzeko bere nahian, “eskualde hizkuntzak” debekatzen ditu, eta hizkuntza nazional bakarra ezartzen du, frantsesa, alegia. Haren bidez, arrazionaltasunaren, modernitatearen eta unibertsaltasunaren baliokide den Ilustrazioaren idealak hedatu nahi ditu. Izan ere, Castoreok (1993) erakusten duen moduan, “euskara ia erabat desagertzen da irakaskuntzatik XIX. mendean zehar, erlijio irakaskuntzaren salbuespenarekin”; betiere Elizak bere gain hartzen duen mailan (Coyos 2018: 3). Euskararen zokoratze hori 1850eko martxoaren 15ean onartu zen Falloux legeak indartu zuen, irakaskuntza pribatu kristauaren egoitzen finantzaketa publikoa debekatzen baitu (Légifrance 2018a).

XX. mendearen erditsua itxaron behar da euskara berriz ere irakaskuntzan txertatu dadin, 1951ko urtarrilaren 11ko Deixonne legearen bozkarekin, jakinik bere xedea dela tokiko hizkuntzak eta dialektoak irakastea eskolan (Légifrance 2018b). Gutxi eta partzialki aplikatua izan arren, lege horrek euskara astero hiru orduz irakasteko aukera aurreikusten du. Era berean, 1959tik gora, euskarazko irakaskuntza hauspotu nahi duen Ikas elkartearen sorrera mugarrria izan zen (Oronos 2002; Urteaga 2021: 15-18). Baina, euskararen irakaskuntzak benetako bultzada jaso zuen 1970. hamarkadatik landa murgiltze eredia gauzatu zuten ikastolen agerpenarekin. Hizkuntza hori irakaskuntza sistemaren bitartez beraien haurrei transmititzeko borondatea adierazi zuten gurasoek sustaturik, lehen ikastola Arrangoitzen sortu zen 1969an. Azkar, ikastola berriak sortu ziren Iparralde osoan. Hasiera batean administrazio publikoek oztopatu baldin bazituzten, pixkanaka onartu zituzten, 1980ko hamarkada hasieran ofizialki aitortu aurretik, ikastolen federazioa den Seaska eta Frantziako Hezkuntza Ministerioaren arteko hitzarmena izenpetu ostean (EN, FS eta OPLB 2009).

Une berean, “Savary zirkularra” bezala ezagutua den 1982ko Hezkuntza Ministerioaren zirkular batek, aukera eskaini zuen ikasketen zati bat “eskualde hizkuntzan” egiteko. Horren ondorioz, Sarako eskolak lehen sail elebiduna ireki zuen irakaskuntza publikoan. 1983 eta 1986 bitartean, berderatzi sail elebidun sortu ziren Urruñan, Donibane Lohizunen ala Donibane Garazin, besteak beste. Irakaskuntza kristaua ez zen mugimendu horretatik aparte geratu, bere lehen gela elebiduna 1967koa baita, nahiz eta bere benetako garapena 1980ko hamarkadan suertatu. Denborak aurrera egin

ahala, administrazio publikoak orokorki eta Hezkuntza Ministerioak bereziki problematika hori bereganatu dute, ohartu baitira euskararen berreskurapena beraien eginkizuna dela eta, ildo horretatik, marjinala bilakatzen ari den familia transmisioaren higaduraren ondorioz, hezkuntza sistemaren bitartez burutzen den euskararen ikaskuntza lehentasun bat dela (MI, MCC eta MEER 2016: 46).

Izan ere, Hezkuntza Ministerioaren inplikazioa euskararen biziberritze politikan “pixkanaka indartu eta egituratu da urteak joan ahala, bereziki Pirinio Atlantikoetako Hezkuntza Ministerioaren Zerbitzuen Zuzendaritza Akademikoaren eta Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluaren arteko hitzarmenen bitartez”; kontuan izanda Ipar Euskal Herria departamentu horretako zati bat dela, Biarnorekin batera (MI, MCC eta MEER 2016: 47). Horrek esan nahi du, “euskararen garapenaren aldeko ekintzak eta euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren eskaintzaren egituraketak, adostasun amaigabeen oinarritutako lankidetzak ikuspegi bati erantzuten diotela” (MI, MCC eta MEER 2016: 47).

### 2.1.2. *Proposatutako irakaskuntza ereduak*

Sinplifikatuz, esan daiteke, irakaskuntza elebidunaren baitan, bi modelo bereizi daitezkeela: murgiltzea eta ordu parekotasuna.

Bereziki ikastolek praktikatzen duten murgiltze bidezko irakaskuntza elebidunaren ezaugarria da, nahiz eta beraien esklusibotasuna ez izan, “euskararen erabilera irakaskuntza hizkuntza gisa eta eskola ala zentroko eguneroko bizitzaren hizkuntza bezala” (MI, MCC eta MEER 2016: 46). Lege ala arau bakar batek ez duenez zehazki definitzen, jakinik ministerioaren zirkularrak eta ordenak Estatu Kontseiluak ezeztatu dituela 2002ko azaroaren 29ko erabakian, “murgiltze bidezko irakaskuntza hori, Hezkuntza Ministerioa eta Seaska federazioaren arteko hitzarmenaren baitan kokatzen da” (MI, MCC eta MEER 2016: 46). Modelo horren arabera, non ia irakaskuntza osoa euskaraz ematen den, frantsesa “pixkanaka sartzen da astero hiru ordurekin CE1en, bost ordurekin CE2n eta zortzi ordurekin CM1 eta CM2n” (MI, MCC eta MEER 2016: 46). Bigarren mailan, kasik klase guztiak euskaraz

emanak dira, frantsesa eta atzerriko hizkuntzak izan ezik. Paraleloki, esperimenezko batzuk aurrera eramanez, irakaskuntza publiko zein pribatu kristauan eta batik bat haur eskolan, esperimenezko pedagogikoari buruzko Hezkuntza Kodearen L.401-1 artikuluari esker” (IGEN eta IGAENR 2013).<sup>3</sup>

Irakaskuntza publiko zein pribatu kristauan praktikatzeko den ordu parekotasuneko euskara-frantsesa irakaskuntza elebidunak, zeinak 2013ko uztailearen 8ko Errepublikaren eskolaren birfundaziorako orientazio eta programazio legeak indartzen duen (Légifrance 2018c), “marko bat eskaintzen du, non eskualde hizkuntza den, une berean, ikasgai irakaskuntza eta jarduerak zein ikasketa anitzeko irakaskuntza hizkuntza” (MI, MCC eta MEER 2016: 46). Murgiltze ereduarekin alderatuta, euskararen erabilera ez bada hain intentsiboa, modelo horrek aukera eskaintzen du, ordutegi indartu bati esker, hizkuntza-maila onargarri bat lortzeko, kontuan izanda erabat frantsesduna dena baino hobea dela baina ikastoletan praktikatzeko dena baino okerragoa. “Zirkularra CERCLaren [ala hizkuntzentzako erreferentziarako marko europar komunaren] abiaraztea baino lehenagokoa denez, agertzen diren ezagutza-mailak ez daude definituak erreferentzia marko horren arabera” (MI, MCC eta MEER 2016: 46).

## 2.2. Matrikulazioen gorakada

Azken urteak ezaugarritzen dira matrikulazioen gorakada nabarmenarekin, lehen zein bigarren mailatan, bai murgiltze ereduari bai ordu parekotasuneko ereduari.

---

<sup>3</sup> Hezkuntzaren Kodearen L. 314-1, L. 314-2, D. 314-2 eta D. 314-4 artikuluek diote, konfiantzaren eskolarako 2019ko uztailearen 26ko legea (2019-791 zenbakia) eta 2019ko abenduaren 18ko dekretua (2019-1388 zenbakia) onartu ostean, esperimenezko pedagogiko bat burutu daitezkeela atzerri ala tokiko hizkuntzen irakaskuntzaren arloan. Esperimenezko horrek, gehienik, bost urteko iraupena izan dezake, ikasketa zentroak egitasmo bat aurkeztu, autoritate akademikoak onartu eta administrazio publikoak informatu ondoren (Euzet eta Kerlogot 2021: 26). Horrez gain, Estatu-Eskualde hitzarmenak aurreikusten du, Ipar Euskal Herrian, “Hezkuntza nazionala bereziki engeiatzen dela, Akademiaren baliabideen baitan (...), talde pedagogikoak laguntzera irakaskuntza publikoan murgiltze ereduari oinarritutako irakaskuntza egitasmoak martxan jartzera” (Euzet eta Kerlogot 2021: 30).

### 2.2.1. *Izena emateen hazkunde nabarmena lehen mailan*

2010-2016 denboraldiak baieztatzen du aurreko bosturtekoan ikusitako joera, zeren, hiru sareetan (publikoan, pribatu kristauan eta asoziatiboan) gertatu diren ikasgela elebidunen irekiduren etengabeko gorakadari, irakaskuntza elebidunean matrikulatutako ikasle kopuruaren hazkunde nabarmena gehitu behar zaio, zeren, 2005 eta 2010 bitartean, “irakaskuntza hori jarraitzen duten ikasleen kopurua % 41a hazi da eta ikasle guztien % 26a ordezkatzeko du, 2004an % 18a irudikatzen zuelarik” (MI, MCC eta MEER 2016: 48).

Ondorengo bosturtekoak hazkunderako joera hori baieztatzen du, zeren “sail elebidunetan ala murgiltze ereduaren izena eman duten ikasleen kopuru orokorra 2004-2005ean ziren 5.930etik 9.839ra pasa da 2015-2016an”, hau da ikasle guztien % 24,5 izatetik % 38,2 izatera igaro da (MI, MCC eta MEER 2016: 48). Horrek esan nahi du, irakaskuntza elebidunaren efektiboan urteroko batezbesteko aurreratzea % 4,7koa izan dela, esan nahi baita 364 ikasle gehiagokoa izan dela urtero. Azpimarragarria da Seaskak ezagutu duela hazkunderik handiena ehunekotan 2010 eta 2015 bitartean” (MI, MCC eta MEER 2016: 48).

### 1. taula: Lehen mailako ikasleen banaketaren bilakaera irakaskuntza ereduaren arabera

Irakaskuntza eredu/ Urtea	Irakaskuntza elebiduna ala murgiltzekoa	Frantsesezko irakaskuntza
2004-2005	5.930	18.299
2005-2006	6.218	18.065
2006-2007	6.718	17.628
2007-2008	7.145	17.277
2008-2009	7.581	16.971
2009-2010	7.974	16.651
2010-2011	8.382	16.311

Irakaskuntza eredu/ Urtea	Irakaskuntza elebiduna ala murgiltzekoa	Frantsesezko irakaskuntza
2011-2012	8.728	16.176
2012-2013	9.007	16.116
2013-2014	9.236	16.030
2014-2015	9.456	15.905
2015-2016	9.839	15.893

*Iturria:* Hezkuntza Ministerioa eta EEP 2016: 49.

Zehazkiago, 2015-2016 ikasturtean, “sail elebidun ala murgiltze eredu-ko 9.839 ikasleetatik, 5.369k ikasketak egiten dituzte irakaskuntza publikoan, hau da % 54ek; 2.188 ikasle eskolatuak dira sare pribatu kristauan, esan nahi baita % 22; eta, gainontzekoak, hots 2.382 ikaslek, murgiltzeko eskola-ibilbidea jarraitzen dute Seaska sarean” (MI, MCC eta MEER 2016: 49).

Azken datuen arabera, 2020. urtean, 6.836 ikaslek izena eman dute sail elebidun publikoan, gorakada nabarmenarekin aurreko urtearekin alderatuta, 2019. urtean, 6.067 baitziren (Euzet eta Kerlogot 2021: 10). Horri gehitu behar zaio, eskola publikoan murgiltze eredu jasotzen duten ikasleen kopurua 512koa dela (Euzet eta Kerlogot 2021: 10).

### 2.2.2. *Matrikulazioen gorakada nabarmena bigarren mailan*

Bigarren mailako matrikulazioak gorantz doaz halaber, nahiz eta kopuruak txikiagoak izan lehen mailakoekin alderatuta, zeren ikasle ugarik sail elebidunak uzten baitituzte beraien eskola-ibilbidean zehar, batez ere haur eskola eta kolegioaren arteko eta baita kolegio eta lizeoaren arteko trantsizio faseetan. Guztira, 2015-2016 ikasturtean, kolegioko 2.326 ikaslek, hau da, seitik batek, eta lizeoko 583 ikaslek, hots, hamaikatik batek, jarraitzen dute *curriculum* hori. Aitzitik, “2010-2011 eta 2015-2016 bitartean, urteroko batezbesteko hazkundea % 4,6koa da kolegioan eta % 6koa irakaskuntza

orokorreko eta teknologikoko lizeoan” (MI, MCC eta MEER 2016: 49).<sup>4</sup> Lan heziketari dagokionez, berria bezain eskasa da eskaintza, kontuan izanda, bosturteko horretan, soilik 60 ikasle inguruk izena eman dutela bertan.

**2. taula:** Irakaskuntza elebiduna ala murgiltzekoa jarraitzen duten ikasle kopuruen bilakaera bigarren mailan

Irakaskuntza eredia / Urtea	Irakaskuntza elebiduna ala murgiltzekoa	Frantsesezko irakaskuntza
2004-2005	356	1.263
2005-2006	369	1.413
2006-2007	352	1.473
2007-2008	419	1.546
2008-2009	418	1.687
2009-2010	471	1.751
2010-2011	436	1.854
2011-2012	483	1.931
2012-2013	482	2.015
2013-2014	522	2.099
2014-2015	575	2.188
2015-2016	583	2.326

*Iturria:* Hezkuntza Ministerioa eta EEP 2016: 50.

Sail elebidunetan ala murgiltzeakoetan izena eman duten ikasle horiei, hautazkoa den euskarazko ikasgaia jarraitzen dutenak gehitu behar zaizkie; jakinik 897 direla kolegioan eta 406 lizeoan. Horien artean aurkitzen dira sail elebiduneko ikasle ohiak, zeintzuk hezkuntza sistemaren bidez euskara

<sup>4</sup> 2004-2005 eta 2015-2016 bitartean, hazkundea % 5,7koa izan da kolegioan eta % 4,6koa lizeoan (MI MCC eta MEER 2016: 49).

ikasten jarraitu nahi duten, intentsitate apalagoarekin izan arren (MI, MCC eta MEER 2016: 50).

Orokorki, 2015-2016 ikasturtean zehar, bigarren mailako 4.300 ikasle inguruk euskarazko irakaskuntza jaso dute, hau da, kolegioetan eta irakaskuntza orokor zein teknologikoko lizeoetan eskolatuak diren ikasle guztien % 21 ordezkatzen dute.

Azken datuei erreparaturaz gero, 2020. urtean 5.407 ikasle daude eskolatuak irakaskuntza elebidunean, 2018an 4.943 zirelarik (Euzet eta Kerlogot 2021: 10).<sup>5</sup>

### 2.3. Eskaintzaren ugaritzea

Matrikulazioen hazkundera bat doa irakaskuntza elebidunaren eta murgiltzeakoaren eskaintzaren handitzearekin.

#### 2.3.1. Eskaintzaren handitzea lehen mailan

Irakaskuntza elebidunaren ala murgiltzeakoaren eskaintza nabarmen hazi da azken urteetan, Ipar Euskal Herriko eskoletako % 42 osatuzetik 2004-2005 ikasturtean, % 62 osatzeraino igaro baita 2015-2016 ikasturtean, esan nahi baita, 243 ikastetxeetatik 150ek proposatzen dutela. Gaur egun, irakaskuntza pribatu kristauan, “eskolen bi herenek (...) proposatzen dute, erdiek egiten zutelarik 2004-2005 [ikasturtean]. Aldiz, proportzio horiek % 54 eta % 34koak dira, hurrenez hurren, irakaskuntza publikoan” (MI, MCC eta MEER 2016: 50). Horrela, 2004 eta 2015 bitartean, elebitasuna ala murgiltzea aplikatzen duten 49 sail sortu dira: “34 publikoan, 5 pribatu kristauan eta 10 Seaskan” (MI, MCC eta MEER 2016: 50). Azken honen kasuan, ikastolak 20tik 30era igaro dira. Prozesu horrek aurrera darrai, zeren 5 irekitze berri gertatu baitira irakaskuntza publikoan 2016. ikasturtean.

---

<sup>5</sup> Murgiltze ereduak erabiltzen duten ikasleei dagokienez, lehen zein bigarren mailak batuta, guztira 4.018 haur eskolatuak daude ikastoletan 2020. urtean (Euzet eta Kerlogot 2021: 11).

Lurralde banaketari dagokionez, ikusi daiteke euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren eskaintza presente dagoela Iparralde osoan, “nahiz eta oraindik gune batzuk dirauten non ezin daitekeen irakaskuntza elebiduna segitu”, ez irakaskuntza publikoan, ez irakaskuntza pribatu kristauan (MI, MCC eta MEER 2016: 50). Eskaintzaren hedadura oztopatzen duen osagaietariko bat da frantsesez soilik lan egiten duten irakasle-talde batzuen errezeloa irakaskuntza elebidun sailak sortu nahi direnean. Izan ere, kritiko agertzen dira sail elebidunen irekitze bakoitza frantsesezko irakasle plazen desagerpenarekin bat doanean. Egoera hori gertatzen da Hezkuntza Ministerioak ez duelako begi onez ikusten frantsesezko eta euskarazko irakasleen kudeaketa ezberdina egitea, bi sailak lehian jarriz. Horri guztiari gehitzea komeni da Hezkuntza Ministerioak erreparoa dauzkala eskaintza orokortzerako orduan eta ikasle kopuruen araberako irakasle lanpostuak sortzerako tenorean.<sup>6</sup>

### 2.3.2. *Eskaintzaren zabalkuntza bigarren mailan*

Bigarren mailan, irakaskuntza elebiduna ala murgiltzea proposatzen da 18 kolegio publikoetatik 14tan, eta 18 kolegio pribatuetatik 12tan (MI, MCC eta MEER 2016: 51).<sup>7</sup> Murgiltzea presente dago Seaskaren 4 kolegioetan, Baionako kolegioa sortu ostean. Horrela, 2004 eta 2015 bitartean, eskaintza nabarmen hazi da “11 sail elebidunen sorrerari esker”, horietatik 8 eskola publikoan gertatu direlarik eta gainontzeko 3ak eskola pribatu kristauan (MI, MCC eta MEER 2016: 51). Eta, 2010 eta 2015 bitartean, 3 irekitze izan dira publikoan eta beste horrenbeste pribatu kristauan. Sorrera

<sup>6</sup> Seaskari dagokionez, 2015-2016an, hiru ikastola berri ireki dira Azkaraten, Basusarrin eta Biriaturun; 2017-2018an, Bokaleko ikastolak ateak zabaldu ditu; 2019-2020an Arbona Ahetzeko Alhorga ikastola sortu zen; eta, 2021-2022an Bardozeke Xarnegu ikastolaren itzulia da. Guztira, 13 haur eskola eta 20 lehen maila kudeatzen ditu (Seaska 2022). Bestalde, 2020. urtean, 105 eskola publikok eskaintzen dute irakaskuntza elebiduna haur eskolan eta lehen mailan. 2018an, Uztaritzen sail berri bat ireki zen eta beste horrenbeste suertatu zen Armendaritzen; eta, 2019an, bi sail elebidun sortu ziren Baionako Brana eta Arbouet eskoletan (Ikas-Bi 2021).

<sup>7</sup> 2019. urtean, eskola publikoan, 15 kolegiok eta 6 lizeok eskaintzen dute irakaskuntza elebiduna (Ikas-Bi 2022).



horiek aukera eskaintzen dute irakaskuntza elebidunaren eskaintzari delako lurralde-jarraitutasun bat emateko.

Hala ere, eskola-ibilbideak ez dira derrigorrez kolegorik hurbilenean egiten, eskola-maparen eraginez. Esaterako, Baionako Jules Ferry eskolan izena eman duten ikasleek beraien ikasketak hurbil dagoen Albert Camus kolegioan egin beharko lituzkete. Baina, azken honek ez daukanez sail elebidunik, Marracq kolegiara joan behar dira. Egoera horrek gurasoak derrigortzen ditu Akademia Ikuskaritzari derogazioak eskatzera, eta honek eragina du eskoletako aniztasun sozialean.

Irakaskuntza orokorreko lizeoari dagokionez, aurrerapausoak eman dira eskaintzaren jarraitutasunean, hiru gunetan arazoak badiraute ere. Hain zuzen, ikasketa-ibilbide elebiduna posible da 8 lizeo publikoetatik 3tan, eta baita ere irakaskuntza pribatu kristauko 4 lizeotan eta Seaskako lizeo bakarrean. Honi guztiari gehitu behar zaio irakaskuntza teknologiko elebidunean dagoen eskaintza, zeren irakaskuntza pribatu kristauak aukera eskaintzen baitu antzeko ibilbidea jarraitzeko “Zientziak eta Kudeaketaren teknologiak” adarrean eta baita “Zientziak eta Osasunaren teknologiak” adarrean ere, matrikulazioak apalak izan arren. Izan ere, 2015-2016 ikasturtean, soilik 21 ikaslek izena eman dute bertan (MI, MCC eta MEER 2016: 53).

Lan heziketari dagokionez, “eskola-ibilbide elebidunak soilik proposatuak dira sare pribatu kristauren lau batxilergo profesionaletan, horietariko bat laborantza irakaskuntzari dagokiolarik” (MI, MCC eta MEER 2016: 54). Seaskak bere irakaskuntza-eskaintza ugaritu du Baionan daukan lizeoan, tokiko lan merkatuan eskaera gehien daukaten eremuetan sail proposamenak eginez, hau da “Zientziak eta Kudeaketaren teknologiak” eta “Zientziak eta Osasun zein Gizarte teknologiak” arloetan. Ziurrenik, eskaintza hori irakaskuntza publikora hedatuko da denboraren poderioz, zeren, gaur egun, ez baitago elebidun sailik irakaskuntza teknologiko eta profesionaletan.

Azpimarragarria da Seaskak zailtasun gehiago dauzkala bere irakaskuntza-eskaintza garatzeko eta anizteko orduan. Izan ere, irakaskuntzari buruzko 1850eko martxoaren 15eko Falloux legeak (Légifrance 2018a) eta lehen mailako irakaskuntzaren antolaketari buruzko 1886ko urriaren 18ko Goblet

legearen disposizio gehigarriek (Légifrance 2018d) ez dute aukerarik ematen irakaskuntza pribatuko irakaskuntzaguneak diru publikoarekin finantzatzeko, nahiz eta Hezkuntza Ministerioarekin itunpean izan. Hori dela eta, Seaskak nahiko luke salbuespen bat bezala kontsideratua izan, eskola laikoa, irekia eta doakoa izateaz gain, estatu-mailako programak errespetatzen baititu (MI, MCC eta MEER 2016: 54). Baina, momentuz, Hezkuntza Ministerioak aukera hori baztertzen du herritarren berdintasun printzipioaren izenean. Paradoxikoa dirudi, zeren beraien seme-alabak eskola horietan matrikulatzen dituzten gurasoek kostu bikoitza beraien gain hartu behar baitute: zergen ordainketa eta izen ematearena, horrelakorik ez delarik gertatzen irakaskuntza publikoaren aukera egiten duten gurasoentzat.

### 3. Irakaskuntza elebidunaren ahulguneak

Baina, euskara-frantsesa elebitasuna eta euskarazko murgiltzea aplikatzen dituen irakaskuntzaren hazkundeak hainbat oztopori aurre egiten die, hala nola eskola-ibilbidean zehar gertatzen diren abandonu sarriak, ordu parekotasuna bermatzeko zailtasunak bigarren mailan, euskal hiztunen giza baliabideen eskasia eta errekurso pedagogikoen urritasuna, azken hauek ugaritzen ari badira ere.

#### 3.1. Eskola-ibilbidean zehar gertatzen diren abandonu maizkoak

Hain zuzen ere, sail elebidunak zabaltzeak euskarazko irakaskuntzan darraren hedapenak, sare pribatuan zein irakaskuntza publikoan, ez du ezkutatu behar eskola-ibilbidean zehar gertatzen diren abandonu sarriak, bereziki trantsizio uneetan, zeren abandonu horiek “% 9 ingurukoak dira haur eskola eta lehen maila bitartean, gutxi gorabehera % 28koak lehen maila eta kolegioaren artean, eta % 50 ingurukoak kolegioa eta lizeoa bitartean” (MI, MCC eta MEER 2016: 54).

2016an, Ipar Euskal Herriko kolegioetan eskolatuak dauden seigarren mailako ikasleen guraso guztiei Hezkuntza Ministerioak eta EEPk egindako kontsulta baten arabera, non galdetzen zen zer arrazoigatik uzten duten

irakaskuntza elebiduna ikasleek eta beraien gurasoek kolegioan sartzera-koan, ikasleek hiru arrazoi nagusi aipatzen dituzte: “euskararen zailtasun propioa, «Historia eta Geografia» ikasgaia euskaraz lantzeko beldurra, eta suposatzen duen lan gehigarria” (MI, MCC eta MEER 2016: 54). Gurasoek, aldiz, honakoak aurreratzen dituzte: “beraien seme-alaben hautua errespetatzeko kezka, eta baita ere beraiek laguntzeko ezintasuna, ez baitira euskal eledunak” (MI, MCC eta MEER 2016: 54). Horri guztiari gehitu behar zaio ez dagoela nahiko kolegio elebidunik lurralde osoan, hainbat ikasle derri-gortuz edo kilometro ugari egitera euskaraz ikasi ahal izateko edo barnetegia aukeratzera, horrek suposatzen duen kostu afektiboarekin, bai ikasleentzat bai beraien gurasoentzat.

Kolegioaren eta lizeoaren artean gertatzen diren abandonu ugarietako dago-kienez, honako faktorea aipa daiteke: “hirugarren ikasturtearen amaieran gertatzen den orientazioaren eragina, ikasle guztiak ez baitira bigarren orokor eta teknologikora pasatzen” (MI, MCC eta MEER 2016: 55).

Hala ere, murgiltzearen eta ordu parekotasunaren bidezko irakaskuntza-aren abandonuak “ez du beti esan nahi euskarazko ikaskuntza eteten denik”, zeren ikasle askok aukeratu baitute, bere ordean, kolegio zein lizeoek proposatzen duten euskarazko hautazkoa (MI, MCC eta MEER 2016: 55). Hauta honek aukera eskaintzen die ikasgai hori batxilergoan aurkezteko, horrek suposatu dezakeen puntuazio hobekuntzarekin.

Abandonu kopuru handiena hezkuntza-mailen arteko trantsizioetan gertatzen bada, etenak suertatzen dira eskola-ibilbide osoan zehar ere, ikasturte batetik bestera eta irakaskuntza ziklo baten barruan. Ez hain ugariak izan arren, ez dira horrenbestez erdeinagarriak, zeren “% 4 ingurukoak dira urteroko eskola elebidun publiko eta pribatuetan” (MI, MCC eta MEER 2016: 55). Izan ere, sei ikasletik batek eskola-ibilbide elebiduna uzten du prestatzeko kurtsoaren eta lehen mailako bigarren kurtso ertainaren artean, abandonua % 15ekoa delarik bigarren mailako seigarrenaren eta hirugarrenaren artean. Konparatiboki, abandonuak txikiagoak dira Seaskan, % 1 ingurukoak baitira, batik bat gurasoen hizkuntza kontzientzia zein motibazioa handiagoga-tik, benetan nahi dutelako beraien seme-alabek bigarren mailako ikasketak euskaraz egin ditzaten eta hizkuntza hori ondo menperatu dezaten.

### 3.2. Ordu parekotasun ez-erabatekoa bigarren mailan

Ordu parekotasuna benetakoa bada lehen mailako gela elebidunetan, 12 ordu irakatsiak baitira euskaraz eta beste horrenbeste frantsesez, ez da gauza bera gertatzen bigarren mailan (MI, MCC eta MEER 2016: 55-56). Hain justu, bigarren mailako eskola-ibilbide elebidun guztietan, “Historia eta Geografia ikasgaia proposatua da ikasgai ez-linguistiko gisa, esan nahi baita euskaraz irakatsia den ikasgai bezala” (MI, MCC eta MEER 2016: 56). Hori dela eta, praktikan, “elebitasunari eskainitako ordutegia irakaskuntza-denboraren % 25 ingurukoa da”, ordu parekotasunetik urrun, beraz. “Urrutiago joateko eta euskarazko irakaskuntza beste ikasgaietara hedatzeko zailtasun nagusia giza baliabideen mailan kokatzen da, zeren, diziplina espezializazioak beharrezkoak izateak euskara menperatzen duten irakasle kopurua biderkatzen du” (MI, MCC eta MEER 2016: 56). Aitzitik, euskaraz ari den irakasle bat ikasgai bat emateko gai bada ere, beharrezkoa da “lanpostu bat hutsik geratu dadin eskola horretara bidalia izateko eta irakaslea prest izatea bertara igorria izateko” (MI, MCC eta MEER 2016: 56). Horren ondorioz, gaur egun, soilik Baionako Marracq kolegioak eta Hendaiako Irandatz kolegioak eskaintzen dute benetan elebiduna den ikasketa-ibilbide bat, ordu parekotasuna errespetatuz.<sup>8</sup>

Irakaskuntza orokorreko lizeoari dagokionez, “Historia eta Geografia ikasgaia proposatua da ere bai ikasgai ez-linguistiko gisa hala sare publiko nola pribatu kristauetako curriculum elebidunetan” (MI, MCC eta MEER 2016: 56). Egoera horren jatorrian dago sailen dibertsifikazioa (zientziak, gizarte eta ekonomia zientziak, letrak), zeinek ezinezkoa bilakatzen duen, ikasle kopurua aintzat hartuta, beste ikasgai batzuetara hedatzea; jakinik Historia eta Geografia irakasgaia dela, Gorputz Hezkuntzarekin batera, ikasgai ez-linguistiko bakarra, zeinak oinarri programatiko komuna daukan irakaskuntza orokorreko hiru espezialitateetan.

---

<sup>8</sup> Panorama horren aurrean, “autoritate akademikoak ahalegindu dira beraien diziplina euskaraz eman lezaketen irakasleak [identifikatzen] eta formatzen” (ME, MCC eta MEES 2016: 56).

### 3.3. Giza baliabideen eskasia irakaskuntza mailan

Hezkuntza Ministerioak aitortzen duen bezala, giza baliabideen eskasia erakundeek daukaten zailtasun nagusia da eskaintza elebiduna sendotzeko tenorean, bai lehen bai bigarren mailetan (MI, MCC eta MEER 2016: 59).

Lehen mailaren kasuan, euskarazko irakasleak kontratatzeko kanpoko konkurtso bereziak zailtasunak ditu eskaintzen diren lanpostuak betetzeko, azken urteetako datuek erakusten duten bezala.

Kanpoko konkurtso publikoari dagokionez, 2014an, non 8 plaza eskaintzen diren, 22 hautagaik izena eman dute, 8 aurkeztu dira eta lehen fasea gainditu duten guztiek lanpostua lortu dute. 2015ean, aldiz, nahiz eta 12 plaza eskaini diren, 17k izena eman dute, horietariko 9 aurkeztu direlarik eta 7 onartuak izan direnean. 2016an, non beste 12 lanpostu eskaini diren, matrikulatu diren 15etatik, 10 aurkeztu dira, 9k lehen fasea gainditu dute eta 7k bigarrena (MI, MCC eta MEER 2016: 59).

Egoera antzekoa da, bariozioak izan arren eta lanpostu kopuru txikiago batekin, irakaskuntza kristauaren kanpo konkurtsoetan eta Frantses Errepublikako Hizkuntzen Goi Mailako Institutuak antolatutako eta kudeatutako kanpo konkurtsoetan, ondorengo datuek agerian uzten duten gisara:

**3. taula:** Kanpoko konkurtso pribatua: irakaskuntza kristaua

	Matrikulatuak	Aurkeztuak	Onargarriak	Onartuak	Plazak
2014	9	5	2	1	1
2015	6	3	2	1	2
2016	5	4	2	1	1

*Iturria:* MI, MCC eta MEER 2016: 59.

**4. taula:** Kanpoko konkurtso pribatua: Frantses Errepublikako Hizkuntzen Goi Mailako Institutua

	Matrikulatuak	Aurkeztuak	Onargarriak	Onartuak	Plazak
2014	7	1	0	0	4
2015	6	5	4	4	6
2016	12	11	11	8	8

*Iturria:* MI, MCC eta MEER 2016: 59.

Datu horiek islatzen dute zer zailtasun dauden erretreta hartzen duten irakasleak ala euskarazko konkurtso bereziaren bidez kontratatuak diren irakasleak ordezkatzeko. Azken hauen kasuan, eskoletan zuzendaritza karguak, irakaskuntza espezializatu postuak ala frantsesezko irakaskuntza asumitzeko borondatea erakutsi dute, batetik, irakaskuntza elebidunak planteatzen dituen zailtasunak direla-eta, euskara ikaslaraztea zailagoa baita, eta, bestetik, maila askotako gelak ugariak baitira. Horrez gain, “epe ertain eta luzean, bajaran dauden irakasleen ordezkapena ez dago beti bermatuta (MI, MCC eta MEER 2016: 59).

Bigarren mailan, euskarazko irakasleen kontratazioa baldintza hobegotan egiten da, eta plazak orokorki beteak daude, ondorengo datuek erakusten duten bezala:

**5. taula:** Euskarazko kanpoko CAPES publikoa

	Matrikulatuak	Aurkeztuak	Onargarriak	Onartuak	Plazak
2014	4	3	2	1	1
2015	9	2	2	1	1
2016	5	4	3	2	2

*Iturria:* MI, MCC eta MEER 2016: 60.

Historia eta Geografia ez den beste ikasgai batzuetara euskarazko irakaskuntza kolegioan zabaltze aldera, EEPk bigarren mailako irakasleak kontsul-

tatu ditu 2010. urtean, *Euskaraz irakatsi? Gaitasunak, nahiak eta heziketa beharrak* deituriko txostenean (MI, MCC eta MEER 2016: 59). Horren birtartez, “beraien diziplina euskaraz irakasteko prest izango liratekeen irakasle euskal eledunak identifikatu nahi ziren. 41ek modu baikorrean erantzun dute eta, beraien euskara-maila neurtu ostean, 13k Errektoretzak antolatutako formakuntza bat jarraitu dute eta beraien diziplina euskaraz ematera baimenduak izan dira” (MI, MCC eta MEER 2016: 60).

Gugandik hurbilago, beste dispositibo batek aukera eskaini du beraien ikasgaia euskaraz emateko nahia adierazi duten irakasleak identifikatzeko. “Hizkuntza heziketa intentsiboa eskaini zaie, zeinen helburua den, une berean, euskara-maila ona lortu dezaten, C1 mailakoa alegia, eta euskararen irakaskuntzaren praktika pedagogikoa burutu dezaten” (MI, MCC eta MEER 2016: 60). Horrela, irakaskuntza pribatuko sei irakasle AEK-k formatu ditu 2013-2014 ikasturtean, opor denboraldian batik bat, EEPren laguntza ekonomikoari esker. Finantzaketa hori osatu da irakaskuntza pribatuko langileen heziketa iraunkor eta eskolei propioak zaizkien funtsekin.

2016-2017 ikasturterako, “diozesiar zuzendaritzak formakuntza jarraitzeko prestutasuna erakutsi duten 9 irakasle identifikatu ditu, beti ere heziketa baimena lortzen badute” (MI, MCC eta MEER 2016: 60). Irakaskuntza publikoari dagokionez, lehen mailako 5 irakaslek eta bigarren mailako 3 irakaslek formakuntza bat jarraitu dute 2015-2016 ikasturtean euskarazko ikasketa bat egin dezaten eta irakaskuntza elebidunari loturiko praktika pedagogikoak burutu ditzaten. Beste lehen mailako 8 irakaslek eta bigarren mailako 3 irakaslek gauza bera egin dute 2016-2017 ikasturtean. Finantzaketa EPPk eta Heziketarako Eskubide Indibidualak bermatzen dute, irakasleen ordezkapena Bordeleko Errektoretzak bere gain hartzen duenean.

Irakasle titularren hizkuntza kalifikazioaren prozedura formalizatu da, Bordeleko akademiako Errektoretzaren, EEPren eta Akitaniako hiru unibertsitateen arteko hitzarmen-marko baten bidez. Hitzarmen hori euskarazko eta euskara irakasleen heziketara eskainia dago (MI, MCC eta MEER 2016: 60). Zehazkiago, honako helburu hauek bete nahi ditu:

- “etorkizunean, lehen mailako irakasleen hasierako heziketan praktika elebidunen irakaskuntzari loturiko dimentsioa geroz eta gehiago kontuan hartzea”;
- “euskarazko irakasleen kontratazioaren kanpo-konkurtsu berezira aurkeztuko diren hautagaien hizkuntza-maila nahikoa bermatzea”;
- “gaur egun, frantsesez irakasten duten eta euskaraz irakasteko boluntarioak diren irakasle titularrei euskarazko formakuntza trinko bat eskaintzea”, eta
- “euskal eledunak diren ikasleak euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren lanbideei sentsibilizatzea. Aurreikusitako ekintzen artean daude, lizentziaturako bigarren ala hirugarren urteetan dauden 10 ikasle kontratatzea irakasle-aprendiz gisa, zeinak ordainduak izango diren ikasketak egiten dituzten bitartean, une berean, astean egun batez praktikak burutuko dituztelarik eskola batean” (MI, MCC eta MEER 2016: 61).

#### 3.4. Euskarazko baliabide didaktiko urriak

Giza baliabide urriekin batera, batik bat irakaskuntza mailan, euskarazko baliabide didaktiko eskasa nabari da; jakinik “euskarazko eta euskararen irakaskuntzak eskualdeko ikuskaritza pedagogikoak, barrutiko ikuskaritzak eta Ikas pedagogia guneak proposatutako baliabide pedagogikoak eskatzen dituela” (MI, MCC eta MEER 2016: 67). 2003az geroztik, botere publikoak erabat jabetu dira, euskara biziberritzeko eta euskararen sustapena segurtatzeko hizkuntza politikaren baitan, garrantzitsua dela “irakasleentzako eta euskararen zein euskarazko irakaskuntzaren sail ezberdinetan eskolatuta dauden ikasleentzako euskarazko baliabide pedagogikoak garatzea” (MI, MCC eta MEER 2016: 67). Borondate hori Hezkuntza ministerioaren eta Ikas gune pedagogikoaren arteko lankidetzak hitzarmenaren izenpetzean islatzen da, jakinik Ikas dela material pedagogikoaren ekoizpen, edizio eta hedapenaren arloan diharduen zerbitzu publiko bat. Izan ere, 2006ko irailan sinatu zen hitzarmen-marko hirutarikoa, EEP gehitu baitzitzaion. Hitzarmen hori 2010ean eta 2014an berritu zen.



2015ean, bere eginkizuna aurrera eramateko, Euskararen Erakunde Publikotik 350.000 euroko dirulaguntza jasotzeaz gain, Ikas-ek Bordeleko Errektoretzak bere esku jarritako irakasleriaren laguntza izan du. Era berean, “Ikas gunek onura ateratzen die kopia eskubiderako esplotazioaren zentro frantsesari eta, bereziki, ekoizpenen salmentaren diru-sarrerei” (MI, MCC eta MEER 2016: 67). Horri dagokionez, komeni da zehaztea “gazteentzako obrak eskoletan urririk banatuak direla. Horrela (...) azaltzen da euskarazko obren erosketa frantsesezkoekin lehian ez jartzeko borondatearekin” (MI, MCC eta MEER 2016: 67). Aitzitik, sorospen ekonomiko, humano eta editorial hori esanguratsua bada, ez dago sail elebidunen eta euskaraz irakatsitako ikasgaien hedapenaren garapenak adierazten duen erronkaren mailan.

Euskarazko ekoizpen editoriala areagotzearekin batera, lau erronkei aurre egin behar zaie:

1. Ikas-ek proposatutako obra ugari paperez daude, eta eskolek informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilpen geroz eta handiagoa egiten dutenez, beraien erabilpena mugatzen dute eta beraien eguneratzea zailtzen dute, kostu gehigarri bat suposatzen baitu.
2. Hasiera batean, eskaintza editorialaren funtsezko zatia frantsesez idatzitako eskuliburuen itzulpenean oinarritzen da. Hori dela eta, edukia ez da erabat egokitzen irakaskuntza elebidunaren eta murgiltzezkoaren berezitasunei, ezta ere lurraldeari propioak zaizkion ezaugarriei, bere osagai kultural zein historikoetan.
3. Formatu digitalean eta sarbide askean dagoen ekoizpenaren urritasuna, testuinguru batean non kultura digitala erronka garrantzitsua den hezkuntza sistemarentzat. Hala ere, geroz eta gehiago, gune pedagogikoek eta argitaletxe espezializatuek arreta geroz eta handiago jartzen diote ordenagailu, *tableta* ala MP3ren bitartez eskuragarri diren baliabide digital zein interaktiboiei.
4. Kolegio mailako ekoizpen editoriala lehenesteko beharra, zeren ikas-keta-ibilbidean haustura bat suertatzen baita lehen eta bigarren mai-

len artean, eta ezinbestekoa baita euskarazko irakaskuntzaren garapena geroz eta ikasgai gehiagotan laguntzea, 2014an berritu zen hitzarmenaren norabideek azpimarratu zuten bezala (MI, MCC eta MEER 2016: 68).

#### 4. Irakaskuntza elebidunaren indarguneak

Irakaskuntza elebiduna ala murgiltzekoa lagundu daitezke adostasunerako gailu egonkor batekin, murgiltze linguistikoaren esperimentazioaren bidez irakaskuntza publiko zein pribatu kristauan, helburu komun baten inguruan hezkuntza eragileak batuz eta ebaluazio zein ziurtatze prozedurak martxan jarritz.

##### 4.1. Adostasunerako gailu egonkor bat

Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren goraldiak eskatzen du hartaz axolatzen diren eragile guztien arteko adostasun gailu egonkor bat edukitzea. Euskararen Erakunde Publikoaren inguruan antolatuta dagoen itun horrek, harremanen jariatutasuna eta informazio trukaketa ziurtatzen ditu. “Lehen graduko eskola-maparen operazioek ikuspegi kolaboratibo hori erabat irudikatzen dute, politika koherente zein partekatuaren seinale direlarik” (MI, MCC eta MEER 2016: 47). Ildo horretan, edozein sail ala gela elebidun irekitzea, argiki definitua den prozeduraren objektua da, zeinen gauzatzea EEPk burutzen duen: “udalarekin adostasuna, irakasle-taldearen informazioa, familien informazioa, eskaeren bilketa, erantzunen analisia, inkestaren emaitzen transmisioa autoritate administratiboetara” (MI, MCC eta MEER 2016: 48). Ondoren, Hezkuntza Ministerioko zerbitzu etako zuzendari akademikoari dagokio egokiak diren erabakiak hartzea. Hori dela eta, EEPk inplikatuak dauden eragileen arteko adostasun egituratu bat ahalbidetzen du, esan nahi baita, hautetsi, familia, eskola, akademia ikuskaritza eta sare pribatuen artekoa.

Aitzitik, adostasun-gailu horrek ez ditu eskola-maparen inguruan sortzen diren desadostasun zein tentsio guztiak desagerrarazten. Izan ere, esko-

la-maparen inguruko logikek ez dute nahitaez bat egiten: “batetik, euskarazko eta euskararen irakaskuntzaren eskaintzaren hedapena dinamika boluntarista da, eta, bestetik, irekitze-mugimendua arautzeko beharra aurrekontu-marko jakin batean kokatzen da eta euskara zein euskal kultura irakasteko eskuragarri diren giza baliabideen eskuragarritasunen araberakoa da” (MI, MCC eta MEER 2016: 48). Horri dagokionez, komeni da azpimarratzea “EEPk kudeatzen duen adostasun-gailua behar bezala ibili dela, nahiz eta 2008tik 2012rako aurrekontu-markoa erretreta hartu duten bi funtzionarioetatik bat ez ordezkatu izanak baldintzatu duen” (MI, MCC eta MEER 2016: 48). Horrek esan nahi du euskararen ikaskuntzaren aldeko dinamika baieztatzen dela, tirabirak izan arren.

#### **4.2. Murgiltzearen esperimentazioa irakaskuntza publiko zein pribatu kristauan**

Sail elebidunetan matrikulatuak diren ikasleen hizkuntza-gaitasuna hobetze-aldera, “lehen mailako sail elebidunetan euskarazko irakaskuntzaren ordu kopurua handitzea eskatzen duen esperimentazioa aurrera eramán da”, bai irakaskuntza publikoan bai irakaskuntza pribatuan. Horrek, euskararen irakaskuntzarekiko Hezkuntza Ministerioaren jarrera-al daketa agerian uzten du (MI, MCC eta MEER 2016: 57). Hain zuzen ere, “eskaera sozial bati erantzuten zion jarrera kasik defentsibo batetik, bere eginbeharren errespetu hertsu batean oinarrituz, eta, ondoren, politika publiko baten akonpainamendu batetik, badirudi Hezkuntza Ministerioa pixkanaka igaro dela sustapen eta ekimen-hartze jarrera batera” (MI, MCC eta MEER 2016: 57). Ildo horretan, irakaskuntza publikoko haur eskoletan egiten diren esperimentazioek agerian uzten dute Hezkuntza Ministerioak borondatea daukala, haur eskolaz geroztik, “ekintza eremu berrietan inbertitzeko, ikasleriaren hizkuntza-oinarriak indartzeko eta euskarazko hizkuntza automatismoak errazteko” (MI, MCC eta MEER 2016: 57).

Eskolaren etorkizunerako orientazio eta programazioari buruzko 2005eko apirilaren 23ko legearen 34. artikulua ahalbidentzen duen esperimentazio

horrek (BO, 2005) ondorio gisa izan du, 2011n, “eskaeraren formalizazioaren testuingurua, baldintzak, urratsak eta modalitateak baztertzen dituen protokolo zehatza” onartzea (MI, MCC eta MEER 2016: 57-58). Erakusten du “esperimentazio horiek aurrera eramanak direla eskola-egitasmoen markoaren baitan, hiru eta bost urte bitarteko epean, eta gauzatuko direla eskolen, irakasle-taldeen eta familien boluntariora oinarri batean, familia bakoitzaren oniritziarekin” (MI, MCC eta MEER 2016: 58). Azkenik, “protokoloak urteroko ebaluazio bat aipatzen du, zeinaren modalitateak autoritate akademikoek zehaztuko dituzten esperimentazioa abiarazten denetik” (MI, MCC eta MEER 2016: 58). Protokoloak baita ere aurreikusten du, “haur eskolaz haratago, murgiltze ereduari jarraitutasun bat emateko aukera” (MI, MCC eta MEER 2016: 58).

Gaur egun, proposatutako modeloa ez da homogenea, zeren, “eskola batzuetan, haur eskolako lehen urteetan, irakaskuntza erabat euskaraz ematen da eta ordu parekotasuneko forma elebidunean jarraitzen da sekzio handian. Beste ikastetxe batzuek, aldiz, haur eskolako hiru urteetan zehar euskararekiko esposizio bat proposatzen dute denboraren hiru laurdenetan, geratzen den azken laurdena frantsesaren irakaspenari gordez” (MI, MCC eta MEER 2016: 58).

2015. ikasturtean zehar, murgiltze eredu 8 eskola publikotan eta 18 ikasgune pribatutan esperimentatu da. Orduz geroztik, aurrerapena erregularra izan da, zeren 4 sail berri sortu dira 2016az geroztik, eta hori, esperimentazio-gailua konplexua izan arren, zeinak “murgiltzeko eremu elebidun baten eta eredu arrunt baten elkarbizitza mantentzeko obligazioa inplikatzeko duen, horrek eragina daukalarik eskolaren barne-antolaketan” (MI, MCC eta MEER 2016: 58). Horrez gain, “gela elebidunen eta hizkuntza bakarreko gelen efektiboen desorekaren jatorrian izan daitekeela jakinik, familien oniritzia ezinbestekoa da” (MI, MCC eta MEER 2016: 58). Azkenik, “irakasle-taldeen kohesio indartsua eta familiekiko beraien inplikazio sendoa, komunikazio, esplizitate eta uste osoa aurretiko baldintzak dira” (MI, MCC eta MEER 2016: 58). Horrekin batera, kontziente izan behar da esperimentazioa zalantzan jarria izan daitekeela irakasleen lekuz aldatzeen ondorioz.

#### 4.3. Helburu komun baten inguruan batutako hezkuntza eragileak

Hezkuntza-eragileen gehiengo zabalak bere atxikimendua erakutsi dio eskola bidezko euskararen biziberritzeari. “Guztien adostasuna dago, izan dadila hautetsien, elkarte-eragileen, irakasleen, autoritate akademikoen eta, orokor-ki, erakunde publiko guztien artean” (MI, MCC eta MEER 2016: 63). Euskararen Erakunde Publikoaren eginkizuna azpimarragarria da, interes publikoko elkarte bezala, helburu komun eta ekintza baliabideak jartzerako orduan.

Horri dagokionez, irakaskuntza elebidunarekiko familien sentsibilizazioa funtsezko erronka da. Ikuspuntu horretatik, *Gurasoei azalduetako irakaskuntza elebiduna* izenburua duen liburuxka osatu du EEPk, Hezkuntza Ministerioaren laguntza pedagogikoarekin (MI, MCC eta MEER 2016: 63).

Paraleloki, “ikasle-gurasoen elkarteak oso inplikatuak eta presente daude eskoletan” (MI, MCC eta MEER 2016: 63). EEPrengandik dirulaguntzak jasotzen dituzte beraien jarduera aurrera eramateko, zeina oinarritzen den, besteak beste, gurasoen informazioan eta sentsibilizazioan. Elkarte horiek errelebo garrantzitsu bezain aktiboak dira hizkuntza-eremuan finkatutako orientazioetan, eta liberatuak dauzkate horretarako. Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, Ikas-Bik eta EEPk izenpetutako hitzarmena horren erakusle da, zeren elkarte horrek “irakaskuntza elebidunaren etengabeko sustapen eta jarraipen ekintza aurrera eraman behar du, eskoletako eguneroko ibilmolde eta bizitik ahalik eta hurbilen, sentsibilizazio eta sustapen bilkuretan parte-hartuz ala (...) irakasle-taldeak garapen ekintzak hautatzera bultzatuz, beti ere euskararen erabilerara norabidetuta dauden eskolaz kanpoko egitasmoak martxan jartzeari begira” (MI, MCC eta MEER 2016: 63-64).

#### 4.4. Ebaluazio eta ziurtatze jardunbideak martxan jartzea

Ebaluazio zein ziurtatze jardunbideak martxan jartzea aurrerapausoa izan da irakaskuntza elebidunaren ala murgiltze ereduaren finkatze eta garapenean. Preseski, komeni da aipatzea, 2006az geroztik, EEPk osatutako hizkuntza politika egitasmoak azpimarratzen duela “euskaraz lortutako hizkuntza gaitasunen ziurtatze marko bat aurreikusi behar dela” (MI, MCC eta MEER 2016: 65).

Adierazitako helburuak oinarritzen dira, “euskararen eta euskarazko ikaskuntzan, mailaz maila lortu beharreko gaitasunen prozedura-multzoak finkatzean, dauden erreferentzia sistemetan oinarrituz” (MI, MCC eta MEER 2016: 65).

Hain zuzen ere:

2000. urte hasieran, hizkuntza-gaitasunen ebaluazio batzuk jadanik egin baziren haur eskolan, hautazkoak izateaz gain, ez ziren erabilgarriak euskararen menperatze maila jakin bat bermatzeko. 2008-2009 ikasturtea itxaron beharko da Hezkuntza Ministerioaren ikuskariak euskarazko irakaskuntzaren ebaluazio prozedura bat osatu dezan, lau hizkuntza gaitasun nagusietatik abiatuz: ahozko eta idatzizko ulerkerak, eta ahozko eta idatzizko espresioa. (MI, MCC eta MEER 2016: 65)

Hasiera batean esperimentalak zirenak orokortzen dira 2013tik landa, “bai eskola publikoan bai eskola pribatu kristauan, ordu parekotasunezko irakaskuntza elebiduna jarraitzen duten kurtso ertaineko bigarren urteko ikasle guztiei aplikatzen baitzaizkie. Hizkuntza-ibilbidea markatzen duen balioztatze prozesu baten lehen urratsa da” (MI, MCC eta MEER 2016: 65). Horrela, “B1 eta B2 mailak 2013-2014an finkatuak izan dira lortu beharreko mailak bezala, bosgarren eta hirugarren mailen amaieran hurrenez hurren, irakaskuntza elebiduna eta murgiltzekoa jarraitzen duten ikasleentzako” (MI, MCC eta MEER 2016: 65).

Gogoratzea komeni da, 2009an, EEPk, Paue eta Aturriko Unibertsitateak eta Bordele III Michel Montaigne Unibertsitateak hitzarmen bat izenpetu dutela, zeinaren helburua den, besteak beste, “helduen euskara menperatze mailen ziurtatze gailu bat martxan jartzea. Hitzarmen horrek, C1 mailako ziurtatze azterketen antolaketa osoa finkatzen du. Gaur egun, lizeoko lehen mailako ikasleei irekita dauden bi saio daude urtero” (MI, MCC eta MEER 2016: 66).

Sakoneko lan horren ardura, “bai edukiei buruz bai idatzizko zein ahozko probei eta antolaketa arauetaz buruz, erakunde sozial eta adituez osatutako batzorde zientifiko bati emana zaio gaur egun” (MI, MCC eta MEER 2016: 66). Zeregin horren emaitza izan da, 2015eko abenduan, ziurtatzeen aurkezpen ofiziala, “euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren egituraketa kualitatiboaren mugimendu etengabearen aitortza markatzen duen” (MI,

MCC eta MEER 2016: 66). Gailu hau indartu da haur eskolan erabilitako ebaluazio tresna berezien sartzearekin.

Ebaluazio eta ziurtatze prozedurak edukitzeak bi bertute dauzka: “irakaskuntza elebidunaren eta murgiltzezkoaren eraginak objektiboki neurtzea eta euskara ikasteko ikasleek eta beraien gurasoek egindako indarrak baloratzeta” (MI, MCC eta MEER 2016: 66). Prozedura horien inplementazioak lan itzela eskatzen du bai EEPko teknikarientzat, bai irakasleentzat, bai lehen zein bigarren mailetako ikuskarientzat. “Batzorde zientifikoan parte hartu, ulermen eta espresio menperatzearen maila neurtzea ahalbidetzen duten probak asmatu, euskarri egokiak bilatu, ebaluazio liburuxken adierazpena bermatu, proba guztiak zuzendu, ahozko gaitasuna ebaluatu eta emaitzak bildu behar dira” (MI, MCC eta MEER 2016: 66).

#### 4.5. Batezbestekoa baino emaitza hobek

Murgiltze ereduan eskolatuak diren ikasleen kasuan, Christophe Euzet eta Yannick Kerlogotek diotenaren arabera, Euskararen Erakunde Publikoak adierazi die, Hezkuntza Ministerioaren Ebaluazioaren, Prospektibaren eta Gaitasunen Zuzendaritzarekin 2019an burututako ebaluazioan, CP eta CE1eko ikasleek maila bera ala hobea daukatela erabilitako adierazle guztietan frantses hutsean ikasten duten ikasleekin alderatuta (Euzet eta Kerlogot 2021: 20).

Gauza bera gertatzen da bigarren mailan, bai Ipar Euskal Herrian bai Bretainian. Izan ere, 2019. urtean egindako ebaluazioan ageri da emaitza hobek lortzen dituztela kolegioan sartzerakoan, brebetan eta batxilergoan. Esaterako, 2019an Diwan eskoletan izena eman duten ikasleen % 99k brebeta eskuratu du, estatu mailako batezbestekoa % 87,30ekoa delarik (Bernabé eta Dubourg-Lavroff 2019: 18).

### 5. Legediaren eta arautegiaren aldaketa

Alabaina, ahulgune eta indargune horietatik at, irakaskuntza elebidunak legediaren eta arautegiaren eraldaketa esanguratsu batzuei aurre egin behar

izan die Molac legearen bozkarekin eta ondorengo Konstituzio Auzitegiaren ebazpenarekin, baita ere hizkuntza zein kultura gutxituen irakaskuntza arautzen duen zirkular berriarekin.

### 5.1. Molac legearen onarpena eta Konstituzio Auzitegiaren ebazpena

Hain zuzen ere, 2019ko abenduaren 30ean, Paul Molac diputatu bretoiak, beste diputatu batzuekin batera, hizkuntza gutxituen ondarearen babeserako eta sustapenerako lege proposamena aurkeztu zuen Asanblea Nazionalean, kultura eta hezkuntza gaiez arduratzen den batzordera bidalia izan aurretik (Assemblée Nationale 2019). Bi helburu nagusi zeuzkan: ondare immaterialaren eta aniztasun kulturalaren babesa eta sustapena, hizkuntza gutxituak horren adierazleatariko bat direlarik (Assemblée Nationale 2019: 3). Lege proposamen hau Konstituzioaren 75-1. artikulua jarraipenean kokatzen da, eta baita Frantziak izenpetu dituen nazioarteko hitzarmenen segidan ere. Hiru eremu nagusi ukitzen ditu: ondarea (1 eta 2. artikulua), hezkuntza (3, 4, 5, 6 eta 7. artikulua) eta zerbitzu publikoak (8 eta 9. artikulua).

Lege proposamenaren lehen irakurketa 2020ko otsailaren 13an egin zen. Emendakinen aurkezpenaren eta eztabaida parlamentarioaren ostean, legea onartu zen, nahiz eta 2. artikulua birformulatu zen, hezkuntzari loturiko bost artikulua bertan behera geratu eta beste bi artikulua gehitu ziren legebiltzarraren eginkizuna zehazteko (Assemblée Nationale 2020). Senatutik 2020ko abenduaren 10ean igaro ostean, bi emendakin garrantzitsu sartu ziren berriz ere lege proposamenean: bata, murgiltze ereduaren aitortzari buruzkoa, eta, bestea, derrigorrezko eskola abonuari buruzkoa. Azkenean, Asanblea Nazionalak 2021eko apirilaren 8an egin zuen bigarren irakurketan, nahiz eta Blanquer ministroa aurka posizionatu, lege proposamena bere horretan bozkatu zen (Assemblée Nationale 2021).

Lege horren onarpenak poz handia sortu zuen hizkuntza gutxituak erabiltzen diren herrialdeetan, Ipar Euskal Herrian barne. Bertako hautetsi eta hizkuntza eragileek “egun historiko” eta “garaipen garrantzitsu” bezalako



hitzak erabili zituzten. Kontua da, Hezkuntza Ministerioak bultzaturik, 61 diputatuk helegite bat aurkeztu zutela Konstituzio Auzitegian, kontsideratuz Molac legearen 6. artikulua, hau da, derrigorrezko eskola abonuari buruzkoak, ez duela Konstituzioaren 2. artikulua errespetatzen. Modu ezohikoan, Konstituzio Auzitegiak lege osoari buruzko ebazpena plazaratu zuen eta ez soilik 6. artikuluari buruzkoa. Denen harridurarako, 6. artikulua onartzarekin batera, 4. eta 9. artikulua bertan behera utzi zituen esanez Konstituzioaren 2. artikulua aurkakoak zirela. Horrek esan nahi du, besteak beste, murgiltze eredu Konstituzioaren aurkako delat (Conseil Constitutionnel 2021).

Erabaki horrek hautsak harrotu zituen hizkuntza gutxituak erabiliak diren eremuetan eta, bereziki, Ipar Euskal Herrian eta Bretainian. Beraien haserrea eta ondoeza adieraztearekin batera, tokiko hautetsiek zein hizkuntza eragileek mobilizaziorako deia luzatu zuten. Dei horri erantzunez, 2021eko maiatzaren 29an, 50 manifestazio antolatu ziren Frantzia osoan, jendetsuenak Baionan eta Guingampen suertatu zirelarik, bakoitzean 10.000 pertsona inguru batu baitziren. Sortutako kalapitaren aurrean, Jean Castex lehen ministroak bi diputaturi eskatu zien txosten bat idatz zezaten Konstituzio Auzitegiak murgiltze eredu aplikatzen duten sareengan eduki zezakeen ondorioei buruz. Txosten hori jasotzean, hizkuntza gutxituetako hezkuntza ordezkariekin biltzea hitzeman zuen. Handik gutxira, Emmanuel Macron presidentek komunikatu bat plazaratu zuen esanez hizkuntza gutxituei eta murgiltze ereduari oso atxikia dagoela. Adierazpen horien helburua giroa lasaitzea zen, kontuan izanik departamentu eta eskualde hauteskundeak antolatuko zirela handik gutxira, ekainaren 20 eta 27an preseski (*Le Monde* 2021).

## **5.2. Hizkuntza eta kultura gutxituen irakaskuntzari aplikatzen zaion markoa**

Konstituzio Auzitegiak hartutako erabakiak sortutako haserrea kontuan hartuz eta murgiltze eredu aplikatzen duten eskolei gutxiengo segurtasun juridiko bat eman nahiz, Hezkuntza Ministerioak tokiko hizkuntza eta kultu-

ra irakaskuntzari aplikatzen zaion markoa finkatzen duen zirkular bat bidali zien akademia errektore, akademia ikuskari, zerbitzu akademikoetako zuzendari, eskualdeetako pedagogia ikuskari eta ikastetxeetako zuzendari. 2021eko abenduaren 14an agertu zen Frantziako Agintaritzaren Aldizkarian.

Konstituzioaren 2. eta 75-1. artikuluek, Hezkuntza kodea eta Molac legea gogoratu ostean, lehen atal batean, azpimarratzen dute indarrean dagoen legediak eta arautegiak eskualde hizkuntza eta kulturen irakaskuntza faboratzen duela. Ordura arte onartutako zirkularrak (2001eko irailaren 5eko 2001-166 eta 2001-167, eta baita 2003ko ekainaren 5eko 2003-090 zirkularrak), legeak (2015eko abuztuaren 7ko 2015-991 eta 2019ko uztailaren 26ko 2019-791 legeak) eta Hezkuntza kodearen hainbat artikulua aipatzen dira (L. 312-11, L. 314-2 eta L. 442-5 artikulua, besteak beste). Bigarren atal batean azpimarratzen da hizkuntza eta kultura gutxituak sustatu behar direla eskola ibilbide osoan zehar. Horretarako, Hezkuntza kodearen L. 312-11-2 artikulua gogoratzearekin batera, hizkuntzen programei loturiko araudia eta lehen zein bigarren mailetan lortu beharreko hizkuntza mailak zehazten ditu, azterketak pasatzeko jarraitu beharreko arauak ahaztu gabe.

Hirugarren atalean, zirkularrak dio elebitasuna indartzeko premia dagoela hizkuntza gutxituen irakaskuntzan interesa duten ikasleentzat. Argiki dio, sail elebidunak aukeratzen dituzten ikasleentzat, ministerioak asmoa duela euskara eta frantsesa maila berean menpera ditzaten. Horrela dio:

Gela eta sail elebidunen helburua, haur eskolatik lizeoraino, frantsesaren eta eskualde hizkuntzaren ezagutza bera bermatzea da, izan dadila bi hizkuntzen ordutegi parekotasunaren ala murgiltze metodoa erabiltzen duen irakaskuntza elebidunaren bitartez. Murgiltzearen bidezko irakaskuntza hori, irakaskuntza elebidunaren ikaskuntza estrategia posible bat da. [Horrez gain], bi hizkuntzen praktika-denbora aldakorra izan daiteke, astean, ikasturtean ala zikloan zehar, beharren arabera. (Bulletin Officiel 2021)

Hala ere, zirkularrak gehitzen du murgiltze bidezko irakaskuntza elebiduna nahitaez hautazkoa izango dela ikaslearentzat. Bere guraso ala legezko ordezkariak metodo hori proposatzen duten zentro pedagogikoetan eskolatzeko erabakia hartzen dute, alde aurretik beharrezkoa duten informazioa

jaso ondoren. Era berean, ala eskolako langileek ala zuzendaritzak ikasleen gurasoekin eta erakundeekin erabiliko duten komunikazio hizkuntza frantsesa izango da. Aitzitik, behar izanez gero eta testuinguruaren arabera, eskualde hizkuntza ere erabiltzen ahalko da (Bulletin Officiel 2021). Azkenik, ikasle horiek frantsesaren eta eskualde hizkuntzaren erabateko ezagutza bermatzeko, ebaluazioak egingo dira.

Laugarren eta azken atalak, hizkuntza eta kultura gutxituen kudeaketa moduak finkatzen ditu. Batetik, hizkuntza maila neurtzeko, sail elebidunetan izena eman duten ikasleak erregulariki ebaluatuko dira, arreta berezia jartzen delarik CP, CE1 eta 6.eko estatu mailako ebaluazioetan. Horrez gain, Hizkuntzen goi mailako kontseiluarekin batera osatutako ebaluazio osagarriek aukera eskaintzen dute ikasleek hizkuntza lorpenen progresioa jarraitzeko, bi hizkuntzetan zein ikasketa ibilbide osoan. Bestetik, hizkuntzen goi mailako kontseiluan, sail bat hizkuntza gutxituei eskainiko zaio, jakinda kontseilu horren egingizuna dela hizkuntzen inguruko hausnarketa, kontsulta eta sustapena bermatzea. Hizkuntza gutxituen kasuan, irakaskuntza elebidunaren hausnarketa didaktiko eta pedagogikoa egiten du. Horrekin batera, akademiak laguntzen ditu irakaskuntzaren kalitatea eta praktiken koherentzia hobetzeko asmoa duten formakuntzak proposatu ditzaten (Bulletin Officiel 2021).

Beraz, zirkular horrek murgiltze ereduari gutxiengo segurtasun juridiko bat eskaintzen badio ere, ez ditu zalantza guztiak uxatzen eta ez da Konstituzio Auzitegiaren ebazpenaren maila juridiko berekoa.

## 6. Ondorioak

Euskara-frantsesa irakaskuntza elebidunak eta euskarazko murgiltze eredu praktikatzen duen irakaskuntzak garapen esanguratsua ezagutu dute Ipar Euskal Herrian. Hori ikusi da sail horietan izena eman duten ikasleen kopuruetan eta baita ere irakaskuntza publiko, pribatu kristau eta laiko asoziatiboaren sail kopuruetan. “Errepublikaren eskolaren birfundazioari buruzko 2013ko uztailaren 8ko legeak ahalbidetu du berrestea eskualde hizkuntzek betetzen duten tokia hezkuntza sisteman eta haren ikaskuntza errazteko administrazio publikoek erakutsi duten konpromisoan” (MI,

MCC eta MEER 2016: 72). Eskainitako giza zein baliabide finantzarioek jarrera aldaketa bat erakusten dute, nahiz eta Emmanuel Macron Frantziako Errepublikako lehendakaria hautatu zutenetik estrategia aldaketa bat nabari den, zeren, 2018-2019 ikasturterako Seaskak eskatzen zituen 25 irakasle lanpostuen sorrerari ezezkoa eman baitio, nahiz eta ikasle kopuruak nabarmen gora egin (Reuters 2018).

Edozein kasutan, irakaskuntza elebidunaren eta murgiltze ereduaren etorkizuneko erronkak aldi berean kualitatiboak eta kuantitatiboak dira: batetik, matrikulazioak handitu behar dira euskarazko irakaskuntza-eskaintza emendatuz eta eskolak beharrezkoak dituen giza eta ekonomia baliabideez hornituz; eta, bestetik, “eskola-ibilbideetan, abandonuak saihestu behar dira”, baita ere “ikasleek lortutako irakaspenen, ezagutzen eta gaitasunen kalitatearen ebaluazio indartu” (MI, MCC eta MEER 2016: 73). Horrek ekartzen du “euskal eledunak diren irakasleen kontratazioa hobetzea, egokiak diren baliabide pedagogikoen gabezia murriztea (bereziki bigarren mailan), jarraipen adierazleak edukitzea, kalitatearen ahalezko ebaluazio zein jakituntasuna indartzea” (MI, MCC eta MEER 2016: 73).

Haratago joanez, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren helburu nagusia, Hezkuntza Ministerioak aitortzen duen bezala, hiztun osoak sortzea da: “osoa, zeren pertsona horrek nahikoa den maila lortuko du motibazio, ezagutza eta erabilpenari dagokionez; osoa, pertsona horrek euskaraz komunikatzeko desira sentituko duelako, nahiko gaitasun izango baitu edozein ingurumenean euskaraz egiteko eta benetan erabiltzea erabakiko duelako” (MI, MCC eta MEER 2016: 73). Helburu hori betetzeko, ezinbestekoa da “hiztun oso nozioa birformulaztea itxaroten den hizkuntzaren menperatze mailari dagokionez” eta euskarazko irakaskuntza-denborari eskaintzen zaion tartea handitzea, murgiltzarekin gertatzen den bezala (MI, MCC eta MEER 2016: 73).

## Bibliografia

ASSEMBLEE NATIONALE (2019). *Proposition de loi relative à la protection patrimoniale des langues régionales et à leur promotion*. 2019ko abenduaren 30a. [https://www.assemblee-nationale.fr/dyn/15/textes/l15b2548\\_proposition-loi.pdf](https://www.assemblee-nationale.fr/dyn/15/textes/l15b2548_proposition-loi.pdf)

——— (2020). *Proposition de loi adoptée, par l'Assemblée Nationale, relative à la protection patrimoniale des langues régionales et à leur promotion*. 2020ko otsailaren 13a. [https://www.assemblee-nationale.fr/dyn/15/textes/115t0408\\_texte-adoptee-seance](https://www.assemblee-nationale.fr/dyn/15/textes/115t0408_texte-adoptee-seance)

——— (2021). *Proposition de loi adoptée, par l'Assemblée Nationale, en deuxième lecture, relative à la protection patrimoniale des langues régionales et à leur promotion*. 2021eko apirilaren 8a. [https://www.assemblee-nationale.fr/dyn/15/textes/115t0591\\_texte-adoptee-seance](https://www.assemblee-nationale.fr/dyn/15/textes/115t0591_texte-adoptee-seance)

AUÑAMENDI EUSKO ENTZIKLOPEDIA (2018). *Etxepare, Bernat*. <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/fr/etxepare-bernat/ar-43824/>

BERNABE, Y., DUBOURG-LAVROFF, S. (2019). *L'enseignement en immersion d'une langue vivante régionale: le réseau Diwan, Inspection générale de l'Éducation nationale, Inspection générale de l'administration, de l'Éducation nationale et de la recherche*, note n° 2019-053, 2019ko uztaila.

BULLETIN OFFICIEL (2005). *Loi n°2005-380, d'orientation et de programme pour l'avenir de l'école, du 23 avril 2005*. <http://www.education.gouv.fr/bo/2005/18/MENX0400282L.htm>

——— (2021). *Circulaire du 14 décembre 2021 relative au cadre applicable et à la promotion de l'enseignement des langues et cultures régionales*. [https://www.education.gouv.fr/bo/21/Hebdo47/MENE2136384C.htm?fbclid=IwAR09N\\_xMJiSAWgp-YepCuE950P5INaf3ZS6nkqB9iFpG9dbKzZrx9kQngkRI](https://www.education.gouv.fr/bo/21/Hebdo47/MENE2136384C.htm?fbclid=IwAR09N_xMJiSAWgp-YepCuE950P5INaf3ZS6nkqB9iFpG9dbKzZrx9kQngkRI)

CASTOREO, P. (1993). *Langue basque et enseignement en France, de 1789 à 1993*. Travail d'Etude et de Recherche. Pau: Université de Pau et des Pays de l'Adour.

CONSEIL CONSTITUTIONNEL (2008). *Texte intégral de la Constitution du 4 octobre 1958 en vigueur*. <https://www.conseil-constitutionnel.fr/le-bloc-de-constitutionnalite/texte-integral-de-la-constitution-du-4-octobre-1958-en-vigueur>

——— (2021). *Décision n°2021-818 DC du 21 mai 2021*. <https://www.conseil-constitutionnel.fr/decision/2021/2021818DC.htm>

CONSEIL D'ETAT (2002). *Décision en date du 29 novembre 2001 annulant la circulaire n°2001-168 du 5 septembre 2001*. <http://www.conseil-etat.fr/Decisions-Avis-Publications/Decisions/Selection-des-decisions-faisant-l-objet-d-une-communication-particuliere/Section-du-contentieux-sur-le-rapport-de-la-4eme-sous-section-Seance-du-28-octobre-2002-lecture-du-29-novembre-2002>

COYOS, J. B. (2010). « Avancées et limites de l'enseignement scolaire de la langue basque en France », in *Les Langues Modernes*, 4. libk., 32-37.

——— (2013). « Le basque. Histoire sociale des langues de France », in KREM-NITZ, G. (dir.): *Histoire sociale des langues en France*. Rennes: Presses Universitaires de Rennes, 427-437.

——— (2018). « L'enseignement scolaire bilingue basque-français: avancées et limites », HAL, Artxiker, CNRS. <https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-01781091/document>

EDUCATION NATIONALE, FEDERATION SEASKA ET OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE (2009). *Convention entre le Ministère de l'Education Nationale, la Fédération Seaska et l'Office Public de la Langue Basque*. [www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr)

EUZET, C., KERLOGOT, Y. (2021). *L'enseignement des langues régionales. Etat des lieux et perspectives après la décision du Conseil Constitutionnel du 21 mai 2021*. [https://www.gouvernement.fr/sites/default/files/document/document/2021/07/rapport\\_enseignement\\_des\\_langues\\_regionales.pdf](https://www.gouvernement.fr/sites/default/files/document/document/2021/07/rapport_enseignement_des_langues_regionales.pdf)

GREGOIRE, H. (1794). *Rapport sur la nécessité et les moyens d'anéantir les patois et d'universaliser l'usage de la langue française*, Convention Nationale, 1794, 1-19. [https://fr.wikisource.org/wiki/Rapport\\_sur\\_la\\_n%C3%A9cessit%C3%A9\\_et\\_les\\_moyens\\_d%E2%80%99an%C3%A9antir\\_les\\_patois\\_et\\_d%E2%80%99universaliser\\_l%E2%80%99usage\\_de\\_la\\_langue\\_fran%C3%A7aise](https://fr.wikisource.org/wiki/Rapport_sur_la_n%C3%A9cessit%C3%A9_et_les_moyens_d%E2%80%99an%C3%A9antir_les_patois_et_d%E2%80%99universaliser_l%E2%80%99usage_de_la_langue_fran%C3%A7aise)

IKAS-BI (2022). *Historique*. <https://www.ikasbi.com/qui-sommes-nous/historique/>

INSPECTION GENERALE DE L'EDUCATION NATIONALE ET INSPECTION GENERALE DE L'EDUCATION NATIONALE ET DE LA RECHERCHE (2013). *Le recours à »l'expérimentation par les établissements autorisé par l'article L. 401-1 du code de l'éducation*. [http://cache.media.education.gouv.fr/file/2013/92/3/2013-057-Le-recours-a-l-experimentation-par-les-etablissements\\_277923.pdf](http://cache.media.education.gouv.fr/file/2013/92/3/2013-057-Le-recours-a-l-experimentation-par-les-etablissements_277923.pdf)

LEGIFRANCE (2018a). *Loi du 15 mars 1850 sur l'enseignement «Loi Falloux»*. <https://www.legifrance.gouv.fr/affichTexte.do?cidTexte=JORFTEXT000000332156&dateTexte=20000621>

——— (2018b). *Loi n°51-46 du 11 janvier 1951 relative à l'enseignement des langues et dialectes locaux «Loi Dexonne»*.

——— (2018c). *Loi n° 2013-595 du 8 juillet 2013 d'orientation et de programmation pour la refondation de l'école de la République.*: <https://www.legifrance.gouv.fr/affichTexte.do?cidTexte=JORFTEXT000027677984&categorieLien=id>

——— (2018d). *Loi du 30 octobre 1886 portant sur l'organisation de l'enseignement primaire.* <https://www.legifrance.gouv.fr/affichTexte.do?cidTexte=LEGI-TEXT000006070886>

LE MONDE (2021): « Emmanuel Macron défend l'enseignement immersif des langues régionales », *Le Monde*, 2021eko maiatzaren 26a. [https://www.lemonde.fr/politique/article/2021/05/26/langues-regionales-emmanuel-macron-defend-leur-enseignement\\_6081548\\_823448.html](https://www.lemonde.fr/politique/article/2021/05/26/langues-regionales-emmanuel-macron-defend-leur-enseignement_6081548_823448.html)

MINISTERE DE L'INTERIEUR, MINISTERE DE LA CULTURE ET DE LA COMMUNICATION ET MINISTERE DE L'EDUCATION NATIONALE, DE L'ENSEIGNEMENT SUPERIEUR ET DE LA RECHERCHE (2016). *Rapport d'évaluation de l'Office Public de la Langue Basque.*

OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE (2021). *L'enseignement bilingue expliqué aux parents.* <https://www.mintzaira.fr/eu/euskara/irakaskuntza-elebiduna.html>

OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE, GOUVERNEMENT DE NAVARRE ET GOUVERNEMENT BASQUE (2017). *VI<sup>ème</sup> Enquête Sociolinguistique Pays basque nord 2016.* [http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/015\\_VI\\_ENQUETE\\_PBN\\_fr.pdf](http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/015_VI_ENQUETE_PBN_fr.pdf):

ORONOS, M. (2020). *Le mouvement culturel basque (1951-2001)*. Bayonne: Elkar.

OYHARCABAL, B. (1999): «Euskarazko irakaskuntzaren historia: ooren eskolen il-dotik, frantses iraultzaren garaiko eskola liburuxka bat», *Lapurdim* IV, 1999: 81-105.

REUTERS (2018). « France: Les écoles en langue basque occupées le jour de la rentrée », *Reuters*, 3 de septiembere de 2018. <https://fr.reuters.com/article/topNews/idFRKCN1LJ1KX-OF RTP>

SEASKA (2022). *Kronologia.* <https://seaska.eus/eu/kronologia>

UNESCO (2010). *Atlas UNESCO des langues en danger dans le monde.* <http://www.unesco.org>

——— (2017). *Lenguas en peligro.* <http://www.unesco.org/new/es/culture/themes/endangered-languages/faq-on-endangered-languages/>

URRUTIKOETXEA, E. (2018). *La politique linguistique de la Révolution française et la langue basque.* Bayonne: Elkar.

- URTEAGA, E. (2004). *La politique linguistique au Pays Basque*. Paris: L'Harmattan.
- (2019). *La nouvelle politique linguistique au Pays Basque*. Paris: L'Harmattan.
- (2021a). *La politique culturelle au Pays Basque*. Paris: L'Harmattan.
- (2021b). «Ley Molac, decision del Consejo Constitucional y sus consecuencias», *Hermes* 70: 64-72.



# Oharrak



# Erromako meza liburuaren eredu- hirugarren argitalpenaren euskerazko itzulpena (eta bizkaierazkoa)<sup>1</sup>

ZUGAZAGA MARTIKORENA, Lontzo  
Ohorezko euskaltzaina  
Honorific member of Euskaltzaindia

## Sarrera

Euskerazko gure Meza Liburu honen itzulpenaren historia eta itzulpen-lanari buruz azalpenak emotea dot helburu nire ekitalditxu honetan, gure itzulpenaren historia argitzeko lagungarria dalako. Nortzuk ibili garan lanean, noiztik noizera, zein bide osotu behar izan dogun? Urteetako ibilbidea egin dogu gure euskal eleizbarrutietako Itzultzaile Taldekideok.

Elizen arteko Bibliaren itzulpena amaitu eta argitaratu genduan (1994), eginkizun haretan jardun genduan taldeak Biblia horren zabalkundea bultzatzea gura genduan; eta gainera prest agertu ginan euskera-arloan Eleizaren zerbitzurako beste lanen bat egiteko. Eta 1999an (Donostian egindako hirugarren batzarrean) “eskuko Meza Liburua” prestatu eta argitaratzeko asmoa azaldu genduan. Hori egiteak itzulpen barria egitea eskatzen eban. Izan be, “Elizen arteko Biblia” (EaB) geunkanez, ezin geinkean Eskuko Meza Liburua argitaratu indarrean egoan *IRAKURGAIK* (1978/1988) liburuko itzulpenaz baliatuz.

Ezertan hasi aurretik hauxe izan zan mahai gainean jarritako galdera: Ezin ete eitekean erabili liturgian Elizen arteko Biblia bere haretan, egoan egoanean? Horrek asko erraztuko euskuzan lanak. Baina ez da bardin, ez da

---

<sup>1</sup> Artikulu hau bizkaieraz idatzia dago eta, beraz, ez du Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzuak (HIZBEA) zuzendu.

gauza bera Biblia dagokion zehaztasun osoz eta norberak eskuetan dauala irakurtzeko egindako itzulpena, edo eleiz alkartearen ospakizunetan, entzun hutsez, entzunda beste barik jaso behar dan testua eratzea. Eta kontuan izan behar zan gainera fededun eleiztar askok dauan Jainkoaren Hitzaren ezagupide-maila.

Liturgiarako itzulpenak herrikoiagoa, ulerterrazagoa, zuzenekoagoa izan behar ebala ikusi genduan. Beraz, hurrengo hauxe izan zan erabagia: “Irakurgaiak” liburuaren lehengo testua eta Elizen arteko Biblia aurrean genduzala, itzulpen barria egitea.

### **Itzultzaile-taldea**

Oraingo itzultzaile-taldean sei lagun izan gara era finkoan jardun dogunak: Ramon Irizar, frantziskotarra, Biblical aditua; Dionisio Amundarain, beneditarra, EaBren itzulpen-lanetan Koordinatzaile izan gendua; hil berri den Eustasio Etxezarreta, Donostiako eleizbarrutiako Liturgi-arloko Ordezkarria eta gure lan honetan koordinatzailea; Jesus Mari Arrieta, Tolosako Parrokoa; Jose Mari Rementeria, Ondarroako Parrokoa; eta neu (Lontzo Zugazaga), orduan Eleizbarrutiko Katekesirako Ordezkarria eta Getxoko Andra Mariko Parrokoa. Azken aldi honetan, Donostiako Liturgiarako Gortzain Ordezkarria barria izanik, Unai Manterola gehitu jaku; beronen esku egon da “musika-testu” guztiak sartzea, bai “batukoak” eta baita “bizkaiera-koak” be, eta liburuaren argitaratze lanen ardurea.

Lanean genbiltzala, 2002an Meza Liburuaren latinezko argitalpen barria argitaratu eben Erroman, hirugarren argitalpena, gero 2008an hainbat zuzenketagaz eta testu barri gitxi batzuk gehituz osotua izan zana. Eta guk, Mezako irakurgaien testu-moltso osoaren itzulpena amaitu ostean, Meza liburuko Otoitzen errepassoa egiteari ekin geuntsan.

Itzulpenari berari dagokion lana 1999an hasi eta 2009an amaitu genduan. Hori bai! Gerora ere behin eta berrero lan guztiaren errepassoak egin behar izan doguz, hainbat puntu aztertuz eta zehaztuz. Esan behar da, orain-

go Meza Liburu hau Kontzilio ostean hirugarren aldiz egindako Meza Liburuaren euskerazko itzulpena eta argitalpena dala.

Kontzilio ostean egin diran Meza Liburuaren edo Liburuaren euskerazko itzulpenen historia<sup>2</sup> egitekoan, labur esanda, hiru etapa berezi/banandu behar doguz:

1. Kontzilio aurretik erabili genduan Trentoko Meza Liburua izan zan lehenengo itzulia eta hainbat liburutxutan argitaratua, 1964-1968 urteetan egina (Gipuzkoan). Gurean ez; gurean, Bilbao elizbarrutian, Jaime Kerexeta eta Aita Santi Onaindiak egindako “Eguneroko Meza” (Bilbao 1963) erabili genduan. Gerora be, hainbat abadek urteetan erabili eban liburu hau, etxeko egiten jakelako bertako euskera, eta itzulpen barrietakoa desezaguna eta gatxagoa egiten jakelako.
2. Bigarren etapa Paulo VI.a Aita Santuak 1969an promulgatu ebana euskeratzearena izan zan. 1971 urtean “*Mezaren Egunerokoa*” argitaratu zan. Eta 1984an “*Meza Liburua*”, bai Donostian eta bai Bilbon. Eta gu Bizkaian, gure Eleizbarrutian, Domeketako Irakurgaiak argitaratzen joan ginan “Irakurgai-Liburua” izenburuarekin. Lehenengo urtean “C” urteko Domeketako irakurgaiak argitaratu ziran, foiletotan, (hiru izan zirala uste dot) 1971ko urtean, eta jarraian, Liburu forman, *Irakurgai-Liburua I (A) eta Irakurgai-Liburua II (B) (1972)*. Baina Irakurgai-Liburua, osoa, *Irakurgaiak* liburuan argitaratu zan Donostian, 1978an, eta Bilbon, 1988an.

---

<sup>2</sup> Esker ona eta onespena erakutsi euskuen aurreko urtean Euskaltzaindiak eta gure Eleizbarrutiek liturgiako testuak euskeratzen lan egin dogunoi. Askok ezagutzen dozuenez, igaro zan urtean Euskaltzaindiak, sorrerako mendeurrenaren ospakizunen artean omenaldi moduko autormena egin gura izan euskun. Pasa dan urteko martiaren 28an egin zan ospakizuna Euskaltzaindiaren Egoitzan, Bilboko Plaza Barrian. Kontzilio osteko eleiz itzulpen-taldean lan egin dogun guztioi emon euskuen zurezko eguzki-lorea, Donemiliaga Kukulako monastegian “*Glosas Emilianenses*” esku idazkietan aurkituriko berba honeez apainduta “*Izioqui dugu... guez ajutu ez dugu*”. Bertan izan ziran aitatuak eleizbarruti arteko liturgi itzultzaileen izenak. Gure eleizbarrutikoak ezagunak dozuez: Lino Akesolo, Karmelo Etxenagusia, Pio Zarrabe, Biktoriano Gandiaga, Mikel Zarate, Juan Gallastegi, Jose Mari Rementeria eta neu, Lontzo Zugazaga. Geu be esker oneko gaiak ez, bai Euskaltzaindiari eta baita ospakizuna eratzen arduratu zan Bilboko gure Eleizbarrutiar.

Astegunetarako Mezetarako guk Kerexetaren *Euskal Biblia* (1976) erabiltzen genduan, bertako euskera nahiko ulerterraza egiten jakelako gure eleiztarrei. [Hori izan zan *Irakurgaiak* liburua bizkaieraz argitaratzeko gure atzerakuntzaren (1978/1988) arrazoietako bat...]

*Irakurgaiak* liburu lodikote hau indarrean dago oraindino, bai Donostian eta baita gurean be, harik eta Irakurgai Liburu barriak argitaratu arte (aurten hasiko dira agertzen).

3. Eta oraingo itzulpen hau, esan dogunez, hirugarrena da; 1999-2009 bitartean egin doguna.

### **Zer dala-ta hainbeste denpora argitaratzeko?**

Itxura baten, 2009tik 2019ra bitarteko epe hori oso luzea izan dala emoten dau testu-moltso osoa prestatu eta argitalpena egiteko. Baina kontuan izan behar da, Meza Liburu eta Irakurgaien testu-moltso hori guztia garbian jarri, ospakizun danak behar dan lez eratu eta zeregin guztia burutzeak bere denpora eskatzen dauala. Meza Liburuak 1.368 orrialde ditu, euren antolaketa desbardinakaz (ez jarraian doan nobela baten testua balitz lez): errubrikak, antifonak, otoitzak, prefazioak euren doinuakaz, eta abar. Eta Irakurgaien testu osoak 3.440 orrialde inguru izango ditu.

Lan hori amaitu ostean, gure Eleizbarrutietako Gotzainen oneretxia behar dau. Gero, Espainiako Gotzainen oneretxia eta, azkenik, Erromako onespena.

Aitatu barri dodazan Eleizako erakunde horreek emon behar daben oneretxiaz, behin baino gehiagotan itaundu deuskuzue, ea zer esan daikien pertsona horreek euskerarik jakin barik, eta zelan emon leikien euren eretxia. Badot neure bildurtxua, ez ete jatzuezan aspergarri gertatuko gai honi buruz emongo deusuedazan azalpenak. Dana dala, interesgarri be izan daiteke Meza Liburuaren Erromako onespena lortzeko egin behar izan dogun ibilbidea kontatzea.

## Euskal Eleizbarrutietako Gotzainen eta Espainiako Gotzain Batzarraren oneretxia

A. Testu osoa prestatu ondoren, egindako guztiaren barri emon eta testua bialdu jaken/geuntsen gure Eleizbarrutietako Gotzainei (2012-07-20), informe bategaz, itzulpenari buruzko azalpenak eskeiniz eta euren oneretxia eskatuz. Gure gotzainetako batek edo bestek euren konfiantzazko pertsona batzuei eskatu eutsien guk egindako lanari buruzko eretxia. Handik bederatzi hilabetera, Meza Liburuaren hainbat puntu aztertzea eskatu euskuen (2013-04).

Egin genduan Gotzainek eskatutako puntu horreen azterketa; onartu egin genduzan hareek eskatutako proposamen batzuk eta, beste batzuetan, azalpenak emon geuntsiezan arrazoiak adierazoz, eta zuzendutako testua bialdu jaken barriro (2014-02). Zuzendutako testu hori onartua izan zan gure Gotzainen aldetik.

B. Hurrengo pausua, Espainiako Gotzainen Batzarraren oneretxia lortzea izan zan. Liturgiako testuen itzulpenari buruzko “*Liturgiam authenticam*” dokumentuak dino, beharrezko dala Batzarra osotzen daben Gotzainen heren biren oneretxia, Erromako onespina eskatu ahal izateko. Espainiako Gotzainei 2014ko zemendian izan eben Batzarraldian egin jaken euskerazko Meza Liburuaren aurkezpena. Euskal eleizbarrutietako Gotzainek ontzat emona ebenez/eukenez, Batzarreko Gotzainek be onartu egin eben Meza Liburuaren euskerazko itzulpena eta Erromara bialdu eben (2015-01).

## Erromagazko gorabeherak eta onespina

Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Erromako Kongregazioak liturgi itzulpenari buruzko idazkia “*Liturgiam authenticam*” argitaratu eban 2001eko martian. Itzulpengintza oso estu hartzen dau idazki horrek. Jatorrizko testuari zor jakon leialtasuna/fideltasuna da idazkiaren ardatz nagusia. Ikuspegi oso zorrotzez hartzen dau leialtasunaren arazoa. Hitz gitxitan esanda, itzulpenak *hitzez hitz* egina izan behar daua adierazten dau.

Kontzilio ostetxuan egindako lehenengo itzulpen hareek “*ad experimentum*” ontzat emonak izan ziran, bai euskerazkoak bai gainontzeko hizkuntzetakoak be. Gerora, ostera, hizkuntza desbardineta itzulpenak astiro eta zehatz aztertzen joan dira eta, kasu batzutan, modu nahiko librean eginda egozala ikusi eben. Eta, testu horreetan Eleizaren fedea adierazten danez, kontu handia izan behar zala testuon itzulpenean eta zehaztasunez egin behar zirala autortu eban Kongregazioak.

### Lehenengo lanaldia Erroman (2016-02-22/26)

Erroman gure itzulpen-testua aztertzen hasi aurretik, bertara joateko eskatu euskuen itzulpenari buruz berba egiteko. Bilboko Bikario Nagusia (Félix Alonso) eta Eustasio Etxezarreta joan ziran bertara; lau eguneko lanaldia egin eben. Kongregaziotik Robert Sarah kardinala, Artur Roche idazkaria, Corrado Maggioni azpiidazkaria, Aurelio García ofiziala eta Salvador Aguilera laguntzailea izan ziran. Hareen zeregina aginduta dagoana/egoana be-tearaztea izan zan. Eurak ez ziran gauza esaldien edukia aztertzeke, baina puntu batzuei buruz itaunak eginez, jabetzen ziran, gitxi gora behera, zenbateraino zaindu genduan jatorrizko testuagazko fidelitasuna.

Zein izan zan lehenengo ekitaldi horretan (2016-02-22/26) egindako azterketa?

Meza Liburuko *Egutegi Orokorra* lerroz-lerro begiratzetik hasi ziran, ospakizun eta santu guztiak zehatz-zehatz sartuta ete genduzan, eta ospakizun eta santu bakotxaren deitura eta gainontzeko xehetasunak behar zan moduan jarrita ete geunkazan ikusteko.

Hango lanaren beste atal bat, liturgiako teologiagaz eta testuaren bardintasun edo desbardintasunagaz zerikusia daukien hitz batzuk zehatz begiratzeara izan zan. Han-hemenka otoitz eta testu batzuk begiratu, itaunak eginez, hitz horreen itzulpena zehaztasunez egin ete egoan ikusten jardun eben: “*Deus*”, “*Domine*”, “*Unigenitus*”, “*Filius unicus*”, “*vetustas-novitas*” kontrasteak, “*homo*”, “*vir*”, “*humanum genus*”, “*natura humana*”, “*humana substantia*”, “*humana fragilitas*”, “*humana mortalitas*”, “*carnem suscipere*”, “*nativi-*



*taten secundum carnem*”, “*caro fieri*”, “*nova per carnem nativitas*”, “*in nostra carne adventum*”, “*comercium*”, “*caritas dilectio*”, “*corpus, cor, anima, animus, spiritus*”, “*sacerdos*” eta “*presbiter*” bereizi; prefazioetako amaieretan azaltzen diran hitz eta esaldiak: “*tronis et dominationibus*”, “*cumque omni militia caelestis exercitus*”, “*caeli caelorumque virtutes*”, “*potestatem*”, “*principatum*”...

Ondorengo pausuak:

- 2016-04-7an, itzulpen-taldean aztertu, Erroman jasotako argibideak eta erispideak aintzat hartuz;
- 2016-05-26an, gure Gotzainek onartu;
- 2016-06-24an, testu zuzendua Erromara bialdu;
- 2016-12-15ean, testua barriro bialtzeko eskatu Erromatik;
- 2017-04-12an, zuzenketa gitxi batzuk gehiago eskatu Erromatik;
- 2017-07-3/6, bigarren lanaldia egitera joan Erromara.

### **Erromako bigarren lanaldia (2017-07-3/6)**

Erromako aurreko batzarrean (2016-02-22/26) eskatutako zuzenketen barri emenez hasi ziran. Orokorrean ondo hartuak izan ziran gure aldetik egindako zuzenketak eta emondako azalpenak. Latinezko Meza Liburuaren eta gurearen arteko konparaketa egin eben: orrialdez orrialde pasa eben liburu osoa, eta orrialde bakotxeko testuak banan-banan begiratzeari ekin eutsen, dana behar bezala eta bere lekuan ete egoan aztertuz. Bide batez, holako edo halako xehetasunak aztertzeari be ekin eutsien, tarteka zuzenketak be eskatuz. Adibidez, “*sakrifizio*” terminua sartzea eskatu euskuen; izan be, “*hostia*” edo “*oblatio*” hitza “*eskeintza*” edo “*opari*” itzultzen genduan, eta “*sacrificium*” esateko be “*opari*” erabiltzen genduan. Horretara, edukia murriztu egiten zala adierazo euskuen eta “*sakrifizio*” hitza sartzeko agindu.

Santuen betiko mezetan gehigarri sartuta geunkan “*dohatsu*” hitza; izan be, hainbat kasutan santuarena barik *dohatsu* baten (beato) ospakizuna egitea gertatuko da; baina *dohatsu* hitza jatorrizko testuan ez dagoanez, kentzeko eskatu euskuen. Eta latinaren arabera, zehatz erabiltzea otoitzetan

azaltzen diran “aita santu”, “gotzain”, “abade”, “presbítero”, “diakono”, “martiri”, “eleiz artzain”, “eleiz irakasle”, “birjina”...

Lanaren harian hainbat erispide garantzen ziran, esate baterako, jatorrizko testuan ez dagozan zehaztasun edo *esplizitazioak* ez dirala sartu behar, hitz bera era berean itzuli behar dala leku desbardinetan, ez dala testuaren *interpretaziorik* egin behar...; zehatz itzuli behar zala, singularra eta plurala, maskulinoa eta femeninoa, jatorrizkoaren arabera erabili behar dirala. Baina euskera ez da hizkuntza latindarra, eta latinaren eta euskararen artean ez dago beti korrespondentzia zuzenik. Horretara askatasun gehitxuago geunkan.

Gure aldetik, leialtasun bi jagon beharra ikusten dogu:

- a) Jatorrizko testuari dagokiona, batetik; garbi dago, liturgian garrantzi handia daukala jatorrizko testuagazko leial izateak, Eleizaren fedea adierazten dalako testu horreetan.
- b) Eta euskereari dagokiona, bestetik, jatorrizkoa egoki eskeintzeko jasotzaileari, ulergarri egin dakion.

Hitzez hitz itzulpena egiteak askotan ulergatx bihurtu leike testua, eta esaldia oker ulertzera be eroan leike sarritan (esakerak eta modismoak hizkuntzatan...). Latinak, jatorrizko testuan, e.b., izenordeagaz eta generoagaz jokatu leike (*ille, illa*, eta abar), baina euskeran subjektua edo objektua esplizitatu beharra egoten da, esaldia ondo ulertuko bada (euskeran “generoa” aditzean bakarrik dago).

Hori guztia kontuan izanda, edukia okertu barik, “*entzulearentzat*” (jasotzailearentzat) ulergarriagoa egitea zaindu izan da gure itzulpenean, bera dalako azkenean mezua ulertu eta bereganatu behar dauana.

Erromako jardunaldi bietan aitatutako zehaztasunen lehenengo eta bigarren errepasso orokorra egin eta testua behar bezala zuzendu ondoren, barriro bialdu genduan Erromara (2017-09-11). Eta azkenik, 2017ko urriaren 7an sinatua dago MLaren onespena autortzen dauan Erromako DEKRETUA: Erromako Meza Liburu eraberrituaren euskarazko itzulpenaren egiaztapena. Eta gure Eleizbarrutietako Gotzainek be idatzi eta sinatu dabe Meza

Liburuaren erabilpenerako Dekretua, 2019ko ekainaren 23an. Kristoren Gorputz eta Odol Santuen Festaburuan. Ostean, fotokonposizino-, inprimatze- eta enkoadernatze-lanak egin behar izan dira.

## Gure Meza Liburuko puntu barri batzuk

Aztertu daiguzan orain gure Meza Liburu honetan aurkituko doguzan aldaketa batzuk. Eukaristi Otoitzei dagokienaz, badira gauza bi azpimarratu behar diranak: sagara aurretik eskuak oparigaien gainean jarritz Espirituari dei egiten jakon otoitzean, latinak dino “Corpus et Sanguis **fiant** Filii tui Domini nostri Jesu Christi”, eta aditz horri dagokion garrantzia emon behar jakola itzulpenean, dinoe Erromatik. Beraz, Eukaristi Otoitz guztietan “**egin daitez**an” itzuli da, eta ez lehenago egoanez “**izan daitez**an”.

Beste puntua, Mezaren ospakizunean Kalizaren Sagarako “pro vobis et **pro multis**” esaldiari dagokiona da. Hitz honeek, hainbat hizkuntzatan, baita euskeraz be, “**zuentzat eta guztientzat**” itzuli izan dira eta Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazioak karta bat idatzi eutsen nazinoetako Gotzainen Batzarrei, Benedikto XVI.aren guraria horixe zala adierazoz eta, “*Liturgiam Authenticam*” dokumentuari jarraituz, eskatu egiten jaken, hitz horreen “itzulpen zehatza egin behar zala” esanez, hau da, “**zuentzat eta askorentzat**”.

Hitzak aldatzen diran arren, esanahia ez da aldatzen. Ez dago ezelako zalantzarik Jesusek danen alde emon ebala bizia, baina esaldi hori erabili ebanez Jesusek Azken Afarikoan San Mateok (Mt 26,28) eta San Markosek (Mk 14,24) dinoenez, **askorentzat** esan behar dogu. Izan be, Jesusek horregaz Isaiasek (Is 53,12) Jainkoaren Zerbitzariari buruz dinoana, beretzat hartzen ebala adierazo gura izan ebala dino Benedikto XVI.ak. Jesusen hitzek merezidu daben errespetua da Aita Santuak hori holan itzultzea eskatzean eukan ikuspegia. Frantzisko aita santuak be berretsi egin dau ikuspegi hori. Euskal Eleizbarrutietako Gotzainek sinatutako Dekretuak dinoanez, datoren Abendualdiko I. Domekatik aurrera, (2019), “**zuentzat eta askorentzat**” esango dogu euskeraz emongo doguzan Mezetan, sagarako sakramentu hitzetan.

Zuhur! Sagaran: “Egizuz, bada, santu... =/= Santu egizuz, bada”.

Sagaran bertan, ardaoaren sagaratzean: “Era berean, afalondoan =/= afal ostean, bardin”.

“Gogoan izan, Jauna... =/= Izan gogoan, Jauna...”.

Doxologian ere beste aldaketatxu bat: “Honen bitartez... zuri Aita =/= zuri, Jainko Aita...”.

### “Gure Aita” otoitzean aldaketa

Aspalditik, behin baino gehiagotan planteatu izan da “**Gure Aita**” otoi-tzaren amaierako “... eta ez gu tentaldira eraman/eroan” eskaria aldatzea, baina hori bakean izteko izan da behin eta barriz gotzainen erantzuna. Abade eta laiko asko ez egoan konforme esaldi horretan adierazten zan Jainkoaren irudiaz. Irudi okerra zala uste eben eta gogor egiten jaken Jaunaren otoitzean esaldi hori esatea eta kantatzea.

Egia da badala ebanjelioetan pasarte ilun eta ulergatx egiten jakuna. San Mateok, Jesus basamortuan tentatua izan zaneko pasartean hauxe idazten eban: “*Orduan, Espirituak basamortura eroan eban Jesus, deabruak tentatu egian*” (Mateo 4,1).

Dana dala, Jaunaren Otoitzean esaten izan doguna bigundu eta aldatu beharrekoa zala uste genduan askok. Jatorrizko testu grekoari leial jarraituz, latinezko itzulpenak honan dino. “*Et ne nos inducas in tentationem*” (ez gaginguz *eroan* tentaldira). Gaztelaniazko itzulpenak, ostera, bigundu egiten dau esaldia honetara: “*No nos dejes caer en la tentación*”. Biguntze hau itzulpen literaletik urrunago doa, eta interpretazino bat dala esan geinke. Eta ondortxu dakigu Erromak argi adierazo dauala ez dauala gura ezelako interpreta-zinorik ez azalpenik itzulpena egiterakoan (ik. Liturgiam Authenticam, Erroma 2001). Halan be, guk uste dogu bidezkoa eta legezkoa dala biguntze hori. Izan be, kontuan izan abehar dogu Santiagoren epistolari esaten jakuna: “Inork, tentaldirik daukanean, ez begi esan Jainkoak tentatzen dauanik. Jainkoak ez dau txarrerako tentazinorik eta ez dau inor txarrerako tentatzen” (St 1,13).

Gure Meza Liburu honen argitalpen-lanetan, hatan be, inprimatze-lanetan sartuak ginala, Frantziako Gotzainek “Gure Aita” ko esaldi hori frantsesez aldatzea erabagi eben (2017-12-3). Lehenagoko “et ne nous soumet pas à la tentation” aldatuz, “et ne nous laisse pas entrer en tentation” jarri eben. Une egokia iruditu jakun geuk be euskerazko esaldia aldatzeko. Hatan be, egun hareetan, Frantzisko Aita Santuak itzulpen hori hobetsi eban, horretara itzuli beharko litzakela esanez. Gaztelaniazko itzulpena be horren antzera dago: “no nos dejes caer en la tentación”.

Itzulpen-taldean holan aldatzea proposatu genduan: “ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen / ez eiguzu itxi tentazioan jausten” (silaba kopuru berberagaz, kantuan be batera jokatzeko), eta atara gagizuz gatxetik”. Gotzainek ontzat emon euskuen (2017-12-23), eta gero onartua izan zan Erroman.

## Gure makaltasunaren oihua

Gure Aita otoitzaren eskariak biziagotzen joan dira larritasunezko oihuan goia jo arte. “Ez eiguzu itxi tentazioan jausten”. Eskari honek aurretiko esperientzia bat izan dala adierazten dau: gizakia, gizona/emakumea, ahula dala benetan, eta bere burua galtzeko eta Jainkoagaz desleiala jokatzeko arriskuan jausteko mehatxu pean bizi dala.

Eskari hau geure ahuleziaren oihu larria da, bere burua makala dala sentidu eta nabaritzen dauanaren laguntza eta babes deiadarra.

Eta eskariak geure harrokeria eta presuntzinotik jagoten gaitu. Izan be, presuntzinoa garesti ordaintzen da. Ekarri daigun gogora harako Pedrorena: “Beste guztien sinismenak huts egiten badau be, nireak ezelan be ez” (Mt 26,33).

Ai Pedro gizajoa! Behingoan esan behar izan eutson Jesusek: “Benetan dinotsut: gaur gauean bertan, oilarrak jo baino lehen, hiru bider ukatuko nozu” (Mt 26,34).

Hori bai! Jainkoari eskatzen deusaguna ez da tentaldirik ez izatea, azpiratu eta garaitu daiguzala baino. Inor be ez da tentalditik aske. Testamentu Barriak agirian eta esplizituki esaten dau Jesus bera be tentatua izan zala:

“Berrogei egunez egon zan basamortuan, Satanasek tentatzen ebala” (Mk 1,13). “Orduan, Espirituak basamortura eroan eban Jesus, deabruak tentatu egian” (Mt 4,1). “Espirituak eroanda, basamortuan zehar ibili zan (Jesus) berrogei egunez, deabruak tentatzen ebala” (Lk 4,1-2). Eta horrek ez gaitu harritu behar: benetako gizona zan.

Izan be, tentazinoak, deserosoak eta gogaikarriak izan arren, *baliagarriak eta onuragarriak* dira. “Probatua izan ez danak gitxi daki” –dino Sirakek- (Sir 34,10). Gitxi daki, batez be, bere buruaz. Tentazinatorik ez izateak onginahian finkatuak gagozala sinistra eroango gindukez, gogo-handiuste eta harropuzkeriara. Horrezaz gain, burrukarik egin beharrik ezaz, ez geunke abagunerik izango geure borondatea sendotzeko. Horregaitik esango dau Santia-gok: “Senideok, egon zaitzeze pozik edozein eratako tentaldik erasotzen deusueanean” (St 1,2). Ez dogu eskatzen, ba, tentazinatorik ez izatea, baina bai garaitzen jakitea, pekatuak ez egitea.

Gauza bat, bai, argi euki behar dogu, eta horretan ziur egon: “Ez jatzue gainera etorri giza indarrez gainditu ezineko tentaldirik; leiala da Jainkoa, eta ez dau itxiko zeuen indarrez gaineko tentaldirik izan dagizuen. Alderantziz, tentaldiaz batera indarra be emongo deusue tentaldia garaitu ahal izateko” (1Ko 10,13).

Halan be, tentaldiek gure indarrak baino handiagoak ez izateak ez dau esan gura irabazten errezak izango diranik. Horrexegaitik da ezinbestekoa “txertoa jartzea”. Gure defentsak eta babesak indartu eta sendotu egin behar doguz tentaldia heldu *aurretik*.

Eta Jesusek berak adierazo euskun ondo argi zer egin behar genduan geure defentsak sendotzeko: “Zagoze zuhur eta egin otoitz, tentaldian jausi ez zaitzen” (Mk 14,38). Eta orduan behintzat nabaria eta begibistakoa gertatu zan aholkuaren balioa: Bera zuhur egon zan eta otoitz egin eban, bere dizipuluak lo egiten eben artean. Bera ez zan tentazinoan jausi eta bereak, oster, bai.

Barrero itzulpena bihurtuz. Hau guztia 2017an gertatzen zan. Eta bizkaieraz 2018an argitaratu genduan Testamentu Barrian: “Ez itxi gu tentazinoan jausten, eta atara gagizuz gatxetik” agertzen zan. Meza Liburuaren

argitalpenean, ostera, azken orduko aldaketa bat egin da. Oraingoan gipuzkoarrek hartu dabe erabagia, besteoi kontsultatu barik. Azken esaldi hone tan guk nahiago genduan juntagailu kopulatiboa. Gaztelaniazko itzulpe nean be horra jo eben: *Y no nos dejes...*

Aspalditxuan gure eleizbarrutiko abade batek baino gehiagok adierazo deutst euren nahigabea edo hasarrea *eta* kopulatiboaren orde *baina* adbertsatiboa jarri dogulako. *Eta* azaldu deutset Bilbon 2019an egin genduan azken batzarrera ekarri ebela gipuzkoarrek erabagia hartuta. Egiari zor, autortu beharrean nago Eustasio Etxezarreta oso zehatza *eta* arretatsua izan dala beti beste guztiokaz, aurretiaz proposamenak eginez *eta* guztion oneritxia bilatuz azken ebatzia hartu baino lehen. Beti jokatu izan dau begirune handiz, *baina* oraingoan gertatu da salbuespena.

Dana dala, taldean lan egin dozuena ondo dakizue talde-lanean malgua izan behar dana. *Eta* geuk arrazoiak agertu ostean, ez da beti lortzen norberak gura dauana.

Nik neuk, jatorrizko testu grekoa aintzat hartuz *eta* Frantzisko Aita Santuaren adierazpenak kontuan izanik, “*non abandonarci alla tentazione*”, proposamen hauxe izango neuke gogokoen Gure Aita otoitzaren azken esaldi biak euskeratzeko: “*eta* ez gagizuz itxi tentaldian, *expada ze* atara gagizuz gatxetik”. *Eta* euskara batuan: “*eta* ez gaitzazu utzi tentaldian, *baizik eta* atera gaitzazu gaitzetik”.

## Ama Birjinaren deitura

Teologi ikuspegitik *eta* ekumenismo-ikuspegitik be, aparteko garrantzia emon gura izan deutsoen beste puntua Ama Birjinaren deiturari dagokiona da. Gure artean ohikoa bihurtu dan deitura “Andre/Andra Maria” da: Koruko, Arantzazuko, Begoñako... Andre Maria edo Andramari. Gure inguruko beste hizkuntzetan be, horren antzera, “Nuestra Señora”, “Notre Dame”, “Madonna”... *eta* holakoak erabiltzen dira.

Ama Birjinarentzat “Andre/Andra” edo “Señora” deitura erabiltzea desegokitzat jo dabe Erroman. Jesu Kristo da “Kyrios” (edo “Dominus”) baka-

rra, eta badirudi “Andre/Andra Maria” deituraz Ama Birjinari “Domina” maila autortzen deusagula. Horregaitik. Eleiz liburu ofizialetan deitura hori ez erabiltzeko eskatu deuskue Erroman.

## Euskal Herriko Eleizbarrutietarako Liturgi Egutegi Orokorra eta Eleizbarruti Bakotzeko Berezia

Euskal Herriko Eleizbarruti guztiok gitxieneko liturgi egutegi orokorra dogu alkarrekin adostua. Egutegi Orokor honetan, batetik, gure herriaren ebanjelizatzailetzat hartzen doguzanak sartzen dira: **Baionako San Leon**, gotzaina eta martiria (III-1); **Emeterio eta Zeledonio santuak**, martiriak (II-3); **Tolosako San Zernin** edo Saturnino, gotzaina eta martiria (IX-29); bestetik, gure eleizbarrutietako zaindariak: **Armentziako San Prudentzio**, gotzaina (IV-28); **Loiolako San Ignazio**, presbiteroa (VII-31); **San Fermín**, gotzaina eta martiria (VII-7), eta **Xabierko San Frantzisko**, misiolaria (XII-3). Honeek guztiek nahierazko oroipena dabe, Loiolako San Ignaziok eta Xabierko San Frantziskok izan ezik; honeek biok, beharrezko oroipena dabe. Eleizbarruti arteko liturgi egutegi orokor hau Meza liburuan sartua agertzen da; ez, ostera, eleizbarruti bakotzeko egutegi bereziko santuak.

Gure eleizbarrutiko liturgi *egutegi berezia* ezaguna da, gitxi-asko, lehenetik; gure eleizbarrutian jai, bizi edo hil diran santuak eta dohatsuak sartzen dira eleizbarrutiko egutegi honetan. (Erromak aprobatu barik ondino).

Honeexek dira:

Urtarrilak 10: Dolores Rodríguez Sopeña, birjina\*.

Otsailak 6: Asentsioko Martin, abadea, Pablo Miki eta kide martiriak, santuak.

Otsailak 23: Rafaela de Ybarra eta Arambarri dohatsua, monja. San Polikarpo, gotzain eta martiria.

Martxoak 1: Baionako San Leon, gotzain eta martiria.

Martxoak 3: Emeterio eta Zeledonio santuak, martiriak.



Apirilak 28: Armentiako San Prudentzio, gotzaina. San Pedro Chanel, abade eta martiria. San Luis Maria Grignon Montfort, abadea.

Maiatzak 11: Sakramentu Guztiz Santuaren Domingo Iturrate, abadea.

Maiatzak 18: Jesusen Bihotzaren Santa Maria Josefa Sancho Guerra, birjina.

Maiatzak 19: San Joan I.a, aita santu eta martiria.

Maiatzak 25: Santa Vicenta Maria López Vicuña, birjina. San Beda Beneragarria, abade eta Eleizako doktorea. San Gregorio VII.a, aita santua. Pazziko Santa Maria Magdalena, birjina.

Uztailak 4: BERRIO-OTXOAKO SAN BALENDIN, GOTZAIN ETA MARTIRIA, ELEIZBARRUTIKO BIGARREN ZAINDARIA.

Uztailak 5: San Antonio Maria Zakkaria, abadea. Portugaleko Santa Isabel.

Uztailak 7: San Fermin, gotzain eta martiria.

Uztailak 24: Margarita Maria López de Maturana eta Ortiz de Zárate, birjina. San Sarbelio Makhlüf, abadea.

Uztailak 31: LOIOLAKO SAN IGNAZIO, ABADEA. ELEIZBARRUTIKO ZAINDARI NAGUSIA.

Irailak 10: Frantzisko Garate Aranguren dohatsua, frailea.

Urriak 11: BEGOÑAKO MARIA BIRJINA DOHATSUA. BIZKAIKO ZAINDARIA.

Urriak 13: Santa Maria Soledad Torres Acosta, birjina. San Joan XXIIIa, aita santua.

Azaroak 6: Leon Intxausti Mintegia, abadea, eta kideak \*, dohatsu eta martiriak.

Azaroak 29: San Saturnino, gotzain eta martiria.

Abenduak 30: KATEDRALAREN SAGARAPENAREN URTEURRENA. Katedrale eleizan.

Meza Liburuaren eranskin modura, liburutxu berezia egingo da santu horreen Mezako euskerazko eta gaztelaniazko testuekin.

2017ko azaroan bialdu genduan Erromara gure eleizbarrutiko liturgi egutegi berezia, eta ez dogu oraindino ezelako erantzunik jaso Erromatik (zezelean etorriko zalakoa? Abuztuan tratatuko ebela?). Onartu dau Erromak. Azaroaren 26 an jaso dogu onarpena, baina Erromak dinoanetik urrian onartu eban: 2020ko urriaren 2an, Prot. N. 536/17).

### **Baionaren aipamenik ez dago Meza Liburu honetan**

Lehenko Meza Liburuan gure Eleizbarrutien aipamenarekin batera Baionakoarena be azaltzen zan. Oraingoan, ostera, ez da azaltzen. Horren arrazoia zera da: Baiona Frantzia izanik, Frantziako Gotzainen Batzarraren oneretxia beharko leuke itzulpenaren testuak, eleiz legeen arabera. Horrek gauzak asko zailduko leukezanez, aipamen hori alde batera iztea erabagi zan.

Oraingo honetan, itzulpen-taldean ez da Iparraldeko ordezkorik izan. Kontzilio osteko hasiera haretatik oraintsu arte, eten barik parte hartu izan dauana Pierre Andiazabal izan da, baina baditu 94 urte eta Camboko zahar-etxean dago (hori idazten neban nik martian). Eta gure Pierre langile fina 2020ko maiatzaren 16an hil zan. Edozelan be, une honetan bada taldetxu bat liturgi pastoraltzaz arduratuta dagoana, eta euren esku jarria dogu Meza Liburuaren eta Irakurgaien testu guztia, lapurteraz argitaratu eta erabili ahal izan dagien.

Erromako onesprenak ez dau horretarako eragozpenik jartzen; “*confirmatio*” dalako dekretuak zabalik ixten dau erabilera, “*translationem vasconicam Missalis Romani... perlibenter confirmamus*”, hau da, “*atseginez egiaztatzen dogu Meza Liburuaren... euskerazko itzulpena*” esaten dau-eta, gehiagoko mugarik jarri barik.

### **Alderdi onak eta zalantzak**

Euskeraren erabilerari dagokionaz eguneratua izan dan Meza Liburu hau baliabide ona izatea espero dogu liturgi ospakizunak indarbarritzeko

be. Eguneratua izan dala esatean, euskerak berrogeta hamar urteotan egin dauan ibilbidea nabaria izango dala esan gura da. Itzulpena bera astiroago egina izan dalako, itzulpen-taldea iraunkorragoa, itzulpen-esperientzia gehiago eta eskura izan diran baliabideak/tresnak be hobekak izan diralako, batetik; eta euskerak hizkuntza aldetik lehengo aldi haretan (70eko hamarkadan) eukazan arazorik gogorrenak gaintituak dagozalako gaur egun.

Meza Liburu hau, aurrekoa bezalaxe, katurako doinu horniduta dago. Testuan egindako aldaketakaitik, barriren barri idatzi behar izan da musika guztia. Mezaren Egunerokoan abadeak kristau-batzarrek abesten dituan 43 alkarriketa dira doinu jarriak, 61 prefazio, Pazko Hirurreneko kantuek eta Umekin ospatzen diran Mezetarako beste 15 doinu, guztiz eguneratuak, doinu bakotxa bere testuarekin lotuta.

Bada gure artean itauntzen dauanik, oraingo euskera hau ez ete dan gatxagoa gertatuko gure eleiztarrentzat. Lehen gipuzkera osotua deitzen geuntsana eta bizkaiera ziran aukerak. Gure ustetan, entzuleak ez dau alde handirik somatuko ulermenari dagokionaz. Arreta handia jarri izan dogu beti itzulpen ulergarria egiten, jatorrizko testuak izan eikezan zailtasunak errazten.

Meza Liburu honi egin izan jako beste kritika bat be: erabarritua izanik “zaharra” izaten ez ete dauan jarraitzen orain be, gizaldiak lehenago sortutako otoitzak dakarzalako; ea noizko Meza Liburu benetan barria, gaurkotua otoitzei eta edukiei dagokienez, dinoe. Egia da otoitz honeetan ez dagoala agortua Eleizaren fedea eta fede hori adierazo daitekela eta adierazo beharko litzakela gaurko kulturaren “jantziak” erabiliz. Izango da, jakina, etorkizunean barrikuntza horri ekiteko abagunea...

Halan be, ez daigun gitxietsi Meza Liburu honen balioa. Aintzat hartu daigun egin izan dan ahalegin handia. Alde askotatik begiratuta aberatsa dalako, oso aberatsa, hor daukagun fede-edukia. Ez gaitzala errazkerian eta ohiturakerian jausi, beti testu berberak erabiliz. Aukera handia eskeintzen da Eukaristi Otoitzetan, bedeinkapen nagusi deritxenetan, beharrian bereziatarako Mezetan, jaiegun nagusiak kantuz edota intsentsua erabiliz nabarmentzeko, etab.

## Eleiz alkartasunerako baliabide

Antxinako esaldia da “*lex orandi, lex credendi*”, eta hauxe da horregaz esan gura dana: Eleizaren fedea dala beraren otoitzaren oinarria eta, beraz, Eleizak bere fedea adierazten dauala otoitzean. Testu liturgikoek Eleizaren fedea adierazten dabenez, Sacrosanctum Concilium konstituzinoak holan dino: “Ez dau inork, abade izan arren, ezer gehitu, kendu edota aldatu behar liturgian bere kontura” (SC 2, &3). Eleiztasunaren indarra eta egia galduko leuke.

Guri, behin baino sarriago, buztarri bakarreko jokabideak gustatzen jakuz, baina gu ez gara nor geuk geutara jokatzeko Eleizearen liturgi ospakizunetan.

Eleizaren fedean eta otoitzean bat egitea da fede-batasuna bermatzen eta aseguratzen dauana. Eleiz alkartasunerako oinarrizko baliabidea dogu Meza liburua, arreta bereziz zaindu behar dogun Eukaristian jotzen dalako Eleizaren jardunaren gailurra eta, era berean, Eukaristia dalako Eleizaren indar guztiaren iturria (ik. SC 10; LG 1).

Meza Liburuaren argitalpen honetan aurkitzen dan doktrina- eta espiritu-aberastasuna, kristau-fededun guztiei, eta berariaz Eukaristiaren zerbitzari diran abadeei, egiten jaken deia gertatzen da, ospakizunaren egitura ulertu eta liturgiako hitzak nor bere egiteko. Fededunak bere otoitz pertsonalerako hausnarketa-gaitzat erabili daike, bere espiritu-bizitza indarbarritzeko. Era honetan, Eleizak autortzen dauan fedea bereganatu eta eguneratu egingo leuke eten barik. Eta liturgian aipatzen diran testuak hurragotik eta sakonago ezaguturik, errazago gertatuko da liturgi ospakizunean “oso-osoan, ohartuki eta era aktiboan” (SC 14) parte hartzea. Halan bedi!

Baina bizkaierazko bertsinoa dogu gaur hemen geure eskuetan.

## Bizkaierazko bertsinoa

Meza Liburua (Euskara Batuan) dogu erreferentea. Horixe da hasieran aitatu doguzan sei lagunok talde-lanean egin izan doguna. Baina bizkaieraz

be argitaratu behar zan, bizkaieraz berba egiten dogun fededun guztiontzat. Hauxe da orain eskuetan daukagun “bertsinoa”. Eta interesgarria izan daiteke gure elizbarrutian erabiliko dogun bertsino honeri buruzko informazioa.

Oraingo Meza Liburu hau, bizkaierazkoa, egiterakoan nortzuk parte hartu dabe? Zein izan da bizkaierazko bertsino honek izan dauan prestatze-ibilbidea?

Begira! Betiko filosofia berbera izan dogu “bertsino” hau egitean erabili doguna: **Oinarrizkoari zehatz jarraitu, begirunez, iturritik ahalik eta gixien aldenduz**! (Kasu honetan Meza Liburu euskara batuan da “iturria”).

Arlo hori argitzeko On Karmelo Etxenagusiak *Irakurgaiak* liburua aurkezpenean esandako berbak aintzat hartuko dodaz. 1989ko apirilaren 19an, eta abade talde handi baten aurrean, hauxe inoskun Karmelok Zornotzako Larrean:

“Beste liturgi itzulpen guztiak lez, au be elizbarruti arteko talde batek itzuli eban euskerara. Talde orretan euskal elizbarruti guztietako ordezkariak egin dabe lan, Manuel Lekuona buru zala. Taldeak egindako irakurgaietatik zatirik beina (domeka eta jaiegunetakoa) bizkaieraz argitaratuta euki dogu (... urtetik ona Karmelok ez dau jartzen datarik) iru liburutan: A, B eta C (au, zatika; besteak, osorik, urte bakotzekoa bere liburuan). Donostia, Iruñe ta Gasteizko elizbarrutietarako liburu lodikote bakar baten argitaratu ziran irakurgaiak (1978an, neuk osotua): ez domeka ta jaiegunetakoak, Eukaristiaren barruan edozein elizkizunetan erabili bear diran guzti-guztiak baiño. Bizkaitarrok orain argitaratu dogun liburu orixe berori da, gure elizbarrutirako bear danez egokituta.

“Zelan egin dan” itzulpen hau? “Eleiza Amaren eta zentzun onaren legeak eskatzen dabenez, aal danik eta zeatzen jarraitu jako aurretik argitaratuta egoan liburuari. Ez da, ba, itzulpen barria, leengoa bera zerbait aldatu ta egokitzea baiño, gure Bizkaiko fededunak albait ondoen eta errezen ulertu dagien. Bein baiño sarriagotan ez jaku gogoko izan aurrean geunkan itzulpena, baiña ez dogu aldatu, itzulpen barri bat ez egiteko. Berbak, oster,

nasai samar aldatu doguz; eta Bizkaian legezkoak direanak sartzen eskuabalak izan gara, onetan zeatzegi jokatu barik”.

Eta jarraian lana nortzuk egin eben agertzen eban: P. Puxana, J.B. Gallastegi, J.F. Garitaonandia, J.F. Zamakona, J.J. Lejarazu, eta Lontzo Zugazaga.

Baina, oraingo Meza Liburu hau, bizkaierazkoa, egiterakoan nortzuk parte hartu dabe?

Egin izan dogun ibilbidea hauxe izan da: Juan Gallastegik sartu dau ordu piloa, Meza Liburuaren bizkaierazko “zirriborroa” –bere esanetan–, egiteko. Erispide eta jokabide bateratua izateko, Juan Gallastegik sarritan jo izan dau Iñaki Sarriugarte, Juan Luis Goikoetxea eta neugana, bere zalantzetan, –nahiko ugariak–, erabagi tinkoak eskuratzeko. Gero, neure eskuetara pasatu dau berak egindakoa, “Lontzok zehatz aztertuko jok” bere artean esanez. Beharbada niregan ipini dauan konfiantza gehiegizkoak apur bat nasaitxu ibiltzeko jokerea emon deutso. Izan be, bere zirriborroan hutsune nabarmenak ikusten ziran: errubrikak, antifonak, –aldatu eta sartu beharrekoak–, parrafo osoak, orrialde osoak falta ziran... Dana dala, eskerrik be-roenak Juanitori, berak leporatu daualako euskara batuan egoan testua bizkaieratzearen ardura nagusia! Bizkaierazko bertsinua dana zuzendu eta osotu ostean, neu izan naz IKUR fotokonposizina testu guztiak pasatu dituana, eta eurekin orrialdez orrialde jarraipena eta proben zuzenketak egin dituana. Halan be, azken kontrastea egiteko Jose Mari Rementeria eta Miren Leanizbarrutia izan dodaz lagun.

Fotokonposizina amaitu ostean, Unai Manterolari pasatu deutsagu, eta bera izan da azken enkoadernatze eta argitalpenaren arduradun, Madrileko argitaletxearekin hartu-emonean.

Baina ez dogu nahiko MEZA LIBURUarekin [Altarako Liburua].

Ez dago MEZARik Jainkoaren Hitzaren irakurketa bakorik. Horregaitik, zeregin handia geratzen jaku aurrerako be. *Irakurgaien liburuak* falta dira argitaratzeko. Erroman onartu deuskue gure itzulpena (ik. 2020ko urtarri-laren 16an izenpetutako “Confirmatio” HISPANIAE Dekretua..., Protocolo N301/15).)

Guztion artean egindako itzulpena “euskara batuan” burutu genduan, eta bizkaierazkoa Juan Gallastegiren eta neure esku dago. Argitalpena “batuan” eta “bizkaieran” egin behar dogu. Zeregin astuna daukagu esku artean; izan be, 3.500 orrialde inguru dira eta bost liburukitan argitaratuko doguz, letra irakurterraza (handitxoa) dabela kaleratu beharko doguz-eta. Mikel Azpeitia izango dot lagun ordenagailuan moldatze lanetan. Eskerrak berari, lana gogotik eta gustura egiten daualako.

Eta S. Gregorio Magno Aita Santuaren testu eder eta mamintsu honegaz amaitzen dot neure ekitaldia:

“Biblia irakurri behar da  
eta Jainkoari entzun, Kristorengan,  
beraren Gorputzean, Eleizan,  
bertan lortzen dabe oihartzuna  
Jaunaren Hitzek,  
biziaren eta bizirako hitz modura”.





# *Euskera* agerkariaren idazketa arauak

Normas de redacción de la revista *Euskera*

Normes de rédaction de la revue *Euskera*

Writing guidelines for the journal *Euskera*



# *Euskera* agerkariaren idazketa arauak

## 0. Sarrera

Igorritako artikuluak behin betikoak izango dira, behar bezala idatziak, akats linguistikorik eta mekanografikorik gabeak. Horretarako, komeni da nork bere ordenagailuan zuzentzaile ortografikoa instalaturik izatea eta hura aplikatzea artikuluak Euskaltzaindira igorri baino lehenago.

## 1. *Euskera* agerkariaren esparruak

Hauxek dira *Euskera* agerkarian jorra daitezkeen zenbait gai:

- Euskal Dialektologia.
- Euskal Filologia.
- Euskal Gramatika.
- Euskal Lexikografia / Lexikologia.
- Euskal Onomastika.
- Euskararen Fonetika eta Fonologia.
- Euskararen Historia.
- Euskararen Semantika eta Pragmatika.
- Hizkuntzalaritza orokorra.
- Hizkuntzaren arautzea.
- Hizkuntzaren irakaskuntza.
- Hizkuntzaren normalizazioa.
- Itzulpengintza.
- Jurilinguistika eta hizkuntza-zuzenbidea.
- Literatura.
- Soziolinguistika.
- Teknologia berriak eta hizkuntza.
- Zientzia-arlo desberdinetako euskara teknikoak.

## 2. Ebaluazio eta argitaratze prozesuak

*Euskera* Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da eta 1920. urtetik argitaratzen da. Ikerketa zenbakiak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu. Ikerketa artikulak argitaratzeko, Idazketa kontseiluak, anonimotasuna bermatuz, bi ebaluatzaileen iritzia jasoko du.

## 3. Hizkuntzak

Artikulu originalak Euskal Herriko mundu akademikoan erabiltzen den edozein hizkuntzatan argitaratuko dira.

## 4. Aurkezpena

Artikuluaren hasieran, egilearen/egileen kidetza (unibertsitatea, ikergunea, erakundea, etab.) eta helbide elektronikoa ezarriko dira.

Testua idazteko 1,5 lerroartekoa erabiliko da, eta zein-nahi argitasun edo zuzenketatarako, orrialdearen albo bietan, 1,5 cm-tako koskarekin idatzirik aurkeztuko dira lanak. Orrialdeak eta oin-oharrak segidako zerrendan zenbatuko dira.

Testu-gorputza 12 puntukoa izango da.

Esparru akademikoan ohikoak diren letra tipoak onartuko dira (Arial, Times New Roman, Calibri...).

Artikuluaren atal eta azpiatal guztiak zenbaki arabiarrez eta hierarkikoki zenbakituko dira: **1.**, **1.1.**, *1.1.1.*, **1.2.**, *1.2.1.*, **2.**, etab.

Beste hizkuntza bateko hitz solteak letra etzanez idatziko dira. Halaber, letra etzanez idatziko dira liburuen izenburuak eta aldizkarien izenak.

## 5. Luzera

Artikuluak, zuriuneak aparte, ez dute 30.000 karaktere baino gutxiago eta 60.000 baino gehiago izango. Liburu aipamenek, hemen ere zuriuneak aparte, ez dute 6.000 karaktere baino gutxiago eta 10.000 baino gehiago izango.

## 6. Laburpenak eta gako-hitzak

Ikerketa-artikuluarekin batera, haren laburpena (gehienez ere 500 karaktere) eta gako-hitzak (gehienez ere, sei) entregatuko dira. Laburpenak eta gako-hitzak euskaraz eta ingelesez idatziak izan behar dira. Esan gabe doa artikulua hirugarren hizkuntza baten idatzia badago, hizkuntza horretan ere aurkeztu behar direla aipatu hitz-gakoak eta laburpena.

## 7. Epeak

Argitaratze-prozesuan ezarritako epeak ez betetzeak artikuluen argitalpena bertan behera uztea ekar diezaike autoreari, argitaratzailearen erabakiz.

## 8. Artikuluaren euskarriak

Lana nahitaez euskarri elektronikoan (DOC(X), ODT edo RTF formatuetan) aurkeztuko da. Halaber, gehigarri modura, PDF bertsioa ere bidali behar da.

## 9. Aipuak

Aipu laburrak. Lau lerro baino laburragoak direnak testuan bertan jasoko dira eta testu-gorputzaren tamaina bera izango dute. Kakotx eta komatxo eredu hierarkia honen arabera izango da: «xxxx “xxx ‘xxx’ xxx” xxx». Azkenik, aipuren amaierako puntua erreferentziaren ondoren ipiniko da: “[...] jarraitzen zuen Zaldibiak” (Intxausti 1999).

Aipu luzeak. Aparteko pasartean idatziko dira, letra tamaina 10,5 puntukoa izango da eta testu arruntetik bereizteko, ezkerretik eta eskuinetik 1,5 cm-tako koska utzi behar da. Halaber, aipuaren aurretik eta ondoren, tarteke lerro zuri bat utziko da. Kasu honetan, amaierako puntua erreferentziaren aurretik jarriko da: [...] jarraitzen zuen Zaldibiak. (Intxausti 1999)

Aipuko lehen lerroak ez du ondokoak baino barrurago egon behar.

Aipuaren barruko paragrafo artean lerro zuririk ezin da sartu.

Idatzi gabe geratzen den esaldia edo esaldi zatia kako zuzen edo parentesi karratu artean eta hiru eten puntu jarrita adieraziko da: [...]

## 10. Erreferentziak eta oharrak

Ohar gehiegikeriak mugatzeko ahaleginak hobetsiko dira. Erreferentzia guztiak, ahalaz, testu barnean txertatuko dira, artikulua bukaeran erantsi ohi den bibliografiarekin lotuz, honela: (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

Egile bakarra denean, deitura eta urtearen artean ez da komarik jarriko: (Villasante 1961).

Bi egile direnean, bi deiturak puntu eta koma bidez bereziko dira: (Furet; Ozouf 1977). Hainbat liburu edo egileri erreferentzia egiten zaienean, argitasuna helburu, bestelako formula batzuk erabili izango dira (Deumert eta Vandenbussche 2003; Coupland, Kristiansen & Deumert 2011).

Egileak hiru baino gehiago direnean lehena eta *et al.* edo eta beste agertu behar dira. Bukaeran, erreferentzia guztiak zerrendatzen direnean, egile guztiak agertu behar dira.

Egilerik ez denean obra bera aipatuko da, eta izenburua luzea bada, eten puntuak erabiliko dira: (Registro... 1829: 133).

## 11. Erabilitako bibliografia

Erreferentziak artikulua bukaeran emango dira, oinarritzko eredu honen arabera:

- AZKUE, Resurreccion Maria (1896). *Proyecto de ortografía: sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao: Müller y Zavaleta.
- LAFON, René (1975). «Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris: Société de linguistique de Paris: 331-337.
- LARRAMENDI, Manuel (1729). *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.
- MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.
- MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibon (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU.
- URKIXO, Julio (1967). «De paremiologia vasca: Oihenart conoció los "Refranes y sentencias en vascuence" de 1596», *ASJU I* (1967): 3-44.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Dokumentua soilik modu elektronikoa eskura daitekeenean, honela aurkeztuko da:

Egilearen deitura, Egilearen izena (argitalpen-urtea). Artikuluaren izenburua. *Argitalpenaren izenburua*, xx: or-or, <http://www.xxxxxxxx>. (Kontsulta data ere jarri behar da).

- WALIÑO, Josu (2016). «Euskara eta Internet: Zortzigarren lurralde konkistatzen», *Euskera* 61, 1: 42-44, <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf>.

Dokumentuak beste euskarri batzuetan argitaratu direnean (CD-ROM, DVD), irizpide berak erabiliko dira, baina amaieran euskarria zein den adieraziko da kako zuzen edo parentesi karratuen artean [CD-ROM].

Egileak artikuluaren bibliografia oinarritzko eredu horren arabera antolatu du. Kasuan-kasuan izan daitezkeen zehaztapanak edota berezitasunak argitaratzaile-arduradunarekin batera konpondu behar ditu.

## 12. Oin-oharrak

Artikulu bakoitzean zenbaketa 1etik hasiko da.

Oin-oharrak kasuan kasuko orrian agertuko dira, eta ez artikulua bukaeran.

Testu-gorputza: 10.

Oin-oharraren adierazgarria den zenbakitxo goratua puntuazio markaren gibeletik idatzi behar da.

## 13. Ilustrazioak

Lerro eta zutabeetan ematen den informazioa TAULA izenarekin izendatu behar da.

Argazkiak eta grafikoak IRUDIA izenarekin izendatu behar dira.

TAULAK eta IRUDIAK kronologikoki zerrendatu behar dira, taulak alde batetik eta irudiak bestetik.

Bietan iturria adierazi behar da.

Argazki eta irudiak deskribatzeko oinak 10eko letra-gorputzarekin idatziko dira eta esandako horien aurretik idatzi behar dira.

Irudiak JPG. edo tankerako formatuan eman behar dira eta gutxienez 300 *dpi*-ko bereizmenean.

## 14. Egile eskubideak

Egileek modu eskusiboan lagatzen dizkiote Euskaltzaindiari argitaratutako artikuluen gaineko erreproduzio-eskubideak.



# Normas de redacción de la revista *Euskera*

## 0. Recepción

Los artículos recibidos serán definitivos, escritos correctamente, sin errores lingüísticos ni mecanográficos. Para ello, conviene que cada autor/a utilice el corrector lingüístico en su procesador de texto antes de enviar el artículo a Euskaltzaindia.

## 1. Ámbitos de estudio de la revista *Euskera*

- Derecho de las lenguas.
- Dialectología Vasca.
- Enseñanza de la lengua.
- Euskararen Semántica eta Pragmática del euskera.
- Euskera técnico-científico.
- Filología Vasca.
- Fonética y Fonología del euskera.
- Gramática Vasca.
- Historia del euskera.
- Lexicografía Vasca / Lexicología.
- Lingüística general.
- Literatura.
- Normalización de la lengua.
- Normativización de la lengua.
- Nuevas tecnologías del lenguaje.
- Onomástica Vasca.
- Sociolingüística.
- Traducción.

## 2. Procesos de evaluación y publicación

La revista *Euskera* es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. El número de investigación publica artículos de investigación originales, reseñas de libros y similares. Para publicar artículos de investigación, el Consejo de redacción, garantizando el anonimato, recurre a expertos externos.

## 3. Lenguas

Los artículos de investigaciones originales podrán ser redactados en cualquiera de las lenguas que habitualmente se emplean en los ámbitos académicos de Euskal Herria.

## 4. Presentación

Al comienzo del artículo ha de citarse la filiación del autor o de los autores (universidad, centro de investigación, institución...) y sus correspondientes direcciones de correo electrónico.

Al escribir el texto se dejará un interlineado de 1,5 y se presentará con amplios espacios en blanco a ambos lados de la página. Las páginas y las notas a pie de página se contarán en lista cronológica.

El cuerpo del texto será de 12 puntos.

Se utilizarán tipos de letra habituales en el ámbito académico (Arial, Times New Roman, Calibri...).

El texto ha de cumplir las siguientes normas: los capítulos y subcapítulos del artículo se enumerarán de forma jerárquica y en números arábigos: **1.**, **1.1.**, **1.1.1.**, **1.2.**, **1.2.1.**, **2.**, etc.

Las palabras escritas en otro idioma se escribirán en cursiva. También se escribirán en cursiva los títulos de los libros y de las revistas.

## 5. Extensión

Los artículos, dejando aparte los espacios en blanco, no tendrán un número de caracteres superior a 60.000 ni inferior a 30.000. Las reseñas de libros, dejando aparte aquí también los espacios en blanco, no tendrán un número de caracteres inferior a 6.000 ni superior a 10.000.

## 6. Resúmenes y palabras clave

Los artículos de investigación deberán estar acompañados por un resumen (máximo de 500 caracteres) y sus correspondientes palabras clave (máximo de seis), ambos en euskera y en inglés. Si el original no fuera ninguno de estos dos idiomas, obviamente, habría que presentar el resumen y las palabras clave en dicho idioma.

## 7. Admisión

No cumplir los plazos detallados en el proceso de publicación puede acarrear la no publicación del trabajo si así lo considera el editor.

## 8. Soportes del artículo

Los artículos se presentarán obligatoriamente en formato electrónico (DOC(X), ODT o RTF). Igualmente, en versión PDF.

## 9. Citas

Citas breves: Si son de cuatro líneas o menos se recogerán entrecomilladas en el mismo párrafo de texto y con el mismo cuerpo. La jerarquía de la frase o frases entrecomilladas será la siguiente: «xxxx “xxx ‘xxx’ xxx” xxx». Para finalizar, el punto final se escribirá detrás de la referencia: “[...] jarraitzen zuen Zaldibiak” (Intxausti 1999).

Citas extensas: Si son más de cuatro líneas han de escribirse en un párrafo aparte, sin entrecorillar, con sangrado a izquierda y derecha de 1,5 cm y dejando una línea blanca tanto en la parte superior como en la inferior. En esta ocasión, el punto final se escribirá antes de la referencia: [...] jarraitzen zuen Zaldibiak. (Intxausti 1999)

Ente los párrafos de la cita no se introducirán líneas en blanco.

La parte de frase de la cita que se omita se escribirá dentro de un corchete y con tres puntos suspensivos: [...].

## 10. Referencias y notas

Se favorecerán los intentos de limitar el uso exagerado de notas. A ser posible todas las referencias se integrarán en el texto, conectándolas con la bibliografía que se coloca al final del artículo, de este modo: (Larramendi 1729) o (Mitxelena 1961: 123).

Cuando se trate de un autor/a no se pondrá coma entre el apellido y el año: (Villasante 1991).

Cuando se trate de dos autores, entre los dos apellidos se pondrá un punto y coma: (Furet; Ozouf 1977). Cuando se haga referencia a varias publicaciones, para ser más concisos, se pueden utilizar otro tipo de fórmulas: (Deumert, Vandebussche 2003; Coupland, Kristiansen & Deumert 2011).

Cuando se trate de más de tres autores, se escribirá (*et al.*) en minúscula: (Abellán *et al.* 2000). Al final cuando se refieran todas las fuentes, hay que detallar todos los autores de cada obra.

Cuando no haya ningún autor/a, se mencionará la propia obra y si el título es largo se utilizarán los puntos suspensivos: (Registro... 1829: 133).

## 11. Bibliografía utilizada

La bibliografía se colocará al final del artículo, siguiendo este modelo básico:

- AZKUE, Resurreccion Maria (1896). *Proyecto de ortografía: sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao: Müller y Zavaleta.
- LAFON, René (1975). «Indices personnels n’exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris: Société de linguistique de Paris: 331-337.
- LARRAMENDI, Manuel (1729). *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.
- MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.
- MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibon (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU.
- URKIXO, Julio (1967). «De paremiología vasca: Oihenart conoció los “Refranes y sentencias en vascuence” de 1596», *ASJU I* (1967): 3-44.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Cuando el documento se pueda obtener solo de forma electrónica, se presentará de este modo:

Apellido del autor/a, nombre del autor/a (año de publicación). Título del artículo. *Título de la publicación*, xx: pp-pp, <http://www.xxxxxxxx>. (Hay que citar el día de la consulta).

- WALIÑO, Josu (2016). «Euskara eta Internet: Zortzigarren lurralde konkistatzen», *Euskera* 61, 1: 42-44, <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf>.

Cuando los documentos de publiquen en otros formatos (DVD, CD-ROM) se utilizarán los mismos criterios, si bien al final se citará cual es el citado formato dentro de corchetes: [CD-ROM].

El autor/a organizará la bibliografía de acuerdo con este modelo básico. Las peculiaridades o especificaciones que puedan darse en cada caso deberán ser resueltas de acuerdo con el responsable de Publicaciones.

## 12. Notas a pie de página

La numeración comenzará desde 1 en cada artículo.

Se escribirán en la hoja correspondiente y no al final del artículo.

Cuerpo de texto: 10.

El número pequeño y alzado característico de la llamada de la nota hay que escribirla detrás de la marca de puntuación.

## 13. Ilustraciones

La información que se da en líneas y recuadros se define como TABLA.

Las fotos y los gráficos se definen como IMAGEN.

Ambos han de ir en listas diferenciadas y ordenadas cronológicamente.

En ambas listas hay que citar la fuente de cada tabla e imagen.

El texto que sirva de base para las imágenes y las tablas, han de ir arriba de ellas y con cuerpo de letra del 10.

Las imágenes han de estar en formato JPG o similar y en una resolución no inferior a 300 *dpi*.

## 14. Derechos de autor/a

El autor/a cede a Euskaltzaindia los derechos de reproducción de su artículo de forma exclusiva.

# Normes de rédaction de la revue *Euskera*

## 0. Introduction

Les articles envoyés seront définitifs, écrits correctement, sans erreur de langue et sans faute de frappe. Il faudrait donc que chacun ait un correcteur orthographique installé sur son ordinateur et que les articles soient vérifiés avant d'être envoyés à l'Académie de la langue basque.

## 1. Domaines traités par la revue *Euskera*

Voici quelques-uns des sujets étudiés dans la revue :

- Basque technique de divers domaines scientifiques.
- Dialectologie basque.
- Enseignement de la langue.
- Grammaire basque.
- Histoire de la langue basque.
- Jurilinguistique et droit de la langue.
- Lexicographie / Lexicologie basque.
- Linguistique générale.
- Littérature.
- Normalisation de la langue.
- Normativisation de la langue.
- Nouvelles technologies et langue.
- Onomastique basque.
- Philologie basque.
- Phonétique et phonologie du basque.
- Sémantique et Pragmatique du basque.
- Sociolinguistique.
- Traduction.

## 2. Processus d'évaluation et de publication

*Euskera* est la publication officielle d'Euskaltzaindia. Elle a été créée en 1920. Le numéro de reserche comprend des articles de recherche originaux relevant des domaines de travail de l'Académie, ainsi que des comptes rendus d'ouvrages ou autres travaux. Pour la publication des articles de recherche, le comité de rédaction recevra l'avis de deux évaluateurs dont l'anonymat sera respecté.

## 3. Langues

Les articles originaux seront publiés dans l'une des langues utilisées dans le monde académique basque : basque, castillan, français, anglais.

## 4. Présentation

Figureront au début de l'article l'appartenance de l'auteur ou des auteurs (université, centre de recherche, institution, etc.) et leur adresse électronique.

Pour la rédaction du texte un intervalle de 1,5 sera utilisé et pour toute précision ou correction, les travaux seront présentés avec une marge de 1,5 cm de chaque côté de la page. Les pages et les notes de bas de page auront une numérotation continue.

La taille de police sera de 12 points.

Seront acceptées les polices de caractère en vigueur dans le milieu académique (Arial, Times New Roman, Calibri...).

Tous les paragraphes et sous-paragraphes de l'article seront numérotés en chiffres arabes selon le modèle suivant : **1.**, **1.1.**, *1.1.1.*, **1.2.**, *1.2.1.*, **2.**, etc.

Les mots issus d'une autre langue figureront en italique. De la même façon, figureront en italique les titres de livres et les noms de revues.



## 5. Longueur

Les articles, mis à part les espaces, devront compter plus de 30 000 et moins de 60 000 caractères. Les compte rendus d'ouvrages, ici aussi les espaces mis à part, devront compter plus de 6 000 et moins de 10 000 caractères.

## 6. Résumés et mots-clés

L'article de recherche devra être accompagné de son résumé (500 caractères au maximum) et de ses mots-clés (six au maximum). Les résumés et les mots-clés devront être écrits en basque et en anglais. Si l'article est écrit dans une troisième langue, les mots-clés et le résumé devront aussi figurer dans cette langue.

## 7. Délais

Dans l'éventualité où les délais fixés pour le processus de publication ne seraient pas respectés, l'éditeur pourrait décider de ne pas mener à son terme la publication de l'article.

## 8. Formats de l'article

Le travail devra nécessairement être remis sous format électronique (DOC(X), ODT ou RTF) accompagné de sa version PDF.

## 9. Citations

Citations courtes. Si les citations font moins de quatre lignes, elles seront insérées dans le texte et auront la même taille que le corps du texte. Les parenthèses devront respecter le modèle suivant : «xxxx "xxx 'xxx' xxx" xxx». Enfin, le point final de la citation sera placé après la référence en respectant le modèle suivant : "[...] jarraitzen zuen Zaldibiak" (Intxausti 1999).

Citations longues. Elles figureront dans un passage à part, avec une taille de police de 10,5 points et, pour les distinguer du texte, elles devront figurer avec une marge de 1,5 cm à gauche et à droite par rapport au corps du texte. Il faudra ajouter une ligne d'espace avant et après la citation. Dans ce cas, le point final de la citation sera placé avant la référence en respectant le modèle suivant : [...] jarraitzen zuen Zaldibiak. (Intxausti 1999)

La première ligne de la citation ne devra pas être en retrait par rapport aux suivantes.

Aucune ligne d'espace ne devra être insérée entre les paragraphes d'une même citation.

La phrase ou partie de phrase non écrite sera indiquée entre crochets ou avec trois points entre crochets, selon le modèle suivant : [...]

## 10. Références et notes

Il est souhaitable de limiter le nombre de notes. Dans la mesure du possible, toutes les références seront insérées dans le texte et reliées à la bibliographie figurant à la fin de l'article, selon le modèle suivant : (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

Lorsque il s'agit d'un seul auteur, il n'y aura pas de virgule entre le nom de l'auteur et l'année : (Villasante 1961).

Lorsque il s'agit de deux auteurs, les deux noms seront séparés par un point virgule : (Furet ; Ozouf 1977). Lorsqu'il est fait référence à plusieurs livres, pour plus de clarté, d'autres formules seront utilisées : (Deumert et Vandebussche 2003 ; Coupland, Kristiansen & Deumert 2011).

Lorsqu'il s'agit de trois auteurs et plus, on citera le premier suivi de *et al.* ou *et autres*. A la fin, dans la liste des références, tous les auteurs devront être cités.

Lorsque l'auteur ne peut être cité, on citera l'œuvre elle-même et si le titre est long, on utilisera les points de suspension selon le modèle suivant : (Registro... 1829: 133).

## 11. Bibliographie utilisée

Les références figureront à la fin de l'article, selon le modèle suivant :

- AZKUE, Resurreccion Maria (1896). *Proyecto de ortografía: sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao: Müller y Zavaleta.
- LAFON, René (1975). «Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris: Société de linguistique de Paris: 331-337.
- LARRAMENDI, Manuel (1729). *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.
- MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.
- MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibon (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU.
- URKIXO, Julio (1967). «De paremiologia vasca: Oihenart conoció los "Refranes y sentencias en vascuence" de 1596», *ASJU* I (1967): 3-44.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Lorsque le document se trouve au format électronique, il devra être présenté de la façon suivante :

Nom de l'auteur, Prénom de l'auteur (date de publication). Titre de l'article. *Titre de la publication*, lien internet xx: pp-pp, <http://www.xxxxxxxx>. (Figurera aussi la date de consultation).

- WALIÑO, Josu (2016). «Euskara eta Internet: Zortzigarren lurralde konkistatzen», *Euskera* 61, 1: 42-44, <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf>.

Lorsque les documents ont été publiés sous d'autres supports (CD-ROM, DVD), les mêmes renseignements seront utilisés. A la fin le type de support utilisé sera cité en crochets, comme suit : [CD-ROM].

L'auteur organisera la bibliographie de l'article selon ce modèle de base. Tout cas particulier sera résolu avec le responsable de la publication.

## 12. Notes de pied de page

Dans chaque article les notes seront numérotées à partir de 1.

Les notes de bas de page figureront en bas de la page et non à la fin de l'article.

Taille de la police : 10.

Le numéro de la note de bas de page figurera dans le texte sous forme d'exposant et après la ponctuation.

## 13. Illustrations

L'information donnée dans les lignes et les colonnes devra être nommée TABLEAU.

Les photos et les graphiques devront être nommés IMAGE.

Les TABLEAUX et les IMAGES devront être listés de façon chronologique, les tableaux d'une part et les images d'autre part.

Dans les deux cas la source devra être citée.

Les légendes des photos et des images auront une taille de police de 10 et figureront au-dessus.

Les images auront un format JPG. ou équivalent et une résolution minimum de 300 *dpi*.

## 14. Droits d'auteur

Les auteurs confient à l'Académie de la Langue Basque les droits exclusifs de reproduction sur les articles publiés.

# Writing guidelines for the journal *Euskera*

## 0. Introduction

Articles submitted must be final versions, properly written, free of linguistic and typographical errors. This means it is advisable to have a spell checker installed on your computer, and to use it before sending any article to Euskaltzaindia.

## 1. *Euskera* journal sections

These are some of the topics which may be dealt with in *Euskera* :

- Basque Dialectology.
- Basque Grammar.
- Basque Lexicography / Lexicology.
- Basque Onomastics.
- Basque Philology.
- Basque Phonetics and Phonology.
- Basque Semantics and Pragmatics.
- General linguistics.
- Jurilinguistics and Linguistic Law.
- Language normalization.
- Language norms.
- Language teaching.
- Literature.
- New technologies and language.
- Sociolinguistics.
- Translation.
- Technical Basque in different scientific fields.
- The Social History of Basque.

## 2. Evaluation and publication processes

*Euskera* is Euskaltzaindia's official publication and it has been published since 1920. The investigation number contains original research articles, book quotations and similar material relevant to the Academy's field of work. In order to publish research articles, the Writing Council receives opinions from two external evaluators with guaranteed anonymity.

## 3. Languages

Original articles are published in any language used in the Basque Country's academic sphere.

## 4. Introduction

At the beginning of the article, the author's credentials (university, research center, organization, etc.) and e-mail address will be established.

1.5 line spacing will be used to write the text, and in order to provide clarification or corrections, works will be presented with writing on both sides of the page and with an indentation of 1.5 cm. Pages and footnotes will be detailed in consecutive lists.

Texts will have 12 point body.

Usual academic field fonts will be accepted (Arial, Times New Roman, Calibri, etc.)

All sections and subsections of the article must be numbered in Arabic numerals and hierarchically: **1.**, **1.1.**, *1.1.1.*, **1.2.**, *1.2.1.*, **2.**, etc.

Loose words in other languages must be written in italics. Book titles and magazine names will also be written in italics.

## 5. Length

Articles, spaces excluded, should be no less than 30,000 characters, and no more than 60,000. Book quotations, spaces excluded, will be no less than 6,000 characters, and no more than 10,000.

## 6. Abstracts and keywords

Along with the research article, a summary (maximum of 500 characters) and keywords (maximum of six) will be submitted. Abstracts and keywords must be written in Basque and English. It goes without saying that if the article is written in a third language, the keywords and summary mentioned must be submitted in that language too.

## 7. Deadlines

Failure to comply with the deadlines set during the publication process may result in the publication of the author's article being cancelled by decision of the publisher.

## 8. Article format

The work must be submitted in electronic format (DOC (X), ODT or RTF). An additional PDF version must also be submitted.

## 9. Quotations

Short quotations. Those shorter than four lines will be included in the text, and will be the same size as the body of the text. Commas and inverted commas will follow this hierarchy: «xxxx “xxx ‘xxx’ xxx” xxx». The full stop at the end of the quotation will be placed after the reference: “[...] Zaldibia continued” (Intxausti 1999).

Long quotations. These will be given in separate passages; the font size will be 10.5, and, to distinguish it from regular text, indentation of 1.5 cm must be used on both sides. an intermediate blank line will be also be left before and after each such quotation. In such cases, final full stops will be placed before the reference: [...] Zaldibia continued. (Intxausti 1999)

The first line of the quotation should not be further indented than the line after it.

No blank lines can be inserted between paragraphs within quotations.

Unwritten sentences or parts of the sentences must be marked using square brackets and with ellipsis: [...]

## 10. References and notes

Efforts to limit the number of notes are encouraged. All references should, if possible, be included in the text, linking them to bibliography, which is usually provided at the end of the article, as follows: (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

When there is only one author, no comma is placed between the name and the year: (Villasante 1961).

When there are two authors, the two names are separated by semicolons: (Furet; Ozouf 1977). When referring to different books, for the sake of clarity, various other options will be used (Deumert and Vandebussche 2003; Coupland, Kristiansen & Deumert 2011).

When there are more than three authors, the first name will be followed by *et al.* At the end, when all the references are listed, all authors must be mentioned.

When there is no author, the work itself will be mentioned, and, if the title is long, ellipsis will be used: (Registration ... 1829: 133).



## 11. Bibliography used

References will be given at the end of the article following this basic model:

- AZKUE, Resurreccion Maria (1896). *Proyecto de ortografía: sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao: Müller y Zavaleta.
- LAFON, René (1975). «Indices personnels n’exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris: Société de linguística de Paris: 331-337.
- LARRAMENDI, Manuel (1729). *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.
- MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.
- MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibon (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU.
- URKIXO, Julio (1967). «De paremiologia vasca: Oihenart conoció los “Refranes y sentencias en vascuence” de 1596», *ASJU I* (1967): 3-44.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

When the document is only available in electronic format, it will be presented as follows:

Author’s surname, Author’s name (year of publication). Article’s title. *Title of publication*, xx: pp-pp, <http://www.xxxxxxxx>. (Date of reference must also be included).

- WALIÑO, Josu (2016). «Euskara eta Internet: Zortzigarren lurralde konkistatzen», *Euskera* 61, 1: 42-44, <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf>.

When documents are published in other media (CD-ROM, DVD), the same criteria will be used, and at the end the medium will be specified in brackets or square brackets [CD-ROM].

The author will organize the article's bibliography in line with this basic model. This must be decided in collaboration with the publisher-in-charge of any specifications or specifics that may arise in each case.

## 12. Footnotes

Each article will start with a count of 1.

Footnotes will appear on the page in question, not at the end of the article.

Font size: 10.

The raised footnote numbers must go after the relevant punctuation mark.

## 13. Illustrations

Information given in lines or columns must be marked TABLE.

Photographs and graphs should be marked IMAGE.

TABLES and IMAGES must be ordered chronologically, with tables on one side and pictures on the other.

Both types of data's sources must be provided.

Captions describing photos and images should be written in font size 10 before each item.

Images in formats such as JPG must be 300 dpi in size or larger.

## 14. Copyright

The authors grant reproduction rights to the articles published to Euskaltzaindia exclusively.

## Harpidetzak eta eskariak / Pedidos y suscripciones

### ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL SOLICITANTE:

Izen-deiturak / Nombre y apellidos: \_\_\_\_\_

Erakundea / Institución: \_\_\_\_\_

Helbidea / Dirección: \_\_\_\_\_

Posta kodea / C.P.: \_\_\_\_\_ Udalerria / Población: \_\_\_\_\_

Lurraldea / Provincia: \_\_\_\_\_ Estatua / Estado: \_\_\_\_\_

NAN/IFK · DNI/NIF: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Faxa: \_\_\_\_\_ E-maila: \_\_\_\_\_

Eskaera data / Fecha de pedido: \_\_\_\_\_ - \_\_\_\_\_ - \_\_\_\_\_

### 2021rako harpidetzaren prezioa / Precios de suscripción para el año 2021:

Espainia: 18 €

Atzerria / Extranjero: 20 €

### Zenbaki solteak / Números sueltos:

Kopurua Cantidad	Aldizkaria Revista	Urtea / Año	Bolumena Volumen	Zenbakia Número

## Zenbaki solteen prezioa 2022rako / Precios de los números para el 2022

Euskera 2021, 66: 20 €

### Ordainketa era / Modo de pago

- Transferentziaz / Transferencia
  - Errezibuz (kontu korrante zenbakia) / Recibo (número de cuenta corriente):
- 

### Salmenta eta banaketa / Venta y distribución

Euskaltzaindiko Argitalpen Zerbitzua  
Plaza Barria, 15  
48005 BILBO

Tel. 94 415 8155

Fax: 94415 8144

e-mail: jartza@euskaltzaindia.eus

\* \* \*

Eskatzaileak, datu pertsonalak eman behar dituzenez gero, eskatzaile horrek esanbidezko baimena ematen du datu horiek Euskaltzaindiaren fitxategi informatikoan sar daitezzen; fitxategiaren xede bakarra zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea da. Fitxategia Datuen Babeserako Agentzian inskribatuta dago, eta, berori kudeatzeko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzkoa) eta horren garapenerako gainerako arauak betetzen dira.

Eskatzaileak bere datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka jartzeko eskubideak ditu, eta badu eskubideon berri. Eskubide horiek idatziz egikaritu ahal izango ditu, helbide honetara mezu elektronikoa bidaliz: info@euskaltzaindia.eus. Edozein kasutan ere, eskatzaileak bermatzen du emandako datu pertsonalak egiazkoak direla.

\* \* \*

El solicitante autoriza expresamente a que los datos personales aportados en relación a su pedido, sean incorporados al fichero informático de Euskaltzaindia, destinado exclusivamente a dar un servicio personalizado al usuario. Dicho fichero resulta inscrito en la Agencia de Protección de Datos y es gestionado de acuerdo a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre sobre Protección de Datos de Carácter Personal y demás normativa de desarrollo.

El usuario queda informado de sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición respecto de sus datos personales, pudiendo ejercitar estos derechos por escrito mediante correo electrónico a la dirección info@euskaltzaindia.eus. En cualquier caso, el usuario garantiza que los datos personales facilitados son veraces.



